Zartzara, danak dau antzotutzia.
Al envejecer, todo tiene el volverse estéril.

ANTZOTZIA. *antzotutzia*.
Ez da arritzekua dittuan urtiegaz antzotzia.
No es de admirar el que haya venido a ser estéril con los años que tiene.

ANTZUA. Hembra estéril.
Ainbeste diru eder kostau eta antzua urten desku ferixan erosi genduan biayak.
Con habernos costado un hermoso dinero, nos ha resultado estéril la ternera que compramos en la feria.

ANTZUATEGI. Top. Caserío en las proximidades de Eibar.
Antzuategi baserriko alabiagaz ezkondu zan.

AÑA. Adv. de comparación en locuciones de cantidad. Tanto.
Arek ala lan eiñdakorik, ez da beste gure artian.
No hay entre nosotros otro que haya trabajado tanto como aquel.

AÑA JUAN. Ver. intran. Ir de nodriza.
Umia izan dabenetik, aña juanda aundiki baten etxera.
Habiendo parido. se ha ido de aña a una casa grande.

AÑAN. Adv. de comparación en locuciones de cualidad.
Arek añañ eiñ dogu geure zeregiña.
Tan bien como aquel hemos hecho nuestra labor.

AÑAKUA. Forma adjetiva de los comparativos de igualdad.
Zuen errixan añakua, bada gurian plazia.
Tanto como la de vuestro pueblo, ya es la plaza del nuestro.

AÑIA. Aña. Nodriza. Voz vascongada según la Academia de la Lengua Española.
Baserri artako etxeko-andria izan zan zure aña.
El ama de aquel caserío fue tu nodriza.

AÑUBIA. Adj. Umbrío.
Euzki-aldian ostia, añubia.
Añubietan edurrak asko irauntzen dau.
La parte contraria de la solana, la umbría.
En las umbrías suele durar mucho la nieve.

AO. Terminación de algunas designaciones toponímicas.
Andikao, Argiñao. Biriñao.

AO AUNDI. Adj. Bocazas. Vacila con *ago* y *abo*.
Ao aundi bat izan arren, ez jakozen auan kabitzen esaten zittuan guzurrak.
Con ser un bocazas. no le cabían en la boca las mentiras que decía.

AO BATETIK. Loc. adv. De una boca, unánimemente.
Mundu guztiak ziñuan ao batetik.
Todo el mundo lo decía de una boca.

AO BERO. Adj. Exagerado.
Erdixa baño geixago kendu biar jako arek esaten dabenari ao bero bat dalako.
Más de la mitad hay que rebajar a lo que dice, porque es un boca-caliente.

AO BETE AGIÑEKIN LAGA. Es como cuando se dice dejarle a uno con un palmo de narices.
iOr konpon! eta ao-bete agiñekin laga zittuan.

AO FIÑA. Adj. Delicado de boca, gourmet.
Ez erozer gauza atara ari maira, ao fiña da ta.
No le sirvas cualquier cosa a la mesa, porque es un boca-delicada.

AOKADIA. Bocado.
Aokadia iruntzi dau, agiñeri nekerik emon barik.
Ha engullido el bocado, sin dar fatiga a los dientes.

AOKADIA. Exageración, embuste.
iBota dau oiñ be aokadia. guzurti aundi orrek!
¡Ya ha soltado ahora también una exageración ese gran mentiroso!

AOKUA. Golpe en la boca.
iAoko bat emoixok: beiñ, ia ixiltzen dan!
¡Dale una puñada en la boca. a ver si calla!

AOPIAN BERBA EIÑ. Loc. verbal significando hablar con una prosodia que no elucida las palabras.
Aopian berba eiten dau eta ez jako ezer aittutzen.
Habla de boca adentro y no se le entiende nada.

iAOR! Interj. ¡He ahí! Lo mismo que *iOr!*
Aor zertan gelditu dan munduan jabe izan gura eban zoro gaizto ori!
¡He ahí a lo que ha quedado reducido ese loco malo que quería ser dueño del mundo!

iAOR BA! Interj. ¡Ahi está!
iAor ba, aure asmuak!
¡He ahí, pues, nuestros propósitos.

AO SAPAIXA. Paladar, cielo de la boca.
Estixak ao sapaixan daben leguntasuna baño gozuaua ondiokan.
Más dulce que la suavidad de la miel en el paladar.

AOTAN ARTU. Ver. tran. Tomar en boca.
Neu aotan artu ninduan bere burua arintzeko.
Me tomé en boca a mí para sacudirse él.

AO ZABALDU. Maduración de las nueces y las castañas, cuyas cápsulas abren la boca para extraer el fruto con facilidad.

Gastañak ao zabaldua dagoz eta batu biarra doau.

AO ZABALIK. Loc. adv. Se dice de las cosas descosidas o reventadas.
Ao zabalik daroyaz oñetakuak.
Lleva los zapatos reventados.

AO ZABALKA EGON. Ver. intrans. Bostezar.
Ai zabalka zagoz gaur goiz guztian.
Toda la mañana de hoy estás bostezando.

AO ZATARRA. Adj. De hablar obsceno.
Peralta bezin ao zatarra.
De hablar tan obsceno como Peralta.

APAINDU. Ver. trans. Adornar, arreglar, componer las cosas con gusto.
Ezkonduta eta bizi ziran etxia, apaindu eben ikusgarri.
Se casaron y la casa en que vivían, la adornaron admirablemente.

APAINDURIXIA. Adorno, ornamento, sinon. *pitxia.*
Este en sentido de preciosísimo.
Jakitturixia, gizonan apaindurixarik onena.
La sabiduría, el mejor ornamento del hombre.

APAINDUTXIA. Forma nominal del verbo *apaindu.*
Inguruak apaindutzia, gizonan legia.
El adornar su derredor, ley del hombre.

APAINTZIA. *apaindutzia.*
Andrakumiak, bere burua apintzia, berezkua dau.
A la mujer, el adornarse, le viene por naturaleza.

APAIZA. Cura. En Eibar domina su sinón. *abadia.*
Bai apaiza eta bai abadía, sustrai batetik datozela dirudi, Markos'en agertzen dan letz... dixit: Abba, Pater, omnia tibi possibilia sunt. Marc. 14, 36.

APALA. El siervo, el villano, el proletario.
Apala bizi zan Apalaitexan.
El villano vivía en Apalategui.

APALA. Adj. Hundido, rebajado, achatado, fig. humillado.
Sur apalak ez dau jansten arpegixa.
Serbitzalle zuzena eta apala.
La nariz achatada no viste la cara.
Sirviente fiel y humilde.

APALATEGI. Top. Caserío en Eibar, del vínculo de Jauregi, que parece ser su antónimo.
Apalategi'ko errothian jabia, Jauregikua.

APALDU. Ver. trans. Aplacar, rebajar, hundir. U. t. c. reflex. humillarse.
A zan tontor zorrotza, apaldu dabe eta lau-una politta geldittu da.
Oso apalduta etxeratu da.
Aquellos que era una colina, la han rebajado y ha quedado un bonito llano.
Ha vuelto a casa completamente humillado.

APALUNIA. Porción o parte rebajada de una cosa.
Burpill onek apalunia dau eta salto eraitzen detsa burdixari.
Esta rueda tiene una abolladura y le hace saltar al carro.

APALTZIA. Forma nominal del verbo *apaldu.*
Arro madarikatu arek, biar eban apur bat apaltzia.
Aquel maldito soberbio, ya necesitaba humillarse un poco.

APAÑA. Atavío, adorno, ornamento.
Etorri zan apainduta bere apaiñ guztiegaz.
Vino adornada de todos sus atavíos.

APAPA. En el lenguaje infantil, pasear.
Guazen apapara, egualdi ederra dago ta.
Vámonos de paseo, que hace hermoso tiempo.

APARTAU. Ver. trans. Préstamo con la significación de elegir, escoger. Su sinón. *autatu,* no es del común.
Apartau zittuan onenak beretzat.
Escogió para sí los mejores.

APARTE. Modo adv. Excepto. Naturalizado en esta forma, aunque caben sus equivalentes: *alde batera... y ...izan ezik.*
Bizixa aparte, dana galdu eben.
Bizixa izan ezik, ostiango dana galdu eben.
Alde batera bizixa, ostian dana galdu eben.
Aparte la vida, lo perdieron todo.

APATA. Abad.
Komentu artako apata, jakintsua ei zan.
Dicen que el abad de aquel convento era sabio.

APATX EIÑ. En lenguaje infantil, sentarse.
Apatx eizu amatxon onduan, mama era teko.
Siéntate junto a la madrecita, para beber agua.

APENAS. Modo adv. Generalizado como adv. de modo y tiempo, no obstante su sinón. *ostostan,* que es frecuente, pero con una significación más limitada.
Apenas etorri biar izan da.
Apenas naikua izan dau emon detsazun dirua.
Ostostan naikua izan dau emon detsazun dirua.
No ha debido venir, según parece.
Al parecer, no le ha bastado el dinero que le ha dado.

APONE BAT APONE BI. Términos rituales del juego infantil de las tabas.
Apone bat, apone bi, iru apone, lau...

APOPILLO ETXIA. Casa de huéspedes.
Alargundu zanian, apopillo etxia ipiñi eban.
Cuando enviudó, puso casa de huéspedes.

APOPILLUA. Huésped.
Zuk diñozun gizona, gure apopillua da.
El hombre que dices, es nuestro huésped.

APOSTOLUA. Apóstol.
Apostolua, da esatia, bialdutakua, judixo eta jentillengana, Jaungoikuan Erregetasuneko bizitzan barri ona zabaltzera.
 Apóstol, es decir, un enviado a judíos y gentiles para predicar la buena nueva del Reino de Dios.

APOSTUA. Lo mismo que *posturia*, forma que se ha naturalizado en Eibar.
Apostua eitteko asmuian etorri ziran Elgoibar'tarrak, baña Eibar'tarrak ez eben gura izan posturarik.
 Con propósito de apostar vinieron los de Elgóibar, pero los de Eibar no quisieron apuestas.

APOTAN. De *apua*, verraco. Coito.
Apotan izanda erbeste aldetik.

APRILLA. Mes de abril.
Aprillian beti Aste Santua.
 Semana Santa siempre en Abril.

APROPOS. Modo adv. Adrede, aposta. Vicioso seguramente pero muy generalizado.
Jaunak apropos jarritta geure onerako.
 Puesto adrede por el Señor para nuestro bien.

APROPOS. Modo adv. Se dice muchas veces en sentido de en broma, por comedia, de mentirijillas o como valor entendido. Su sinón: *txantxetan*.
Apropos esan zetsan, baña bestiak ez eukan txantxetarako gogorik eta benetan artu eban.
 Se lo dijo en broma, pero como el otro no tenía ganas de bromas, se lo tomó de veras.

APROPOZKUA. Adj. De ficción, de comedia. sinón. *txantxetakua*.
Aren asarriak, apropozkuak geixenetan.
 Sus enfados, las más veces fingidos.

APUA. Cerdo reservado para padrear. Verraco.
Apuak ez dau gauza okelatarako.
 El verraco no sirve para carne.

APUA. Adj. Putanero.
Apua esaten jako andrazaliari.

APUR BAT. Adv. de cantidad. Un poco.
Apur bat emotiakin, ez da mieztuko zure pillua.
 Con dar un poco, no se va a reducir tu montón.

APURKA. Adv. de modo. Poco a poco.
Apurka apurka, eldu nintzan Durangora.
 Poco a poco llegué a Durango.

APURRA. Migaja.
Txindurrizendako ogi apurra guretzat lauakua baño geixago.
 Para las hormigas, una migaja de pan, es más que una ogaza para nosotros.

APURRAK. Restos, migajas. *Apurres* eran los restos que liquidaba el barquillero. De ahí el diálogo del barquillero, en su *euzkal-gaizto*, con el parroquiano, aprendiz de *erdera*:
 —¿Qué quieres? ¿Zabales o apurres?
 —No, ostiangos.

APURTU. Ver. tran. Romper en pedazos.
Jo ta apurtu dabe milla zatittan.
 De un golpe lo rompieron en mil pedazos.

APURTUNIA. Rotura, quiebra de la cosa.
Lapiku onek apurtunia dauka ipurdi aldetik.

APURTUTZIA. Forma nominal del verbo *apurtu*.
Txikitxan, gauzak apurtutzia, benetako jolasa.
 De chicos, el romper las cosas, una verdadera diversión.

APURTSUA. Adj. Friable.
Ango arbela oso apurtsua.
 La cayuela de allá es muy friable.

APURTZALLIA. Adj. Destrozón.
Gure mutikua, oñetako apurtzalle aundixa.
 Nuestro muchacho, gran destrozón de calzado.

APURTZIA. *apurtutzia*.
Apurtzia etorri zan, dkar aitu eziñakin.
 El destrozarse vino con el no poder entenderse.

ARA. Adv. de carácter demostrativo, equivalente a: He aquí.
Ara nun datorren gure ardi galdua.
Ara zer diñuan jakintsu onek.
Ara nere azkenengo berbia.
 He aquí donde viene nuestra oveja perdida.
 He aquí lo que dice este sabio.
 He aquí mi última palabra.

ARA. Adv. de lugar. Allá.
Nora euzkixa, ara zapixak.
iJuan zakiraz ara!
 A donde el sol, allá la ropa.
 ¡Vete allá!

ARA BA. Conj. ilativa. Pues.
Ara ba, esango detsut zer izan zan gure artian.
 Pues te diré lo que hubo entre nosotros.

ARABA. Geogr. Alava.
Araba lauan, gari asko artzen da.
 En Alava la llana, se cosecha mucho trigo.

ARABAKIÑA. Remiendo.
Prakak, arabakiñegaz belaunetan, erabiltzen zittuan.
 Solía llevar los pantalones, con remiendos en las rodillas.

ARABAKIÑA BOTA. Ver. tran. Remendar.
Soñekua eukan arabakiñak bota biarran goi ta be.
 Tenía el vestido en necesidad de echar remiendos arriba y abajo.

iARA BAÑA! Expresión adv. enfática. ¡Pero...!
iAra baña, bigarrenian be ixa jausi ziñan!
 ¡Pero vamos! ¡Por segunda vez casi te caes!

ARABARRA. Forma sincopada de *arabatarra*.
Samaniego, ainbeste friztizen kontu politt bersuetan jarritako jakintsua, arabarra zan.

Samaniego, el sabio que puso en verso tantas bonitas historias de animales, era alavés.

ARABATARRA. Adj. alavés.
Gure ama zan arabatarra, bere aitta Hernio'kua izan arren.
Nuestra madre era alavesa, aunque su padre procedía de Hernio.

ARAGIXA. La carne, enemigo del alma.
Aragixak dittuanetik bere jabia benderatu gurariko indarrak, arimiak dau etsaitzat, mundua eta diabruagaz batera.
Desde el momento que la carne tiene fuerzas tendentes a subyugar a su señor, el alma le tiene por enemigo, a la vez que el mundo y el demonio.

ARAGIXA. Tejido vivo en sentido biológico.
Aragi bizixan daukat orpua, ospelekin.
Con los sabañones, tengo en carne viva el talón.

ARALAR. Top. Monte Aralar.
Gure aldietan, Akelar eta Aralar, mendi aren izena.

ARAMAITTAKUA. La hora del ángelus. Parece corrupción de *Abe-Marixa'kuan ordua*.
Aramaittakuia izan da eta oiñ umiak lotara.
Ha sonado el ángelus y ahora los niños a la cama.

ARAMAIXO. Aramayona.
Gure aman aldetiko amandria, Aramaixo'kua.
Nuestra abuela materna, de Aramayona.

ARANA. Fruto del espino. El mismo arbusto.
Aranakan eiñ esixa eta genduan esparraua.
Formado un seto con espinos, teníamos un sotillo.

ARANBELTZ. Sobrenombre en Eibar de una familia.
Aranbeltz anayak, bata kaxagiña eta bestia baskulagiña, bixak puntako biargiñak.

ARANDO. Top. Grupo de caseríos en Eibar.
Aranduak, iru baserri alkarren onduan.
Los Arando, tres caseríos inmediatos el uno al otro.

ARANE. Una pequeña quebrada en Eibar.
Arane'n bizi ziran ederto, ezkonbarri.

ARANTZATSUA. Adj. que abunda en zarzas (o en espinas).
Zuk diñozun aldia da arantzatsua.
Esa parte que tú dices, es un zarzal.

ARANTZIA. Planta espinosa de que se forman en muchos casos los setos vivos.
Arantziak lora zurixa emoten dau. Arantza zorrotzak dittu eta esixetan jartzen da.
Sasixa beste zugatz bat da; gerri luzekorria eta jarrailarixa dabena eta masustak emoten dittuana.
El espino da una flor blanca. Tiene espinas hirientes y se plantan en los setos.
La zarza es otra planta, con tallo largo y rastrero, y produce las moras.

ARANTZIA. Espina.

Arantzia sartu jata orpuan, eta pausorik eziñ emonda geldittu naiz.

Se me ha metido una espiña en el talón y he quedado sin poder dar un paso.

ARAÑEGUN. Adv. de tiempo. Anteayer.
Arañegun ezkondu ziran Peru eta Marixa.
Anteayer se casaron Pedro y María.

ARAÑEGUN ANTXTIXIK. Adv. de tiempo. Ante anteayer.
Arañegun antxtixik ill jakue senide bat, eta gaur arte ez dabe jakiñ ezer.
El día antes de anteayer se les murió un pariente, y no lo han sabido hasta hoy.

ARAÑOK. Modo adv. Hasta allí.
Amendik arañok da gure sailla.
Desde aquí hasta allá es nuestra heredad.

ARAÑOTXEK. Modo adv. Hasta allí mismo.
Arañotxek dira gure lurak.
Hasta allí son nuestras tierras.

ARASUA. El servicio, el trabajo, la molestia de hacer una cosa.
Materixalak onen beste, eta gañeko arasua iru errial.
Los materiales tanto, y la molestia o el trabajo tres reales.

ARASUA ARTU. Ver. tran. Tomarse el trabajo o la molestia.
Ez dau araso makala artu etxeko andriak, etxe kalte ari atia zabaltziakin.
Artu dozun arasuan orde z dakarzuraz ollasko bi.
No es broma la carga que se ha tomado el ama de casa con abrir la puerta a aquel manirroto.
En pago de la molestia que se ha tomado, le traigo dos pollos.

ARATIAN. Modo adv. que significa nadar cara al cielo.
Aratian eiten dau, obeto ostian baño.
Nada mejor de espaldas, que de la común manera.

ARATOSTE EGUNA. Día de Carnaval.
Aratoste eguna danetik, koko jantzi dira gure gaztiak.
Ya que es día de Carnaval, nuestros jóvenes se han disfrazado.

ARATOSTE IBILLI. Ver. intran. Andar de disfraz.
Aura, urte guztian dabill eratoste.
Aquel, todo el año anda disfrazado.

ARATOSTIAK. Los tres días de Carnes tolendas.
Aratostiak izaten dira, jendia zoratzeko.
Los Carnavales son para enloquecer a la gente.

ARAURA. Modo adv. Segun. sinón. *erara*. En Eibar nos valemos comúnmente de esta voz.
Jesukristo gure Jaunan Ebangelixo Santua, San Juanen araura.

El santo Evangelio de Nuestro Señor Jesucristo, según San Juan.

ARAXE. Modo adv. denotando movimiento y dirección.

Zuzen zuzen, araxe doya.
Derecho derecho va allá.

ARAZIA. Anaquel, balda.
Amentxe arazia jarri biarra daukat, erosi dituran liburu barrixentzat.
Tengo necesidad de poner aquí un anaquel, para los libros nuevos que he comprado.

ARBASUA. Pedrera.
Emendiko aldetik, dana arbasua da.
De este lado del monte, todo es una pedrera.

ARBASUAK. Antepasados. En el léxico corriente de Eibar: *aurretikuak.*
Arbasuak dira gure aurretikuak.
Los antepasados son los que nos precedieron.

ARBELA. El producto de la meteorización de nuestras pizarras. Cayuela.
Arri bizixan orde, arbela agiri da inguru artan.
En vez de la roca viva, aparece cayuela en aquel lugar.

ARBIDIA. Calzada, camino empedrado.
Bide txingor onek, arbide batera joten dau.
Este senderito conduce a una calzada.

ARBIXA. Nabo forrajero.
Arbixan loriak, gozuetarikua egositta jateko.
La flor del nabo, buenísimo para gustarlo cocido.

ARBIXA. Hueva del pescado.
Bakillauan arbixa, artariko letz saltzen da.
La hueva del bakalao se vende como tal.

ARBITZA. Cuarzo.
Arbitzak, ostiango arri guztiak erreixatzen dittu.
El cuarzo raya las demás piedras comunes.

ARBOLA-ADARRAK. Ramas del árbol, ramas. Sinón. *madalak.*
Arbola aren adarrak ziran beste askon gerrixa baño senduauak.
Las ramas de aquel árbol, eran más gruesas que el tronco de otros muchos.

ARBOLA-BURUA. Copa del árbol.
Arbola-burua orrituta dagonian, txorixendako eskuta-leku ederra.
Cuando la copa de los árboles se llena de fronda, ofrece hermoso escondrijo a los pájaros.

ARBOLADIXIA. Arboleda.
Nik nekixan lekutxu baten zan arboladixia politta, nun ordu asko emon izan nittuan sasoi baten.
En un lugar que yo me sabía, había una linda arboleda, donde me pasaba largas horas en otros tiempos.

ARBOLA - GERRIXA. Tronco del árbol.

Pagu arek eukan gerrixa, lau gizonez artu eziñdaku.
El tronco de aquella haya no lo podían abrazar cuatro hombres.

ARBOLA-IPURDIXA. La base y los raigones que quedan al talar los bosques.
Amaika arbola-ipurdi ba'zan gure izandako pagadixetan, izugarrizko friztixak dirudi ebela lurrian ezkutau gurarik.
No pocos raigones de la tala de nuestros hayedos que fueron parecían monstruos queriendo esconderse bajo tierra.

ARBOLA-TANTAIXA. Arbol bravo.
Arbola-tantaixak lagatzen ziran ososorik egurretarakuen artian, biar nausixetarako.
Se respetaban unos árboles bravos de entre los mochados para leña con destino a obras mayores.

ARBOLATXUA. Arbusto.
Goroztixa, arbolatxo bat agertzen da gure aldietan azten laga ez da.
El acebo aparece como un arbusto en nuestros términos, no dejándole crecer.

ARBOLATSUA. Adj. Numeroso, poblado de árboles.
Orduan, Sarroi, Umbe, Ibur eta Aixola ziran bardiñ arbolatsuak.

ARBURUA. Peñasco, acantilado. Sinónimo *arkatxa.*
Eguarbitza'ko arburuan jarritta, orduak emoten nituan Anboto'ra begira.
Itxas-ertzeko arburuetatik, arrantzale eitten eban amuagaz.
Sentado en el cabezo de Eguarbitza, pasaba horas mirando al Amboto.
De los acantilados de la costa, hacía de pescador de caña.

ARDATZA. Huso; eje de la carreta; macho de roscar.
Esku batian gorua eta bestian ardatza, makiña bat matasa eiñdako amandria.
Burdi-ardatza ostu auzuan eta ba'zoyan igesik.
Ardatza ausi jata geixen biar nebanian.
En una mano el copo y la rueca en la otra, no pocas madejas que hiló la abuela.
Huía habiendo robado en la vecindad el eje de la carreta.
Se me ha quebrado el macho de roscar cuando más me hacía falta.

ARDAUA. Vino.
Ardauak, esaten eban batek, onak eta obiak dirala bakarrik.
De los vinos, decía uno, que sólo había buenos y mejores.

ARDAU-BITSADUNA. Vino espumoso, champaña.
Itxotzeko beste, ardau-bitsaduna eran genduan egun artan.
En aquel día bebimos vino espumoso, bastante para reventar.

ARDAU-GOZUA. Moscatel.
Malaga'ko ardau-gozua, ildakuak biztutzeko pozgarrixa daben erarixa.
 El moscatel de Málaga es una bebida que tiene alegría como para resucitar los muertos.

ARDAU-JANA. Expresión equívoca que se dice cuando se toma pretexto de alguna cosa nimia para beber y embriagarse.
Atzo erbixa ekarri dau Polak, eta gaur ardau-jana dabe Eperra'nian lagun guztiak.
 Ayer, Pola trajo una liebre, y hoy todos sus amigos tienen una comilona de vino en casa de Eperra.

ARDAU-NAFARRA. Vino tinto.
Eibar'en geixen eraten dana, ardau nafarra, Rioja aldietakua.
 Lo que más se toma en Eibar es el vino tinto de tierras de Rioja.

ARDAU-ZURIXA. Vino blanco.
Amarretakua, ardau-zurixakin.

ARDIBIDIA. Sendero ovino abierto por las ovejas en el monte.
Ardixak, ibillixaz basuan beti bide-txingor batetik, zituen eregi ardididiak.
 Las ovejas pisando siempre en el mismo trayecto en el monte, abrieron los senderos ovinos.

ARDI-ERRENA. Se dice del último, del que se demora, del que queda rezagado.
Amen dator, alakoren baten gure ardi-errena.
 Aquí viene, por fin, nuestra oveja perdida, nuestra oveja tullida.

ARDI-ESNIA. Leche de oveja, con que se hace la cuajada.
Munikola'tik izaten genduan ardi-esnia, gatzatua eitteko.
 De Municola solíamos tener la leche de oveja para hacer la cuajada.

ARDI-GALDUA. Adj. Se dice del disidente, del vagabundo, del que se retarda.
Zuen ardi-galdua, tabernan ikusi dot.
 He visto en la taberna a vuestra oveja perdida.

ARDI-KAKA. Señal que deja la pulga en los lienzos de la cama y la ropa interior.
Barruko erropak ardi-kakaz beteta lelengo egunetik.
 Las prendas interiores llenas desde el primer día de la señal de las pulgas.

ARDI-KOROTZA. Estiércol de la oveja.
Lorendako, ardi-korotza zimaurrek onena.
 El mejor abono para las flores, el estiércol de oveja.

ARDI-NARRUA. Piel de oveja con su vellón.
Ardi-narrua erosi biarko dot, umian seaskarako.
 Tendré que comprar una piel de oveja para la cuna del niño.

ARDIXA. Oveja.
Baserri askotan galdu da ardixak astia, basuak eta larrak gitxittu diralako.
 En muchos caseríos se ha perdido el criar ovejas, porque han disminuído los montes y los pastos.

ARDIXA. Pulga. Suenan lo mismo que oveja y se distingue por el contexto. Su sinón. *arkakotxua* se conoce pero apenas se usa.
Txikitxan, danok ardixak janda bizi giñan.
 Cuando pequeños, todos vivíamos comidos por las pulgas.

ARDIXAK-JANDAKUA. Señal que persiste en la piel, de la succión de la pulga.
Azal zurixan, ardixak-jandakua, bizixago agertzen zan.
 En la piel blanca la picada de las pulgas aparecía más fuertemente.

ARDI-TXABOLIA. Aprisco, borda.
Tutuluko txabolía, aspaldixetan utsik zan.
 La borda de Tutulukua hacía tiempo que estaba sin uso.

ARDIXETARA EITTEN DABENA. Loc. adjetiva. Se dice de los perros que adquieren el vicio de acometer a las ovejas.
Ardixetara eitten ebana aurkitu zan a txakurra eta ill eiñ biar izan eben.
 Aquel perro resultó de los que acometen a las ovejas y le tuvieron que matar.

ARDIZAIÑA Pastor. Por síncope *arzaíña*.
Iñoiz neuk be eiñ dot ardizaiñ.
 Alguna vez yo también he hecho de pastor.

ARDURA-'BAKUA. Adj. Despreocupado, irresponsable.
Senarrak, ardura bakua urten zetsan eta bizimodu narrasa daroya.
 El marido le ha resultado un descuidado y lleva una vida astrosa.

ARDURA IZAN. Ver. tran. Importar, preocupar, interesar.
Ardura desta zu ondo bizi izatiak.
 Me importa el que tú vivas bien.

ARDURATSUA. Adj. Responsable, consciente, cuidadoso.
Bere gauzen arduratsua da, gartzia izan arren.
 Aunque joven, es muy cuidadoso de sus cosas.

ARDURATU. Ver. reflex. Inquietarse, preocuparse.
Illuna dator eta arduratzen ekinda nago.
 Viene la noche y empiezo a preocuparme.

ARDURIA. Cura, cuidado.
iJolasak dira zure arduria!
 Las diversiones son tu preocupación.
 Et tú de mejorarte non oviste ardura. (Berceo. Vida de Sto. Domingo, 430.)

ARDURIA. Importancia.
Al jan edo jan b'eziaña, ardura aundiko gauzia orren gora-beran dagolako osasuna eta baitta ona izatia be.
Poder comer o ni eso, cosa de mucha importancia, pues de ello depende la salud y hasta el ser bueno.

ARDURIA. Cuidado, responsabilidad, interés por una cosa.
Gauzak zenbat goragokuak, ardura geixago dakarre.
Cuanto más altas las cosas, traen más cuidado.

ARDURIA ARTU. Ver. tran. Tomar interés, responsabilizarse.
Gazte orren arduria zeuk artizu, zarraua zaranetik.
Toma tú el cuidado de ese joven, puesto que eres de más edad.

ARE ARRIXA. Piedra arenisca.
Oiz mendixa eta bere aldiak, are-arrixa.
El monte Oiz y sus alrededores, son piedra arenisca.

AREDUNA. El o la que en Eibar proveía de arena para el fregado y las fundiciones.
Aritxixo'ko areduna izan ete da gaur Eibar'en?
La vendedora de arena de Areitio, ¿habrá estado hoy en Eibar?

AREK. Con acento prosódico en la e; tercera persona agente de los verbos transitivo. Aquel.
Arek esan dau azkenengo berbia.
Eiñ dau biar ez ebana arek.
Ya ha dicho aquel la última palabra.
Ya ha hecho aquel lo que no debía.

AREK. Con acento prosódico en la a; pron. pers. demostrativo; tercera persona del plural. Aquellos.
Arek dira zuen mendixetan gordeta.
Aquellos son los escondidos en vuestros montes.

ARREZKERO. Modo adv. significando: después de aquel entonces.
Beiñ baten amaittu ziran gure estuasunak; arrezkero beste nasaittasun baten bizi gara.
Alguna vez terminaron nuestros apuros; desde aquel entonces vivimos en otra tranquilidad.

AREN BATEN. Modo adv. Aproximadamente, con poca diferencia.
Bata katu eta bestia txakur, bixak aren baten dabiz.

ARETARA. Modo adv. De aquella manera. Más común sincopada: *artara*.
Aretara ez eban gura parte izatia autzuan.
De tal manera no quiso ser parte en el asunto.

ARETSUA. Adj. Arenoso.
Ango ariatzia, aretsua; are garbi fiñ fiña, maria beran urriñerañok.
La playa de allí, arenosa; de una arena finísima hasta donde baja la marea.

ARETXEK. Con acento prosódico en la primera e: pronombre pers. determinativo; tercera del singular. Aquel (determinadamente aquel).
Aretxek eta ez bestek, eiñ eban oker ori.
Aquel y no otro hizo ese daño.

ARETXEK. Con acento prosódico en la a: pron. personal determinativo; tercera del plural. Aquellos.
Aretxek izan ziran a ondamedixa ekarri ebenak.
Aquellos fueron los que trajeron aquella ruina.

ARGALA. Adj. Delgado, flaco, esmirriado.
Aspaldixan ikusi ez da, argala eritxi detsat gure gizonari.
No habiéndole visto hace tiempo, me ha parecido flaco tu marido.

ARGALDU. Ver. intran. Adelgazar.
Ainbeste burukomiñegaz, argaldu eiñ da.
Con tantos quebraderos de cabeza, ha enflaquecido.

ARGALDUTZIA. Forma nominal del verbo *argaldu*.
Gaurko modia argaldutzia.
La moda de hoy, el adelgazar.

ARGALTASUNA. Delgadez, flaqueza.
Gizon aren argaltasuna zan, espiritua garretan ebalako, eta gar artan erretzen zittualako bere gantz guztiak.
La delgadez de aquel hombre, era porque traía el espíritu en llamas, y en esa llama quemaba su sustancia.

ARGALTZIA. *argaldutzia*.
Larregi argaltzia ez da ona.
No es bueno adelgazar demasiado.

ARGALUNIA. Punto flaco.
Danok daukagu geure argalunia nunbaiten eta zuk aguan.
Todos tenemos nuestro punto flaco en alguna parte y tú en la boca.

iARGI! Interj. en forma imperativa como cuando se dice: ¡atención! ¡ilisto!
iArgi, or dozu ba azkena!
¡Ojo, pues te va la última!

ARGI EGON. Ver. intran. Estar vigilante, avisado, atento a una cosa.
Argi nago zerek urten biar ete daben, naste orretatik.
Estoy atento a lo que puede salir de ese embrollo.

ARGI EIÑ. Ver. tran. Alumbrar.
A zan benetako argitasuna, mundu onetara agertzen dan gizon guztiari, argi eiten detsana.
Juan, 1, 9.
Aquel era la verdadera luz, que alumbraba a todo hombre que viene a este mundo.

ARGI ERAIÑ. Ver. tran. Armería, abrillantar las piezas después del baño galvanoplástico.
Eruaizuz Sosua'nera pieza onek, argi eraitzera.

ARGI IBILLI. Ver. intran. Andar con tiento, con cuidado, con la atención puesta en una cosa.
Argi ibilli, Patxi, drogoso orregaz dozu ba tratua.
Anda con cuidado, Francisco, pues tienes que habértelas con ese trapisonda.

ARGI-MUTILLA. Armería. Brazo de hierro en persiana, que sostenía un candelero para el trabajo de noche.
Argi-mutilla jarrirak tornu aurrian, gaur berandura arte biarra eñ biarko juat eta.
Ponme el brazo de luz ante el tornillo, pues hoy tendré que trabajar hasta tarde.

ARGIRATU. Ver. trans. Publicar, sacar a luz.
Gertauta dittuan biarretatik, ez dau ezer ondiok argiratu.
De los trabajos que tiene preparados, nada ha sacado adelante todavía (a luz).

ARGIRATUTZIA. Forma nominal del verbo *argiratu*.
Alakoren baten izango da lan onek argiratutzia.
Algún día será el sacar a luz estos trabajos.

ARGISAIXA. Cera.
Eskolakuak giñanian, argisaixakin eitten genduzen milla irudi.
Cuando éramos de la escuela, hacíamos mil figuras de cera.

ARGISAIXA. La cera que se enciende por los muertos en la sepultura simbólica de la iglesia durante el año que sigue al deceso.
Gure aitta ill zanian, urte guztirako beste argisai ekarri zeskuen auzokuak.
Cuando murió nuestro padre, los vecinos nos trajeron cera para todo el año.

ARGITTAKUA. *argitarakua*.
Argittakua batu dabe.
Ya han hecho la petitoria para la luz.

ARGITTARAKUA. Limosna para el culto, que se recoge durante la misa.
Meza erdixan, argitarakua batzen zan.
A mitad de la misa se hacía la petitoria.

ARGITTAKUA BATU. Pasar la colecta entre los fieles.
Argitakua batzera urten dabe.
Han salido a hacer la petitoria.

ARGITTAKUA BOTA. Contribuir al culto.
Ez zan ermitarik nun argitakua botako ez ebanik.
No había ermita donde no diera para el culto.

ARGITTASUNA. Claridad.
¿Nundik datorkigu argitasun au?
¿De dónde nos viene esta claridad?

ARGITTASUNA. Fig. Inteligencia, entendimiento, razón.
Jaungoikuak emon zetsan argitasuna gizonari bere billa izateko.

Dios dio al hombre la inteligencia para que le buscara.

ARGITTU. Ver. intran. Aparecer, aclararse. U. t. c. tran.
Argittu da guk espero genduana.
Urte askora argittu zan eriotza aren autua.
Eguardi aldera argittu dau egualdixa.
Juezak argittu dau zeñ dan pekarixia.
Ya ha aparecido el que esperábamos.
Muchos años después se aclaró el crimen.
Hacia mediodía ha despejado el tiempo.
El juez ha aclarado quién es el culpable.

ARGITZIA. Forma nominal del verbo *argittu*.
Mesias argitzian zaiñ ziranak...
Neguan belu izaten da argitzia.
Argitzia gura eban zer izan zan euren artian.
Quería aclarar lo que había pasado entre ellos.

ARGIUNIA. Momento de claridad.
Egun guztian ez dau eñ argiuna bat; atertu bako eurixak izan dittugu.
En todo el día no ha habido un momento de claridad; ha llovido sin cesar.

ARGIXA. Luz.
Munduan lelengo egunian Jaungoikuak eñ eban argixa.
En el primer día del mundo, Dios creó la luz.

ARGIXA. Adj. Claro; con referencia a personas: inteligente.
Gaurko eguna argixa izan da.
Mutill argixa urten desku semiak.
El día de hoy ha sido claro.
El hijo nos ha salido un muchacho inteligente.

ARGIXAK. El alumbrado.
Bart argixak motelak egon dira.
Anoche las luces (el alumbrado) han estado bajas.

ARI. Terminación equivalente al *-ero* erdérico.
Zapatari, dendari, pelotari, t. a.

ARI. Desinencia del dativo de los hombres en singular.
Eskerrak emotia biar dogu Jaungoikuari, arnasia, argixa, osasuna, ogixa eta dogun itxaropenia gaittik.

ARI. Ocupación, asunto.
Ari onetan daroyat egun guztia.
En esta ocupación llevo todo el día.

ARIA. Arena.
Itxas-onduetako aria lezkotxe ugariza izango zala bere ondoria.
Numerosa como la arena de los mares que sería su descendencia.

ARIAPEKUA. Afloramiento o fuente subalvea, que dificultaba o impedía agotar las pozas, a los que pescaban por ese método.
Agortzen ekinda laga eñ biar izan genduan, aria peko aundixa agertu jakulako.

ARIATZIA. Arenal.
Deva'ko ariatzan, itxasora begira, etxe txiki bat izer ames ederra zartzarako!
Una casita en la playa de Deva, mirando al mar, ¡qué sueño para la vejez!

ARI IZAN. Ver. tran. Ocuparse en.
Urtietan ari izanak baserrixan, ez detsa asko balio izan.
El haber trabajado en años en el caserío, no le valió gran cosa.

ARI-JOKUA. Pelea de carneros, en que median apuestas.
Narru bat, Arrate ballian imakiñatxo bat arjoku irabazi eta galdutako baserritarra!
Un tal Narru, del vecindario de Arrate. ¡Cuántas peleas de carneros no ganara y perdiera este aldeano!

ARIK ETA. Modo adv. En tanto.
Arik eta illa arte, eran deigun ardura barik.
En tanto vivimos (no muramos), bebamos sin cuidado.

ARIKITA. Top. Caserío en Eibar de los Unceta.
Arikitta, Arrate ballian.

ARIMAK. Las almas del Purgatorio.
Gaur arimak atarutzen dira.
Arimentzako limosnia.
Hoy se sacan ánimas.
Limosna para las ánimas.

ARIMIA. Alma. Variante de: *animia*.
Korputza bustiñakin eiñdakua; arimia Jaungoikuan barrutiko arnasiagaz biztutakua.
El cuerpo fabricado del barro; el alma vivificada con un soplo de Dios.

ARIMIAK URTEEN. Salir el alma. Cuando la sangre acudía a la herida, teníamos un momento posible en que el alma se saliera por allí.
Lotu deigun atzaparrori, arimiak ez deizun urten bertatik eiñ dozan zaurixakin.
Atemos ese dedo, no sea que el alma te salga por ahí con la herida que te has hecho.

ARINDU. Ver. reflex. Aliviarse. U. t. c. tran.
Arindu naiz neukan ardura aundi batetik.
Lapurrak urten bidera eta arindu eben zeroyanen diru guztietatik.
Ya me he aliviado de un grande cuidado que tenía. Los ladrones le salieron al encuentro y le aligeraron de todo el dinero que llevaba.

ARINDUTZIA. Forma nominal del verbo *arindu*.
Eta arindutzia biar izan eben ontzixa, garaua itxasora botata.
Erremedixo a emon eta gaixua arindutzia, bat izan zan.
Y hubieron menester de aligerar el barco, arrojando el grano al mar.
Darle aquel remedio y aliviarse el enfermo, todo fue uno.

ARINKA. Mado adv. apresuradamente.
Arinka eldu zan, belutu baño len.
Llegó apresuradamente antes de que fuera tarde.

ARINTASUNA. Liviandad, ligereza, alivio.
Gauzan arintasunak jazotzen dau globua, aizia astunagua danetik.
Goizetan sentitzen naiz arintasun aundixagaz.
iAu da arintasuna, gaur izan dittugun barrixekin!
La liviandad del gas, es lo que hace subir el globo, puesto que el aire es más pesado.
A las mañanas me siento con una gran ligereza.
¡Qué alivio el de hoy, con las noticias que hemos tenido!

ARINTASUNA. Física. Velocidad.
Argixan arintasuna, izan laikian aundiña.
La velocidad de la luz, es la máxima que pueda darse.

ARINTZIA. *arindutzia*.
Eta itxaso trarrak artuta, urrengo egunian eiñ eben ontzixa arintzia. Act. 27, 18.
Y habiéndoles cobido una tormenta, al día siguiente procedieron a aliviar la nave.

ARIÑ. Adv. de modo. Ligeramente.
Ibilli zaittez ariñ, ordua etorri biar jatzu eta.
Ameriketan izan arren, ariñ agertu da.
Anda ligero, que la hora se va a echar encima.
Con haber estado en las Américas, ha vuelto liviano.

ARIÑA. Adj. Liviano, ligero. Fig. Ligero de cascos.
Labari arek, ogixa eiten eban, arrua baña ariña.
Ez asko fixau aregaz, ariña danetik.
Aquel panadero hacía el pan voluminoso pero liviano.
No te fíes mucho con aquel, porque es ligero de cascos.

ARIÑ ARIÑ. Modo adv. De prisa, ligeramente.
Ariñ ariñ soluan bera goyazela, jausi nintzan.
Cuando bajábamos de prisa, monte abajo, me caí.

ARIÑ ASKO. Modo adv. Bien pronto.
Entzun ebanian ori, ariñ asko etorri zan.
Cuando oyó eso, bien pronto vino.

ARI ARIRA. Modo adv. Al filo, en un hilo.
Ari arira egon, ill edo bizi.
Estar en un hilo, el morir o el salvarse.

ARIRA. Modo adv. Al filo, exactamente.
Arira pixau biarra dauka urriak.
El oro necesita ser pesado al filo.

ARI-TOPEKIA. Pelea de carneros.
Biotz gogorra biar da ari-topekia jolastzat artzeko.
Hace falta tener las entrañas duras para tomar por diversión la pelea de carneros.

ARITXA. Roble. Variante de *aritz*.
Aritxa, egurretarako zugatz onenetako bat.
El roble, para madera, es una de las mejores especies.

ARITXALARIXA. Hijo pródigo. Se dice del que abandona la casa paterna.

Seme bata, aritxalarixa urten zetsan.
Uno de los hijos le ha resultado pródigo.

ARITXALIA. Bellota. Sinón. *ezkurra*.
Txarrixak gizontzeko, ez da aritxalia lakorik.
Para engordar los cerdos, no hay nada como la bellota.

ARITXAN EIÑ. Irse de la casa paterna.
¿Ba'aldakizu Patxiri semiak aritxan eiñ detsanik?
¿Sabes que a Francisco se le ha ido de casa el hijo?

ARITXAN IBILLI. Ver. intran. Andar de hijo pródigo.
Aritxan ebillela, dana ondatuta gero, txarrixeri emoten jakuezen aritxalen gose zan, aittan etxian morroiak ogiz betetzen ziran artian...
Y andando lejos de su casa, arruinado del todo, envidiaba las bellotas que se dan a los cerdos, mientras los criados en casa de su padre se hartaban de pan...

ARITXAN JUAN. Ver. intran. Irse de la casa paterna.
Lukas'en Ebangelixuan, 15. 12, 32, *irakortenda, arixan juan zan semian parabolía.*
En el Evangelio de Lucas se lee la parábola del hijo pródigo.

ARITXARRUA. Especie ornitológica de nuestros montes.
Aritxarrua, gure auzoko gizon baten gatxizena.

ARITZA. Roble. Alterna con *aritxa*.
Aritza izan laikian egurrik onena gauza askotarako.
El roble, la mejor madera para muchas cosas.

ARITZMENDIXA. Monte robledal. Sinón. *ariztixa*.
Nere akorduan ondiokan, Urko euzkialdia zan aritzmendixa.
Todavía en mi tiempo, la solana del Urko era un robledal.

ARIXA. Síncopa de *adarixa*. Carnero. Aries, signo del Zodiaco.
Arixa jokorako gertatzia ez da gauza merkia. Euzkixak zeruan eiten daben bidian, amabi zatixetako bati esaten jako Arixa (Aries) eta zati artan Martixan euzkixa.
Preparar el carnero para la pelea, no es cosa barata.
En el camino que el sol recorre en el cielo, una de sus doce secciones se llama Aries, y el sol está en ese signo el mes de marzo.

ARIXA. Hilo.
Arizko erroa zurixa ugari aren arriuan. Leka onek arixak dittu eta eziñ laike jan.
En el equipo de novia de aquella, abundaba la ropa de hilo.
Estas vainas tienen hilo y no se pueden comer.

ARIXA ARTU. Armería. Se dice de agarrar la rosca.

Ez dau gura arixa artu torlojo onek.
Este tornillo no quiere entrar en rosca.

ARIXAK. Armería. El roscado.
Torlojuak biurrixan daukan kanalari edo kanaleri, esaten jako arixak.
Al canal o canales que el tornillo tiene en espiral, se llama rosca.

ARIXAK EMON. Ver. tran. Roscar.
Arixak emon lenengo torniuan ardatzari eta gero onegaz terrajiri, ar-emiak eukitzeko.
Primero producir en el torno la rosca del macho y luego con éste roscar la terraja, para tener macho y hembra.

ARIXAK IXO. Armería. Se dice estropearse el roscado.
Torloju oni arixak ixo jakoz larregi estutziakin.
A este tornillo se le ha borrado la rosca, con apretar demasiado.

ARIXETAN LOTU. Atar a la rosca.
Arixetan lotutakua, gogorraua ultziegaz josittakua baño.
Lo sujeto a rosca, más fuerte que lo clavado.

ARIZAGA. Top. Nombre de caserío en inmediaciones de Eibar.
Euzki baserrikuak, Mandiola Ballian, Arizaga eben abizena.

ARIZTIXA. Robledo.
Ariztirik onenak galdu ziran, tren-bidiak zabaldu ziranian.
Los mejores robledales se perdieron cuando la doble vía de los ferrocarriles.

ARK. Apócope de *arek*, aquel, como agente de la acción de un verbo transitivo.
Ark aittu baleu, ez zan geldirik egongo.
Si aquel lo hubiera oído, no habría estado quieto.

ARKATZA. Acantilado, escarpa.
Eibar'en Arkatxa esan jakon Isasiko alde batari, etxiak eiñ baño len arkatxa zalako ibai aldera; Arkatxpia zan Kakalarduaneko oia, gaur Alfa, eta arkatxeukuak, Isasi'xan bizi ziranak.

ARKAKOTZUA. Pulga. Sinón. *ardixa*.
...Iñoiz ikusi al dozu Dantzetan arkakotzu, imutxa gitarra joten, zorriza barrez itxotzen...

ARKUPIAK. Soportales.
Arkupian jartzen ziran Konsejuko erabagixak.
En los soportales (del Ayuntamiento) se colocaban los anuncios de las resoluciones del Consejo.

ARKUMIA. Cordero. Sinón. *bildotsa*.
Arkumiak mendixan amari deika...
Los corderos en el monte llamando a su madre.

ARLANDUA. Síncopa de *arriandua*. Sillar
Arrianduegaz eiñdako etxia.

Casa construída con sillares.

ARLANTZIA. Lugar donde se labra la piedra y la operación misma.

Marrukokuan eukan arlantzia Deva'rrak. Arlantzia albidade aundixetara gertatzen dan ofiziua.

ARLOTEKERIXIA. Ordinariez, roñosería. *Arlotekerixia izan da gure aldetik, gaurlako egunian bazkari obia ez opa izatia biargiñeri. Aratostietan, arlotekerixia nausi.*

Ha sido una roñosería de nuestra parte, en un día como hoy no haber ofrecido una comida mejor a los obreros.

Por Carnavales, la ordinariez es lo que priva.

ARLOTETASUNA. Dejadez, abandono, ordinariez. *Arlotetasunari gustua artuta, gizon izatiari laga zetsan.*

Habiendo tomado gusto al desaseo, se abandonó a ser un ex-hombre.

ARLOTETU. Ver. reflex. Desmerecerse. degenerar.

Oiñ urrengo ikusi nebanetik ona, asko arlotetu da. Desde que le vi la última vez, ha degenerado mucho.

ARLOTETUTZIA. Forma nominal del verbo *arlotetu*.

Dago, ez detsala ardura arlotetutziak. Está que no le importa el volverse un ex-hombre.

ARLOTE USAIÑA. Dejadez, grosería, plebeyería.

Arlote usaiña erabiltzia, pentsatzen dau dala zerbait izatia. Hacer gala de dejadez, piensa que es ser algo.

ARLOTIA. Un mal vestido, un desaliñado, un vestido con prendas de caridad y moralmente corresponde a eso.

Arlote eskeko bat dirutixala agertu da.

Ha aparecido como un mendigo deshecho.

ARLOTIA. Adj. Deslucido, descuidado.

Erromerixa arlotia izanda gaurkua Azitaiñ'en. Gizon arlotia zagoz gaur.

Ha sido deslucida la romería de hoy en Acitain. Hoy estás descuidado.

ARLOZIA. Laja, como las que se dan mucho en las canteras de Eibar.

Artaitxa'ri aindu detsaraz arlozak, txarrikortia eitteko.

He encargado a Artaitxa las lajas para hacer una cochiquera.

ARMAGINTZIA. Armería. Más corrientemente se dice Armerixia, seguramente por la presencia erderizante de los representantes del Rey. *Armagintzia Eibar'en antxiñako lan-bidia.* La armería en Eibar es ocupación antigua.

ARMAGIÑA. Armero. Más común, *armerua*. *Naixago armagiñ izatia, baserriko baño.*

Prefería ser armero a continuar en el caserío.

ARMAILLAK. Escalinata, tribuna de piedra. *Probalekuko armalletatik ikusi nittuan, zuk diñozuzen zezenak.*

De la escalinata del probadero presencié la corrida que tú dices.

ARMALLIA. Peldaño, asiento de piedra. *Ataiko armallan jarri eta esan deiguzen ipoñak, giro ederra dago ta.*

¿Zenbat armalla pelotaleku zarrera? Sentémonos en el asiento de piedra del portal y hablemos, que está agradable.

¿Cuántos escalones de piedra al frontón viejo?

ARMAIXUA. Armario.

Berregun bat urteko gastaña egurrezko armaixua ba'genduan Txirixo-kalian.

Un armario, de madera de castaño, de unos doscientos años, teníamos en Chirio-cale.

ARMAITXA. Sobrenombre en Eibar, seguramente por el caserío de su procedencia. *Armaixu, gure aittan denborako montadoria.*

ARMERIXIA. Conjunto de las artesanías de la zona armera.

Asko ziran baseritik etortzen ziranak armerixara. Eran muchos los que venían del caserío a la armería.

ARMIA. Arma. Aunque euskerizada seguramente la voz latina *arma*, *armorum*, no es aventurado observar en ella la raíz *ar* de *arria*.

¿Zenbat milla arma eiñ ete dira Eibar'en, armagintzia sortu zanetik?

¿Cuántos miles de armas se habrán fabricado en Eibar desde que nació la armería?

ARMOZUA. Almuerzo, el desayuno. Su sinón. *gosarixa*, voz recesiva en Eibar, a causa de la generalización viciosa dd erderismo.

Zortziretan izaten zan Eibar'en armozua, eta armozutan, kafia eta esnia.

A las ocho solía ser el desayuno en Eibar, y en el desayuno, café con leche.

ARNASADUNA. Ser viviente.

Arnasadunok, Jaungoikuagandik dogu arnasia. Los que alentamos tenemos de Dios el aliento.

ARNASA-ESTUA. Asma, respiración acelerada que sigue a un esfuerzo, disnea.

Aldatz gora, arnas-estuakin jarri eiñ biar izan naiz, birixak artuta.

Cuesta arriba, sofocado, he tenido que sentarme con la puntada al costado.

ARNASIA. Aliento, respiración.

Norañoko arnasia daukan probatzia gura dau. Quiere probar hasta dónde aguanta su aliento.

ARNASIA ARTU. Ver. intran. Respirar, aliviarse, tranquilizarse.

Aotik eta zurretatik artzen dogu arnasia.

Aittan berba bigunak entzunaz, arnasia artu eban.

Respiramos por la boca y la nariz.

Oyendo las suaves palabras del padre, se tranquilizó.

ARNASIA EMON. Ver. tran. Alentar, corroborar. *Makalduta zan jendiari, arnasia emon zetsan bere berba bizixegaz.*

A la gente que estaba aplanada, dio alientos (corroboró) con palabras encendidas.

ARNASIA GASTAU. Ver. refle. Morirse. *Goizeko amaiketan arnasia gastau jako.*

A las once de la mañana se le ha terminado el aliento. (Se ha muerto.)

ARNASTU. Ver. tran. Respirar. *Arnastutzen dogun aizia be, Jaunari zor detsagu.* Aun el aire que respiramos se lo debemos al Señor.

ARNIKIA. Entra en el léxico común, aunque entre las plantas medicinales conocidas del vulgo está el *ebagi-bedarra*, que sustituye al árnica. *Ebagi-bedarrak, arnikian bestian osatzen dittu ebakixak.*

ARNO. Top. Arno, en Deva. *Arno mendiko artatza basuak.* Los encinares del monte Arno.

ARNOBATEKUA. Caserío en jurisdicción de Mendaro, y por ser de aquella procedencia el famoso curandero del mismo nombre en Elgoibar, translaticiamamente se entendía: sanador de huesos. *Besua ausi eta arnobatekuagana eruan dabe.* Ha quebrado un brazo y le han llevado al sanador de huesos.

AROLA. Adj. De poca densidad. *Aldia eguan Ermuarretako ogi mardotik, beste labari batzuen ogi arolera.* Diferencia había del apretado pan de los ermuarras al pan flojo de otros panaderos.

AROLTASUNA. Superficialidad. *Esan izan da, Germania'kuen kerizak eta Latinuen briztadak, ez dirala besterik, aren sakontasuna eta onen aroltasuna baño.* Se ha dicho que la oscuridad de los germanos y la brillantez de los latinos, no es sino la profundidad de los unos y la superficialidad de los otros.

AROTZA. Carpintero. *¿Nundik orren jakintasun eta altasun ori? ¿Ez alda ba bedori arotzan semia? Mat. 13, 54, 55.* ¿De dónde ese poder y esa sabiduría? ¿No es, pues, el mismo el hijo del carpintero?

AROTZERIXIA. Carpintería. *Mallabi'n arotzerixia zan gure auzuan.* La carpintería de Mallabi estaba en nuestra vecindad.

AROTZEIXA. Lo mismo que arotzerixia. *Kortazon seme nausixak, aittan arotzeixan, auspogintzan ekin zetsan.*

ARPEGI ARGIXA. Adj. Amable, alegre, sonriente. *Beti da arpegi argixa mundu guztiantzat.* Siempre es sonriente para todo el mundo.

ARPEGI BIKUA. Adj. Hipócrita, falso. *Arpegi biko gizona agertu zan, gauzak itxuli biar zirala pentsau ebanian.* Resultó un falso, cuando pensó que las cosas iban a cambiar.

ARPEGI GOGORRA. Adj. Descarado, insolente. *Andrazkua, baño arpegi gogorra.* *A lako arpegi gogorrik ez dot ezagutu.* Mujer, pero descarada. No he conocido otro insolente como aquel.

ARPEGIRA BOTA. Ver. tran. Echar en cara. *Beñ izan nintzan aren laguntasunan biarrarian, eta milla bidar arpegira bota desta gero.* Una vez me encontré en necesidad de su ayuda y mil veces me lo ha echado en cara después.

ARPEGIXA. Cara. Sinón. *mosua.* *Mundua da, begiratu baten, Jaungoikuan arpegixa.* El mundo es, bien mirado, la cara de Dios.

ARPEGIXA EMON. Ver. tran. Dar cara, hacer frente. *Gazte gaztetatik arpegixa emon biar izan zetsan bizi-modu gogor bati.* Desde muy joven hubo de dar cara a una vida dura.

ARPEGIXA EUKI. Ver. intran. Atraverse. *Arpegixa euki eban ondiok gure aurrera agertzeko.* Todavía tuvo cara para presentarse ante nosotros.

ARPEGI ZORROTZA. Adj. Severo, exigente. *Erbesteko uezabak, ostianguak baño geixago arpegi zorrotzak.* En tierra ajena, los patronos son más severos.

ARPIA JOTEN. loc. adv. que significa: en broma. *Arpia joten diardu eta ez zeixozu ezer sinistu.* Está bromeando y no le creas nada.

AR POZUAK. en plural. Vado formado por piedras islas sobre el cauce de un río. *Ardantzan, ar pozuak ziran Bilbo zarrera juateko.* Baitta Amañako itturri onduan be.

ARRA. Macho, varón. *Eta Jaungoikuak eiñ eban gizona bere irudira; arra eta emia eiñ zittuan.* Gen. 1, 27. *Ill ebanian otsuori, ikusi eben arra zana.* Y Dios creó al hombre a su imagen; varón y hembra los creó. Cuando mataron al lobo, vieron que era macho.

ARRA. Gusano, larva. *Illdakua arrak jaten dabe, naiz Errege ta naiz eskeko izandua.* *Mitxeleta eder agertu baño len, arra izan zan.*

Al muerto le comen los gusanos, lo mismo que haya sido rey o mendigo.
Antes de que fuera hermosa mariposa, fue gusano.

ARRA. fig. resentimiento, odio, rencor.
A asarria izan genduanetik, betiko arra desta gizon orrek.
Desde que tuvimos aquella cuestión, ese hombre me guarda odio eterno.

ARRA. sufijo gentilicio, variante de *tarra*.
Donostiarra, Devarra, Nafarra, Ermuarra, Markiñarra, t. a.

ARRA BETE. Un palmo, medida longitudinal.
Arra bete falta dau erreixarako.
Falta un palmo para la raya.

ARRABIXUA. Rabia.
Arrabixua emoten desta, aren txatxalakerixiak.
Arrabixua daukat agiñako miñakin.
Me ha dado rabia la simplicidad de aquella.
Tengo rabia con un dolor de muelas.

ARRAGUETA. Top. nombre de una calle en Eibar.
Arraguetan. Altzuko errementarixan suteixa.

ARRAINDI KALIA. top. calle así llamada en Eibar.
Gure denboran zan bat, Arraindi kalia.

ARRAINDIXA. Pescadería. variante de *arranteixa*.
Urte asko arraindixa amendik aldatu zala.
Hace muchos años que la pescadería se mudó de aquí.

ARRAINDUNA. Pescadero o pescadora.
Arraindun kalerik kale, naiz euri eta naiz euzki, alargundu zanetik, umieri ogi zati bat eruan biar ba'zetsen.
Pescadora por las calles, bajo la lluvia o el sol, desde que quedó viuda, si había de llevar un pedazo de pan a sus hijos.

ARRANTEIXA. Pescadería.
Arraindi kalia, arranteixa an zalako.

iARRAIXO! Interj. como la de icondenado!
iArraixo madarikatua! iObeto eiño euke lotsa apur bat eukitziakin!

iARRAIXUA! Interj. que se emplea en diversos tonos.
iArraixua! iA zuan nik zuen kafian, Sanjuanetan ikusi neban gittarria! iOrraittiok, Txikillanak jo biarko jok a garaua!
(Comentario sobre el contrabajo del instrumental de la orquesta de la Casa del Pueblo, por el viejo de Acondia.)

ARRAITXIKO EKARRI. ERUAN, ERABILLI. ver. tran. Traer, llevar, andar a horcajadas sobre los hombros a otra persona.
Arraittiko eruan dau aita zarra, botua botatzera.

Le ha llevado a horcajadas a su viejo padre a depositar su voto.

ARRAJOLA. top. Caserío en Eibar.
Arrajola'ko anporrak esandakua ¿nun kabidu?
¿Dónde habría de caer, lo dicho por el mentiroso de Arrajola?

ARRAK EIÑ. ver. impers. Agusanarse, descomponerse.
Utsa denboran, arrak eiñ jakoz erosi dozun txarrikixari.
En nada de tiempo se ha agusanado la carne de cerdo que has comprado.

ARRAKIXA. adj. Rencoroso.
Arrakixa zanetik, ez zetsan iñoiz parkatu.
Siendo rencoroso, no le perdonó nunca.

ARRAKIZUNA. Rencor.
Berba orrek, arrakizuna sortzeko bakarrik zeuen artian.
Esas palabras, sólo para suscitar rencores entre vosotros.

ARRAMUZKA. modo adv. Rezongando.
Arramuzka ogidu zestan.
Me obedeció rezongando.

ARRAMUZKA EIÑ. ver. tran. Reprender en mala forma.
Merezi barik, arramuzka eiñ zetsan.
Sin merecerlo, le reprendió en mala forma.

ARRAMUZKADIA. Bufido.
Eiñ zestan arramuzkadiakin, bildurtu ninduan bizi guztirako.
Con el bufido que me pegó, me atemorizó para toda la vida.

ARRAMUZKETAN. modo adv. Refunfuñando.
Arramuzketan urten eban uezabagandik.
Salió refunfuñando de donde el dueño.

BAZKAL-ORDUA. Hora de comer, mediodía.
Bazkal orduan, ez dot gura izaten zeregiñik.
No me gustan ocupaciones a la hora de comer (a mediodía).

BAZKAL-OSTIA. Después de comer.
Udako beruetan, bazkal-ostian, loaldi txiki bat eitten dau.
En los calores del verano, después de comer, echa una siestecita.

BAZKALTZIA. *Bazkaldutzia*.
Gure artian, ariñ bazkaltzia oittutzen da.
Entre nosotros se acostumbra comer de prisa (al mediodía).

BAZKARI-LEGIA EIÑ. Loc. ver. que viene a decir: cumplir con la hora de comer (a mediodía).
Naiz gauza gitxikin, bazkari-legia eiñ dogu beintzat.
Aunque con poca cosa, ya hemos cumplido al menos con la comida (de mediodía).

BAZKARIXA. Comida del mediodía.
Gaurko bazkarixa luzia izan dogu, aittan eguna danetik.
La comida de hoy ha sido larga, por ser el onomástico del padre.

BAZTARRA. Rincón, orilla.
Baztar askotara eldutako gizona.
Ondurrua'ko itxaso baztarrá.
Hombre que había llegado a muchos rincones. La orilla del mar de Ondárroa.

BAZTARTU. Ver. tran. Arrinconar.
Ondo baztartuta daude gaur Pello, lenago arroputz galanta izan arren.
Bien arrinconado le tienen hoy a Pedro, aunque antes fuera bien orgulloso.

BAZTARTUTZIA. Forma nominal del verbo *baztartu*.
Aren aldibadia, pelotia baztartutzia.
Su habilidad consistía en arrimar la pelota a la pared.

BAZTARTZIA. *Baztartutzia*.
Soñeku ori, obeko dozu baztartzia, ez jatzu ba ondo jausten.
Mejor te será arrinconar ese vestido, pues no te cae bien.

BE. Contracción de *bere*, que a su vez debe ser de *bai ere*. También. *Be* es la forma que ha quedado vigente en Eibar.
Au be, beragaz zan, eta euren arteko bat da; gañera euren izketia darabill.
Este también, estaba con él y es de los suyos; además trae su habla.

BE. Sufijo adverbial denotando lugar de abajo; variante de *pe*.

Orbe, Mayorbe, Ayerbe; Errotape, Axpe, Arkatzpe.

BEALDIA. Parte baja. Variante: *bekaldia*.
Bealdian, geixenak ziran betarrak.

En la parte baja, todos eran conservadores.

BEARRIXA. Basa, piedra fundamental, plinto.
Etxe orren bearrixari ikara eraiño detsanik.
No hay quien pueda conmovir el fundamento de esa caja.

BEATZA. Dedo del pie. Variante: *biatza*, que es más común en Eibar.
Eskuetaquak, atzak; oñetakuak, beatzak.

BE BAI. Modo adv. También. Su opuesto: *b'ez*.
Zure gurasuak be bai, antxe ziran beste askogaz.
Tus padres también, allí estaban con otros muchos.

BEDANA. Armeria. Cíncel estrecho y curvado.
(Bec d'ane).

Bedanakin eiñ biarreko zeregiñ asko ziran, fresadora agertu baño len.

Antes de que apareciera la fresadora, eran muchos los trabajos que había que hacer con el becdane.

BEDAR-GAIZTUA. Abrojo.
Bedar-gaiztua, zalla eta gatxa kentzen soluetatik.
Muy difícil de estirpar la mala hierba de las tierras de cultivo.

BEDARRA. Hierba. Pasto del ganado.
Izango da denbora bat, orrek erri aundixeago kale ikusgarrixetan bedarra asiko dana, sube eta muskarren eskutaleku izan deiñ.
Ganauandako bedar ebaten da soluan.
Vendrá un tiempo en que las elegantes calles de las grandes ciudades crecerán hierba, para que sea escondrijo de alimañas.
Está en la heredad cortando yerba para el ganado.

BEDARRA. Adj. Estrecho, tenue.
Onerako bidia oso bedarra; txarrerakua zabala.
Estrecho el camino para el bien; ancho el del vicio.

BEDARTU. Ver. tran. Estrechar.
Esixak jartziakin, zerbait bedartu eiñ dogu sailla.
Con plantar los setos, hemos estrechado un tanto la era.

BEDARTUTZIA. Forma nominal del verbo *bedartu*.
Aman gonía alabiari jartzeko, pizkat bedartutzia biar izan dau barrenetik.
Para adecuar la falda de la madre a la hija, ha sido menester estrecharla un poco por el borde.

BEDARTZIA. *Bedartutzia*.
Zuk diñozuna da, lengo bide bedarra geixago bedartzia.

Lo que tú dices es, estrechar más el antes estrecho camino.

BEDARTZIA. Lugar de hierba tupida.
Pagadittik urtenda gero zan bedartzia.
Después del hayedo venía un yerbero.

BEDAR-SAILLA. Pieza sembrada de forraje.
Sekula-bedar-sailla, etxe buruan.
Arriba de la casa, una pieza de trébol.

BEDAR-ZELAIXA. Pradera. Voz construída con manifiesta redundancia.
Azurtzako bedar-zelaixan giñan, satorrak lanian ikustera juanda
Estábamos en la pradera de Azurtza, idos para ver trabajar a los topes.

BEDEKATZA. Ajo. variante de *berekatza*.
Bedekatza, urte guztirako laiñ artzen genduan ortuan.
Tomábamos en la huerta, ajos bastantes para todo el año.

BEDIA. Epoca de veda.
Bedia zan artian juan ziran keixara.
Mientras duraba la veda fueron al cerezo.

BEDINKATU. ver. tran. Bendecir.
San Blas'ko opillak bedinkatzen ziran Santa Ines'en, Isasi gañian.
En Santa Inés, arriba de Isasi, se bendecían las tortas de San Blas.

BeDINKATUA. adj. *Bedinkatutakua*.
Gernika'ko arbola da badinkatua,
... ..
Bedinkatua zure sabeleko frutua.

BEDINKATUTAKUA. adj. Bendito.
Su-barri bedinkatutakua dakarzuraz, ixu-eguna gaur danetik.
Os traigo nuevo fuego bendecido, siendo hoy el día del fuego nuevo.

BEDINKATUTZIA. forma nominal del verbo *bedinkatu*.
Ogixa bedinkatutzia, asi baño len, kurutzia eta mun eiñda laukuari, oi genduan etxian.
Era costumbre en casa, bendecir el pan antes de empezar la hogaza, haciéndole el signo de la cruz y besándola.

BEDINKATZIA. *Bedinkatutzia*.
Garixak bedinkatzia, Mayetzian.
El bendecir los sembrados, en mayo.

BEDINKAZALIA. El que administra la bendición.
Bedinkazallia izan zan, famelixako zarrena.
El que dio la bendición fue el más viejo de la familia.

BEDINKAZIÑUA. Bendición.
Gu oiñ garan aldietan, umiak gurasueri, bedinkaziñua eskatzen detse agertzen diran bakotxian.

En el país en que nos encontramos, los niños piden bendición a los padres, cada vez que van a ellos.

BEDORI. pron. Tercera persona del singular (sujeto) en posición de demostrativo.
Bedori jarri deilla lenen. eta bestioek juango gara ondoren.
Que se ponga él el primero y los demás le seguiremos.

BEDORI. pron. Segunda persona por transposición, en trato de dignidad o cortesía.
Bedori da nausi, eta bedorrek esaten dabena izango da onena.
Vuestra merced es el principal, y lo que mande usía será lo mejor.

BEDRATZI. num. cardinal. Nueve.
Iru bidar iru, eiten dabe bedratzi.
Tres veces tres hacen nueve.

BEDRATZI GARRENA. Noveno.
Pio Bedratzi'garrenan Syllabus'a...
El Syllabus de Pío Nono.

BEDRATZI - URRENA. Novenario que sigue a la defunción de un familiar.
Bedratzi-urrena igaro baño len, agertu bat eñ biarko detsagu alargunari.
Antes de que pase el novenario, habremos de hacer una visita a la viuda (o al viudo).

BEGI ALIAK. Ojazos, globo del ojo.
Euzki biren lezkotxe begi aliak zittuan.
Tenía unos ojos como dos soles.

BEGI-ARGIXA. Buen semblante.
Begi-argixa, aspaldiko partez, topau dot gaixua.
Al contrario de hace tiempo, he encontrado de buen semblante al enfermo.

BEGI-ARTIA. Semblante.
Begi-arte tristia agiri eban gaur zuen gizajuak.
Vuestro pobrecito tenía hoy semblante triste.

BEGI BAKARRA. Tuerto de un ojo.
Gazterik galdu begixa, eta begi-bakar geldittu zan bizi guztirako.
De joven perdió un ojo y quedó tuerto para toda la vida.

BEGI EDERRA. adj. De ojos hermosos.
Liraña eta begi ederra, eta ondasun onen gaiñ, biotz samurra.
Gentil y de ojos hermosos, y sobre estos bienes, un tierno corazón.

BEGI ERRIA. Tracoma. sinón. *begi-minberia.*
Begi erria, lenago asko ikusten zan gatxa.
La tracoma, enfermedad que antes se veía con frecuencia.

BEGI ERRIA. adj. Pitarroso, de ojos irritados.
Gure gaztetan geixago ziran ume begi-erriak.

Cuando jóvenes, era más frecuente ver niños pitarrosos.

BEGI-ERTZA. Borde del ojo.
Gaurko euzki begixakin, begi-ertzak minberatuta daukaraz.
Con el solazo de hoy, tengo irritado el borde de los ojos.

BEGIKO MIÑA. Mal de ojos.
Begiko miñakin ebillen luzero.
Estaba desde hace mucho tiempo con mal de ojos.

BEGIKUA. adj. Preferido, simpático. Antón.
Ezkerreko begikua.
David'ek Salomon bere begikua eban, pekatuko frutuan eriotzia aztu gurarik sortutakua zalako.
Oso begikua dau axe neskatillia gure semiak.
Salomón era el preferido de David, porque fue engendrado queriendo olvidar la muerte del fruto de su pecado.
Aquella muchacha, es muy del gusto de nuestro hijo.

BEGI LAUSUA. adj. De vista anormal, de ojos turbios. Cataratas.
Begi lausua zanetik, bardiñ artzen eban zarra zeñ gaztia.
Teniendo la vista turbia, trataba igual a las viejas y a las jóvenes.
Begi lausua osatu gurarik dabiz gure lagunari.
Están queriendo curarle las cataratas a nuestro amigo.

BEGI MINBERIA. Mal de ojos. Sinón. *begi erria.*
Como adj. Pitarroso.
Txikitxan, luzero begi minberia euki eban.
Eta Lea zan begi minberia, baña Rakel arpegi polittduna eta itxura ederrekua.
Gen. 27, 17.
De pequeño, tuvo mal de ojos largo tiempo.
Y Lea era de ojos pitarrosos, pero Raquel de buen semblante y gentil presencia.

BEGI OKERRA. adj. Bizco.
Esaten dana sinisterra ezker, Judas ei zan ule gorri begi okerra.
De creer lo que se cuenta, dicen que Judas era pelirrojo y bizco.

BEGIRA. part. act. del verbo *begiratu*; se emplea en dos acepciones: mirando, esperando.
Hendaya'n nago zabal zabalik begira...
Aitta begira nago lanian ekitzeko.
Estoy en Hendaya mirando a mis anchas...
Estoy esperando al padre para empezar a trabajar.

BEGIRAKUNIA. Mirada.
Arek eban begirakune zorrotza, bildurgarrixa bendekuentzat.
La dura mirada de aquél, era pavorosa para los dominados.

BEGIRATU. ver. tran. Mirar.
Begiratzu nundik zoyazen, ez zaittian jausi.

Mira por dónde vas, para que no te caigas.

BEGIRATUA. adj. Económico, discreto.
Emazte begiratu artu eban, eta bai biar be, irabazi laburrekua zalako senarra.
Esposa económica la que tomó, y así tenía que ser con las cortas ganancias del marido.

BEGIRATUTZIA. forma nominal del verbo *begiratu*.
Kanpantorretik begiratutzia gura eban, baña bildur zan ertzera urtentzen.
Deseaba mirar desde la torre, pero le daba miedo adelantarse al borde.

BEGIRATZIA. *Begiratutzia.*
Ez jatzu ezer kostatzen, noizian beñ lapikuari begiratzia.
No te cuesta nada mirar de vez en cuando al puchero.

BEGITXAN ARTU. ver. tran. Tomar ojeriza.
Begittan artu nau, eta nere dana da asarre eñ biarrekua.
Me ha tomado ojeriza y todo lo mío es motivo de reconversión.

BEGITXANDU. ver. tran. Figurarse, imaginarse, parecerle a uno.
Begitxandu jata beste bat ziñala.
Se me ha figurado que eras otro.

BEGITXANDUA. adj. Visto en visión, imaginado.
Gauza asko dira begitxanduak, benetakotzat artzen diranak. Ala gaurko batzuk ikusten dittuen Marte'tarrak.
Muchas cosas que juzgamos verdaderas son imaginarias. Así los marcianos que suelen ver algunos modernos.

BEGITXANDUTZIA. forma nominal del verbo *begitxandu*.
Sarritan aurkitzen da zegozer begitxandutzia.
Ocurre muchas veces el imaginarnos algo (irreal).

BEGITXANTZIA. *Begitxandutzia.*
Zorigaiztoko au milla gizur begitxantzia...
Este maldito imaginar mil mentiras...

BEGITXANZIÑOTSUA. adj. Celoso, desconfiado.
Gizon begitxanziñotsua, bere buruari infarnua batzeko.
Hombre celoso, para procurarse un infierno.

BEGITXANZIÑUA. Visión, imaginación, ilusión engañosa.
Begitxanziño batekin, astorauta dabill zoratu biarrian.
Anda excitado con una imaginación, como para volverse loco.

BEGITXUAN. modo adv. A ciegas.
Begittuan dabill batera ta bestera makillaka.
Anda a ciegas, a palos a un lado y a otro.

BEGITXUAN EIÑ. ver. tran. Jugar a la gallina ciega.
Elizataixan begitxuan eittia zan gure jolas bat eskolara aurretik.
Jugar a la gallina ciega era una de nuestras diversiones antes de entrar a la escuela.

BEGITXUAN IBILLI. ver. intran. Andar a ciegas.
Eskolarik eza, begitxuan ibiltzia beste da.
Carecer de letras es como andar a ciegas.

BEGIXA. Ojo.
Arimian begixa da adimena.
El ojo del alma es el entendimiento.

BEGIXA BETE. ver. tran. Satisfacer una cosa, llenar el ojo.
Gaur erromerixan ikusi doten neskaxa batek begixa bete desta.
Una muchacha que hoy he visto en la fiesta, me ha llenado el ojo.

BEGIXA EUKI. ver. perifrástico: Tener buen ojo.
Ofiziuian, asko esan gura dau, begixa euki edo ez.
En la profesión quiere decir mucho el tener ojo o no.

BEGIXA JO. ver. tran. Echarle el ojo a una cosa.
Begixa jota daukat neskaxa orri, auzoko polittena delako.
Le tengo puesto el ojo a esa muchacha, porque es la más bonita de la vecindad.

BEGIXAK-ATARATZEKUA. Dragón, caballito del diablo, especialmente la *Aeschena grandis*.
Begixak-ataratzekuak ur-onduan ibiltzen dira, uretan sortzen diralako.
Los caballitos del diablo suelen andar junto al agua, porque es en el agua donde se generan.

BEGIXEN BISTAN. Expresión significativa que entra en muchas frases.
Begixen bistan dago zeren ondoren dabillen.
iBegixen bistatik kendu zaitez, gaiztuori!
Claro esta tras de qué le mueve.
¡Quítate de delante de los ojos, perverso!

BEGIZKUA. Aojamiento.
Ez dakitt zeñ sorgiñek begizkua eñ detsalakuan dago ama koittaua, bere umiari.
La pobre madre cree que no sé cual bruja ha aojado a su niño.

BEIA. La letra b.
Ez dozu ondo eñ beia.
No has trazado bien la b.

BEIESNIA. Leche de vaca.
Beiesnia egunero gosaldirako, eta ardiensnia gatzatua eiteko, Munikolako andriak guri zazpirak baño len.
La aldeana de Municola, antes de las siete nos traía a diario la leche de vaca para el desayuno, y la leche de oveja para la cuajada.

BEINTZAT. modo adv. A lo menos, por lo menos.

Nik beintzat ez dot ikusi.

Oiñ artekuan beintzat ondo doya gauzia.

Yo a lo menos no lo he visto.

Por lo menos hasta ahora, va bien la cosa.

BEIÑ. modo adv. Una vez, cierta vez, sinón. *baten.*

Beiñ, mendixan goyazela, artu giñuzen euri aundi batek.

Ez beiñ, askotan izan naiz aren etxian.

Una vez, yendo por el monte nos sorprendió una lluvia grande.

No una vez, sino muchas he estado en su casa.

BEIÑ BATEN. modo adv. Cierta vez.

Beiñ baten, Peru ta Marixa juan ziran ferixara eta erosi eben txal txikixa...

Cierta vez, Pedro y María fueron a la feria y compraron un ternero.

BEIÑ BATIAN. modo adv. En una vez, una vez.

Beiñ batian ziran Peru ta Marixa...

Eran una vez Pedro y María...

BEIÑ B'EZ. modo adv. Ninguna vez, nunca.

—¿Zenbat bidar izan zara Donostian?

—Beiñ b'ez.

—¿Cuántas veces has estado en San Sebastián?

—Ninguna. (Ni una vez.)

BEIN BERA ESANDA B'EZ. loc. adv. Ni una sola vez.

Beiñ bera esanda b'ez, ez eban arpegixa garbittu ogei urtian.

Ni una sola vez en veinte años se lavó la cara.

BEIÑ EDO BEIÑ. modo adv. Alguna rara vez.

Beiñ edo beiñ moskortzen zan, gizon ona izan arren.

Alguna rara vez se embriagaba, aunque era buen hombre.

BEIÑGUAN. Lo mismo que *segiduan*, expresión viciosa que ha debido disputarle el puesto.

Osagilliak esan zetsan, beiñguan osatuko ebala.

El médico le dijo que le iba a curar en seguida.

BEITTU. *Begiratu*. ver. tran. Mirar, dirigir la vista.

Beittu zeñ datorren bidian gora.

Beittu gorutz izarrak ikusteko.

Mira (o miren) quien viene camino arriba.

Mira (o miren) arriba para ver las estrellas.

BEITTUTZIA. Forma nominal del verbo *beittu*.

Itxasora beittutzia, aspertu barik, arrantzale zarren zeregiña.

El mirar el mar sin hartarse, es la ocupación de los viejos pescadores.

BEITZIA. *Beittutzia*.

Ondo eiño dozu noizian bein bestieri be beitzia.

Harás bien con mirar de vez en cuando también a los demás.

BEIXA. Vaca.

Ibargaiñ Alkatiak, Hospittalerako (Eritegirako)

erosi eban beixa lakorik, ez da ezagutu arrezkero.

Una vaca como la que el Alcalde Astigarraga compró para el Hospital, no ha vuelto a verse después.

BEIXA ERATXI. ver. tran. Ordeñar la vaca. sinón. *jaitzi.*

Goizian goizago beixak eratxi biar izaten dira, esnia bezeruetara eruateko zortzirak baño len.

A la mañana temprano tienen que ser ordeñadas las vacas, para llevar la leche a los parroquianos antes de las ocho.

BEIXA IZKOTU. Cubrir la vaca con el semental. *Beixa izkotzera eruan dabe paradara.*

Han llevado a cubrir la vaca a la parada.

BEIZUKO ZABALA. top. Lugar en inmediaciones de Eibar.

Beizuko zabaletik, lau lau Elgeta'ra.

BEKALDIA. Lo mismo que *Bealdia*. Parte baja. *Bekaldia askokin beruagua zan erri artan.*

En aquel pueblo, la parte baja era mucho más calurosa.

BEKARRA. Legaña.

Txirrintxon, bekarrez betetako begixegaz, tabernetako gitarra jotzallia.

Txirrintxon, con los ojos llenos de legañas, era el guitarrista de las tabernas.

BEKARTIXA. adj. Legañoso.

Bekartixa, eta arpegixa garbittu ez.

Legañoso y no lavarse la cara.

BEKARTSUA. Lo mismo que *bekartixa*.

Neska ederra, bekartsua ez balitza.

Hermosa muchacha si no fuera legañoso.

BEKEKE. En lenguaje infantil, oveja, cordero.

iPa eixozu bekekeri!

¡Dale un beso al cordero!

BEKOKIXA. Frente (de la cara).

Bekokixan daroya siñalia, ez dabena iñoiz eiñ ezer Jaungoikuan guria gaittik.

Lleva en la frente la señal de no haber hecho jamás nada por el amor de Dios.

BEKO-SUA. Hogar bajo.

Beko-sua zan len etxe guztietan, egurrakin mantentzen zana.

Antes en todas las cosas había el fuego bajo, que se alimentaba con leña.

BEKOTXE. top. Caserío en Elgoibar, y sobrenombre de los procedentes del caserío.

Iru bat Bekotxe ziran Alfa'n lanian.

Eran unos tres Bekotxes que trabajaban en Alfa.

BEKUA. adj. El de abajo, determinante de muchos toponímicos.
Azola-bekua, Arando-bekua.

BELA. adv. de tiempo. síncopa de *beriala*.
Bela naiz zuregaz juan gaittian.
En seguida soy contigo para que nos vayamos.

BELA-BALTZA. Cuervo negro, adjetivado por tener las patas negras, lo que viene a decir que se alimenta de carroña, al contrario de los de patas amarillas, que son granívoros.
Bela-baltza bezin zorigaiztokua.
De mal agüero, como un cuervo negro.

BELARONDOKUA. Bofetada.
Belarondoko bat emoixozu ixildu deiñ.
Dale un bofetón para que se calle.

BELARONDOKUA. En algunos sitios, almohada. Se conoce la voz en Eibar, por el chiste que permite el equivoco homofónico, pero no se usa. En su lugar se dice *Almuadia, almuada-azala*. Cuando se procura no incurrir en el barbarismo se dice *buru azpirakua*.
—*¿Nai dozu beste belarondoko bat obeto lo eiñ deizun?*
—*¿Quieres otra almohada para que duermas mejor?*

BELARRA. variante de *bedarra*, acaso significando pasto bajo.
¿Nola esaten ete zan lenago: bedarra ala belarra?

BELARRI-GOGORRA. adj. Sin oído musical.
Belarri-gogorra izan arren, beti kanturako prest.
Aunque era duro de oído, siempre estaba dispuesto a cantar.

BELARRI-GORRA. adj. Sordo.
Zartzara, belarri-gorra jarri da.
A la vejez, se ha vuelto sordo.

BELARRIKO-ZULUA. Conducto del oído.
Belarriko-zuluan sartuta daukat atzoko soñua.
Tengo metida en los oídos la música de ayer.

BELARRI-MOTXA. Los que se sienten xenófobos, lo dicen de los castellanos.
Belarri-motxa ori be, gure ogixa jatera etorritakua.

BELARRI-ONA. adj. Filarmónico.
Ume umetatik dakar orrek belarri-ona.
Desde muy niño trae ese buen oído.

BELARRI-OSTIA. Temporal (hueso).
Belarri-ostian zulatu azurra eta osatu eben.
Le curaron perforándole el temporal.

BELARRITXAKUAK. Pendientes, zarcillos.
Diamante eder bi zituan dardaraka belarritxakuetan.
Tenía dos diamantes resplandecientes en los zarcillos.

BELARRIXA. Oreja, pabellón de la oreja.
Belarrixak danok dittugu, baña an barrutiko soñu jotzallia, danok ez.
Orejas tenemos todos, pero el músico que actúa allí dentro, no todos.

BELARRIXAK EUKI. Tener oído musical.
Kanturako lelengo biar dan berezkua: belarrixak euki.
Lo natural primero que hace falta para el canto, es el oído.

BELATXINGIA. variedad de cuervo.
Belatxingaz bete zan solua.
Se llenó la era de grajos.

BELATZIA. Bandada de cuervos.
Arto-sallian jatxi zan belatzia, eta baltz baltz agiri zan.
La bandada de cuervos bajo en un maizal y parecía negro.

BELAUNA. Rodilla, sinón. *bernia*.
Miñ artu dot belaunian, mai ertza jota.
Me he hecho daño en la rodilla, con la esquina de la mesa.

BELAUN-BURUA. Rodilla.
Belaun-burua aundituta darabit oingo egunetan.
Estos días traigo hinchada la rodilla.

BELAUNIKO. modo adv. De rodillas.
Laban eiñ, eta belauniko geldittu nintzan.
Resbalé, y quedé de rodillas.

BELAUNIKOTU. ver. reflex. Arrodillarse.
Noiz jaiki, noiz belaunikotu eta jarri, eiñ biar zaran, bedorrek papelorrek diño.
El mismo papel dice cuando has de levantarte, cuando arrodillarte y sentarte.

BELAUNIKOTUTZLA. forma nominal del verbo *belaunikotu*.
Gure-Jaunan aurrian, belaunikotutzia oittutzen da.
Se acostumbra arrodillarse ante la Sagrada Forma.

BELAUNIKOTZIA. *Belaunikotutzia.*
Aindu etsen belaunikotzia azkenengo kredua esateko.
Le ordenaron arrodillarse para decir el último credo.

BELIA. Cuervo.
Lenago belia, bandada aundixetan, sarri agertzen zan gure inguruetara.
Antes el cuervo, en grandes bandadas, frecuentaba nuestros términos.

BELIA. con acento prosódico en la e: vela.
Itxas erdixan, aziak belia eruan zeskun.
En medio del mar, el viento nos arrancó la vela.

BELIANAK. Nidada del cuervo.
Atx-bittarte baten agiri ziran belianak.
En un risco aparecía la nidada de cuervos.

BELOZIPEDUA. Bicicleta.
Eibar'en lenengo ikusi zan belozipedua, don Plazido'na
La primera bicicleta que se vio en Eibar, la de don Plácido (Zuloaga).

BELU. adv. de tiempo. Seguramente síncopa de *berandu*. Demasiado tarde, tarde.
Belu zan zu etorri ziñanian
Ni eldu nintzanerako, belu zan: ilda eguan.
Era tarde cuando tú viniste.
Para cuando llegué era tarde: había muerto.

BELUA. adj. Tardío.
Makatz onek goiztarrak; madari a, belua.
Estos perales (silvestres) son tempraneros; aquel peral, tardío.

BELUTU. ver. reflex. Retardarse.
Batari eta bestiarri aitzen, belutu naiz.
Belutu eñ jatan atzo, zuen etxera agertzeko.
Oyendo a unos y a otros, me he retardado.
Ayer se me hizo tarde para ir a vuestra casa.

BELUTUTZIA. forma nominal del verbo *belutu*.
Ainbeste arutz eta onutzekin, belututzia gura eban lanera sartzeko.
Con tanto ir y venir, quería que se le hiciera tarde para entrar al trabajo.

BELUTZIA. *Belututzia.*
Ez da millagro belutzia, bidian dagozen ikusmira guztiegaz.
No es milagro retardarse, con todas las maravillas que hay en el camino.

BENDABALA. Se dice en Eibar de un viento templado que precipita el vapor de agua del aire y determina un ambiente aguanoso.
Bendabala lakorik gauzak alperrik galtzeko.
Nada como (este viento) para echar a perder las cosas.

BENDAKARIXA. adj. Vengativo. variante: *mendakarixa.*
Espiritu sapotsua eta bendakarixa, alperrik eskoladuna izan.
Espíritu rencoroso y vengativo, a pesar de ser hombre instruido.

BENDAKORRA. adj. Lo mismo que *bendakarixa*. Vengativo.
Gizon bendakorra, iñoiz parkatzerik ez daukana.
Hombre vengador, que no perdona nunca.

BENDEKUA. adj. Sojuzgado.
Aintzalliak legian beyan ez diran lekuan, enpareua bendekua.
Donde los que mandan no están sujetos a la ley, el resto sojuzgado.

BENDERATU. ver. tran. Sojuzgar, someter.
Erroma'tarrak eziñ izan ei eben, amengo basuetako jendia benderatu.
Dicen que los romanos no pudieron sojuzgar a las gentes de estas montañas.

BENDERATUTZIA. forma nominal del verbo *benderatu*.
Armadun jendiak, arma bakua benderatutzia, ez da gatxa.
No es difícil que la gente armada sojuzgue a la privada de armas.

BENDERATZIA. *Benderatutzia.*
Kosta jakun, Marrueketan, izentau zeskuen zati garratz apurra benderatzia.
Ya nos costó en Marruecos el someter la áspera porcioncita que nos adjudicaron.

BENDERATZALLA. Conquistador.
Benderatzallien artian, Alejandro bat, Mazedonia'kua, izan zan aundiñetarikua.
Entre los conquistadores, un tal Alejandro de Macedonia fue de los mayores.

BENDIA. Venda.
Fedia iduritzen dabe, begixetan bendia dabela.
Representan a la fe, teniendo una venda en los ojos.

BENDIAN. modo adv. Bajo el poder de.
Ponzio Pilato'en bendian zala judixuen Provintzia, josi eben kurutzian Nazaret'ko arotzan semia.
Estando la Provincia judía bajo el poder de Poncio Pilato, crucificaron al Hijo del carpintero de Nazaret.

BENE BENETAN. modo adv. De veras, firmemente.
Bene benetan damututa eñ eban okerragaitik, parka eskian zan aittari.
Verdaderamente arrepentido del mal que había hecho, pedía perdón a su padre.

BENETAKUA. Con referencia a narraciones, sucedido, historia, en oposición a *asmautakua*. ficción.
Liburu orretan esaten diran gauzak, benetakua.
Las cosas que se refieren en ese libro son reales.

BENETAKUA. adj. Verdadero.
Kristau benetakua Tolstoy zarra.
Cristiano de verdad el viejo Tolstoy.

BENETAN. modo adv. De veras.
Ez txantxetan, ez bada ze benetan, esan detsurazen gauza guztiak.
No en broma sino de veras, todas las cosas que te he dicho.

BENGANTZIA. Venganza.
Bengantzia, esaten dabe, Jainkuen ezti-bitsa.
La venganza, suelen decir, placer de los dioses.

BENGATZALLIA. Vengador.
Ostikopian beti, bengatzallian zaiñ bizi ziran.
Siempre bajo la bota, vivían en la espera de un vengador.

BENGATZIA. forma nominal del verbo *bengau*.
Jaungoikuari eskua artzia da bengatzia.

El vengar es tomar la mano de Dios.

BENGAU. ver, tran. Vengar.

Atila'k bengau zittuan Erroman milla urteko ustelkerixak.

Atila vengó las inmoralidades de mil años de Roma.

BENTANIA. Prestado del romance en perjuicio de la voz propia, *leyua*, perdida en Eibar.

Neska bandera ori, beti bentanan (leyuan) dago.
Esa loca muchacha, siempre está en la ventana.

BENTERUA. Ventero.

Olerrriako benterua zan, bidebatez, katenerua.

El ventero de Olarreaga, era al mismo tiempo el alcabalero.

BENTIA. Con la cosa debió introducirse la voz, pues *ostatua*, que puede ser préstamo anterior, no es rigurosamente su sinónimo.

Olerrria'ko bentia, Matxin-benta, Lapur-benta.

BEÑA. top. Caserío en Eibar.

Beña'kua zan aren aitta zarra.

Era de Beña su viejo padre.

BEÑIPEIN. modo adv. A lo menos, al menos.

—Bizixa beñipein lagairak, naiz ostian narrugorrixan laga.

-Déjame la vida a lo menos, aunque por lo demás me dejes en cueros.

BEÑIPEÑIAN. modo adv. Por lo menos.

Beñipeñian aitzen emon balesku aurretik.

Si por lo menos nos hubiera dado a entender por anticipado.

BERA. pro. pers. Nominativo de la tercera persona del singular, sujeto de los ver. intrans. o neutros. El.

Bera etorriko zala edetan, bere aingeruegaz, onak eta txarrak erabagitzera.

Que él vendría sobre las nubes, con sus ángeles a juzgar a los buenos y a los malos.

BERA. pron. pers. Acusativo de la tercera persona del singular, como término de un complemento directo. El.

Kendu zetsezen eskubide guztiak eta bera katiegaz eruan eban kerizpera.

Le privaron de todos sus derechos, y con cadenas le llevaron a la sombra.

iBERA! interj. Lo contrario de *iGora!*

iGora gutarrak! iBera ostianguak!

iArriba los nuestros! iAbajo los demás!

BERAK. pron. pers. Tercera persona agente del singular de los verbos tran.

Berak esandako gauzia da esan detsutena.

Ori zeregiñori eiñ deixala berak.

Lo que te he dicho es cosa que lo dijo él.

Esa labor, que la haga él.

BERAKADIA. Baja, bajonazo.

Preziuen berakadia, aundixa izan da aste onetan.

La baja de los precios ha sido grande esta semana.

BERAKATZA. Ajo.

Berakatz sopak asmau zittuana, makiñatxo baten esker onak merezi dittuan gizona.

El que inventó las sopas de ajo, hombre que merece el agradecimiento de no pocos.

BERAKATZ ATALA BAÑO ZINTZUAGUA. loc. con que se encarecen las buenas cualidades de una persona.

Berakatz atala baño zintzuagua urten detsa artu eban andriak.

La mujer que tomó, le ha salido muy hacendosa.

BERAKATZ ATALA. Diente de ajo.

Berakatz atal bat igarixan, gatza eta orixo tatanen bat, irakin erañ urari, eta or berakatz saldia.

Un diente de ajo nadando en el agua, sal y alguna gota de aceite; hacerlo hervir y he ahí el caldo de ajo.

BERAKATZ-BURUA. Cabeza de ajo.

Ikubilla lezkotxe berakatz-buruak eitten ziran gure aittan ortuan.

Cabezas de ajo como puños se criaban en la huerta de mi padre.

BERAKATZ-LANDARIA. Planta del ajo.

Berakatz landarak eta beste landara batzuk be bai, pizkat etzinda jarri biar izaten dira.

Las plantas del ajo, como otras hortalizas, hay que plantarlas acostadas a tierra.

BERAKATZ-SALDIA. Caldo de ajo.

Negu eta uda, berakatz saldia goizeko zortziretan gosari letz.

Invierno y verano, caldo de ajo a las ocho de la mañana a título de desayuno.

BERAKATZ-SOPAK. Sopas de ajo.

Errondarixen legia, azkenengo tabernan, berakatz-sopak eiñ goizaldera.

Costumbre de los trasnochadores, hacer sopas de ajo en la última taberna del recorrido hacia la madrugada.

BERAKATZ-TXORTIA. Ristra de ajos.

Berakatz-txortia lepotik bera, nafarrak San Fermiñetan.

Una ristra de ajos al cuello, los navarros por San Fermin.

BERAKUA. Diarrea.

Berakua eta gorakuakin, ill biarrian dabill ezerk on eitten ez detsala.

Con diarrea y vómitos, esta como si fuera a morir, sin que nada le siente bien.

BERANA. adj. posesivo y pron. de la misma clase. Suyo, de él.

Etxekalte zan aterpebako bat, esaten ebana, Eibar erdixa zala berana.

Etxekalte era un sin techo que decía que medio Eibar era suyo.

BERANDU. Tarde, tardíamente (adv. de tiempo). variante: *belu*.

Aurten garixak berandu datoz.

Este año los trigos vienen tardíos, tarde.

BERANDUTU. ver. intrans. Hacerse tarde.

Berandutu biar jatzu mezatarako.

Se te va a hacer tarde para misa.

BERANDUTZIA. forma nominal del verbo *berandutu*.

Pauso bokotxian paraboletan geldittu ezker, ez da millagrua berandutzia.

Parando a cada paso para charlar, no es milagro el retrasarse.

BERATU. ver. trans. remojar.

Baba orrek, zarrak izan biar dira eta obe bezperatik beratzera botatzia.

Esas alubias deben ser viejas, y mejor echarlas a remojar desde la vispera.

BERATU. ver. trans. Abajar, bajar. sinón. *jatxi*.

Beratzitu kurtiñia, iñok ez gaitiazzen ikusi.

Baja la cortina para que nadie nos vea.

BERATUA. Remojón.

Beratua ederra artu dogu, eiñ daben trumoi eurixakin.

Buen remojón hemos tomado, con el aguacero que ha caído.

BERATUTZIA. forma nominal del verbo *beratu* en sus dos acepciones.

Bakillauak, beratutzia biar izaten dau.

Obeto eiño zenduan kurtiñia beratutzia.

El bacalao necesita ser puesto a remojo.

Mejor hubieras hecho con bajar la cortina.

BERATZIA. *Beratutzia*.

Baburrinak beratzia obe egosten ipiñi aurretik.

Lana ugari bada, jornalak goratzia erreza; gitxi bada, beratzia ez gatxa.

Mejor echar las alubias a remojo antes de ponerlas a cocer.

Si abunda el trabajo, es fácil subir los jornales; si escasea no es difícil el que bajen.

BERAU. pron. pers. Forma demostrativa del nominativo de la tercera persona del singular. El, este mismo.

Berau da interesik aundiña euki biar leukiana.

El mismo es el que debiera tomarse el mayor interés.

BERBABAKUA. adj. Inconstante, infiel, sin palabra.

Asieratik azkenerañok, berbabakua.

Infiel, desde el principio al fin.

BERBA BATEN. modo adv. En resumen.

Berba baten: esan dozun guztia, guzurra.

En resumen: todo lo que has dicho, mentira.

BERBADUNA. adj. Constante, consecuente, de palabra.

Berbaduna zanetik, soldautzatik etorri arte itxain zetsan.

Siendo de palabra, le esperó hasta que volvió del servicio militar.

BERBA EIÑ. ver. intrans. Hablar.

Berba eittia ez da naikua, obrak biar dira

No basta hablar, son necesarias las obras.

BERBAERIA. lenguaje, estilo, modo de expresión.

¿Zer berbaera dok ori neusixago batekin ganako?

¿Qué manera de hablar es esa para con un mayor?

BERBAKIZUNA. Comentario, murmuración.

Ondo edo txarto, berbakizuna ipiñi dau beintzat.

Bien o mal, ya ha dado a lo menos materia de murmuración.

BERBAKUA. adj. Lo mismo que *berbaduna*.

Exacto, cumplidor.

Berbako gizona izan zan beti gure artian.

Siempre fue hombre de palabra entre nosotros.

BERBARUA. Rumor de palabras. sinón.

berbatzak. Auzoko etxian berbarua entzutzen zan.

En la casa vecina se oía rumor de palabras.

BERBATIK ORATU. ver. trans. Agarrarle la palabra.

Berbatik oratu eta ez zetsan laga ezkondu arte.

Le agarró su palabra y no le dejó hasta que se casaron.

BERBATSUA. adj. Hablador.

Berbatsua danak, gauza askotan uts eiñ biar.

El que es hablador, en muchas cosas ha de equivocarse.

BERBATU. ver. trans. Apalabrar, convenir oralmente. Como reflex. Apalabrarse, venir a palabras.

Kataliñ Bizkai-nekuak berbatu dabe txarrixa Aretan.

Berbatu zan nausixagaz, eta berbetatik jo eben orruetara, eta orruetatik ikubilletara, eta or dozu oiñ kerizpian.

Los de K. B. han comprometido el cochino en Areta.

Se fue a palabras con el patrono, de las palabras fueron a los gritos, de los gritos a los puños, y ahí le tienes ahora en la cárcel.

BERBATUTZIA. forma nominal del verbo *berbatu*.

Ez dozu ondo eiñ berbatutzia, ez kunplitzekotan.

No has hecho bien apalabrándote si no lo has de cumplir.

BERBATZIA. Abundancia de palabras, palabrería.

Erabili eban berbatziakin, nai ta nai ez guzur asko artian.

Con la palabrería con que se produjo, necesariamente hubo de haber muchas mentiras.

BERBERA. ad. El mismo, el mismísimo.
Aita berbera dozu seme ori.
Geuk saldu gentsen asto itxua, berbera oso konponduta ferixan erosi doguna.
Ese hijo es el mismísimo padre.
El burro ciego que vendimos, el mismísimo, todo arreglado el que hemos comprado en la feria.

BER BERTAN. adv. de lugar. Muy cerca, exactamente en el mismo lugar.
Urten Elgoibar'tik eta ber bertan dago nik esaten detsuten etxia.
Saliendo de Elgoibar, allí mismo, cerquita está la Casa que te digo.

BERBETA-LAUA. Prosa. Anton. *itz-neurtua.*
Bai berbeta-lauan eta bai itz-neurtuan, bardiñ ederra antxiñako aura.
Tanto en prosa como en verso, era igualmente bello aquel antiguo.

BERBETIA. forma nominal Del infinitivo de hablar.
Jarraitu deixogun atzoko berbetiari.
Sigamos nuestra conversación de ayer.

BERBETIA. Lenguaje. sinón. *izketia.*
Eibar'ko berbetia eta zuen izketia, senide urrak.
El habla de Eibar y vuestro habla próximos parientes.

BERBIA. sinón. *itza.*
Asieran zan Berbia, eta Berbia zan Jaungoikuagaz, eta Berbia zan Jaungoikua...
En el principio era la Palabra, y la Palabra estaba con Dios y era Dios la Palabra.
Nin un vierbo menguaron, nin otro añadieron.
Sto. Domingo. Berceo, 227.

BERBIA EMON. ver. tran. Dar palabra, prometer.
Berbia emon zetsan, bere ondoria izango zala Zeruko izarrak bezin ugarixa.
Le prometió que su descendencia sería numerosa como las estrellas del cielo.

BERBIA ESKATU, EMON, ARTU. vers. tran. Pedir, conceder y tomar o usar la palabra, en reuniones formales.
Batzar legekuetan, berbia eskatzen da, eta buru eitten dabenak emonda gero, zutiñik, artu berbia eta bere eritxixa esaten dau, zer esan daukanak.
En las reuniones formales, se pide la palabra, y después que el que la preside se la concede, de pie, toma la palabra el interpelante y expone su opinión.

BERBIA JAN. ver. tran. Faltar a la palabra.
Berbia jandako jendia jarri da aintzen leku askotan.

BERBIKIÑA. Berbiquí.

Berbikiñagaz atakadore zulu eittia pitxoikuetan, zeregiñ kakatsua.
En las escopetas de pistón, el abrir con el berbiquí el alojamiento para el atacante, es una labor fastidiosa.

BERBUA. gram. verbo.
¿Zeiñ ez dakixana, sasoian, maïttien berbua?
¿Quién es el que no sabe, de joven, el verbo de los que se quieren?

BERDABIO. sobrenombre en Eibar.
Berdabio'nekuak, Errebalian bizi ziran.

BERDELA. pescado del Cantábrico.
Joshe Migel'en, en batela, txitxarruak eta berdela.

BERDENGILLO. top. Caserío en inmediaciones de Eibar.
Berdengillo'ko baserrixa, Zaldibar'ko mugen barruan zan.

BERDERAKUA. adj. Tendiendo a verde.
Erosi daben soñekua, illun berderakua.
El vestido que se ha comprado, oscuro tirando a verde.

BERDIA. adj. Verde. sinón. *Orlegia*, que en Eibar sólo se conoce por la literatura.
Uda-barriko ostruen berde barrixa, Neguko tristurak urrintzeko onena.
El verde nuevo del ramaje en la primavera, lo mejor para alejar las tristezas del invierno.

BERDIZKIA. adj. Verdoso.
Bedar artian sortutakua zalako, subia zan berdizkia, eta konturatu barik zapaldu neban.
Porque había nacido entre hierba, la culebra era verdosa y la pisé sin darme cuenta.

BERDURIA. Hortalizas.
Eskerrak lur apur bat daukanari, berduriakin bakarrik biziko litzateke ba.
Gracias a que tiene un poco de tierra, pues con sólo hortalizas viviría.

BERE. adv. También. Lo mismo que *be* y *bai ere*,. Lo común en Eibar es *be*.
Zuen aita bere, autuan zan, beste askogaz.
También vuestro padre era parte en el asunto con otros muchos.

BERE BATEN. Modo adv. Conforme. tranquilamente.
Ba'zan bere baten zeuk astorau zenduan arte.
Estaba en conformidad, hasta que tú le excitaste.

BERE BERIA. Pron. posesivo, reduplicado para su superlativización. Suyo, de él; suyo como dos veces suyo.
Bere beriakin bizi da. iñor nekatu barik.
Vive con la suyo propio, sin fatigar a nadie.

BERE BIZIKO ONDUEN. Loc. adv. Si alguna vez en la vida, sí en esta ocasión.
Arrua zan, baña bere biziko onduen apaldu eben.

Era soberbio, pero si alguna vez en la vida, ya le humillaron en esta ocasión.

BEREGANDU. Ver. tran. Adueñarse.
Jabia ill barik, eziñ izan zittuan beregandu aren lurak.
Sin matar al dueño, no pudo apropiarse de sus tierras.

BEREGANDUTZIA. Forma nominominal del verbo *beregandu*.
Aren lurak beregandutzia, eriotza baten kargia kosta jakon.
El apropiarse de sus tierras, le costó la carga de un crimen.

BEREGANTZIA. *Beregandutzia*.
Nekez baten, aldu eban biotzian erebixan maitia beregantzia.
Por fin consiguió adueñarse de la amada que traía en su corazón.

BEREGANZALIA. Usurpador.
Jatorri guztia zan bereganzalia, eta inguru guztiak eurenganduta zittuen.
Toda la familia era usurpadora y todo el derredor se lo habían apropiado.

BEREKAUTAKUAK. Acción de hablar consigo mismo.
¿Zeñek ez dittu berekautakuak?
¿Quién no dialoga consigo mismo?

BEREKAUTAKUETAN JARDUN EGON. Ver. intran. Estar hablando consigo.
Gure zan amak, berekautaketan jarduntzen eban zeregiñetan zan artian
Nuestra madre hablaba consigo misma mientras despachaba sus quehaceres.

BEREKOIXA. Adj. Egoísta, sinón. *berezalia*.
A baño berekoi negargarixagorik munduan.
En el mundo otro egoísta tan lamentable como aquel.

BERENUA. Veneno. Variante de *benenua*.
Zapu-perretxikuak berenua dauke eta gaitx eitten dabe.

BERETZAKUA. Adj. interesado.
Gizon beretzakua, iñoiz mesederik eñ gabia iñori.
Hombre interesado, que nunca hizo ningún favor a nadie.

BEREZ. Adv. de modo. De por sí, por naturaleza, fácilmente.
Berez etorri jata gaitz au.
Udaberrixan berez batetzen da lurra loraz.
Berez eitteko gauzia.
Este mal me ha venido de por sí.
En la primavera, la tierra se llena naturalmente de flores.
Cosa de hacer fácilmente.

BEREZALIA. Adj. Egoísta, interesado. Sinón. *berekoixa*.

iSemia be, berezalia, demoniua!
¡El hijo también, egoísta del demonio!

BEREZKUA. Disposición natural, don innato para alguna cosa. En otro sentido: adj. silvestre.
Berezkoa dakar ume onek dantzarako.
Mendiko berezko perretxikuak, obiak zimaurtzan zeregiñan puruan artzen diranak baño.
Este niño trae disposición para la danza.
Las setas naturales del monte son mejores que las que se obtienen a fuerza de cuidados en el abono.

BEREZKUA. Adj. Natural.
Berezko gauzak, gizonan eskutikuak baño ederraguak.
Las cosas naturales (de la Naturaleza) más bellas que las obras del hombre.

BERIA. Pron. posesivo. Suyo, de él.
Beretzaiko beria, bestiena erdibana.
Lo suyo para sí; lo de los demás a medias.

BERIA-EITTEEKUA. Adj. Terco, insistente, de hacer lo suyo.
Zuen auzokua, leguna baña beria-eittekua.
Vuestro vecino, suave, pero de salirse con la suya.

BERIALA. Adj. de tiempo. En seguida.
Aindu deskun letz, beriala izango da berriz guregaz.
Según nos lo ha prometido, en seguida va a estar de nuevo con nosotros.

BERIALAKO BATEN. Modo adv. En un momento.
Berialako baten amaittuko dot gaurko zeregiña eta etorriko naiz.
En un momento terminaré mi tarea y vendré.

BERIALAKUAN. Modo adv. en breve, tras un instante.
Juan eta berialakuan itxuli zan.
Fuese y tras un instante volvió.

BERIALAXE. Adv. de tiempo. En seguida, lo que se dice en seguida.
Zu juan eta berialaxe eldu zan bestia.
En seguida de marcharte tú vino el otro.

BERINKATU. Bendecir. Variante de *bedinkatu*.
Ur berinkatuakin garbitu eban ataixa, sorgiñak urrintzeko.
Limpió el portal con agua bendita, para alejar a las brujas.

BERJELA. Se dice a imitación de los de Ondárroa.
iAtoz ona, berjel aluori!

BERMIO. Top. Bermeo. Variante: *Mermio*.
Bermio'ra eldu giñan, Ondarrua eta Lekeitio'tik ziara.

BERNAZURRA. Tibia.
Bernazurrakin ertza jota, luzero euki neban belauñ guztia aundittuta.

Dando con la tibia en una esquina, tuve hinchada toda la rodilla durante mucho tiempo.

BERNIA. Pantorrilla.

Bernako zaurixa osatu ezinda dabill illetan.
Durante meses está sin poder curar la herida de la rodilla.

BERO EIÑ, EGON. Vers. impersonales. Hacer calor.

Gaur arrasaldian bero eiñ dau.
Bero dago amen, ate guztiak itxitta.
Hoy a la tarde ha hecho calor.
Hace calor aquí, con todas las puertas cerradas.

BERONEK. Pron. pers. Forma demostrativa de la tercera persona agente del singular, en los verbos transitivos. El, él mismo.

Beronek esan desku etortzeko, biar bat aindu gura deskula ta.
El nos ha mandado venir, diciendo que nos iba a encomendar un trabajo.

BEROTASUNA. Calor. fig. iracundia.

Aman borotosuna barik azitako umiak, umetasun tristia.
Juan jako aitari, atzoko berotasuna.
Los niños criados sin el calor de la madre, infancia triste.
Ya se la ha ido al padre, el enojo de ayer.

BEROTU. Ver. tran. Calentar. U. t. c. reflex.

Ikatza ugari ipiñizu suteixan eta berotizu barautza keixian gorritik zurira etorri arte.
Izu'ra igotzen berotu naiz eta alkondara guztia izardiz busti jata.
Pon abundante carbón en la fragua y calienta la broca del rojo cereza al blanco.
Me he sofocado subiendo a Izua y se me ha mojado toda la camisa de sudor.

BEROTU. Ver. reflex. fig. Enojarse, irritarse.

Entzutziakin bakarrik guzurti ari, berotzen naiz.
Con solo oír a aquel mentiroso, me suelo enojar (o irritar).

BEROTUA. Sofocón, acaloramiento.

Azитай'dik igo dogu Arratera, eta berotua galanta artu dogu.
Txotxolo ori dala ta ez dala, berotu bat euki dot lagun onenagaz.
Hemos subido a Arrate por Azitain, y buen sofocón que nos hemos tomado.
A causa de ese lerdo, he tenido una calentera con el mejor amigo.

BEROTUTZIA. Forma nominal del verbo *berotu*.

Ixa zurirañok berotutzia, eta batera oztutzia uretan edo aixe gogor baten, da tenplatzia.
Ez dau merezi aiñ gauza gitxi gaitik berotutzia.
En calentar casi hasta el blanco y enfriarlo en agua o en una corriente de aire, consiste el temple.
No vale la pena de calentarse por tan poca cosa.

BEROTZIA. *Berotutzia.*

Suak dau gauzak berotzia.

Ez dot gura aregaz jardun eta berotzia.

Propiedad del fuego es el calentar.
No quiero discutir con aquel y acalorarme.

BERREGUN. Núm. card. Doscientos.

Oiñ dala berregun urte eiñdako etxia.
Casa construída hace doscientos años.

BERREGUNEKUA. Billeto de Banco de cincuenta pesetas.

Berreguneko bikin bardindu netsan laureguneko zorra.
Con dos de doscientas le pagué mi deuda de cuatrocientas.

BERRETXIÑA. Top. Caserío en Eibar.

Berretxiña, uste dot, Agiña ballian.

BERRIRO. Modo adv. De nuevo. Sinónimo,

berriz, ostera.
Berriro ekin detsa eurixak, len baño gogorrango.
De nuevo ha empezado a llover, más fuerte que antes.

BERRIZ. Modo adv. De nuevo. Sinónimo

berriro, ostera.
Onek etxe guztiok, berriz eiñdakuak gerria ezkerero.
Todas estas casas, nuevamente construídas después de la guerra.

BERRIZ BE. Modo adv. Una vez más, de nuevo.

Berriz be, gerrian bildurretan bizi gara.
De nuevo, vivimos en el temor de una guerra.

BERROGEI. Num. card. Cuarenta.

Ali-Baba eta bere berrogei lapurren ipoña.
El cuento de Alí-Babá y sus cuarenta ladrones.

BERROGEI KONTATZEN. Juego de muchachos,

en el que el castigado cuenta cuarenta para dar espacio a que se escondan los que juegan.
Berrogei kontatzen eitten genduan eskolako lagunak, illundu arte.

BERTAKO EIÑ. Ver. reflex. Naturalizarse,

avecindarse.
Aspaldixan bertako eiñda dago.
Hace tiempo que está avecindado.

BERTAKUA. Adj. Autóctono. indígena, propio del lugar.

Gure izketia ¿bertakua ete da?
Bertako jendia.
Bertako ipoña.
Nuestro idioma, ¿se habrá originado aquí?
Gente de la tierra (de acá).
Cuento de la tierra.

BERTAN. Adv. de lugar. En el lugar. También

se usa en la significación de cerca.
Bertan bazkalduko dogu, iñora juan barik.
Bide zabala eregi zan ezkerero, Eibar'tik bertan dago Arrate.
Comeremos aquí, sin ir a ninguna otra parte.
Desde que abrieron un ancho camino, Arrate está a un paso de Eibar.

BERTAN BERA LAGA. Loc. ver. tran. Dejarlo todo; abandonar una cosa.

Alargundu zanian, bertan bera laga danari eta fraille sartu zan.

Cuando enviudó, dejó todo y se metió fraile.

BERTANTXE. Adv. de lugar. Lo mismo que *bertan*, con el sufijo locativo *txe*.

Etxetik bertantxe genduan eskolia, Godoi'ñekua esaten jakon etxe aundi baten.

De casa teníamos próxima la escuela, en una casona que decían de Godoy.

BERUA. Física. Calor.

Berua eta otza dira gure korputzari aukeratzan jakozen guen bi, gorago eta berago izan leikian eta izaten da gauza baten.

Calor y frío, son dos límites con referencia a nuestro organismo, en una cosa que puede ser más y menos.

BERUA. Calor (metereológico) bochorno.

Gaurko berua lakorik, ez Andra-Marixetan be.

Calor como el de hoy, ni a mediados de agosto.

BERUA. Adj Caliente. Fig. colérico.

Ogi beruakin, ez dago konturik tabernarixandako.

Gizon berua zan, errez satutzen zana.

El tabernero no tiene cuenta con el pan caliente. Era persona irascible, que se encendía fácilmente.

BERUANA. Mal de calentura.

Beruanak artu dau eta ezarrixa dago gizajua.

Le ha dado calentura y está muy cargado el pobre.

BERUANA KENDU. Loc. verbal de la terminología de los cortadores. Restarle lo que tiene o pueda tener de exageración una cosa, como el cortador que en tratos con el dueño de la res resta el coeficiente de la res en caliente.

Arek esaten dabenari, beruana kendu biar jako beti.

A lo que dice aquel, hay que rebajarle siempre lo de en caliente.

BERUNA. Plomo.

Beruna, gei astuna eta ugartzen ez dana.

El plomo, material pesado y que no se oxida.

BERUNAK. Armería. Planchas de plomo con que se amordaza el tornillo de banco.

Berunak eiñ biarra daukagu, eta eskatixozuz moldiak Nikanor'ri.

BERUNEZKUA. Adj. Plumbeo, pesado.

Ogorloko ori, berunezkua dozu.

Berunezkua zidurixan aren maletiak.

Ese duro fuerte es de plomo.

Parecía de plomo la maleta de aquel.

BERUTZ. Modo adv. Hacia abajo.

Berutz errezo goertz baño.

Más fácil hacia abajo que hacia arriba.

BERUTZKUA. La bajada.

Batzuetan, gorutzkua baño gatxaua berutzkua
A veces es más difícil que la subida, la bajada.

BESAGAÑA. Hombro. Sinón. *Sorbaldía*.

Alako arri garaua jaso laikiala besagañera, sinistiak be lanak daukaz.

Cuesta trabajo creer que tal piedra pueda levantarse al hombro.

BESAKADIA. Brazada, puñada.

Besakada loria ekarren amatxondako.

Jauti zetsan besakadiak jo baleu, lurrera zan betiko.

Traía una brazada de flores para madrecita.

Si la puñada que le tiró le hubiese dado, estaría en el suelo para siempre.

BESAKARTU. Ver. tran. Abrazar. De reciente adopción en Eibar. Sinón. *estutu*.

Ainbeste urtian alkar ikusi ez, eta besakartu giñan bero eta lagunki.

No habiéndonos visto en tantos años, nos abrazamos calurosa y estrechamente.

BESAKARTUTZIA. Forma nominal del verbo *besakartu*.

iAxe zan biotz biotzetik besakartutzia!

iAquellos sí que era abrazarse de corazón!

BESAU. Ver. tran. Domesticar, amaestrar. Domeñar.

Besautako txakurrekin ataratzan eban bizi-modua.

Bizixa, baño bere biziko onduen besau eban artu eban emaztiak.

Se ganaba la vida con perros amaestrados.

Era rebelde, pero la mujer que tomó le domeñó totalmente.

BESATZIA. Forma nominal del verbo *besau*.

Gatxago izan zan a besatzia, Arraoz'ko biorrak ezitzia baño.

Fue más difícil domeñarle, que amansar los potros de Arraoz.

BESERIXIA. Parroquia (habituales de un servicio).

Dendari arek, aituna zan bere tratuan, eta beserixa aundixa eukan.

Aquel comerciante entendía el negocio y tenía mucha parroquia.

BESERUA. Parroquiano, cliente.

Taberna guztietako beserua gure mutill zarra.

Cliente nuestro solterón de todas las tabernas.

BESEROTU. Ver. reflex. Suscribirse a.

Beserotu naiz zure periodikora.

Me he suscrito a tu periódico.

BESEROTUTZIA. Forma nominal del verbo *beserotu*.

Beserotutzia biar dozu, ondo izateko, guk ataratzan dogun Irakorgeira.

Para quedar bien, necesitas suscribirte a la Revista que nosotros publicamos.

BESEROTZIA. Beserotutzia.
Ez dot gura beserotzia iñongana, libre izan neiñ beti.
No quiero adherirme a nadie, para ser siempre libre.

BESO-BAKARRA. Manco de un brazo.
Irun pelotarixa, beso-bakarra ezagutu genduan Eibar'en.
Manco le conocimos en Eibar a Irún, el pelotari.

BESOKADIA. Lo mismo que *besakadia*.
Brazada.
Besokada loria batu zelaixan eta maitiari eruan zetsan.
Reunió en la pradera una brazada de flores y la llevó a su amada.

BESO-MOTZA. Manco.
Gerría ezkerik, beso-motza dago.
Está manco desde la guerra.

BESTE. Adv. de cantidad, en comparativos.
Ba'zara zu ni beste jate autuan.
Tú ya eres tanto como yo en asunto de comer.

BESTE AINBESTE. Adv. de cantidad. Otro tanto.
Lenguari, beste ainbeste geittu biar detsazu neurriratutzeko.
A lo anterior tienes que añadir otro tanto para llegar a la medida.

BESTE BATEN. Modo adv. Otra vez, en otra ocasión.
Beste baten, ordittuta, emaztiari eskua ezarri zetsan.
En otra ocasión, embriagado, le puso la mano a la esposa.

BESTE BATZUK. Pron. indef. Otros.
Ez guk, beste batzuk eiñ dabe oker au.
No nosotros; otros han hecho este daño.

BESTE BATZUEK Lo mismo que *beste batzuk*.
Aren ondoren, beste batzuek agertu ziran.
Después de aquellos, aparecieron otros.

BESTEKALDERA. Modo adv. Al otro lado, por otro lado.
Bestekaldera artizu papelori, buruz bera daukazuz ba letrak.
Egixa zuk diñozuna, baña bestekaldera be errezoiak ba dira.
Vuelve del otro lado el periódico, pues tienes cabizbajas las letras.
Es verdad lo que dices, pero del otro lado también existen razones.

BESTELA. Modo adv. De otro modo.
Ezeizu jan ori, txarra dago ta, ill eiñgo zara ba bestela.
No comas eso que está malo, pues de otra manera morirás.

BESTELAKUA. Adj. Impertinente, distinto.

iBestelakua ago eu, eure ipoñegaz!
Ez dakitt obia ala txarragua: bestelakua;
iImpertinente que estás con tus cuentos!
No sé si mejor o peor: diferente.

BESTERIK. Modo adv. No otro, ningún otro.
Besterik zeu baño, ez deilla alperrrik etorri.
Ningún otro, sino tú, que no venga en vano.

BESTERIK EZIAN. Modo adv. A falta de...
Besterik ezian, arto sikua be ona.
Cuando no hay otra cosa, la borona seca también es buena.

BESTERIK EZ LAKUA. Loc. adjetiva.
Excepcional.
Patxi boliñ, Bolingokua, auzixetan Lekamendikuagaz, orbel burdi batzun kontura.

BOLIUA. Juego de la pelota. Boleo.
Pelotari aren albidaderik onena, boliuá.
La mejor habilidad de aquel pelotari, el boleó.

BOLO-BOLO IBILLI. Loc. ver. con que se expresa lo general o extendido de una referencia.
Bolo-bolo dabill erri guztian, ezkondu eitten zarala aberats bategaz.
Se dice por todo el pueblo que te casas con un rico.

BORONDATEKUA. Adj. De voluntad, liberal.
Gizon borondatekua dogu auzuan, Jaungoikuari eskerrak.
Gracias a Dios, tenemos por vecino un hombre liberal.

BORONDATETSUA. Adj. Voluntarioso.
Borondatetsua jaku seme nausiña.
Voluntarioso le tenemos al hijo mayor.

BORONDATIA. Voluntad, potencia del alma.
Arimian altasun bat da borondatia gauzak eitteko edo ez eitteko bidian jartzen gaittuana.
La voluntad es una potencia del alma, que nos pone en camino de hacer o dejar de hacer las cosas.

BORONDATIA. Voluntad, intención liberal.
Pobria koittau aundixa, baña borondatia ba'detsu.

Borondate gabe emotiak, ez dau balixo.
Pobre el muy desgraciado, pero voluntad te tiene.
No vale el dar sin voluntad.

BOST. Num. cardinal.
Bost atzamar dittugu esku bakotxian.
Tenemos cinco dedos en cada mano.

BOSTA. Fecha: el día cinco. Naipes: el cinco.
Mayatzen bosta, Santa Krutz eguna.
Bostakin urten dau triunfotik.

BOSTAK. Hora: las cinco.
Bostak elixako erlojuan.
Las cinco en el reloj de la iglesia.

BOSTEGUN. Num. card. Quinientos.
Bostegun gizon amarmillan aurka.
Quinientos hombres contra diez mil.

BOSTEKUA. Naipes: el cinco.
Bostekuakin azkenak eñ dittu.

BOSTETAKUA. Merienda. Refrigerio de las cinco.
Toki-Ederren eñ dogu bostetakua angulekin.

BOSTGARRENA. Num. ord. El quinto.
Bostgarrena, ez eriotzarik eittia.
El quinto, no matar.

BOTA. Ver. tran.: echar, tirar, arrojar, botar.
Andra-gizonak bota zittuan etxetik, jan-txakur bi ziralako.
Zortzi egun baño len, bota biar izan zittuan abarketok.
A marido y mujer les arrojó de casa, porque eran unos parásitos.
Antes de los ocho días tuvo que tirar las alpargatas.

iBOTA KONTRA! En los juegos de competencia, reto con que se emplaza al contrario.
iBota kontra nai beste diru!

BOTARIXA. Votante.
Nola botarixa saltzen zan, dirurik geixen emoten eban aberatsa izaten zan Diputau.

BOTATZALLIA. Adj. Derrochador.
Botatzaille negargarri bat urten dau baserriko nausixak.
El mayor del caserío, ha resultado un lamentable derrochador.

BOTATZIA. Forma nominal del verbo *bota*.
Botatzia baño obe dozu pobre bati emotia.
Mejor que tirarlo es dárselo a un pobre.

BOTAU. Ver. tran. Votar, emitir el sufragio.
Goizian lelengo orduan botau dot Allende'n alde.
En la mañana temprano he votado a favor de Allende.

BOTAZIÑUAK. Elecciones. t. *eleziñuak*.

Botaziñuen zaiñ, botuan kontura diru apur bat etxeratzeko.
Esperando las elecciones, para a cuenta del voto traer un poco de dinero a casa.

BOTIA. Bota para el vino.
Botiakin juaten zan eitzari, Eitza'tik ziar.
Solía ir de cazador con su bota, por Eizaga.

BOTIKARIXUA. El farmacéutico.
Barrenkaleko botikarixo zarran esakeria.

BOTIKIA. Farmacia, droga, remedio.
Jose Iñazio'k Plaza barrixan eukan Botikia.
Don Toribio zanak aindutako botikiagaz osatu zan.
José Ignacio tenía farmacia en la Plaza Nueva.
Con la medicina que le mandó el difunto don T. se curó.

BOTO-BATZALLIA. Muñidor electoral.
Sasoï baten, boto-batzalliak ortatik bizi izaten ziran.
En un tiempo, los muñidores electorales vivían de eso.

BOTUA. El voto.
Gizon bat, boto bat; Jaungoikuan aurrian gizon bat, nai aundi ta nai txiki, naiz jakituna edo naiz eskola bakua gizon bat dan bezela.
Un hombre un voto, de la misma manera que ante Dios un hombre es un hombre, ya grande o pequeño, sabio o necio.

BOTUA BOTA. Lo mismo que *botau*.
Azkeneko orduan, lau milla errialen orde z bota eban botua Allende'n alde.
A última hora, votó a favor de Allende, a cambio de cuatro mil reales.

BOTUA ESKATU. Ver. tran. Presionar por el voto.
Uezabak botua eskatu detse bere langillieri.
El patrono les ha pedido el voto a sus obreros.

BRAGETIA. Bragueta, variante: *bargetia*.
Prakak zittuan euskal bragetiakin, kortako atia leztxe, alde batera zabaltzen zana.
Tenía los pantalones con la bragueta euskara, que como la puerta del corral se abría a un lado.
(C'est ce qui meut le vaillant Justinian, lib. IV, de Cagotis tolliendis, a metre summum bonum in braguibus et braguëtis. Rabelais. Pantagruel, lib. III, chap VIII).

BRASIA. Brasa, rescoldo.
Sutan, brasia lagatzen zan urrengo goizera arte, et'ala su barri egunera arte.
En el fuego se dejaba el rescoldo hasta la mañana siguiente, y así hasta el día del fuego nuevo.

BRINZADIA. Pelo de quebradura, grieta.
Brinzadia agiri dau batetik bestera ontzi onek.
Este cacharro presenta una quebradura de un lado al otro.

BRINTZATZIA. Forma nominal del verbo *brinzau*.
Zenbat zabalagua kristala, errezaua brintzatzia.
Cuanto más ancho el cristal, más fácil de quebrar.

BRINZAU. Ver. tran. Quebrar. U. t. c. reflex.
Quebrarse. sinón. *Dartau, zartau.*
Leyoko kristala brinzau dau, aize bolada batek.
Berez, espillua brinzau da.
Una ráfaga de viento ha quebrado el cristal de la ventana.
El espejo se ha quebrado de por sí.

BRINZAK. Astillas.
Eskuturra ausi eta brinzak aragixan katiau jakoz.
Se ha roto la muñeca, y las astillas se le han enredado en la carne.

BRIZ-BRIZ. Modo adv. Brillantemente, relucientemente.
Briz-briz agiri zan Zesterukua, Arraten.
Zesterukua aparecía como un foco de luz.

BRIZTARIA. Resplandor, fulgor.
Oñaztu baten briztaria izan da.
Ha sido el fulgor de un rayo.

BRIZTARATSUA. Adj. Resplandeciente.
Diamantia ez bakarrik briztaratsua, baita munduan dan arririk gogorrena be.
El diamante, no sólo es resplandeciente, sino también la piedra más dura que existe.

BRIZT EIÑ. Ver. intran. Brillar.
Urriñera, brizt eitten eban euzkittan, diamante ederra balitza letz, birixua izanakin.
A lo lejos brillaba al sol como un hermoso diamante, con ser un vidrio.

BRITZ ERAIÑ. Ver. tran. Abrillantar una cosa.
En armería se dice: *argi eraiñ.*
Brizt eraiñ netsazen oñetakuak mutiko bati, bizarra kentzen zesten artian.
Le hice lustrar los zapatos a un muchacho, mientras me afeitaban.

BRO-BRO. Onomatopeya del hervir.
Bakillaua pill-pill, eta porruak bro-bro.

BRU-BRU. Onomatopeya del rumor.
Bru-bru dabill erri guztian zeñ dan lapurra.
Por lo bajo todo el mundo dice quién es el ladrón.

iBUELTA! En los juegos, orden de repetir el lance por no haber procedido en ley.
iBuelta, orretara ba ez dau balio!
iOtra vez, pues no vale de esa manera!

BUELTA ARTU. Ver. intran. Tomar vuelta.
Sinón. *itxuli.*
Laupago'n buelta artu dot afaittarako ez dakiran belutu.
En Laupago he tomado la vuelta, para que no se me hiciera tarde para la cena.

BUELTA EIÑ. Ver. intran. Volver, regresar, sinón. *jira eiñ, itxuli.*
Juan zan Ameriketara, baña beriala buelta eiñ eban.
Fue a las Américas, pero volvió en seguida.

BUELTAKA IBILLI. Ver. intran. Dar vueltas.
Bueltaka ebillen ferixan ezer erosi gabe.
Daba vueltas por la feria sin comprar nada.

BUELTAU. Ver. tran. Volver, dar vuelta a una cosa. U. t. c. reflex. Volverse.
Buelta emoixozu soñekuari.
Bide erdittik bueltau zan ukat eiñda.
Dale vuelta al vestido.
Se volvió de la mitad del camino habiéndose agotado.

BUELTATZIA. Forma nominal del verbo *bueltau*.
Beñ okerrera artu ezkeru, bueltatzia gatxa.
Una vez que se toma a torcido, difícil el volverse.

BUELTIA. El regreso. Sinón. *itxulitzia.*
Beñ tabernan, noiz danik b'ez bueltia.
Una vez en la taberna, ni pensar en el regreso.

BUELTIA. El rededor. Sinón. *bira, jira, jiria.*
Etxian buelta guztia, dana zan loratei bat.
Todo el rededor de la casa era un jardín.

BUELTIA EMON. Ver. tran. Dar vuelta a la cosa.
Sutan dagon bixiguak, bueltia emon biarra dauka.
El besugo que está al fuego, necesita darle vuelta.

BULAR ARRUA. Adj. Tetuda. *Titi-arrua*, nombre que en Venezuela se da a una variedad de banana, sin duda de los de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas.
Fraille katilluakin artu ezindako bular-arrua.
Tetuda como para no poderla calibrar con una taza de fraile.

BULAR BATEKO ANAYAK. Hermanos de leche.
Beñ baten. Erregia eta mendiko arzaiñ bat, bular bateko anayak ziran.
Cierta vez, el rey y un pastor eran hermanos de leche.

BULAR PUNTIA. Pezón.
Bular puntia andrazkuana; errua ganauana, bularrak eta errapia diran bezela.

BULARRA. Pecho, teta, leche materna.
Damutasunez beteta, arri bategaz zauritzen eban bularra.
Bularra agiri jakon.
Ez dago botikan aman bularra lako gauzarik.
Lleno de contrición se hería el pecho con una piedra.
Se le veía un seno.
No hay en la farmacia nada como la teta de la madre.

BULARRA EMON. Ver. tran. Dar de mamar al niño.

Zanzio'ko Rafael'en pinturarik onenak, Ama Birjiña bularra emoten bere umiari.

Los mejores cuadros de Rafael de Sansio, la Virgen dando de mamar al niño.

BULARRAK. Pechos de la mujer. Sinó. *titixak. Neskatilla bularrak, urten urtenak, agiri jakozen.*

iZorionekuak zu azi zinduezen bularrak!
Presentaba unos senos de virgen turgentes.
iBienaventurados los pechos que te criaron!

BULARRETAN AZI. Loc. ver. Criar a los pechos.

Bere bularretan azittako seme maittia.
El hijo amado criado en sus pechos.

BULARTSUA. Adj. Generoso, en otro sentido: tetuda.

Gazte gaztetatik zan bulartsua inguru guztientzat. Gaztetatik zan bulartsua, bere ama bezela.

Dade muy joven era generoso para todos los que le rodeaban.
Desde joven en tetuda como su madre.

BULDIA. Bula de comer carne.

Barrenkalian zan, San Esteban'go elizan, urtero agiritutzen zan Erroma'ko Buldia.

En la basílica de San Esteban, que estaba en Barrencalle, se publicaba todos los años la Bula de Roma.

BULDIA ATARA. Ver. tran. Sacar Bula o comprarla.

Urtero Buldia ataratzan eban, al eban eta.
Todos los años sacaba bula, porque lo podía.

BULTZADIA. Empujón.

Eiñ zetsan bultzadiagaz atzeruzka bota eban.
Con el empujón que le dio le tiró de espaldas.

BULTZA EIÑ. Ver. tran. Empujar.

Bultza eixozu bestiekin batera.
Empuja al mismo tiempo que los demás.

BULTZAGARRIXA. Resorte.

Amentxe biar dau bultzagarrixa.
Aquí necesita un resorte.

BULTZIA. Empuje. En econom. Oferta.

Bultza aundixa dakar gaur itxasuak. Atzoko ferixan, ganauak ez eban bultzarik.

Hoy el mar trae mucho empuje.
En la feria de ayer, no había oferta de ganado.

BURDI ARDATZA. Eje de la carreta.

Burdi ardatzak soñu eiñ deixan, andra barrixan arriua daroyala, zegozer eitten zetzan.

Algo hacía al eje de la carreta, para que cantara cuando llevaba el equipo de la nueva esposa.

BURDI-BIDIA. Camino carretil.

Aspaldixan jausita ziran burdi-bidiak.
Hace tiempo estaban abandonados los caminos carretiles.

BURDIÑAZKUA. Adj. De hierro, férreo.

Oiñ gauzarik geixenak dira burdiñaskuak.
Ahora, la mayoría de las cosas son de hierro.

BURDIÑ-BIDIA. Camino de hierro, ferrocarril.

Donostia'tik Bilbora'raño burdiñ-bidia Eibar'tik ziar doya.

El ferrocarril de San Sebastián a Bilbao pasa por Eibar.

BURDIÑ-GORRIXA. Cobre.

Arrate'ko aldietan, ba'zan burdiñ-gorri gei apurren bat.

En partes de Arrate había indicios de cobre.

BURDIÑIA. Hierro. Por síncopa: *burnia.*

Burdiña, Bizkai'ko mendixetan, ugari izan da.

En las montañas de Vizcaya se ha dado abundante hierro.

BURDIÑ-OLA. Ferrería.

Olerria'n eta bai Eitza'n, ba'ziran burdiñolak.

Tanto en Olarreaga como en Eizaga, había ferrerías.

BURDIÑA-TXATARRA. Deshecho de hierro.

Gerra ondorian, burdiña-txatarrakin aberastu dira bat baño geixago.

Después de la guerra, más de uno se han enriquecido con hierro viejo.

BURDIXA. Carreta.

Narretik burdira, burditik trenera besteko pausua.

De la narria a la carreta, hay un paso tan importante como de la carreta al tren.

BURDUNTZALIXA. Cazo, cucharón.

Bakotxari, burduntzalixa bete artua eta esne.

A cada uno, un cazo de leche y borona.

BURDUNTZIXA. Asador.

Burduntzixan sartu eta beko sutan erretako lukainkia, onena.

El chorizo asado en el fuego bajo, metido en el asador, es lo mejor.

BURLA EIÑ. ver. tran. Burlar sinón. *Barre eiñ.*

Ainbeste berba legunekin, barrutik burla eiñ zetsan.

Con tantas palabras suaves, por dentro le hacía burla.

BURLAGARRIXA. adj. Ridículo, digno de burlas.

Zeroyan soñekua, burlagarrixa.

El vestido que llevaba, ridículo.

BURLIA. Burla.

Orduko botaziñuak, burlia izaten ziran.

Las elecciones de aquel entonces solían ser una burla.

BURNIA. síncopa de burdiña.

Sutako burniagaz jo eban buruan.

Con el hierro del fuego le dio en la cabeza.

BURNIZKUA. adj. Lo mismo que *burdiñazkua.*

Eukan ontzitadi guztia zan burnizkua.
Toda la batería que tenía era de hierro.

BURPILLA. Rueda, sinón. *erroberia*.
Burpilla asmau ebanak, emon zetsan asieria gero izan diran makiña guztieri.
El que inventó la rueda, dio comienzo a todas las máquinas que ha habido después.

BURPILLDUNA. adj. De ruedas.
Narrían ondoren izan zan ibillgarri burpillduna.
Después de la narria vino el vehículo con ruedas.

BURPILLEZKUA. adj. montado sobre ruedas.
Burpillezko ibillgarrixa, burdixa.
Vehículo sobre ruedas, la carreta.

BURROKA. Juego de muchachos, que consistía en que uno se pusiera de burro junto a la pared, para que le fueran saltando encima los demás, hasta que se deshiciera el racimo.
Burroka jarduntzen genduan Konsejupian.
Jugábamos al burro bajo el Consejo.

BURRUAN. Un juego de cartas.
Burruan neuk ba ba'nekixan.

BURRUKAN. modo adv. En pelea, antón.
baketan.
Ezkondu diranetik, burrukan bizi dira.
Desde que se casaron viven peleando.

BURRUKAN EIÑ, IBILLI, BIZI.
Moskortzen dan guztian, drogaren bat atara eta burrukan eiñ barik ez da ogeratzen.
Mutill ori, eskolatik urten eta burrukan dabill egunero.
Burrukan bizi da lagunekin.
Cuando se embriaga, no se acuesta sin suscitar antes alguna cuestión y pelearse.
Este muchacho sale de la escuela y se está peleando todos los días.
Vive peleándose con los amigos.

BURRUKALARIXA. Peleador, peleón.
Txakur burrukalarixa urten desku, zure gorrixan umiak.
La cría de vuestro bermejo, nos ha salido un perro peleón.

BURRUKARIXA. Lo mismo que *burrukalarixa*.
Baraurik ona, baña erandakuan eutsi ezindako burrukarixa.
Es bueno en ayunas, pero cuando bebe, un peleón incontinente.

BURRUKIA. Pelea, lucha y hasta guerra. En esta última acepción se entienden a lo sumo los encuentros locales de barrio a barrio o de tribu a tribu, tal como serían las guerras cuando se inventó la onomatopeya.
Aurreko tabernan burrukia izanda.
En la taberna de enfrente ha habido plea.

BURRUNDARIA. Vibración.
Motorran burrundaria urriñetik entzutzen zan.

Burrundarik konturatu nintzan, erletxia zana inguruan.
De lejos se oía el zumbido del motor.
Por el rumor del enjambre me di cuenta de que cerca había una colmena.

BURRUNDARIA EIÑ. ver. intran. Zumber.
Kanpai nausixak burrundara luzia eitten dau.
La campana mayor produce una vibración que dura largo tiempo.

BURRUNDARATSUA. adj. Vibrador.
Txitxarria, ez nausiña kokuen artian, baña bai burrundaratsuena.
La cigarra no es el mayor de los insectos, pero sí el más vibrador.

BURU. sobrenombre.
Buru'nian eiñ dogu atari kontentuzgarrixa.
Donde Buru hemos hecho una cena contentosa.

BURUA. Cabeza.
Burua da korputz guztian nausixa; berak darabiz oñak eta eskuak, eta berak aintzen dittu dantzarixan anka-biurrixak eta soñularixan atzaparren jua da etorrixak.
La cabeza es lo principal de todo el cuerpo; ella mueve los pies y las manos, ella rige las piruetas del danzarín y los movimientos de los dedos del músico.

BURUA. Cabeza, memoria, talento.
Burua da korputzian alderik nausiña.
Buruan daukaraz amar mandamentuak
Burua biar da makiña orri eskua ipintzeko.
La cabeza es la parte principal del cuerpo.
Tengo en la memoria los Diez Mandamientos.
Hace falta talento para poner las manos a esa máquina.

BURUA. Jefe, principal, presidente.
Famelisan buru da Aitta.
Zuen etxeko burua, Ama.
Atzo gabeko batzarrian buru, zure semia.
En la familia la cabeza es el padre.
En vuestra casa, la madre es la cabeza.
En la reunión de ayer noche, tu hijo hizo de presidente.

BURUA. top. Cabezo.
Salbador'ko burua artu genduanian jarri giñan apur baten.
Cuando tomamos el cabezo de Salvador nos sentamos un rato.

BURUAUSTIA. Preocupación. cálculo, estudio.
Buruaustia ekarri desta autu orrek.
Buruauste aundixak ditu liburu ori aitziak.
Este asunto me ha traído preocupación.
El entender ese libro supone grandes cálculos o estudios.

BURUA BAT EIÑ. loc. verbal que significa comprometerse con, unirse a.
Ba'zabiz zu burua bat eiñda kaskajo aundi orregaz.

Ya andas tú conchabado con ese gran necio.

BURUA BEROTU ETA ANKAK OZTU. Se dice de los apasionamientos que no valen la pena.
Arengandik ataratzten dozuna da, burua berotu eta ankak oztu.

Lo que sacas de terciar con aquél, es la cabeza caliente y los pies fríos.

BURUA BOTA (BERE). ver. reflex. Suicidarse.
Bere burua bota dau zubitik bera.
—¿Zer gura dozu? ¿Burua bota deiran?
Se ha suicidado arrojándose por el puente. ¿Qué quieres? ¿Que me suicide?

BURUA EUKI. ver. tran. Tener cabeza (inteligencia).
Ez dozu bururik euki au eitterakuan.
No has tenido cabeza al hacer esto.

BURUA GALDU. ver. intran. Delirar. Como tran.
Perder el juicio.
Burua galduta diardu disparatiak esaten.
Diru apur bat eñ ebanetik, burua galdu eban.
Está delirando y diciendo disparates.
Desde que hizo un poco de dinero perdió el juicio.

BURUA JASO. ver. tran. Levantar cabeza. Como reflex. alabarse.
Estu agertu zan, baña burua jaso dau.
Bere burua jasotzen erremia, naiz da ezer izan ez.
Estuvo apurado pero ha levantado cabeza.
Pronto a alabarse, auuque no sea nada.

BURUA JUAN. ver. reflex. Darle a uno el vértigo, perder el conocimiento.
Goi gañetan, burua juaten jata.
Ordu erdixan, burua juanda egon zan.
En las alturas me da vértigo.
Media hora estuvo con el conocimiento perdido.

BURUAN ARTU. ver. tran. Memorizar, tomar en la memoria.
Justinianon lege guztiak buruan artuta zittuan.
Todas las leyes de Justiniano las tenía en la memoria.

BURUAN SARTU. ver. tran. Inducir. Como reflex. Antojarsele.
Bere emaztiak buruan sartu zetsan Macbeth'ri Erregia iltzia.
Buruan sartu jako Arrate'ra igotzia dagan beruakin.
Su esposa indujo a Macbeth a matar al Rey.
Se le ha antojado subir a Arrate con el calor que hace.

BURUAN ULERIK AÑA BIDAR DAMUTU. loc. ver. Arrepentirse.
Buruan ulerik aña bidar damutu jata etxia ez erosi biarra, euki neban aukeriakin.

Tantas veces como pelo en la cabeza me ha pesado el no haber comprado la casa, con la oportunidad que tuve.

BURU-ARIÑA. adj. Ligerero de cascos. sinón. *txoriburua.*
Senarrak urten detsa, alperra eta txori-burua.
El marido le ha salido vago y ligero de cascos.

BURUAUNDIXA. Cabezudo. Como adj. suele significar talentado.
Txirixo-kaleko Juantxo buruaundixa, gazterik ill zan.
Einstein, buruaundixa numeruetarako.
Juan, el cabezudo de Chirio-calle murió joven.
Einstein, gran cabeza pñra los números.

BURU -AUSTIAK. Quebraderos de cabeza.
Ainbeste buru-austek ezertarako ez zetzan balio izan.
Tantos quebradores de cabeza no le valieron para nada.

BURU-AZPIRAKUA. Almohada.
Olo-lumaz arrotuta neban nere buru-azpirakua.
Tenía mi almohada henchida de plumas de gallina.

BURU BAKUA. adj. Insensato.
Ondamendixa etorri jakuen etxera, nausi gelditu zana buru bako bat zalako.
Les vino la ruina, porque el que quedó era un insensato.

BURU-BIDIA. Destino.
iAu da buru-bidia! Lurrian lo eitten, oge bigunian jaixo nintzan au.
¡Vaya destino! Durmiendo en el suelo, yo que nací en blanda cama.

BURUGINTZIA. Prudencia.
Burugintzia erabiltzen eban arek, esertara arriskau baño len.
Gasto de prudencia hacía aquél, antes de arriesgarse a nada.

BURUGIÑA. adj. Prudente, calculador, previsor.
iBurugiña demoniua! Iñork arrapauko a!
¡Previsor, el demonio! ¡No hay nadie que le coja a aquél!

BURU-GOGORRA. adj. Terco, obtuso.
iBuru gogorra! Ormiakin tope eiñda be ondiok arutz gurakua.
¡Terco, que no se convence ni luego de haber dado con la pared!

BURU JARRI. ver. intran. Erigirse en cabeza, ponerse a la cabeza.
Jausi eraiñ eban odol guztia, bera buru jartzeko.
Ezer-ez-dakuen buru jarri zan.
Toda la sangre que hizo verter, para ponerse de Jefe.
Se puso a la cabeza de los desheredados.

BURUKIXA. Cabezal, lo mismo que *buru-azpikua.*

...*eta artu zittuan ango arri-artetik batzuk eta eñ eban burukixa, eta lotaratu zan bertantxe.* Gen. 28, 11.

...y tomando unas de entre las piedras que allí había, hizo un cabezal y se acostó allí mismo.

BURUKO MIÑA. Jaqueca, inquietud, responsabilidad.
Analjesiko bategaz kentzen da buruko miña, baña ez aundi izan guriak ekartzen dittuan buruko miñak.

Con un analgésico se quita la jaqueca, pero no así los dolores de cabeza que trae el afán de ser grande.

BURUKO-ZAPIXA. Pañolón para la cabeza. Más común *buruko-pañuelua*.

Buruko-zapixakin eta gona urdiñ izurrez betetakuagaz, Arratixa'ko neskatilla bat zidurixan. Con el pañuelo a la cabeza y la saya azul llena de frunces, parecía una muchacha de Arratia.

BURURATU. ver. tran. Recordar, traer a la memoria. sinón. *Oroitto*. En Eibar apenas se usa la segunda aunque se va haciendo conocida por la literatura.

Oiñtze bururatu jata, gaur dala berrogei urteko kontu bat.

Bururatu deigun zer zor detsegun gurasueri.

Ahora me he acordado de una cosa de hace cuarenta años.

Recordemos lo que debemos a los padres.

BURURATUTZIA. forma nominal del verbo *bururatu*.

Bururatutzia ainbeste gauza, ez da makala. No es broma recordar tantas cosas.

BURURATZIA. *bururatutzia*.
Gura neban bururatzia nola izan zan autua, baña illun agertu naiz.

Quería recordar cómo fue el asunto, pero me he encontrado a oscuras.

BURUTANZIÑOTSUA. adj. Celoso, imaginativo.
Senarra burutanziñotsua, eta ez zan baketan bizi.
Illunian bizi dana, burutanziñotsua.
Celoso el marido, no vivía en paz.
El que vive en la oscuridad es dado a imaginaciones.

BURUTANZIÑUA. Corazonada, visión, imaginación.
Gaur goizian jaiki naizenian, burutanziñuak emon deste zuregana etortzeko.

Andra zintzua dau, baña burutanziñuak emoten detse eta infarnu baten bizi da.

Cuando me he levantado hoy a la mañana, he tenido la corazonada te venir donde ti.
Tiene buena mujer, pero tiene visiones y vive en un infierno.

BURUTIK EIÑ. ver. intran. Desvariar.
Andra koittaua, burutik eitten ebala ebillen.
La pobre mujer estaba que desvariaba.

BURUTSIK. adj. Descubierta la cabeza.
Burutsik gizonezkuak eta andrazkuak zapi bat buruan dabela.

Descubiertos los hombres y las mujeres con una prenda a la cabeza.

BURUTSUA. adj. Ingenioso.
Burutsua gauza barrixak asmatzeko.
Talentado para discurrir cosas nuevas.

BURUZ. modo adv. De memoria.
Buruz ekixazen euskal kantu guztiak.
Sabía de memoria todas las canciones vascas.

BURUZALIA. adj. Egoísta. sinón. *berezalia*.
Buruzalia gazte gaztetatik agertu zan.
Desde joven se manifestó egoísta.

BURUZ BERA. modo adv. Del revés, con la cabeza para abajo.
Buruz bera esegí eben zugatz batetik.
Le colgaron cabeza abajo de un árbol.

BURUZ IKASI. ver. tran. Aprender de memoria.
Ba'dira judixuen artian, buruz ikasten dabena Eskritura guztia.

Hay entre los judíos, quienes aprenden de memoria toda la Escritura.

BURZAIÑA. Carretero.
Burzaiña tabernan zan artian, ostu zetsen zeroyan artua.

Mientras el carretero estaba en la taberna, le robaron el maíz que llevaba.

BUSKAN ERAKUTSI. ver. tran. Educar al perro.
Gaztetatik buskan erakutsittakua zan txakurra.
El perro era educado desde joven.

BUSKAN IBILLI. Se dice del que anda en busca de aventuras equívocas.
Oiñ be a buskan dabill zerbaitten ondorik.
Ahora también aquel anda husmeando tras alguna cosa.

BUSKANTZA. Embutido aldeano con carne de carnero
Egotxiara goyaz buskantza jatera datorren domekan.
El domingo que viene vamos a Egotxiaga a comer el embutido de carnero.

BUSTANA. Rabo.
Bustana da animalixetan bizkar-azurran luzekizuna.
El rabo en los animales es la prolongación de la columna vertebral.

BUSTANDUNA. adj. Provisto de cola.
Gure aurretikuak, oiñ dala milloi batzuk urte bustandunak izan biar izan ziran.
Nuestros antepasados, hace algunos millones de años, debieron estar provistos de cola.

BUSTANIKARIA. Especie ornitológica del país, que habita cerca de los ríos y se caracteriza por su cola temblona.

Ibaiko erri gañetan agertzen zan bustanikaria eltxuak jatera.

BUSTAN ZIRIXA. Cola que la costumbre autoriza a colgar por detrás a los distraídos, el día de los Santos Inocentes.

Buztan ziri aundi bat atzian ebala juañ zan auzokuari iñuzente eraittera.

BUSTARRIXA. Yugo. Prótesis de *ustarrixa* o ésta aféresis de *bustarrixa*.

Mutill zar zailla, baña jarri detse bustarrixa.
Solterón empedernido, pero ya le han puesto el yugo.

BUSTARTU. ver. tran. Poner el yugo.
Bixok dira alkarregaz bustartzeko modukuak.
Los dos son como para atarlos juntos.

BUSTARTUTZIA. forma nominal del verbo *bustartu*.
Alkar ondo artuko diranak komeni da bustartutzia.
Conviene poner al yugo, a quienes se han de llevar bien.

BUSTARTZIA. *bustartutzia*.
Oiñ eiñ biar dozuna da, irixak bustartzia.
Lo que ahora debes hacer, es poner el yugo a los bueyes.

BUSTINDUY. patronímico frecuente en Eibar.
Bustinduy'tarrak entzutze aundiko kañoiñak antxiñan.

BUSTI. ver. tran. Mojar. U. t. c. reflex.
Soñekugei au obeko dozu bustitzia josi baño len.
Busti eiñ naiz biarretik etxera natorrela.
Te será mejor que esta tela la mojes antes de darla a coser.
Me he mojado viniendo del trabajo a casa

BUSTINGORRI. top. Caserío que hubo en las cercanías de Eibar.
Bustingorri, lur baltzik ixa ez abalako.

BUSTIÑOLA. Obrador de arcilla. Sinón.
Tellerixia.
Bustiñol aretan, tella ederra ataratzen eben.
En aquella tejería sacaban buena teja.

BUSTIÑA. Arcilla.
Bustiñ apur bategaz eiñ eban Jaunak iduri bat, eta surpian putz eiñ zetsan arnasia, eta a izan zan Gizona bere arimiagaz.
Con un poco de arcilla hizo Dios una figura y le sopló el aliento por la nariz, y fue el hombre con su alma.

BUSTIÑEZKUA. adj. De arcilla.
Ontzi asko dira bustiñezkuak.
Muchas vasijas son de barro.

BUSTITZIA. forma nominal del verbo *busti*.

Ez da ona oñetakuak bustitzia.
No es bueno mojar el calzado.

BUSTIXA. como sust. Líquido. como adj. Húmedo.
Sadariko bustixakin kentzen ei da onduen egarrixa.
Lizundia aldia paraje bustixa.
Dicen que el líquido de la odre es lo que mejor quita la sed.
Lugar húmedo la parte de Lizundia.

BUSTITASUNA. Humeddad.
Negu guztiko eurixen bustitasuna ondiok azurretan daukat.
La humedad de todas las lluvias del invierno todavía la tengo en los huesos.

BUSTIUNIA. Parte húmeda.
Bart nola eurixa eiñ daben, bustiuna asko dittuzu bidietan.
Como anoche ha llovido, tienes muchas partes con agua en el camino.

D

DA. form contracta de la conjunción copulativa *eta*.

Juan nintzan da itxian biarra izan neban.
Juan da etorri; jan da erana; jan da lo; ill da kitto.

DAKO. desinencia de ablativo equivalente a para.

Nik zuretako, daukaran guztia.
Yo para ti, todo lo que tengo.

DAMASKIÑAZALLIA. Damasquinador.
Kaitano bat, damaskiñazalle onenatarikua.
Un tal Cayetano, uno de los mejores damasquinadores.

DAMASKIÑUA. Arte del damasquinado, resucitado en Eibar por los Zuloaga.
Zuloaga'tarrak biztutako arte bat damaskiñua.

DAMASKIÑOKUA. Damasquinador; del gremio del damasquino.

Zuen aitta zan damaskiñokua; Jose Valentin Isasi'kua, limakua.

Vuestro padre era del damasquino; José Valentín de Isasi, de la lima.

DAMIA. Dama. Se usa para denotar calidad y contraponer a *zalduna*.

Elgeta-kaleko Zalduna eta Damia.
El caballero y la dama de Elgueta-calle.

DAMUA. Pesar.
Arantza zorrotza balitza letz, damu batek minsorra desta biotzian.

Como si fuera una aguda espina, un pesar me duele en el corazón.

DAMU LZAN. ver. tran. Pesarle.
Nere bizi guztian damu izan dot eskolara juan biar eza.

Toda la vida me ha pesado el no haber ido a la escuela.

DAMUKIZUNA. Cosa de arrepentirse.
Damutasuna nola dan Zeruantzat gauzarik pozgarrixena eta pekatua damukizuna, deigun pekatu eñ gero damutzeko. (Rasputine'n erakutsixa.)

Como el arrepentimiento es la cosa más agradable al cielo y el pecado la cosa arrepenible, pequemos para luego arrepentirnos.

DAMUTASUNA. Arrepentimiento, contrición.
Benetako damutasun barik ez dago parkatzerik.
Sin verdadero arrepentimiento, no hay perdón.

DAMUTU. ver. reflex. Arrepentirse.
Buruan ulerik aña bidar damutu jakon ezkontzia.
Tantas veces como pelos en la cabeza se arrepintió de haberse casado.

DAMUTUTZIA. forma nominal del verbo *damutu*.

Eiñda gero damututziak, ez dau balio amen beko kontuetan.

El arrepentirse luego de haberlo hecho, no vale en los negocios de aquí abajo.

DAMUTZIA. *damututzia*.
Pekatuan ondoren etortzen da damutzia.
Después del pecado viene el arrepentimiento.

DANA. adv. de cantidad. Todo.
Aspaldixan ikusi ez, eta dana galduta topau dot.
Bizixa alde batera, dana galdu eben.
No habiéndole visto hace tiempo, le he encontrado desmejorado del todo.
Aparte la vida, lo perdieron todo.

DANA. part. act. irregular del verbo ser.
Dana da; ez izan zana.
Ontxe ikusi da gizona dana.
Es el que es; no el que fue.
Ahora se ha visto que es hombre.

DANA-BIARREKUA. Como adj. o modo adv. No del todo satisfactorio.
Eiñ daben lana, dana-biarrekua.
Todo le hace falta al trabajo que ha hecho.

DANA-BIARRIAN. modo adv. Así así, regularcito.
—¿Zelan dago ama gaixua?
—Dana biarrian.
—¿Como está la madre enferma?
—Así así.

DANA DALA. conj. Sea lo que fuere; con todo, de todos modos.
Dana dala, ni nere lenguan izango naiz beti.
Dana dala, zeu nausi.
Sea lo que fuere, yo siempre estaré en lo mío.
De todos modos, tú el primero.

DANA-EDO-EZERBEZ. modo adv. Todo o nada. Como adj. radical.
Gura dabe, dana-edo-ezerbez.
A txotxolua be, dana-edo-ezerbez.
Quieren todo o nada.
Aquel lerdo también, un todo o nada.

DANA GURAKUA. adj. Ambicioso.
Dana-gurako, ase-ezindako arrapatzalle gaizto bat aren uezaba.
Su amo, un ambicioso insaciable y perverso acaparador.

DANENGANDU. ver. tran. Generalizar. U. t. c. reflex.
Makinak danengandu dittue gauza asko.
Danengandu da gaur musiko ona.
Las máquinas han generalizado muchas cosas.
Hoy la buena música está al alcance de todos.

DANENGANDUTZIA. forma nominal del verbo *danengandu*.
Traba gabeko konpetenzian ondorena da, erreztasun guztien bentajia danengandutzia.
La consecuencia de la libre competencia, es la generalización de la ventaja de todos los adelantos.

DANENGANTZIA. *danengandutzia*.
Euren dana danengantzia, lelengo kristauen legia.
El poner todo lo suyo a la disposición de todos, ley de los primeros cristianos.

DANERAKUA. modo adv. De todo. como adj. Para todo.
Euren artian, danerakua dago.
Kaitano, danerakua dibuju autuan.
Entre ellos había de todo.
Cayetano, para todo en materia de dibujo.

DANIAN. adv. de lugar. En todas partes.

Danian da bardiñ; batzuk onerakuak, beste batzuk txarrerakuak.

En todos lados es igual; unos para el bien y otros para mal.

DANTZA-LEKUA. Lugar de baile.

Ballera guztietan da, euren erromerixa egunerako, dantza-lekua.

En todas las vecindades existe un lugar de baile para el día de su romería.

DANTZAN EIÑ. ver. intran. Bailar.

Aratostiak dira dantzan eitteko.

Los Carnavales son para bailar.

DANTZARIXA. Bailador, bailarín.

Arragueta'ko anka biurri erren bat zan gure denboran dantzaririk ariñena.

Un cojo de Arragueta era en nuestro tiempo el más ágil bailarín.

DANTZA-SOÑUA. *An ez da besterik, dantza-soñua baño.*

Allí no hay sino músicaailable.

DANTZIA. La danza; fiesta en que se baila.

Aurrezkua da benetako euskal dantzia.

Domeka arrasaldetan izaten da plazan dantzia.

Los domingos por la tarde suele haber baile en la plaza.

DARDARAZ. modo adv. Brillantemente.

Intxaurra lako diamantia zeroyan dardaraz bekoki erdixan.

Agorrilleko euzkixa genduan dardaraz gañetik.

Un diamante como una nuez, llevaba rutilante en medio de la frente.

El sol de agosto reverbera encima de nosotros.

DARDARIA. Estremecimiento.

Afaitxan giñala etxe guztiak eiñ eban dardaria, inguruan jausi zan bonba bategaz.

Estando cenando, se estremeció toda la casa con una bomba que cayó en la vecindad.

DARTAU. Ver. reflex. Resquebrajarse.

Variante: *zartau.*

Ez da apurtu baño bai dartau.

No se ha roto pero sí resquebrajado.

DARTATZIA. Forma nominal del verbo *dartau.*

Zementuari ez ba'jako emoten zatika nasaikizuna, etortzen joko dartatzia.

El cemento, si no se le da por trechos un margen para dilataciones, se raja.

DART EIÑ. Ver. reflex. Romperse, reventarse.

Txamarriak dart eiñ desta atzeko aldian.

Se me ha reventado la chaqueta por la espalda.

DART ERAIN. Ver. tran. Reventar.

Makurtzerakuan, dart erain zetsen prakeri.

Al agacharse hizo reventar los pantalones.

DATORKIZUNA. Lo por venir.

Iñok ez daki ziurrik datorkizunan barri.

Nadie sabe nada cierto sobre el porvenir.

DATORRENA. Lo que viene, lo futuro.

Datorrena, ona edo txarra, eruan biarrekua.

Datorrenan barri iñok ez daki.

Lo futuro, bueno o malo, obligado de sobrellevar.

Nadie sabe respecto al futuro.

DAUKANA. Adj. Hombre de bienes.

Daukanak ez'daukanari laguntzia balitza, beste gauza bat izango litzake mundua.

Si el que tiene ayudara al que no tiene, otra cosa sería el mundo.

Urte barri barri,

txarri belarri,

daukanak ez'daukanari

zaria bete madari.

DEBEKAU. Ver. tran. Prohibir por precepto legal.

Dedekauta dago bide onetatik ibiltzia.

Está prohibido transitar por este camino.

DEBEKAUTAKUA. Adj. prohibido.

Debekautako frutua, beti tentatzallia.

Siempre es tentador el fruto prohibido.

DEBEKATZIA. Forma nominal del verbo *debekau.*

Debekatzia errezagua, debekautakua gorde eraitzia baño.

Es más fácil prohibir que hacer cumplir lo prohibido.

DEIA. La letra *d.*

Mexedez eiñzu deia obeto.

Por favor, haz la *d* mejor.

DEITTU. Ver. tran. Llamar, requerir.

Amak deittu detsu etxeko ataittik.

Telefonetik deittu detsu Donostia'tik lagun batek.

La madre te ha llamado desde la puerta de tu casa.

Te ha llamado por teléfono un amigo de San Sebastián.

DEITTU. Ver. reflex. Llamarse.

Zuen Elgeta'ko osabia, ínola deitzen da?

Toki oni deitzen jako Azkonabitza.

Vuestro tío de Elgueta, ¿cómo se llama?

A alte lugar se le llama Azkonabitza.

DEITTUTZIA. Forma nominal del verbo *deittu.*

Deittutzia pentsauta egon naiz, etorri ez zaranetik.

Eta toki ari pentsau eban aurreran deittutzia

Bethel.

He estado pensando en llamarte, ya que no venías.

Y a aquel lugar pensó llamar en adelante Bethel.

DEITZIA. *Deittutzia.*

Deitzia gura izan dot, bara ez ziñan agiri.

He querido llamarte, pero no te veía.

DEIXA. Llamamiento. Sinón. *diagarra.*

Alkatiak aiñ dau deixa, bakotxak bere etxe aurreko edurrak kendu deixazen.

El alcalde ha hecho un llamamiento para que cada cual quite las nieves del frente de su casa.

DEIXAK. Se entiende por la tática: *eliz deixak.*

Proclamas, amonestaciones que se publican en la iglesia.

Meza-nausittan, ebanjelixuan ondoren, irakorten dira ezkontzera doyazenen deixak.

En misa mayor, después del Evangelio, se leen las amonestaciones.

DEMANDALARIXA. Adj. Cuestionador,

quisquilloso.

Demandalarixa auzoko guztiegaz.

Quisquilloso con todos los vecinos.

DEMANDAN. Adv. de modo. Inamistosamente, airadamente.

¿Zeraittik esan biar destazuna esaten destazu demandan, uste jan biar nozula?

¿Por qué lo que me tienes que decir me lo dices riñendo, como si me fueras a comer?

DEMANDAN EIÑ. Ver. tran. Cuestionar, reñir, discutir violentamente.

Andra-gizonak demandan eiñ dabe, urte bete ez ondiok ezkondu zirala ta.

Marido y mujer han reñido, cuando no hace un año que se casaron.

DEMANDIA. Cuestión, riña, encuentro verbal.

Ezer ez dan etxian, demandia ugari.

Demanda bizixan dagoz beti.

En casa vacía, riña abundante.

Siempre están en una viva pelea.

DEMASA. Adj. grande, exorbitante. Muy usado en Eibar, aunque puede sustituirse con una loc. como *besterik ez lakua*, también en uso.

Aboziñau demasa aiz i beintzat.

Tú al menos eres bien estrambótico.

IDEMONIO ARRAIXUA! Interj. Más frecuente:

iarraixo demoniua!

iBeti lapurretan, demonio arraixua!

¡Siempre robando, maldito demonio!

DEMONIOKERIXIA. Diablura. Lo mismo que *sorgiñkerixia*, brujería.

iDemoniokerixia aurkitzen jata amentxe!

iEziñ aztarrenik atara zer eitten jakuen olluak

ipintzen dittuen arrautzeri!

¡Me ocurre aquí una diablura!

¡No puedo averiguar lo que pasa con los huevos que ponen las gallinas!

DEMONIUA. Demonio. Sinón. *diabrua*.

Antxinako Ifar aldeko demoniua, adarrak eta

akerran biatzak dittuala...

El antiguo demonio del Septentrión, con cuernos y pie de cabrón...

DEMONIUA. Adj. Travieso.

iBai mutiko demoniua, bayetz esan eta etorri ez!

¡Demonio de muchacho, dijo que sí y no ha

venido!

DEMONTE. Se usa como interjección y en evitación de otras mal sonantes.

¿Zer demontre edo zer arraixo dok ori!

DENBORIA. Tiempo.

Atzo jayo eta gaur ill, Denboria ariñ dabill.

Dístico en el cementerio de Zaldívar.

DENBORIA EIÑ. Ver. tran. Hacer tiempo, matar el tiempo.

Denboria eitten nago, afaittarako ordura arte.

Estoy haciendo tiempo hasta la hora de cenar.

DENBORIA EMON. Ver. tran. Pasar el tiempo.

Abontzako Pantaleon'ek, denboria emonaz,

malletan eitten eban suteixan.

P. de Abontza, para matar el tiempo, hacía de martillador (con el mazo grande) en la fragua.

DENDARIXA. Tendero, comerciante.

Kataliñ Bizkay, dendari burutsua Barrenkalian.

DENDIA. Tienda, comercio.

Errebal kalian euken dendia asko saltzen ebana.

En la calle del Rabal tenían tienda que vendía mucho.

DENUNZIA. Denuncia.

Denunzia sartu dot Konzejura amengo ur zikiñen gaittik.

He puesto denuncia al Ayuntamiento, por las

aguas sucias de aquí.

DENUNZIATZALLIA. Denunciador.

Denunziatzallia etorri deilla Alkate jaunana aurrera.

Que el denunciante venga ante el señor Alcalde.

DENUNZIAU. Ver. tran. Denunciar.

Estu artu arren, ez eban iñor denuntziatu.

Aunque le apretaron, no denunció a nadie.

DENUNZIATZIA. Forna nominal del verbo *denunziatu*.

Denunziatzia beti izan da itxura bako gauzia.

El denunciar siempre ha sido cosa fea.

DERRIGORRIAN. Modo adv. A la fuerza.

Frecuente, aunque puede sustituirse y se le sustituye por el castizo *nai-da-naiezian*.

Derrigorrian eruan eben etxera.

Le llevaron a casa a la fuerza.

DERRIOR. Modo adv. De rigor, forzoso, sinón. *nai-da-naiez*.

Orruaz ziñuan, derrior biar ebala...

Decía gritando que forzosamente lo necesitaba.

DESAFIXUA. Desafío.

Narruk desafixua bota dau erozeiñ adarin kontra milla errial.

Gaurko partidua desafixokua ei da.

Narru ha lanzado un desafío contra cualquier carnero por mil reales.

Dicen que el partido de hoy es de desafío.

DESBARDIÑA. Adj. Desigual.

Mai au, desbardiña dago jasogarririk barik. barik.

Está desigual sin un calzo.

DESTER ARRIXA. Piedra de amolar. También se dice *desteria*.

Dester arrixak urakin biarra eitten dau.

La amoladora trabaja con agua.

DESTERIA. Piedra de amolar. Sinónimo

Zorroztarrix.

Desteri edo zorroztarrix, Eibar'ko lantei

guztietan.

La piedra de amolar, en todos los obradores de

Eibar.

DI. Sufijo que refiere conjuntos, reunión o grupo del nombre a que se aplica.

Pagadi, artadi, urkidi, arizti,

DIABRUA. El diablo.

Onetan, Espirituak eruan eban Jesus urriñ bateko bakardade latz batera, diabruak tentau zeixan.

En esto, el Espíritu llevó a Jesús a una áspera soledad distante, para que le tentara el diablo.

DIABRUA. Adj. Travieso.

Infarnuko txikixa esaten gentsan eskolako bati, oso diabrua zalako.

A uno de la escuela le llamábamos el pequeño del infierno, porque era muy travieso.

DIABRUKERIXIA. Diablura, travesura.
Ez okerrok, baitta onenak be, makiña bat diabrukerixa eitten genduzen sasoi artan.
No sólo los traviesos, sino también los buenos, bien de diabluras hacíamos en aquel tiempo.

DIAGARRA. Llamada en alta voz, invocación.
Aren diagarrak, eriotzara eroyezenian, artaldia abeletxera bezela, alperrik izketa ez-ezagunetan, amendik milla urtera be aittuko dira.
Las invocaciones de aquellos, cuando les llevaban a la muerte, como el rebaño al redil, aunque en lenguas desconocidas, se dejarán oír de aquí a mil años.

DIAGAR EIÑ. Ver. tran. Llamar a voces.
Diagar eiñ detsu amak, ortik kendu zaittian.
Te ha llamado tu madre, para que te quites de ahí.

DIAR. Síncopa de *diagar*.
Diar eiñ detsut bazkaitarako, et ez destazu entzun.
Te he llamado para que vinieras a comer, y no me has oído.

DIARRA. Síncopa de *diagarra*.
Diarra izan da ataiko atian ¿zein ete da ordu onetan?
Ha habido una llamada en la puerta de la casa, ¿quién será a estas horas?

DI DA. Onomatopeya del acto de golpear.
Di da burutik bera eta lurrera konort barik.
Di da en la cabeza y al suelo sin conocimiento.

DIK. Terminación o desinencia de ablativos, variante eufónica de *tik*, equivalente a las preposiciones de, desde, por.
Urrindik nator ukat eiñ biarrian.
Vengo de lejos a punto de sucumbir.

DILIN DALAN. Onomatopeya que imita el sonar de las campanas.
Dilin dalan, kanpaien otsa ba'zoyan zeruan ziar...

DINBI - DANBA. onomatopeya del martilleo en la fragua.
Dinbi-danba suteixan, goritxutako burdiña tiratu gurarik.
Dinbi-danba sonaba en la fragua, tratando de estirar un hierro candente.

DINDIRRIXA. Moquillo.
Dindirrixa ez da faltako zurran puntan.
No faltará moquillo en la nariz.

DIRU. Personificación del dinero, como Don Dinero de Quevedo.
Diru, zaldun aundixa alde guztietan.
Don Dinero, gran caballero en todas partes.

DIRUA. Dinero.
Dirua biar da bizi izateko; ez bizi diruak pillatutzeko, ugarrak eta gorriñak alperrik galtzen dittuan lekuan.
Es necesario el dinero para vivir; pero no vivir para amontonar dinero, donde el orín y la tiña lo echan a perder.

DIRU URREZKUA, ZIDARREZKUA, TXANPONA, PAPELEZKUA.
Diru urrezkuak geixago balio dau zidarrezkuak baño, eta onek txanponak baño.
Oiñ alde guztietan, papelezko dirua nausi.

La moneda de oro vale más que la de plata, y éste que la de cobre.
Ahora en todas partes priva el papel moneda.

DIRUA AURRERATU. ver. tran. Ahorrar dinero. También se usa la misma expresión en sentido de prestar dinero.
Lelengo diru apur bat aurreratu eban, eta gero, diru ori aurreratzen eban estu ziranen artian, onenbesteko sarixa aurrez kenduta.
Primero ahorró un poco de dinero, y luego ese dinero lo prestaba a quienes estaban en apuros, cobrándoles por anticipado un interés.

DIRUA BATU. ver. tran. Hacer colecta, efectuar una cuestación.
Diru batze asko izaten zan Eibar'en, beti asmu onetarako.
Se hacían muchas cuestaciones en Eibar, siempre para nobles propósitos.

DIRUA BOTA. ver. tran. Disipar el dinero, despilfarrar. También se usa en sentido de contribuir a un fin, con dinero.
Utsa denboran, gurasuengandiko diru guztia bota eban.
Neri tokatzen jatan dirua bota dot kerizpian diranendako.
En nada de tiempo, disipó todo el dinero que heredó de sus padres.
Yo ya he contribuído con el dinero que me corresponde para ayuda de los presos.

DIRUA EIÑ. ver. tran. Hacer fortuna.
Ona agertu dan jendia, ez bizi izatera, ez bada ez dirua eittera.
La gente que ha venido aquí, no al objeto de vivir sino de hacer fortuna.

DIRUA ESKUAN. modo adv. Al contado.
Dirua eskuan dabillenak, gauza guztiak dittu merkiago.
El que compra al contado, todo lo tiene más barato.

DIRUA IPIÑI. ver. tran. Colocar dinero, hacer una inversión.
Dirua ipiñi eban gure aita zarrak, Alfa aurrerarutz jartzeko.
Nuestro viejo padre puso dinero en Alfa para que echara a andar adelante.

DIRUA KENDU. ver. tran. Tomar dinero a préstamo.
En sentido peyorativo: dar un sablazo.
Dirua kendu detsa osabiari, sari oso laburrakin, etxe barrixa eitteko.
Gaur ¿zeñi kendu ete detsa dirua arlote orrek?
Ha tomado dinero a su tío, a un interés bajo, para hacerse una nueva casa.
¿A quién habrá sableado hoy ese manirroto?

DIRUDI. ver. Parece.
Egualdixa jasotzera doyala diruri.
¿Ba'kizu zeñ dirudizun? Barrabas.
Parece que va a levantar el tiempo.
¿Sabes a quién te pareces? A Barrabás.

DIRUDIXAN LETZ. loc. adv. A lo que parece.
Dirudixan letz, aurtengo gari uzta ez da izango ugarixa.
A lo que perece. la cosecha de trigo de este año no va a ser abundante.

DIRUDUNA. Hombre de dinero. sinón. *aberatsa*.
iZerlako gaxta dirudunendako Jaungoikuan erregetasuneko bizitzara sartzia! Mar. 10, 23.
¡Qué difícil es para los ricos entrar en el Reino de Dios!

DIRU GOSE MADARIKATUA! loc. equivalente al *auri sacra fames*, del latín.
iGaur eguneko diru gose madarikatua!
¡El maldito hambre de dinero de estos tiempos!

DIRUTU. ver. reflex. Enriquecerse.
Utsa denboran oso dirutu zan.
En nada de tiempo se enriqueció.

DIRUTUTZIA. forma nominal del verbo *dirutu*.
Ez eban beste amesik ekarri ona, dirututzia baño.
No trajo aquí otro sueño que el enriquecerse.

DIRUTZIA. *dirututzia*.
Dirutzia be, zelan dan; osasuna galtzekotan, obe pobre irauntzia.
El enriquecerse según y cómo; para perder la salud, mejor seguir pobre.

DIRUTZIA. Cantidad, montón de dinero.
Arek eban dirutzia, ez eukan azkenik.
La cantidad de dinero que tenía, era sin fin.

DIRUZALIA. adj. Codicioso.
Diruzalia, lapurretara biurtzerañok.
Codicioso hasta hacerse ladrón.

DOATSUA. adj. Con facultades, dotado.
Etixerako emazte doatsua arek artu dabena.
Esposa bien dotada para la casa, la que ha tomado.

DOLORIA. Cuando nos referimos al dolor moral, recurrimos a la voz romance.
iA zan gurasuen doloria, euren umiak artara ikustiakin!
Agiñetan miñ izaten dogu; biotzian doloria.
¡Que dolor el de los padres, con ver a sus pequeños en tal condición!
En las muelas solemos tener *miñ*, "dolor físico", *dolore*, "dolor moral", en el corazón.

DOLORIETAKO AMA. Madre de los Dolores.
Kurutzian ondoren zoyan Dolorietako Ama, zazpi ezpata biotzian sartuta.
Seguía a la cruz la Madre de los Dolores, con siete espadas clavadas en el corazón.

DOMAU. ver. tran. Flexar, desbravar. sinón. *ezi*.
Atzeruzka domatzen da lurrerañok.
Domauta eukazen dozenerdi bat lioi.
Hacia atrás se combaba hasta el suelo.
Tenía domados media docena de leones.

DOMATZALLIA. Domador, debelador.
Zesar Augusto, Kantabria'ko lurren domatzalle izentatzen dabe.
A César Augusto le suelen señalar como el debelador de las tierras de Cantabria.

DOMATZIA. forma nominal del verbo *domau*.
Ez zan erreza bior aura domatzia.
No fue fácil domar aquel potro.

DOMEKIA. Domingo. sinón. *Igandia*. En Eibar se usa comunmente la primera voz, de influencia cristiana.
Domekan domekan igotzen dogu Salvador'era, baketako egun eder bat pasatzera.
Todos los domingos subimos al alto de Salvador a disfrutar de un día de paz.

DOMINISTIKUNA. Estornudo. (*Dominus tecum*).
Amar doministikun eiñda, burua ariñdu jata.
Con diez estornudos que he hecho, se me ha aliviado la cabeza.

DOMIÑIA. Medalla.
Domiñia urrezko katiagaz bialdu detsa andrageixari.
Una medalla con cadena de oro le ha mandado a su prometida.

DOMURU SANTU EGUNA. Día de Todos los Santos.
Domuru Santu egunian, illdakoeri agertu bat eiten jakue, lotan diran lekuan.
El día de Todos los Santos se suele hacer visita a los muertos en el lugar donde duermen.

DON. Don. sinón. *Jauna*. En tiempos de nuestros padres, las únicas personas a quienes en Eibar se aplicaba el don, eran los sacerdotes y los médicos.
Don Antonio, Arrate'ko abadia, eta don Vicente medikua...

DONA. Don, gracia, sinón. *doa, berezkua*.
Guzurak esateko dona ekarri dau.
Ha traído el don de decir mentiras.

DONOSTIA. San Sebastián.
¿Ba'zatoz Donostiara Andra-Marixetan?

DONTSUA. adj. Donoso.
Gizon dontsua atara dozu semia.
Persona donosa has sacado en el hijo.

DORNIAZALLIA. Tornero.
Anai bata dorniazallia, bestia limarixa.
Uno de los hermanos, tornero, el otro limador.

DORNIUA. Torno mecánico.
Torniuian eitten dau lana.
Trabaja en torno mecánico.

DORNUA. armería. Tornillo de banco.
Aberastu zalakuan, lelengo eiñ eban gauzia, dornua ibaira jaurti.
Creyendo que se había enriquecido, la primera cosa que hizo fue arrojar al río el tornillo de banco.

DORNU-MARATILLA. Manivela del tornillo de banco.
Dornu-maratilliak arrapau atzaparra eta odolbatua eiñ desta.
La manivela del tornillo de banco me ha cogido un dedo y me ha hecho un cardenal.

DORNU-ZILLA. Macho del tornillo de banco.
Dornu-zillak dorniau eta arixak oneri ataratzen, eiten eban Entrena zarrak Guenanguan.
Entrena el viejo trabajaba en Guenangua, labrando al torno el macho de los tornillos de banco.

DOTIA. La dote.

Alabian dotia ordaintzeko, etxia hipotekau eban.
Para pagar la dote de su hija, hipotecó la casa.

DOTEDUNA. adj. Que tiene dote.

Dotedunan billa zan, eta alakoren baten topau eban bat bere zorigaiztorako.
Andaba tras una con dote, y por fin la consiguió para su desgracia.

DOTEZALIA. Cazador de dotes.

Dotezalia demoniua, baña beti ez zetsan ondo urten ipoiñ orrek.
Cazador de dotes era el demonio, pero no siembre le salió bien ese asunto.

DOTORE. modo adv. Elegantemente.

Dotore agertu da, Ameriketan urte batzuk eiñda.
Ha aparecido elegante, después de haber hecho unos años en América.

DOTORE JANTZI. ver. reflex. Vestirse elegante. U. t. c. tran.

Dotore jansten da gure alabia.
Dotore jantzi dabe etxia ezkon-barrixok.
Tu hija se viste elegante.
Los recién casados han puesto la casa elegante.

DOTORETU. ver. reflex. Elegantizarse. U. t. c. tran.

Alargandu dan ezkerik, dotoretu eiñ da.
Alabia ezkontzen danetik, dotoretu dabe etxia.
Desde que ha enviudado, se ha elegantizado.
Casándose su hija, han elegantizado la casa.

DOTORETUTZIA. forma nominal del verbo *dotoretu*.

Biar edan apur bat dotoretutzia, aiñ neska politta zanetik.
Necesitaba elegantizarse un poco, siendo una muchacha tan bonita.

DOTORETZIA. *dotoretutzia*.

Aspaldixan dotoretziari emonda dago.
Hace tiempo que le ha dado por elegantizarse.

DOTORIA. adj. Elegante.

Eibar'en ba'ziran Dotoria'nekuak.

DOZENIA. Dozenia.

Fraillien dozenia, amairu.
La docena del fraile, trece.

DOZENERDIXA. La media docena.

Dozenerdixa bost kuarto eta dozenia errialian.
La media docena quince céntimos y la docena un real.

DRAGIA. Freno. sinón. *eutsigarrixa*.

Bildurra da, okerrerako daukagun berezkuan, dragia.
El miedo es el freno de la inclinación que tenemos al mal.

DRAGOIA. Dragón.

Damaskiñuan eiñ dogunok, amaika dragoiren itxuria ataratakuak urriakin.
Los que hemos trabajado al damasquino, icuántas figuras de dragón no hemos sacado en oro!

DRAUNA. Se decía de la campana mayor de la torre de la iglesia y de los avisos espirituales que se hacían por ella.

Draunak bi dira Eibar'ko kanpaitorrian.

Baitta su-kanpaia be, draunian joten da.

Elixakuen drauna ixan da.

DRAMIA. Drama, ocasión patética. Voz frecuente en el léxico de Eibar.

Kinzenia galdu jokuan tabernan eta gaur be dramia dago ziur aren etxian.
Habiendo perdido la quincena al juego en la taberna, no hay duda que hoy también hay drama en aquella casa.

DRAPUA. Trapo. Variante de *trapua*.

Aberatsak bazterrera botatzen daben trapua, pobrien jantzigarrixa sarri.
El trapo que los ricos arrinconan, muchas veces es la vestimenta de los pobres.

DRI-DRA. Onomatopeya con que se declara la resolución de proceder drásticamente.

Dri-dra, ez doyaz geixago itxaintzera, eta guazen amendik.
Dri-dra, no vamos a esperar más y vámonos de aquí.

DROGET. Sobrenombre antiguo en Eibar.

Droget bat zan kanpaitorreko kurutzian banderia ipintzen ebana San Juan goizian.

DROGIA. Enredo, cuestión o disputa.

Bere bizi guztian droga t'abarra baño ez eban erabilli.
Toda su vida no tuvo sino enredos y complicaciones.

DROGIA ATARA. ver. tran. Formar enredo.

Jokuan, galdu biar ebala konturatzen zanian, droga ataratzen eban.
Cuando en el juego se daba cuenta de que iba a perder, armaba un lío.

DROGIA EIÑ. En el juego, hacer trampa.

Drogia eiñ puruan irabazi zetsazen diru guztiak.
A fuerza de hacer trampas le ganó todos los dineros.

DROGOSUA. adj. Enredador, tramposo, cuestionador.

Drogosua zan eskolan, eta bardiñ izan da gero bere bizi guztian.
Era lioso en la escuela, y así ha sido luego toda la vida.

DU. variante suavizada del verbalizador *tu*.

Gizondu, gizendu, urriñdu, t. a.

DUA. desinencia o terminación del participio pasivo, en los infinitivos en *du*.

Agindua, galdua, ezkondua, t. a.

DUAKUA. adj. gratuito.

Ez eizu pentsau duakua danik bakia.
No pienses que la paz sea gratuita.

DUAN. modo adv. De balde.

Amaiketatik amabixetara, ardaua duan Plaza barrixan.
De once a doce, vino de balde en la Plaza Nueva.

DUANGUA. Gorrón.

Beti eta alde guztietan, aura duangua.
Siempre y en todas partes, aquel un gorrón.

DUANDU. ver. tran. Reducirlo a gratis.

Eskatzen eben, ez merkatu ardaua, duandu.

Pedían, no que se abaratara el vino, sino que fuera gratis.

DUANDUTZIA. forma nominal del verbo *duandu*.
Ez da komeni gauzak duandutzia, estimaziño apur bat euki deixen.
No conviene que las cosas sean gratis, para que tengan algún aprecio.

DUDABAKUA. adj. Que no ofrece dudas.
Dudabako gauzia bazkaittako orduan agertuko zana.
No había lugar a duda que iba a presentarse a la hora de comer.

DUDAGARRIXA. adj. Dudoso.
Dudagarrixa on eitten ete daben erremedixo orrek.
Es dudoso si esa medicina hace bien.

DUDAKIZUNA. Duda, materia de duda.
Dudakizuna ipiñi dau jendian artian.
Ha sembrado una duda entre la gente.

DUDAN. modo adv. En duda. sinón. *zalanzan*; esto erudito en Eibar.
Dudan nago, zalanzan esatia ez ete doten obe toki onetan.

DUDAN EGON. ver. intran. Estar en duda, dudar.
Dudan egon zan gauzia luzero.
La cosa estuvo dudosa largo tiempo.

DUDAN IPIÑI. ver. tran. Poner en duda.
Esan destazen gauzekin, dudan ipiñi nau.
Con las cosas que me ha dicho, me ha puesto en duda.

DUDARIK GABE. modo adv. Sin duda.
Dudarik gabe, iñor ez da mundu onetan oso kontentuz.
Sin lugar a duda, nadie está del todo contento en este mundo.

DUDATZIA. forma nominal del verbo *dudau*.
Dudatzia, gauzak ezagutzeko bide bat dala esaten dabe filosofo batzuk.
Algunos filósofos dicen que el dudar es una manera de conocer las cosas.

DUDAU. ver. intran. Dudar.
Bere bizi guztian dudau eban, bide zuzenetik aindu ete zan.
Toda la vida dudó, si se había encaminado por la buena senda.

DUDIA. Duda. sinón. *bai-edo-eza*.
Dudia da, bai-edo-ezian egotia.
La duda es estar en que sí en que no.

DUKATA. moneda. Escudo que valía 2,50 pesetas.
¿Zenbat dukateko dotia dauka zure alabiak?
¿Cuántos escudoa de dote tiene tu hija?

DUNA. sufijo en varios oficios adjetivadores.
Diruduna, persona con dinero; *txarriduna*, tratante en cerdos; *argiduna*, emplendo de la compañía de luz; *jostuna*, costurera; *euskalduna*, persona que habla vasco, etc.

DUNDURIXUA. Zumbido.

Belarrixan sartuta daukat ola artako duundurixua.
Tengo metido en los oídos el zumbido de aquella fábrica.

DURDULIA. especie ornitológica del país.
Durdulia agertzen da keixara umiak uzten dagonian.

E

EBAGI. Ver. tran. Cortar. Sinónimo, *moztu*.
Bardiñ esaten dogu: ulia ebagi edo ulia moztu.
Lo mismo decimos: cortar el pelo.

EBAGITZIA. Forma nominal del ver. Ebagi.
Forma sincopada: *ebatia*.
Naikua izan eban ulia ebagitzia (ebatia) indarrak galtzeko.
Le bastó cortar el pelo para perder las fuerzas.

EBAGI-BEDARRA. Planta curativa que se aplica a las cortadas.
Ostera juan zaitetz eta ekarrirazu ebagi-bedarra, ebagixa eñ dot eta.
Vete al corral y tráeme la planta para las cortadas, que me he cortado.

EBAGIXA. Cortada. incisión.
Ebagixa eñ dot atzapar aundixan.
Me he hecho una cortada en el dedo gordo.

EBANJELIXUA. Evangelio.
Mezatan, eguneko ebarrjelixua irakorten da. Altaran, ebangelixoko aldian, egoten da agirixan San Juan'enan asieria. ¿Noiz agertu ete zan ona Ebanjelikua edo Jaungoikuan Barri Ona?
En la misa se suele leer el Evangelio del día.
En el altar, del lado del Evangelio, suele estar el comienzo del de San Juan.
¿Cuándo será que llegó acá el Evangelio o la Buena Nueva de Dios?

EBATARRAK. Los hijos de Eva, el género humano.
Erregiak eta eskekuak, euskaldunak eta ereldunak, danok Evatarrak.
Reyes y mendigos, vascos y no vascos, todos hijos de Eva.

EBATIA. Síncopa de *ebagitzia*.
Arbola ebatia, olak atartzeko.
Corta de árboles para sacar madera.

EBATZALLIA. Cortador.
Garixak eldu eta ebatzalle euzkirik gogorrenian.
Maduros los trigos, segador en lo más rudo del sol.

EDARRAGIÑA. Artesano que hacía las herraduras.
Isasi kantoian zan edarragiña.
En Isasi kantoia, había uno que hacía herraduras.

EDARRIA. Cubo para el agua. Herrada.
Gure sukaldian zan armallia, eta armallan lau edarra, urez beteta Portaleko iturritik.
En nuestra cocina había un asiento de piedra, y en aquel asiento cuatro herraduras llenas de agua de la fuente del Portal.

EDER. Adj. calif. que se une al sustantivo para formar compuestos.
Maria-eder, ala esana eta izana, baña ez zorionerako.
María hermosa, así llamada y así en realidad, aunque no para ventura.

EDERGARRIXA. Lo mismo que *ederkizuna*.
Adorno.

Andrazkuan edergarri, urria baño obe zintzotasuna.
Para adorno de la mujer, mejor que el oro la pureza.

EDERKI. Lo mismo que *ederto*. Modo adv. Bellamente, muy bien.
Ederki bizi izandako bizi ederra, aren mundu onetako erromerixia.
Una bella vida bellamente vivida, su peregrinación de este mundo.

EDERKIZUNA. Afeite, adorno, ornamento. Sinón. *Apaiña*.
Ederkizuna ugari saltzen da oiñ dendan.
Bien de afeites se venden ahora en la tienda.

EDERRA. Adj. Hermoso.
Arpegixa ederra eta biotza ederragua ondiokan. Ganau ederra, Ibargaiñ'enian. Etxe ederra Indianukua.
El rostro hermoso y el corazón más hermoso todavía.
Hermoso el ganado de Ibargain.
Hermosa la casa de Indianukua.

iEDERRA EIÑ! Ver. tran. Enfático.
iEderra eñ destazu atzo gabian!
iEderra eñ netsan mezatan zan artian!
iBuena me has hecho anoche!
iBuena le hice mientras estaba en misa!

EDERRAK ARTU. Ver. tran. Sufrir una derrota. Recibir azotes. Perder al juego.
Ederrak artuta dago, emontzallia izan arren.
Está bien vapuleado, aunque es de los que suelen darlas.

EDERRAK EMON. Ver. trans. Azotar, vencer, ganar en el juego.
Sagar lapurretan arrapau eta ederrak emonda bialdu zittuen.
Les cogieron robando manzanas y les devolvieron bien azotados.

EDERRA SAKATU. Ver tran. Engañar, burlar.
Ederra sakatu detsa emaztiari, balio ez daben milla pesetakuakin.
Buena le ha hecho a su mujer, con un billete simulado de mil pesetas.

EDERTASUNA. Hermosura, belleza.
Batzuk diru billa izaten dira; beste batzuk edertasunan ondorik.
Unos buscan el dinero, otros van tras la belleza.

EDERTO. Lo mismo que *ederki*. Modo adv. Muy bien.
iEderto etorri zara esandako orduan!
iEderto eiñdako biarra soñeku onetan!
iQué bien has venido en la hora señalada!
iBuena labor la de este vestido!

EDERTU. Ver. tran. Hermosear, embellecer.
Edertu dau etxe guztia milla pitxia eta gauza ederregaz.
Ha embellecido la casa con mil joyas y cosas hermosas.

EDERTUTZIA. Forma nominal del verbo *edertu*.
Berez ederra danak, ez dau ezarritako gauzekin edertutzia biarrik.
La (o el) que es hermosa de por sí, no necesita embellecerse con añadiduras.

EDERTZIA. *Edertutzia.*
Edertzia guran, askotan alperrik galdu.
Queriendo hermosearse, muchas veces se hechan a perder.

EDERZALIA. Buscador de bellas.
...Ederzalia banintzan ere aspertu nintzan ederrez, nere guria eiñ nuen eta oraiñ bizi naiz negarrez!

EDO. Conj. disyuntiva, o. Alterna con *ero*.
Otz edo bero, baserrixak ez dau parkatzen; beti eten bako zeregiña.
Frío o calor, el caserío no perdona; siempre hay trabajo.

EDONAI. Modo adv. Dondequiera, en cualquier lado.
Edonai, asko balio dau amengo diruak.
En cualquier lado vale mucho la moneda de este país.

EDONOLA. Adv. de modo. De cualquier modo, de todos modos.
Edonola, gaizki urtengo zestan, ez nekixan ba zertan niarduan.
De todos modos me hubiera salido mal, porque no sabía en lo que estaba.

EDONOR. Pron. indef. Cualquiera, quienquiera. Sinón. *edozeiñ.*
Edonor da gaur lengo aberatsak beste.
Cualquiera es hoy tanto como los ricos de antaño.

EDONORA. Modo adv. A donde quiera.
Deilla edonora igesik, galdua da.
A donde quiera que huya, está perdido.

EDONUN. Adv. de lugar. Dondequiera.
Euzki-alde artan, edonun mallubixak; basoko mallubi gozuak.
En aquel lugar soleado, dondequiera hay fresas de las dulces del monte.

EDOTARIKUA. Adj. De cualquier clase.
Janarixa, edotarikua izanda be, ez zetsan ardura.
La comida, cualquiera que fuera, no le importaba.

EDOZEIÑ. Pron. indef. Cualquiera. Sinón. *edonor.*
Edozeiñ kaka-umek jaukaz gaur irurogei urte.
Cualquier criatura tiene hoy sesenta años. (Frase de Txantoya a sus ochenta y tantos.)

EDOZELA. Modo adv. De cualquier manera. Sinón. *edozertara.*
Ondo edo txarto, edozela galdu biarra genduan.
Bien o mal, de cualquier manera teníamos que perder.

EDOZELAKO. Adj. De cualquier clase. Lo mismo que *edotariko*.
Edozelako soñekua, ondo jausten jako ari.
Cualquier clase de vestido le cae bien a él.

EDOZENBAT. Adv. de cantidad. A discreción, cuanto se quiera. Sinón. *nai-beste.*
Pagadi artan, edozenbat perretxiku batu genduzen.
En aquel hayedo, recogimos cuanto quisimos de setas.

EDOZEIÑBESTE. Adv. de cantidad. Gran copia, abundante.

Zabaldu zittuan sariak esandako tokixan, eta edozeiñbeste arraiñ katiu zittuan.

Extendió las redes en el lugar que se le dijo y aprisionó gran copia de peces.

EDOZENBAT. Adv. de cant. Cuanto quiera.
Ubideatik gora, pagadi baten, edozenbat urritx eta urdin batu genduzen.
De Ubidea para arriba, en un hayedo, recogimos cuantas cuantas quisimos.

EDOZER. Pron. indf. Cualquier (cosa).
Edozer jateko da arendako ona.
iZuk eiñ dozuna da edozer!
Cualquier comida es buena para él.
¡Lo que tú has hecho es cualquier cosa!

EDUR. Nieve, cuando en función de adj. determinante se une a nombres para formar compuestos.
Edur-malutia, edur-pikorra, edur-pelotia.

EDUR ALDIXA. Nevada.
Oiñgo edur aldixa lakorik ez da izan urte askuan.
Como esta nevada de ahora, no ha habido en muchos años.

EDUR-MALUTIA. Copos de nieve.
Edur-malutia diardu eta beriala zurittu dittu goi ta beyak.
Está nevando a copos y en seguida se han blanqueado los altos y lo bajo.

EDUR-PELOTIA. Pelota de nieve en la diversión de hacer batalla con ellas.
Edur-pelotegaz, gerra luzia eiñ dabe eskolako mutillak.
Los muchachos de la escuela han tenido un largo combate con pelotas de nieve.

EDUR-PIKORRA. Nevizca, nieve que cae granulada.
Edur-pikorragaz ekin detsa eta edur-malutiakin amaittu dau.
Ha empezado con una nevizca y ha terminado nevando a copos.

EDURRA. Nieve.
Ezagutu dogu edurra Domuru Santuetan eta Paskuetan be bai.
Hemos conocido nieve por Todos los Santos y también por Pascuas.

EDURRA EIÑ. Ver. impersonal. Nevar.
Bart, edurra eiñ dau, eta goizian dana zuri agertu da.
Anoche ha nevado y ha amanecido todo blanco.

EDURRAK JARDUN. Ver. impersonal. Estar nevando.
Edurrak diardu farra-farra.
Está nevando copiosamente.

EDURTEIXA. Cuevas donde se solía enterrar la nieve para oficios que ahora hace el hielo artificial. Nevera.
Gisasola'kuak zittuen edurteixak Izu gañian.
Los de Guisasola tenían neveras en la alto de Izu.

EDURTIXA. Adj. Propenso a la nieve.
Gure aldia edurtixa da, itxasotik alenduta dalako.
Nuestro término es propenso a la nieve, porque está alejado del mar.

EDURTSUA. Adj. Nivoso.
Aurtengo negua edurtsua izan dogu.
Este año hemos tenido nivoso el invierno.

EDURTZAK. Cúmulos de nieve que duran en las umbrías.
Kerizpietan, udabarrixan aurrera irauntzen eben edurtzak.
En las umbrías, primavera adelante, duraban los cúmulos de nieve.

EDURTZIA. Glaciar, acumulación de nieve.
Mendiarte aretan batzen dan edurtzia, izotz bihurturik bere astuntasunan bultziagaz, etortzen da ibai bat bezela.
El nevero que se amontona en aquel valle, convertido en hielo, por el empuje de su peso baja como un río.

EFIA. Letra efe.
Baserritarrak, eta ala seguru antxiñakuak, efan orde esaten dabe sarri peia: prakak, Praisko, perixia.

EGA BATEN. Loc. adv. En un momento, en un instante.
Ega baten jua zaittez Ermuarretarañok, ez daukagu ba ogirik eguardirako.
Vete en un momento hasta donde los Ermuarras, pues no tenemos pan para el mediodía.

EGABERIA. Ave de paso en el país.
Edur aundixegaz, egaberak galduta agertzen dira eitzarixen aukerarako.
Con las grandes nieves, las avefrías suelen extraviarse para ventura de los cazadores.

EGA EIÑ. Ver. intran. Volar.
Txorikumak ega eiñ dabe abixatik.
Las crías han volado ya del nido.

EGAKORRA. Adj. Volador.
Kasta onetako olluak, egakorrak dira eta beti iges eiñda dabiz.
Esta raza de gallinas son voladoras y siempre andan huídas.

EGALA. En el pez la aleta remera; en el pescado la ijada.
Bi egal indartsugaz ibilltzen da ur barruan. Legatzen egalak idarrekin...
Con dos potentes aletas se mueve dentro del agua.
Las ijadas de la merluza, con guisantes...

EGAN. Adv. de modo. Volando.
Millak eta millak txindurrixak, egan zetorzen.
Miles y miles de hormigas venían volando.

EGARRI IZAN. Ver. intran. Tener sed.
Egarri danari eraten emotia, kristauan biarreko obra.
Dar de beber al sediento, obra obligada en el cristiano.

EGARRITU. Ver. intran. Entrar en sed.
Gaur eiñ daben beruakin eta darabigun ibillixagaz, egarritu eiñ naiz eta amen nozu itxo biarrian.
Con el calor que hoy hace y el caminar que traemos, me ha entrado la sed y aquí me tienes que me ahogo.

EGARRITTUTZIA. Forma nominal del verbo egarritu.

Eta gertau jakon egarrittutzia urik ez zan lekuan.
Y le sucedió que tuvo sed donde no había agua.

EGARRITZIA. *Egarrittutzia.*
Gaur lako ibillixa eiñ ezkerro, ez da gatxa egarrizia.
Con una caminata como la de hoy, no es difícil entrar en sed.

EGARRITSUA. Adj. Sediento.
Egarritsua, barrua beti berua baleu leztxe.
Sediento como si siempre tuviera calentura.

EGARRIXA. Sed.
Ondoren, jakiñian Jesus gauza guztiak ixa amaittuan zirana, Eskriturak egi eiñaz, esan eban: egarrixak nago. Jon. 19, 28.
Luego sabiendo Jesús que todo estaba a punto de terminar, haciendo verdaderas las Escrituras, dijo: Tengo sed.

EGAZLARIXA. Adj. Volador.
Arranuak, egazlari altsuak, zeruak neurtzen egaztada baten.
Los buitres, poderosos voladores, midiendo los cielos en un vuelo.

EGAZTADIA. Vuelo.
Egaztada baten, itxasuen gañetik igarotzen dira.
En un vuelo, pasan por encima de los mares.

EGAZTIXA. Ave.
Aindu detsa osagilliak, egaztixa eta arraiña, eta ortuko gauzia.
Le ha mandado el médico ave y pescado y hortalizas.

EGAZTIXAK. Zool. Clase de las aves.
Egaztixak dira bizkar-azurdun, arrautzak ipintzen dittuen lumaz jantzittako animalixak.
Las aves son animales con espina dorsal, que ponen huevos y se cubren de plumas.

EGI. Sufijo que denota casa de, lugar de. La t, cuando se interpone entre el radical y el sufijo, es por eufonía.
Variante: *tei.*
Jauregi, mintegi, sutegi, sardautegi.

EGI. Sufijo de modos adverbiales denotando exceso.
Larregi, gitxiegi, goizegi, onutzegi, arutzegi, eta abar.

EGIA. Con acento prosódico en la e, Vuelo.
Gaurko egunian, gau baten eiten da Europa'tik Ameriketarañoko egia.
Hoy en día, en una noche se efectúa un vuelo que va de Europa a América.

EGI BENETAN. Modo adv. En verdad.
Egi benetan esaten detsut alargun koittau onek, beste guztiak baño geixago emon dabela. Luc. 21, 3.
En verdad os digo que esta pobre viuda ha dado más que todos los demás.

EGI BERDADERUA. Forma enfática de confirmar la verdad de una cosa, incurriendo en erderismo. Sinón. *Egi egixa.*
Egi berdaderua autu orretan parterik ez dorana.
Verdad verdadera que no tengo parte en ese asunto.

EGIÑ. Ver. tran. Hacer. En Eibar, comúnmente se usa la forma sincopada *eiñ*, con todos sus derivados.

Bazenkizu zer egiñ dozun...
Si supieras lo que has hecho...

EGIXA. Con acento prosódico en la e: verdad.
Egixa esatiak sarri kaltia ekarri arren, egixa beti esan biarrekua.

Aunque el decir la verdad muchas veces perjudique, siempre es obligado el decirla.

EGIXA. Con acento prosódico en la i: lo alto de una ladera.

Egi egixan agiri zan a baserrixa.
Aquel caserío se veía en lo alto.

EGIXAK. En plural. verdades religiosas, científicas, filosóficas.

Betiko jarritako egixak, oiñarri serbitzen dabe dakigun enparauari.
Las verdades eternas, sirven de fundamento al resto del saber.

EGITARRA. Partidario de la verdad.

Gauza guztien gañetik, egitarra; baña ¿zer da egixa?

Por encima de todo, partidario de la verdad; más ¿qué es la verdad?

EGITSUA. Lo contrario de *guzurtixa*. Adj. Veraz.

Bata zeñ egitsua, bestia guzurtixa.
Tan veraz el uno, como mentiroso el otro.

EGIZALIA. Adj. Amante de la verdad.

Egizalia izatiak eruan eban urkamendira.
El amar la verdad le llevó al patíbulo.

EGIZ EGIZ. Modo adv. Siguiendo el perfil de los montes.

Egiz egiz eldu giñan Ondarrua'ra.
Siguiendo las cimas, llegamos a Ondárroa.

EGIZKUA. Adj. Verdadero, sinón. *benetakua*.

Bata da egizkua; bestia guzurrezkua.
Lo uno es verdadero; lo otro es mentira.

EGO. Uno de los cuatro puntos cardinales. Sur.

En nuestra toponimia aparecen: *Ego-errekia, Egotxia, Egoarbitza (Eguarbitza), Ego-aizia atara dau, eta edurrok ziero urtu dira berialaxe.*

Ha salido el viento sur y ha liquidado las nieves en un instante.

EGO-AIZIA. Viento sur, viento solano.

Ego-aiziak garbitzen dau zeru-azpi guztia, eta urriñeko mendixak urrago balitzaz letz orduan ikusten dira.

El viento solano barre todo el cielo y las lejanas montañas se ven entonces más próximas.

EGO-ALDIA. Mediodía, Sur.

Ego-aldetik ibiltzen da euzkixa.
El sol se mueve por el lado Sur.

EGODUNA. Adj. Provisto de alas.

Antxiñako Dragoia zan sube aundi bat egoduna.
El antiguo dragón era una gran serpiente con alas.

EGO-ERREKIA. Nuestro Ego, que hoy apenas existe. En su modesta cuenca: *Egotxia* y *Egoarbitza*.

¿Nun da gaur gure antxiñako Ego garbixa, barrez zetorrena Bizkai aletik, berearte estuan?

¿Dónde está nuestro antiguo Ego, limpio, que venía del lado de Vizcaya, sonriente en su estrecho valle?

EGOKERIA. Postura, manera de estar.

Aren egokeria, garbi garbi, alper aundi batena.
La postura de aquel, claramente se veía que era la de un gran perezoso.

EGOKI. Modo adv. Oportunamente, adecuadamente. Puede alternar con *aukeran*.
Egoki etorri jata, gaur jai izatia.

Egoki jausten jako eiñ detsazun soñekua.
Me ha venido bien el que hoy fuera día de fiesta. Le cae muy bien el vestido que le has hecho.

EGOKIXA. Adj. adecuado, conveniente, oportuno. Sinón. *aukerakua*.

Auxe dogu toki egokixa, etxe barrixa eitteko.
Este es un lugar adecuado para construir la nueva casa.

EGON. Ver. intrans. Estar.

Egon eta egon eta milla urtian ortxe dago.
¡Au ez dok bizi! ¡Au dok egon!

Estar y estar, ahí está en mil años.

¡Esto no es vivir! ¡Esto es estar! (Frase de un vago de Eibar.)

EGON. Ver. tran. irreg. Haber.

Ez dago munduan beste bat a lakorik.
Nai beste dago gura dozun guztittik.
No hay en el mundo otro como aquel. De lo que tú quieres hay cuanto desees.

EGONALDIXA. Estada.

Zaiñ egon aldixa eiñ da gero agertu zan.
Vino después de haberle esperado un rato.

EGON EZ BERE ONIAN. Loc. verbal que significa no estar uno tranquilo.

Ez nenguan nere onian, berriz osorik ikusi arte bialdu genduan gizona.

No estaba tranquilo hasta que volví a verle sano al hombre que habíamos mandado.

EGOSI. Ver. tran. Cocer.

Asia egosten ipiñizu sutonduan.
Pon a cocer la col junto al fuego.

EGOSIXA. Adj. Cocido.

Lapikoko okela egosixa, piparrekin gertauta, jaten dogu eguardixetan.
Los mediodías solemos comer la carne cocida con pimientos.

EGOSTIA. Forma nominal del verbo *egosi*.

Babak egostiak, goiz guztia eruaten zetsen lengo andreri.

El cocer las alubias les llevaba toda la mañana a las mujeres de antaño.

EGOSTUA. Escocado, matadura.

Ainbeste ibiltzeekin, egostuak eiñ jakoz.
Caminando tanto, se le han hecho escocidos.

EGOTIA. Forma nominal del verbo *egon*.

Duan biarra eittia baño obe egotia.
Mejor estar que trabajar de balde.

EGUA. Ala.

Arranuan ego batetik bestera, ixa kana bi.

De un ala a la otra de un buitre, casi dos varas.

EGUALDI-ARGIXA. Tiempo claro.
Gaur atara dau egualdi-argixa, aukerakua Arrate'ra.
Hoy amanece un tiempo claro, bueno para subir a Arrate.

EGUALDI-ESKASA. Tiempo metereológicamente mediano.
Juan daneko illabetian, egualdi eskasa darabill.
Hace un mes que llevamos mal tiempo.

EGUALDIONA. Buen tiempo.
Egualdi-onak ekiñ detse, eta erromerixak auzo batian eta bestian.
Han comenzado los buenos tiempos, y las romerías en una vecindad v en otra.

EGUALDITXAKURRA. Tiempo pésimo.
Egualdi-txakur onegaz ezingo gara jatxi kalera.
Con este tiempo pésimo no podremos bajar a la calle.

EGUALDI-TXARRA. Mal tiempo.
Egualdi-txarra dogu gaur soloko lanetarako.
Hoy tenemos mal tiempo para las labores del campo.

EGUALDIXA. Tiempo metereológico.
Euskixa ta eurixa, Martiko egualdixa.

EGUARBITZA. Top. Cabezo calcáreo en inmediaciones de Eibar. Seguramente Egoarbitza, por esdar en la cuenca del Ego, próximo al caserío Egotxia.

EGUARDI-ALDIA. Mediodía geográfico.
Moruak, eguardi-aldeko jendia.
Los moros, gentes del Mediodía.

EGUARDI-AURRIAN. Modo adv. Antes del mediodía.
Eguardi-aurrian eta baskalostian...
Antes del mediodía y después de comer...

EGUARDIXA. Mediodía, hora y punto cardinal.
Egurdiko lelengo kanpaia zanetik bedratzigarren drauna amaitsu baño len, Galdaramiñotik Portalerañok eiñ ei eban beñ Lopetxuak. Ifar-aldeetik Eguardira begira...
De la primera campanada de las doce a la nona de la oración, dicen que Lopetxua bajó de Galdaramiño al Portal.
Del Norte mirando al Sur...

EGUASTENA. Miércoles. Sinón. *asteazkena.*
Gure artian, eguastena esaten dogu.

EGUENA. Jueves. Sinón. *Osteguna.*
Eguen arrasaldian ez zan izaten eskolarik.
El jueves por la tarde no solía haber clase.

EGUEN-SANTU. Jueves Santo.
Eguen-santu eguna, elixak bizitxatzeko eguna.
El Jueves Santo, día de visitar las iglesias.

EGUEN-ZURI. Jueves gordo.
Eguen-zuri egunian, umiak koko jantzen ziran.
Por jueves gordo, se solían disfrazar los niños.

EGUN. Num. cardinal. Cien.
Egun errialekua galdu jakola diño Pellok, kaletik etxerakuan.

Dice Pedro que se le ha perdido uno de cien reales al volver de la calle.

EGUNA. El día.
Eguna luzetu dau. Gaur da nere eguna.
Ha alargado el día. Hoy es el día de mi santo.

EGUNAK DIRA. Modo adv. de tiempo. Hace días.
Egunak dira amendik ezkutau zala...
Hace días que desapareció de aquí...

EGUNAK JUAN ETA EGUNAK ETORRI. Loc. adv. Pasan los días...
Egunak juan eta egunak etorri, oyan nauka ankako miñ arraixo onek.
Pasan los días y me retiene en cama este maldito mal de pie.

EGUN ARGIZ. Loc. adv. A la luz del día.
Egun argiz eiñ dabe lapurretan Txomin'enian.
A la luz del día han robado en casa de Domingo.

EGUN ASARERIA. (*Jaungoikuan.*)
Sofonías Profetiak aitxatzen daben eguna esanaz: Dies irae...
El día que el Profeta Sofonías citaba diciendo: Dies irae

EGUNAZ. Modo adv. De día.
Egunaz zaldun eta gabaz txarri, aundiki askon izatia.
Señor de día y cochino de noche, índole de muchos poderosos.

EGUNA-ZABALDU. Ver. impers. Amanecer.
Goizian laurak baño len eguna zabaldu dau.
Antes de las cuatro de la madrugada ha amanecido.

EGUNDO. Adv. de tiempo. Jamás. Sinónimo, *iñoiz.*
Irurogeta urtiak dituraz eta egundo ez naiz izan amen gaur arterañok.
Tengo setenta y tantos años y jamás he estado aquí hasta ahora.

EGUNEKUA. Sust. Billete de a cien.
Egunekua emon detsut, erosi ditturan gauzen kontua eiñ deizun.
Te he dado uno de cien para que hagas la cuenta de lo que he comprado.

EGUNEKUA. Adj. Del día.
Egunekua da atara deberan ogixa.
Es del día el pan que les he sacado.

EGUNERO. Modo adv. A diario, diariamente.
Egunero irabazi biarra eguneroko ogixa.
Necesidad de ganar diariamente el pan de cada día.

EGUNETIK EGUNERA. Modo adv. De día en día.
Egunetik egunera edertzen doya nik jarri neban landaria.
De día en día va mejorando la planta que yo planté.

EGUNIAN EGUNIAN. A diario. Lo mismo que *egunero.*
Egunian egunian nekatuta aurrera atara dot bizimodua.
Esforzándome a diario he sacado adelante la vida.

¡EGUN ON! Salutación. ¡Buenos días!

—*iEgun on danori!*

—*iBai zeuri be, ala Jaungoikua!*

EGUN - ONAK - EMON. Ver. tran. Saludar, dar los buenos días.

Egun-onak-emon barik zarreri, ez zan juaten lanera.

No se iba al trabajo sin dar los buenos días a los mayores.

EGUN-SARIXA. Salario, jornal. Con el advenimiento del salariado, se ha generalizado la palabra *jornala*.

Egun-sarixa edo jornala da, besuak baño beste ondasunik ez daukan gizonan bizi izateko bidia.

El salario es el medio de vida de los que no poseen otro bien que el de sus brazos.

EGUN-SENTIXA. Amanecer. sinón. *goiz-abarra*.

Egun-sentixa zan gu lotarako bideratu giñanian.

Era el amanecer cuando nosotros nos encaminamos a acostarnos.

EGUR-ABARRA. Ramas delgadas del árbol de que se ha hecho leña.

Egur-abarra batu basuan, txortak eiñ, kalera jatsi eta saldu, bizi moduari laguntzeko baserritar askon zeregiña.

Reunir en el monte la leña menuda, hacer haces de ella, bajar a la calle y venderla, labor que muchos aldeanos se toman para ayudarse.

EGUR-BATZIA. El recoger la leña en el deshecho de los montes, lo mismo que *espal-batzia*, fue recurso de vida para muchos parados en los años críticos de 1920-30, generalizándose la voz como tópico común.

Jornalik ez da, zenbatek egur batzia erebixan bizi modu letz.

EGUREN. top. Caserío en Eibar.

Eguren, Loixola eta Eizkuak, Arrate ballian.

EGUR-OLA. Aserradero.

Egurrola'tarrak baziran Eibar'en.

EGURRA. Leña. sinón. *subilla*.

Egurra; burdixa bete eta narra beste ainbeste ogetamar errial izaten zalakuan nago.

La leña, la carreta y la narria llenas, creo que se pagaba treinta reales.

EGURRA-EGON. loc. ver. Haber palos con motivo de cualquier apasionamiento.

Egurra egonda gaur Untzaga'ko Plazan.

Hoy ha habido palos en la Plaza Unzaga.

EGURTERA-ALDIA. Oriente. sinón. *Sortaldia*.

Egurtera-aldera begira zan Joxio baserrixa.

Mirando al Oriente estaba el caserío Joxio.

EGURTZA. Monte donde se saca leña. Ejido.

Lenago ziran errixan egurtzak, su-egurra ataratzeko auzuak, eta etxegintzarako biar zan zura.

Antes los municipios tenían los llamados *egurtzak*, para que los vecinos hicieran leña y sacaran la madera para la construcción de sus casas.

¡EH! interjección para llamar la atención.

iEh, bidian zoyazen guztiok! iBegira ikusizue ia izan leikian dolorerik nere dolorien lakorik! Trem. 1, 12.

EI. forma sincopada del sufijo *egi*, que entra en numerosos nombres de caseríos de nuestro jurisdicción y en otros sustantivos.

Sartei, Apalatei, Irei, Pagei; Arrateixa, suteixa, eta abar.

EI. Partícula de sentido impersonal, que entra en locuciones verbales para dar valor de referencia a la acción del verbo.

Etorri ei da zuen laguna.

Amaittu ei dittu eurixok. Alakoren baten il ei da a gaiztua.

Dicen que ha venido vuestro amigo.

Aseguran que han concluido las lluvias.

Dicen que por fin ha muerto aquel malo.

EIA. nombre de la letra e.

Eia oker dago eta bere lekutik kanpora.

La e está torcida y fuera de lugar.

EIBAR. top. Nombre euskérico de la Villa Nueva de San Andrés.

Eibar azi zanian, Ibergaiñ, Ibarkurutzia eta Ibarbeya, barruan artu zittuan.

EIBAR'KO TXITXAK, OLLUAK. Dicho con que en los pueblos vecinos se nos achaca de exagerados.

Eibar'ko txitxak, olluak; baña beste leku batzuetako olluak, arranuak.

Los pollitos de Eibar, gallinas; pro las gallinas de otros lados, buitres.

Los pollitos de Eibar, gallinas; pro las gallinas de otros lados, buitres.

EIÑ. ver. tran. Hacer, ejecutar, ter. minar.

Síncopa de *egiñ*, con todos sus derivados, común en Eibar.

Ondo eiñ, eiñ biar dan guztia, onerako bidia.

Pentsau eta eiñ; asi eta aiñ.

Hacer bien todo lo que se tenga que hacer, camino de perfección.

Pensar y obrar; comenzar y terminar.

EIÑ. Se usa como auxiliar para componer infinidad de verbos que toman o acentúan de esta manera su naturaleza transitiva.

Putz eiñ; barre eiñ, negar eiñ, ukat eiñ, lan eiñ, eta abar.

Soplar, reir, llorar, sucumbir, trabajar, etc.

EIÑ ALA. modo adv. Tanto como pueda hacerse, a discreción.

Matio Eiñ-ala esaten zetsen bati, eiñ-ala biar beti eukitzia zalako bere arrokerixia.

La tarea de ayer, fue dura para nosotros.

EIÑ-ALDIXA. Tarea.

Atzoko eiñ aldixa, gogorra izan genduan.

La tarea de ayer, fue dura para nosotros.

EIÑA EIÑ. loc. que se usa para significar que lo hecho está hecho irreversiblemente.

Eiña eiñ, eta ez da ori itxuliko dabenik.

Lo hecho hecho, y no hay quien lo pueda revertir.

EIÑ EITTE ALDERA. loc. verbal para denotar las cosas que se hacen sin fe y entusiasmo.

Eiñ eitte aldera jardun eban egun guztian, ezer zuzen atara barik.

Todo el día estuvo haciendo por hacer, sin hacer nada derecho.

EIÑ EZ ONIK. loc. verbal para significar que una persona no es grata o una cosa hace daño.

Aretzek gizonak ez desta onik eitten ikustiakin bakarrik.

Arduak es desta eiñ onik.

Aquel hombre, con solo verle me pone malo.
No me ha sentado bien el vino.

EITTIA. forma nominal del verbo *eiñ*.

Esatiak ez dau balio, eittiak baño.

No vale el decir, sino el hacer.

EITZA. top. Venta próxima en jurisdicción de Zaldivar.

¿Agertu da onutz Eitza'ko torlojogiña?

¿Ha aparecido por aquí el tornillero de Eitza?

EITZARIXA. Cazador. En Eibar, *Itxari* perdura como sobrenombre y se ha generalizado *Kazari*. *Eitzarik egon ez arren inguruetan juandaneke urte askuan, eizarixa ba'da ugari gure artian.*

A pesar de no haber caza en nuestros alrededores desde hace muchos años, hay bien de cazadores entre nosotros.

EKAITZA. Temporal. Recibido en Eibar por la literatura, como pieza del acerbo común.

Egualdi txarra, odia edo trumoia guk, beste batzuk ekaitza esaten daben lekuan.

EKARRI. ver. tran. Traer. *Ekarrirazuz abarketa barrixak erromerixarako.*

Traéme alprgatas nuevas para la romería.

EKARRIXA. Traída.

Aittan ekarrixa ez zan naikua etxeko gastuari eusteko.

No bastaba el ingreso del padre para cubrir el gasto de la casa.

EKARTZIA. forma nominal del verbo *ekarri*. *Gauziak balio dabena baño geixago kostatsen da ekartzia.*

Más de lo que vale la cosa cuesta el traerla.

EKIÑ. ver. tran. Empezar, dar comienzo. sinón. *asi*.

Berriz be ekiñ detsa bere asmo zoruetan.

De nuevo ha empezado en sus locos proyectos.

EKIÑA. Se usa en el sentido de tarea. Lo mismo que *ekiñaldixa*.

Gaurko ekiña, amar ordukua.

La tarea de hoy, de diez horas.

EKIÑALDIXA. Tarea, jornada. En otro sentido, debate.

Gaurko ekiñaldixa ira-saillian, ez da izan fiestakua.

Ekiñaldi luzia euki dabe gaur Konzejuan

Errejidorriak, Sanjuanetako zezenak dirala ta ez dirala.

La tarea de hoy, en el monte helechal, no ha sido de broma.

Los del Consejo han tenido hoy largo debate a cuenta de los toros de San Juan.

EKIN DA EIÑ. Lo mismo que *asi ta eiñ*.

Deus incipit me... et Deus perfecit me, que reza el muro de la iglesia de Eibar.

EKIÑERIA. Comienzo sinón. *Asieria*.

Gauzen ekiñeria izaten da gatxena.

El Comienzo de las cosas suele ser lo más difícil.

EKITZIA. forma nominal del verbo *ekiñ*.

Lanerako gogorik ez badozu, sakatu gogorik-ez orri, eta ekitzia onena.

Si no tienes ganas de trabajar, lo mejor es combatir esa desgana con el empezar.

EKSAMIÑAK. Exámenes.

Eskolarixen ordu estua, eksamiñak.

La hora apurada de los escolares, los exámenes.

EJERA JO. Se dice en Eibar para recomendar al competidor que vaya derecho al punto débil del adversario.

iEjera joixok beñ baten, semia aitxatuta!

iVete al eje de una vez, mentándole su hijo!

EJIA. Mecan. Eje. En algunos casos se salva el erderismo con la voz *ardatza*.

Ejia ausi jako eta ez dakagu beste ardatzik.

Se le ha roto el eje y no tenemos otro.

ELA. sufijo o terminación que denota menoscabo, deterioro o descomposición. como en *arbela, orbela, ustela, motela, mengela, zimela, epela, ospela*.

ELBARRI. adj. Lesionado, herido. Voz no usada comunmente, pero recibida por vía literaria.

Gizajua, elbarri dago juandaneke illabetian.

El pobre está herido hace un mes.

ELBITZA. Creo que cierta gramínea.

Patronímico en Eibar.

Eibar'en ba'ziran Elbitza'nekuak.

ELDU. ver. intran. Llegar.

iEldu zara alakoren baten etxera!

iAl fin has llegado a casa!

ELDU. ver. intran. Madurar.

Eldu dira garixak eta urria dirudixe.

Han madurado los trigos y parecen de oro.

ELDU. ver. tran. Agarrar. sinón. *oratu*.

iElduxozu lepotik eta eraixozu mun lurrari!

iAgárrale del cuello y hazle besar la tierra!

ELDUTZIA. forma nominal del verbo *eldu*, en sus tres acepciones.

Zuek baño len eldutzia gura neban, baño eziñ izan dot.

Urriñ dago ondiokan garixak eldutzia.

Naixago neban subiarri eldutzia, ari eskua emotia baño.

Quería llegar antes que vosotros, pero me ha sido imposible.

Todavía falta mucho para madurar los trigos.

Prefería agarrar una culebra a dar la mano a aquél.

ELEMENTUA. En uso común, se dice de la persona que inspira reparo o inquieta por sus cualidades.

Ez dot nai lagun izan deizun a elementua.

No quiero que tengas por amigo a aquel sujeto.

ELEMENTUAK. Elementos.

Munduan lau elementuak: lurra, ura, aizia eta sua.

Los cuatro elementos del mundo: la tierra, el agua, el aire y el fuego.

ELEZIÑUAK. Elecciones. También se suele decir: *botaziñuak*.

Zorioneko eleziñuak Markiña aldian, betiko Jaungurakuari kontrarixua agertzen bajakoan.

Benditas elecciones en el distrito de Marquina, si al candidato le salía un competidor.

ELGAITZA. Enfermedad. Voz en Eibar recibida por vía de la literatura. sinón. *Gaixa, gaitza. Gizonan burubidia, makaltasuna, elgaitza eta azkenian eriotzia.*
El destino del hombre, debilidad, enfermedad y al fin la muerte.

ELGARRA. Calentura, fiebre. Recibido también por la misma vía.
Ezarrixa dago elgarrakin.
Está muy cargado con la fiebre.

ELGORRIXA. Sarampión.
Gurian, alaba bata, nausi eiñda gero izan eban elgorrixa.
En nuestra familia, una de las hijas, tuvo el sarampión después de ser mayor.

ELIA. con acento prosódico en la e, la letra l.
Elia obeto eizu, badakizu ta.
Haz mejor la ele, ya que lo sabes.

ELIXAKO JENDIA. Clero.
Garai artan, elixako jendiak euzkixa artzen eben.
En aquel otero tomaba el sol la gente de iglesia.

ELIXA - KANTUAK. Cantos litúrgicos.
Beti egon da Eibar'en koru ederra elixa-kantuetarako.

ELIXAKO-LIBURUA. Devocionario.
Elixako liburuagaz juaten zan mezetara.
Solía ir a misa con un devocionario.

ELIXAKUAK. El viático.
Elixakuak ekarri detsez auzoko gizonari.
Al vecino le han traído el viático.

ELIXAKUEN KANPAIA. Las cinco campanadas que anunciaban el viático.
Elixakuen kanpaia izan da.
La campana ha anunciado el viático.

ELIXAN SARTU. ver. intran. Purificarse la recién parida.
Alboko andra guztiak gaur eiñ dau Elixan sartzia.
La joven esposa de la vecindad hoy ha estado a purificarse en la iglesia.

ELIXAN SARTZIA. Purificación.
Elixan sartzia dator Lege Zarretik. Lev. 12, 1-8.
El rito de la purificación viene de la Ley Mosaica.

ELIXIA. Iglesia. Congregación de fieles.
Templo. Alterna con *Elizia*.
Elixiak debekauta dauka bedinkatutako ezkontzia ausitzia.
Eibar'ko Elixia, Eliz ederra.
La Iglesia tiene prohibido romper el matrimonio bendecido.
La iglesia de Eibar, hermosa iglesia.

ELIZ-ATAIXA. Pórtico de la iglesia.
Arrate'ko Eliz-ataixan, Abadia zan nausi pelotan.
En el pórtico de la iglesia de Arrate, el cura era campeón a la pelota.

ELIZ-BIDIA. El camino que conduce a la iglesia y siguen los entierros del caserío.
Eliz-bidiak konpondu biarra dabe eta auzolanera deittu biarko jakue ballekueri.

Los caminos vecinales tienen necesidad de arreglo y habrá de llamarse a prestación personal a los del valle.

ELIZ-DEIXAK. Amonestaciones, en expediente matrimonial.
Irugarren eliz-deixak ezkeru apurtu zan ezkontzia, lau txanpon zirala ta ez zirala.
Después de la tercera amonestación se malogró la boda, por tres ochavos más o menos.

ELIZTARRA. Feligrés. Parroquiano, frecuentador de devociones, celoso de la religión.
Zaldivar'ko eliztarrek dira an baserrixan.
Egunero mezatara juaten zan eliztarra.
Eliztar amorratua politikan.
En aquel caserío son feligreses de Zaldivar.
Era un devoto que iba a misa todos los días.
En política era apasionado clerical.

ELORDI. Lugar poblado de cardos o espinas.
Olerrian orde, iñoiz entzun izan da Elordian.

ELORRA. Cardo espinoso.
Elorra auntzak jaten dabe, dittuan arantzen ardura barik.
Las cabras pastan el cardo sin importarles las espinas.

ELORRETA. Monte de cardos o espinos.
Bada gure inguruan, Ermu'ko mugen barruan, Elorreta baserrixa.
En nuestra vecindad, en jurisdicción de Ermua, está el caserío Elorreta.

ELORRIXO. top. Elorrio.
Elorrixo'ko iturri nausixan ura erandakua a be.
Aquel también era uno que había bebido en la fuente mayor de Elorrio. (Un tanto loco.)

ELORTZA. Abrojal.
Elorretan, baserrixan aurretik izango zan elortza aundiren bat, oiñ be an balira ta.
En Elorreta, antes del caserío, habría algún gran abrojal, pues todavía lo hay.

ELTXO PILLIA. Enjambre de mosquitos.
Eltxo-pillia agiri zan ur gañian egan, milla asko izanakin, ezkertera eta eskumara, gora eta bera, bat batera danak eitten ebela.
Se veía un enjambre de mosquitos volando sobre el agua, y con ser muchos miles, se movían a la vez de izquierda a derecha y arriba y abajo.

ELTXUA. Mosquito.
Uretatik sortzen dan eltxua, gaitz askoren zabaltzallia.
El mosquito que nace del agua, es agente propagador de muchas enfermedades.

ELTZIA. *eldutzia*.
Esku batakin eltzia, bestiagaz jotia.
Kosta jakue eltzia gure baratzako naranjeri.
Iru urteko bidiak arañok eltzia.
Con un mano le agarra, con la otra le pega.
Ya les ha costado madurar a las naranjas de nuestro huerto.
Tres años de camino para llegar hasta allí.

EMAKIA. Gram. Género femenino.
Arrakiak eta emakiak guen bardiña dabelako gure izketan, erderaz eitten dogu "concordancia vizcaína" esaten jakon utsa.

Porque (en los adjetivos) el masculino y femenino tienen la misma terminación en nuestro idioma, incurrimos en lo que se dice concordancia vizcaína.

EMAKUMIA. Mujer. sinón. *Andria, andrakumia, andrazkua.*
Emakumia izan arren, gizonetzko asko baño odol geixagokua zan.
Aunque era mujer, tenía más valor que muchos hombres.

EMAZTIA. Esposa.
Peru eta Marixa, senar emaztiak ziran.
Pedro y María eran marido y mujer.

EMEKIA. adj. Afeminado.
Alako mutill azixa eta emekia.
Tan crecido muchacho y afeminado.

EMEN. adv. de lugar. Aquí. Fluctúa con *amen* y sus derivados.
Emen, emendikuok, danok osasunagaz.
Aquí, todos los de este lado, con salud.

EMENTXE. adv. de lugar. Aquí mismo. Alterna con *amentxe*.
iAmentxe, toki onetantxe, orrek mendi guztiok ikusten dirala, bazkaldu biar dogu!
¡Aquí miano, en este mismo lugar, a la vista de todos esos montes, vamos a comer!

EMETASUNA. Feminidad.
Emetasunak dittu berakin: polixtasuna, biguntasuna, gurazalia izatia, negarra eta parkatzia.
La feminidad tiene consigo: la hermosura, la ternura, la amorosidad, el llanto y el perdón.

EMETAU. ver. tran. Apagar. Alterna eon *amatau*.
Emetau da sua. Emetau dogu sua.
Se ha apagado el fuego. Hemos apagado el fuego.

EMIA. Hembra.
Jaungoikuak asieran eiñ zittuan arra eta emia.
Dios los hizo al principio macho y hembra.

EMIA. Con acento prosódico en la *e*, la letra *m*.
Euskeraz, b ta p'en aurrian, ez dala jarri biar emia erakusten dabe.
Enseñan que en vasco no se debe poner *m* antes de *b* y *p*.

EMON. ver. tran. Dar.
San Pablo'k erakusten desku, ez dala naikua emotia; emon biar dala biotzetik eta poztasunakin.
San Pablo nos enseña, que no basta con dar; que hay que dar de corazón y con alegría.

EMOTEN - DABENA. familiar. Ramera.
Emoten-dabena dala esaten dabe gaizki gura detsenak.
Los que le quieren mal, dicen que es de las que lo dan.

EMONZALIA. adj. Dadivoso, liberal.
Anai bata, dana artu biarrekua; bestia emonzalia.
Un hermano todo a tomar; el otro dadivoso.

EMOTIA. forma nominal del verbo *emon*.
Baita diño San Pablo'k, Jesus'en aotik, emotian zorion geixago daguala artzian baño.
También dice San Pablo, citando a Jesús, que hay más ventura en el dar que en el tomar.

EN. desinencia del genitivo de los nombres en plural.
Ezkondutako andren zeregiña, gizona ondo konpontzia.

Gizonen biarbidia, etxian biar diran gauzendako irabaztia.
Deber de las mujeres casadas, traer compuesto al marido.
Obligación de los hombres, ganar para las cosas necesarias de la casa.

ENA. terminación de los superlativos. *Ederra, ederragua, ederrena.*
Aundixa, aundixagua, aundixena (aundiña).

ENDA. forma de la conj. copulativa *eta*, que en Eibar tiene bastante uso.
Enda ízeñek esan detsu guzur ori?
Y ¿quién te ha dicho esa mentira?

ENDEMAS. modo adv. Sobre todo. Vicioso, por cuanto la recta expresión podría ser: *ala be*.
Ez zaittut ikusi gura, endemas (ala be) eranda zatozenian.
Ez deuat aterik zabalduko, endemas (ala be) belu baator.
No te quiero ver, sobre todo cuando vienes embriagado.
No te abriré la puerta, sobre todo si vienes tarde.

iENE! interjección que denota extrañeza.
iEne! ¿nundik ator i?
¡Vamos! ¿De dónde vienes tú?

iENE BA! interjección de asombro, de sorpresa o de pena.
iEne ba, ikusizu zeñ agertu dan ona!
iEne ba, galdu da betiko!
¡Madre mía, mira quién viene acá!
¡Ahí va, se ha perdido para siempre!

iENE BARATABA! Interj. de angustia, de desesperación.
iEne barataba! iZer datorkigun gañera!
¡Ay madre mía! ¡Que se nos viene encima!

iENE BARATATXOBA! interj. de angustia o desesperación.
iEne baratatxoba! iIll biar nabe saskar onek!
¡Ay, ay madre mía, que me matan estos bárbaros!

ENGAÑATZIA. forma nominal del verbo *engañau*.
Irutxur eittia bada engañatzia, makiñatxo bat engañatze nik dakiran batek.
¡Si traicionar es engañar, bien de engaños uno que yo me sé!

ENGAÑAU. ver. tran. Engañar. No me suena ningún sinónimo auténtico. *Irutxur* entra en la acepción más grave de traicionar.
Eta esan eban Andriak: subiak engañau nau.
Y dijo la mujer: la serpiente me ha engañado.

ENGAÑAZALIA. adj. Engañador, encantador.
¡Ai, au ume engañazalia! Berau ez balitza ez gañake alkarregaz.
¡Ay niño encantador! Si no fuera él, no estaríamos juntos.

ENGUA. sufijo o terminación de los adverbios en superlativo.
Gorengua, Guenengua, Lelengua, etc.

ENIA. Con acento prosódico en la *e*, la letra *n*.
Eniak aurretik badau i, eñe biurtzen da esaterakuan.
Si a la *n* precede *i*, se convierte en *ñ* al pronunciarse.

iENNE! interj. Ene más enfática.
iEnne! iEzin dot barbarik be atara!
iAy, no puedo ni hablar!

ENORRA. Berruga. Para quitarse las berrugas de un lugar a otro más discreto, había una cantinela mágica, de la cual no recuerdo más que estos dos versos, que se decían con un dedo puesto sobre la excrecencia:
Enorra bat, enorra bi, enorrek daukaz amabi,

ENPARAUA. Refiriéndose a personas, el prójimo; referido a cosas, lo demás.
Gura izan norberan buruari bezela enaprauari, Ebanjelixua.
Bizirik urten ezkerro, diruak eta enparauak ez detsa ardura.
Amar al prójimo como a sí mismo, el Evangelio. En saaliendo vivo, el dinero y lo demás no importan.

ENPARAUKUAK. Frecuente así en plural. Los demás, el prójimo.
Norbera ondo ibilli ezkerro, enparaukuegaittik ardura ez.
Andando bien uno mismo, no importa el prójimo (o los demás).

ENPAZTU. ver. tran. Perdonar una deuda.
Zor guztiak enpaztu zetsazen bere egunian.
Le perdonó todas sus deudas el día de su santo.

ENPEÑUA. Decíamos de una bola de pólvora humedecida para que ardiera poco a poco.
Eiz-ostian enpeñua eittera goyaz.

ENREDAU. ver. tran. enredar. U.t.c. pronom.
Lagun zaro batek enredau detsa burua.
Ainbeste asmokin, burua enredau jako.
Un amigo loco le ha enredado la cabeza. Con tantos proyectos, se le ha enredado la cabeza.

ENREDATZALLIA. adj. Enredador.
Eskolako enredatzalle aundiña, urtekin errizaitzalle.
El mayor enredador de la escuela, con los años fue guardián.

ENREDATZIA. forma nominal del verbo *enredau*.
Errezago gauzak enredatzia, gero zuzentzia baño.
Es más fácil enredar las cosas que luego enderezarlas.

ENREDUA. Enredo. sinón. *nastia*.
Bazan bat beti enredua ipiñi guran.
Había uno queriendo siempre armar enredo.

ENTAÑADERAK. Armería. Tornillo de mano.
Entañaderak emoirazuz apur baten, torlojo buru au biribiltzeko.
Dame un momento el tornillo de mano, para redondear la cabeza de este tornillo.

ENTERRAU. ver. tran. enterrar los muertos. sinón. *eortzia*, que no se oye en nuestra región. Perifrásicamente se dice: *lur emon*.

Ildakuak enterrau, kristautzako zeregiña.
Es obra cristiana enterrar a los muertos.

ENTERRATZALLIA. Enterrador.
Gure denboran, Marruko zan enterratzallia.
En nuestro tiempo, Marruko era el enterrador.

ENTERRATZIA. forma nominal del verbo *enterrau*.
Gerrako illak enterratzia euren zeregiña.
Su labor era enterrar a los muertos en la guerra.

ENTIARRUA. Entierro.
Entiarrru nausixa eiñ detse.
Le han hecho entierro mayor.

ENTRAMIA. Se dice en Eibar del apetito, de la capacidad más que normal de comer y beber.
Gargantua'k besteko entramia gure senidiak.

ENTZAT. deginencia plural del dativo, equivalente a la preposición "para". Alterna con la variante *endako*.
Oñetakuok gizonentzat, andrakumientzat eta umiendako.

ENTZUN. ver. tran. Oír.
iEntzun kristauok: alkar gura izan zaittez izenan jabe izateko!
iOid, cristianos, amaos los unos a los otros para justificar el nombre!

ENTZUNA. Se emplea en sentido de obediencia, docilidad.
Seme batak ez eukan entzunik; bestia berriz, entzun onekua.
Uno de los hijos no tenía obediencia; el otro en cambio, era dócil.

ENTZUNA. adj. Sonado, famoso.
Gizon entzuna Euskal-erri guztian.
Homore famoso en todo el País Vasco.

ENTZUNIK - BAKUA. adj. Desobediente.
Entzunik-bako umia badogu beintzat diabru au!
iEste diablo nos ha salido desobediente!

ENTZUNMENA. Sentido del oído.
Gorra, entzunmena galdu ebalako, baña barruan entzutzen zittuan soñu ederrak.
Sordo, porque había perdido el sentido del oído, pero dentro oía bellas músicas.

ENTZUN-ONEKUA. adj. Obediente, dócil.
Seme oso entzun onekua gure nausiña.
Hijo muy dócil nuestro mayor.

ENTZUTE - AUNDIKUA. adj. Famoso.
Bera zan entzute-aundikua España guztian.
Era él de gran fama en toda España.

ENTZUTZEKUA. adj. Digno de ser oído. Persona que sabe escuchar.
Entzutzekua atara daben musikia.
Oiño Alkatia, pobrieri entzutzekua.
Digna de ser oída la música que ha compuesto. El de ahora, Alcalde que oye a los pobres.

ENTZUTZIA. forma nominal del verbo *entzun*.
Onena ikasteko, bestieri entzutzia.
Badot entzutzia nola autua izan zan.
Lo mejor para aprender es escuchar a los demás. Tengo oído cómo fue el asunto.

ENTZUTZIA. Fama, renombre.
Badau entzutzia gaurko sermoilarixak.
Tiene fama el predicador de hoy.

EÑIA. con acento prosódico en la e, la letra eñe.
Eña, sarrittan agertzen da auskeraz.
La eñe aparece muchas veces en vasco.

iEPA! interj. que pone sobre aviso.
iEpa! or dozu zezena zeuregana!
¡Cuidado, ahí te va el toro donde de ti!

EPAIKIXA. Armería. Sierra de cortar metales.
Ekarrirazu epaikixa, burdiña auxe laburtu biarra daukat eta.
Tráeme la sierra, pues tengo necesidad de cortar metales.

EPAILLA. Marzo. sinón. *Martixa*, que es la forma común en Eibar.
Gure artian, epaillan ordez esaten dogu martixa.

iEPALA! interj. Lo mismo que iepa!
iEpala danok oiñ maira!
¡Hala, ahora todos a la mesa!

EPELA. adj. Tibio; figurado: hombre sin ánimos, sin calidades.
Au ez da saldia; au da ur epela.
Gizon epela, ur epela bezela igoiñgarrixa.
Esto no es caldo; es agua tibia.
El hombre tibio, como el agua tibia, repugna.

EPELDU. ver. tran. Entibiar. U.t.c. pronom.
—*Epeldizuz pare bat arrautza.*
Otzak etorri naiz, baña sutondu onetan epeldu naiz biziiko onduen.

EELDUTZLA. forma nominal del verbo *epeldu*.
Arrautza preskuak uretan epeldutzia naikua dau.
A los huevos frescos les basta pasarlos por agua tibia.

EPELKERIXIA. Insustancialidad, tontería.
Ganora bako epelkerixia arek eiñ dabena.
Insustancialidad de un tonto lo que ha hecho.

EPELTASUNA. Tibieza.
Ezer gozua bada, bai neguko auzkixan epeltasuna.
Si hay algo dulce, la tibieza del sol invernal.

EPELTZIA. *epeldutzia*.
Galtzairuak, obeto biarra eitteko, epeltzia biar izaten dau.
El acero, para trabajar mejor, necesitaba entibiarse.

EPELUNIA. Momento tibio o templado, en el tiempo; lado tibio o templado, en el espacio.
Gabon egunetan egon zan epeluna bat; ostian negua izan da gogorra.
Ementxe, aizetatik gordeta, dago epeluna bat.
Los días de Navidad hubo una temporadita templada; pero por lo demás el invierno ha sido duro.
Aquí, guardado del viento, hay un lugar templado.

EPELARIXA. adj. Perdiguero. Cazador de perdices.
Baroja eperlarixak, beti txakur fiñak.
Baroja, el cazador de perdices, siempre perros finos.

EPER-LEKUA. Lugar o terreno que abunda en perdices.
Araba-laua, eper-lekua.
El llano de Alava, terreno de perdices.

EPERRA. Perdiz.
Eperrak, lurrian ataratzten dittu umiak
La perdiz cria en el suelo.

EPERRA'NEKUA. Casa de los Eperra, en Eibar.
Eperranekuan batzen ziran Eibar'ko erbilarixak.
En caaa de Eperra, se reunían los cazadores de liebres de Eibar.

EPERRETARA JUAN, URTEN. ver. intran. Salir de caza a por perdices.
Aspaldi onetan, Rioja'ra eta Burgos'era juaten dira gure eitzarixak eperretara.
Hoy en día los cazadores van a La Rioja o a Burgos a por perdices.

Barrenkaleko ganbara baten lan eitten eban eunliak, gu eskolako mutillak giñanian.
En un desván de Barrencalle trabajaba el tejedor, cuando éramos chicos de la escuela.

EUNEZKUA. Adj. de hilo crudo.
Eukan erropa zuri guztia zan eunezkua.
Toda su ropa blanca era de tejido de hilo.

EUP! Interj. equivalente a la loc. castellana: ¡Ah de la casa!
¡Eup, etxeko andra! ¿Iñor bizi al da emen?

EUPADIA. Voz de llamada en casa ajena.
Lenengo eupadiak esnatu eban etseko-andria.
La primera llamada despertó al ama de casa.

EUPADA BAT EMON. Loc. verbal. Dar una voz de llamada.
Eupada bat emoioxozue lotan diraneri ostatu onetan.

EURAK. Pron. tercera persona del plural. Ellos.
Eurak etorri ziran gu baketan giñan lekura.
Ellos vinieron adonde nosotros estábamos en paz.

EURENA. Pron. posesivo. Suyo, de ellos.
Eurena dabe bizi diran etxia.
Es de ellos la casa que habitan.

EURIA. Pron. posesivo. Forma demostrativa. Tuyo. En trato de respeto: *zeuria*.
Euria, eure euria dok, izardixakin irabazittakua.
Tuyo, tuyo propio es, ganado con tu sudor.

EURI-AIZIA. Viento que precede a la lluvia.
Euri-aizia darabill eta eguardixa baño len izango da zaparradia.
Anda viento de lluvia y antes del mediodía habrá chaparrón.

EURI-LANBRUA. Llovizna, el clásico *sirimiri*.
Egun guztian, geldittu gabe diardu euri-lanbrua.
Todo el día, sin parar, está lloviendo.

EURIRA EGON. Reinar tendencia a llover.
Aspaldi onetan eurira dago.
Esta temporada reina tendeneia a llover.

EURI TANTAK. Gotas de lluvia. Lo mismo que *huri-tantanak*.
Lelengo euri tantak jausi orduko, aterpian giñan.
Para cuando cayeron las primeras gotas, estábamos a cubierto.

EURI TANTANAK. Gotas de lluvia.
Euri tantanak asi dira eta guazen amendik.
Han empezado las gotas de lluvia y vámonos de aquí.

EURITARAKUA. Debía decirse así del paraguas y el impermeable en lugar del absurdo *guardasola*.
Euritarakua artizu, odiaitu illuna dago ta.
Toma el paraguas, pues está nublado oscuro.

EURITSUA. Adj. Lluvioso.
Gure aldiak, euritsuak, alabe neguan.
Nuestra tierra lluviosa, sobre todo en invierno.

EURIXA. Lluvia.
Eurixak ekin detsa aldi baterako.
Ya ha empezado a llover para un rato.

EURIXA EIÑ. Ver. impersonal Llover.
Eurixa eiño dau arrasaldia baño len.
Lloverá antes de la tarde.

EURI TRUXALAK. Lluvias cerradas y persistentes.
Arratera juanda, euri truxalak artu dittugu gañian.
Hemos ido a Arrate y hemos aguantado encima fuertes lloviendo.

EURIXAK JARDUN. Ver. impersonal. Estar lloviendo.
Juan daneko amabost egunian, eurixak diardu, eta ugaratxu biurtu biar gara.
Hace quince días que está lloviendo, y nos vamos a convertir en ranas.

EURI-ZAPARRADIA. Chaparrón.
Euri-zaparradiak artu gaittu urriñ baten.
Nos ha cogido un chaparrón en una lejanía.

EUROK. Pron. forma demostrativa de la tercera persona del plural de los verbos. Ellos.
Eurok esan dabe ondo dagozela.
Ellos han dicho que están bien.

EUROPA. Geograf. Europa.
...Ara España, lur oberikan ez da Europa guztian.

EUSKADI. Neologismo discutido de reciente introducción para significar los pueblos del euskera. Sinón. *Euskal-erria*, Baskonia, País Vasco, Provincias Vascongadas.
Euskal errixak zapaltzen dittuen lurak oiñ diñue Euzkadi. *Gure gurasuak esaten eben Euskal errixa*.

EUSKALA. Idioma vasco. Antónimo: *erdala*.
Euskaldun jayo giñan, euskaldun gera asi; euskala ill ezkeru, es dago nai bizi.

EUSKAL BRAGETIA. Bragueta euskara.
Prakak zittuan euskal bragetiak.

EUSKAL DANTZIA. Danza euskara, por antonomasia el *aurrezku*.
Aurrezku euskal dantza garbixena.
La danza vasca más característica: el aurrerku.

EUSKALDUNA. Persona que habla vasco.
Euskeria, jayotzako izketa dabena, euskalduna.

EUSKAL-ERRIA. Pueblo Vasco.
Euzki aldeko erria, nere ustez urrenengo itz onen esan-guria.

EUSKAL-GAIZTUA. El habla de las personas erdelunes que no llegan a dominar el euskera.
Nere amak, Vitorixakua izan arren, euskal-gaizto eitten eban.

EUSKAL-JANTZI. Ver tran. Euskerizar una voz de prestado.

Nai da naiz ez, euskal-jantzi biar izan dira, erromatarrengandiko berba asko, eta nere ustez, gogortu, ugaritu eta iraun eraitzeko gure izketa zarrari.

Obligadamente han debido euskerizarse muchas palabras latinas, y, a mi juicio, para fortalecer, enriquecer y hacer durar a nuestro viejo idioma.

EUSKAL-JENDIA. Pueblo vasco en el sentido étnico.

Euskal-jende artian, badira ule argi, begi urdiñ, ifar-aldekuen letz azal zurixak, sortaldeko itxas epeletiko illunen onduan.

Entre los vascos hay gente con el pelo rubio, los ojos azules y la piel blanca como los del Norte, al lado de morenos de las costas templadas del Oriente.

EUSKAL JOLASA. Juego vasco, por antonomasia la pelota.

Gure erri guztietako euskal-jolas nausiña, pelotalekuan.

El deporte principal de todos nuestros pueblos, en el frontón.

EUSKAL-SOÑUA. Música vasca, por antonomasia el *zortziko*.

Zortzikua, euskal-soñu agirixena.

El *zortziko* lo más destacado de la música vasca.

EUSKALTARRA. Vasco.

Ameriketa, euskaltar asko gara.

En las Américas somos muchos los vascos.

EUSKALZALIA. Vascófilo.

Humbolt anayak, bata baño bestia jakintsuaguak, euskalzaliak izan ziran.

Los hermanos Humbolt, ambos igualmente sabios, fueron vascófilos.

EUSKERAKADIA. Hablando en castellano, recurrir a una voz euskérica.

Toda la tarde tengo un *burukomiñ* que no me deja hacer nada.

EUSKERARA BIURTU. Ver. tran. Traducir.

Euskerara biurtu edo itxuli, liburuetan diran milla gauza eder...

Traducir al euskera mil cosas bellas que hay en los libros...

EUSKERAZ. Modo adv. En vasco.

Eibar'en euskeraz ersbiltzen dittugu autu guztiak, bai zerukuak etu bai lurekuak.

En Eibar tratamos todos los asuntos en vascuence, tanto los divinos como los humanos.

EUSKERIA. Una de las maneras del vasco.

Eibar'ko euskeria, euskeraz erabiltzen dittuelako an bizi-moduko autu guztiak, erderakada geixagokua beste alde batzuetakua baño; nun erdera zaldunera jokatzan dabe, ataittik aurrerako gauzetan.

El vasco de Eibar, por tratar en euskera todos los negocios de la vida, tiene más erderismos que el de otros lados, donde recurren al erdera de los caballeros para todo lo de puertas afuera.

EUSKOTARRA. Polit. Nacionalista vasco.

Lenengo bizkaitarrak; oiñ euskotarrak.

EUSTIA. *Eutsitzia*.

Naikua eñ genduan ixa iru urtian eustia, iru naziñoren kontra.

Bastante hicimos con resistir cerca de tres años contra tres naciones.

EUTSI. Ver. tran. Aguantar, resistir.
iEutsi, mutill, laster dok ba irabazi!

EUTSIGARRIXA. Sostén, apoyo, freno.
Eutsigarri argala guria, geixen biar genduan orduan.

Menguado apoyo el nuestro a la hora en que más lo necesitábamos.

EUTSITZIA. Forma nominal del verbo *eutsi*.
Gura eban eutsitzia, baña larregi zan eta ukat eñ eban.
Quería resistir, pero era demasiado y sucumbió.

EUZKI. Top. Caserío en el vecindario de Mandiola.
Euzki baserrikua zan Euzki osagillia.
Era del caserío Euzki, el curandero del mismo nombre.

EUZKI-ALDIA. Solana.
Gure arte estuan, Mandiola, Gorosta eta Arrate euzki-aldian.
En nuestro estrecho valle, Mandiola, Gorosta y Arrate están en el lado soleado.

EUZKI-BEGIXA. Sol frontero.
Baserrri aura, euzki begi begixan dago.
Aquel caserío está frente a frente del sol.

EUZKI-GALDIA. Sol de justicia.
Eguardiko euzki-galdatan etorri biar izan da.
Ha tenido que venir bajo el sol ardiente del mediodía.

EUZKI-LEKUA. Adj. Soleado.
Arrate ballia, euzki-lekua.
Arrate es un lugar soleado.

EUZKI-SARRERIA. Puesta de sol.
Euzkixan sarreriak beti emoten dau itzalpena.
La puesta del sol siempre produce melancolía.

EUZKI-SARTUERIA. Lo mismo que *euzki-sarrerria*.
Zerua garretan egon da euzki-srartueran.
El cielo ha estado en llamas a la puesta del sol.

EUZKITARAKUA. Que debía decirse en lugar de *guardasola*.
Juan zaittez euzkittarakuakin, oiño euzkixak, martixan garanetik, buruko-miña emoten dau ba.
Vete con sombrilla, porque el sol de ahora, estando en marzo, da jaqueca.

EUZKIXA. El sol.
Euzkixa, antxinako erri askotan, Jaungoiko nausiña.
El sol, en muchos pueblos antiguos, el dios principal.

EUZKIXA ARTU. Ver. intran. Tomar el sol, estar al sol.
Neguan eta zartzara, gauza gozua euzkixa artzia bake baketan.
En invierno y a la vejez, es dulce tomar el sol en plena paz.

EUZKIXA ATARATZEKUA. Nombre que dábamos los chicos a la *Coccinela septen punctata*.

Egan jarri deigun euzkixa ataratzekua, euririk ez deixan eñ eguen arrasaldia danetik.
Hagamos volar a la mariquita, para que no llueva siendo la tarde del jueves.

EUZKIXA TA EURIXA. Generalmente en marzo, dominando el Noroeste.
Euzkixa ta eurixa, Martiko egualdixa.

EUZKITSUA. Adj. Soleado.
Erosi deigun baserrixa, izan deilla beintzat euzkitsua, naiz da ostian apaindu aundirik ez.
El caserío que compremos, que a lo menos sea soleado, aunque en lo demás no tenga muchos adornos.

EUZKIXAK PASAU. Se dice de la insolación.
Ain luzero egon biarrakin euzki begittan, euzkixak pasau eban.
Con haber tenido que estar tiempo cara al sol, le dio una insolación.

EUZXIXA NORA, ZAPIXAK ARA. Refrán.
Adonde caliente el sol, allá la ropa a secar.

EUZKIXAN URTERIA. Salida del sol.
Goizian euzkixan urteriak dakarren poza, arrasian euzkixan sartueriak tristuria.
La salida del sol a la mañana trae alegría. La puesta a la tarde da tristeza.

EZ. Adv. de negación. No.
iBeiñ betiko esaten detsut, ez da ez!
iTe lo digo de una vez para siempre: ¡No y no!

EZ. Negación que se prefija a ciertos verbos para negar la acción de los mismos.
Eznabill, eznaiz zuegaz, eznator mendira.

EZ. Prefijo de valor negativo con que se forman algunas voces antónimas.
Ezbiarra, ezezaguna.

EZA. Forma nominal del adverbio de negación *ez*.
Bada ez bada, eskatu deixogun; eza beti daukagu.
Por si acaso, vámosle a pedir; siempre tenemos el no.

EZAGUNA. Adj. Conocido.
Alkate jauna zan nere ezaguna.
Zure lagun ori, gizon ezaguna.
El señor alcalde era mi conocido.
Ese tu amigo, hombre conocido.

EZAGUTU. Ver. tran. Conocer.
Donostian alkar ezagutu giñan.
Antxiñatik ezagutzen dogu engaño ori.
Ezagutzen dot erderia.
Nos conocimos en San Sebastián.
De antiguo me sé ese engaño.
Conozco el castellano.

EZAGUTUTZIA. Forma nominal del verbo *ezagutu*.
Gura neban ezagututzia zure aizkidia.
Deseaba conocer a tu prometido.

EZAGUTZIA. *Ezagututzia*.
Gizona ezagutzia ez da erreza; okasiñuak probatzen gaittu onduen.

No es fácil conocer al hombre; la ocasión nos prueba mejor que nada.

EZARRI. Ver. tran. Poner, añadir, acoplar.
Agin-ataratzalliak ezarri zetsazen gero barrixak, bere beriak balitzaz letz.
Bestieri ezarri guran zan, bere kulpak.
Luego el dentista le puso nuevos, como si fueran suyos propios.
Quería cargar a los demás sus propias culpas.

EZARRIXA. Adj. febriciente, cargado (un enfermo).
Lagun gaixua ikusten izan gara eta ezarrixa topau dogu.
Hemos estado a visitar al amigo enfermo y le hemos encontrado muy cargado.

EZARRIXA. Postizo, añadido.
Gaurko andrakumiak, erdixa baño geixago, ezarrixa.
Las mujeres de hoy, más de la mitad postizo.

EZARRIXA. Adj. Intruso, advenedizo.
Askokin b'ez da bere odolekua, ezarrixa baño.
Ni con mucho es de su sangre, sino un advenedizo.

EZARRITAKUA. Adj. Añadido.
Ipoiñ orrek, gauza asko bedorrek ezarritakuak.
Ese cuento tiene muchos añadidos suyos.

EZARRITZIA. Forma nominal del verbo *ezarri*.
Aukeran zerbait ezarritzia jornalari, dana biar da ba gaur.
Bien que se añada algo al jornal, pues hoy hace falta todo.

EZARTIA. *Ezarritzia*.
Neri ezartia gura dozu zeregiñ ori, zeure kontua izanda.
Me quieres endosar a mí ese trabajo, siendo tu obligación.

EZAUKERIA. Conocimiento, como primer grado de la amistad.
Durango'n San Antonio egunian, ein genduan ezaukeria, gaur andra-gizonak.
En Durango, un día de San Antonio hicimos conocimiento los hoy marido y mujer.

EZAUMENA. Razón, facultad de conocer, entendimiento. *sinon. sensuna.*
Jaungoikuak emon zeskun sensuna edo ezaumena, sarri gauzak illuntzeko, onek argitzia ez bajaku komeni.
Dios dio el entendimiento o la razón, muchas veces para oscurecer las cosas, si no nos conviene aclararlas.

EZAUPIDIA. Marca, distintivo, señal.
Txapel zurixa zeroyen ezaupidetzat.
Llevaban boina blanca por distintivo.

EZ BA. Conj. No, pues.
Bizi guztirako negarra sartu jakon, ez ba berez azitakuak bere umiak.
Le entró un llanto para toda la vida, pues no tenía los suyos criados sin esfuerzo.

EZ BADA ZE. conj. Sino que. *sinón. baizik.*
Ez bakarrik zan zatarrá, ez bada ze gaiztua be bai.
No sólo era feo, sino que también era malo.

EZBAIXA. Duda, *sinón. zalantza.*
Ezbaixan nago ez dakirala nora jokatu.
Estoy en duda no sabiendo a qué atenerme.

EZBARDINDU. ver. tran. Desnivelar.
Lur-ikara batek ezbardindu dau laua zan tokixa.
Un temblor de tierra ha desnivelado un espacio que era llano.

EZBARDINTASUNA. Desigualdad.
Gizon arteko ezbardintasunen aurka, Pozdunan Barri-Ona.
Contra las desigualdades de los hombres, la Buena Nueva del Alegrador.

EZBARDIÑA. adj. Desigual, injusto.
Gizon ezbarðiñak, beria beretako eta bestiena erdibana.
Amen lurra ezbarðiña da eta obe.
Los hombres injustos, lo suyo para sí y a medias lo de los demás.
Aquí la tierra es desigual y es mejor.

EZBARDINTZIA. forma nominal del verbo *ezbardindu*.
Ez zan komeni ezbardintzia baña...
No convenía desnivelarlo, pero...

EZBIARRA. Desgracia, contratiempo. *sinón. okerra.*
Ezbiarra sortu jako bidian datorrela.
Le ha ocurrido un contratiempo viniendo en camino.

EZBIARREKUA. adj. Indeseable.
Ezbiarrekuá zan azaltzen zan toki guztietan.
Era indeseable en todas partes donde aparecía.

EZDA. conj. copulativa. Ni.
Ezda munduko diru guztiegaz be, ezingo zenduke biurtu aren biotza zuregana.
Ni con todos los dineros del mundo podrías inclinar su corazón a ti.

EZ D'ALA? loc. conj. que frecuentemente se intercala entre dos períodos, para recabar el asentimiento del oyente.
Jaungoikua gauza guztien gañetik maitte izatia, lenengo mandamentua. ¿Ez d'ala? Eta munduan garan gizon guztiok alkar gura izatia, Legian aindu guztia.
Amar a Dios sobre todas las cosas, el primer mandamiento; ¿no es así? Y el amarnos los hombres todos de la tierra, el contenido todo de la Ley.

EZ DA ATZO GOIZEKUA. loc. adv. (la cosa) no es de ayer.
Aren artu emonak, ez dira atzo goizekuak.
No son de ayer sus relaciones.

EZE. Partícula que hace función de la conjunción «que» en oraciones ponderativas.
Ainbeste bidar esan zetsan eze, ziñuan guzurra sinistra jarri eban.
Aiñ ikusgarrixa agertu zan eze, aingeru bat zala burutandu jatan.
Juan da esaixozu eze, etorri deilla.
Agertu zan esaten eze, galduta ibilli zala.
Tantas veces se lo dijo, que acabó por creer la mentira que le decía.
Apareció tan bella, que la creí un ángel.
Vete y dile que venga.
Vino diciendo que había andado perdido.

EZEIÑDU. ver. tran. Deshacer.
Gau baten ezeiñdu eben urte askoko lana.
En una noche deshicieron la labor de muchos años.

EZEIÑTZIA. forma nominal del verbo *ezeiñdu*.
Ezeiñtzia gauzak, asko errezagua eittia baño.
El deshacer las cosas, mucho más fácil que el hacerlas.

EZER. adv. de cant. Nada.
Ezer ez dauka, eta arrokerixaz beteta dabill.
No tiene nada, y anda lleno de orgullo.

EZERBEZ. adv. de cant. Nada en absoluto.
—*¿Zer darabizu ainbeste zaratagaz?*
—*¡Ezerbez!*
—*¿Qué traed con tanto ruido?*
—*¡Nada!*

EZEREZA. La nada. sinón. *utsa*.
Munduan aurretik zan ezereza, gauza guztiak utsetik ataratakuak diranetik.
Antes del mundo era la nada, ya que todas las cosas se crearon de la nada.

EZEREZA. Situación de penuria; adj. un *sans-le-sou*.
Ezereza, lagun txarra; okerreko bidietara bat okertzekua sarri.
A, erastun eta guzti, ezerez bat.
La penuria es mala compañera; ocasión muchas veces para darle a malos caminos.
Con sortija y todo, un pobre, un sin nada.

EZEREZDAKUA. adj. pobre, desheredado.
Zorionekuok ezerezdakuok, Jaungoikuan erregetasuneko bizitza zuena dalako. Luc. 6, 20.
Bienaventurados los pobres, porque es vuestro el reino de los cielos.

EZEREZTASUNA. Pobreza.
Ezereztasunagaz eñ zittuan ezteguak, bizi izateko, ezer ez eta dana baleu letz. 2 Corintios, 6, 10.

EZERLA. Adv. de modo. De ninguna manera.
Variante: *ezertara*.

EZERTAN B'EZ. Modo adv. No... en nada.
Juan daneko urte betian ezertan b'ez dago.
Gaztia eta osasuneko, eta ezertan b'ez dabill.
Hace un año entero que no está haciendo nada.
Joven y con salud y no se ocupa de nada.

EZERTARA. adv. de modo. De ninguna manera.
Variante de *ezertara*.
Ezertara ez genduan ekarri al izan.
De ninguna manera le pudimos traer.

EZERTARA B'EZ. modo adv. De ninguna manera, en absoluto.
Ezertara b'ez genduke laga biar galtzen geure izketia.
De ninguna manera debíamos dejar perderse nuestro habla.

¿EZ ETE? modo adv. de duda. ¿Acaa no...?
—*¿Etorri ete da gure aitta ferixatik? ¿Ez ete?*
—Habrà venido nuestro padre de la feria? ¿No habrá venido?

EZETZ. modo adv. Que no.

Beren biotzeko emazte gurako neskatilliak, garbi garbi esan detsa ezetz.

La elegida de su corazón que la hubiera querido para esposa, claramente le ha dicho que no.

¡EZETZ! modo adv. reiterativo ¡Que no!
¡Ezetz ez datorrela!
¡Que no, que no viene!

EZETZA. forma nominal del adv. de negación *ez*. El no, la negativa.
Ezkon-gei zala Antoni ederrak, ezetza emon zestan.
Siendo soltera la hermosa Antonia, me dio la negativa (el no).

EZEZAGUNA. adj. Desconocido, oscuro, sin historia.
Dirua eñ aurretik, ezezaguna zan.
Antes de hacer fortuna, era desconocido.

EZEZAGUTU. ver. tran. Hacer como que no se conoce.
Urreratu nintzanian, ezezagutu eñ ninduan.
Cuando me acerqué, hizo como si no me conociera.

EZEZAGUTUTZIA. forma nominal del verbo *ezezagutu*.
Ainbeste bidar lagundutako emakumiak gaur ezezagututziak miñ emon desta.
El desconocerme hoy, una mujer que he acompañado tantas veces, me ha dolido.

EZEZAGUTZIA. *ezezagutuzia*.
Gura neban ezezagutzia eta jaramunik eñ barik aldendu, baña eziñ dot izan.
Quería desconocerle y alejarme sin hacerle caso, pero no lo he podido hacer.

EZ EZE. forma de conjunción que equivale a *baitta*, que parece mejor. Literalmente, sino que.
Ez dirua, ez eze bizixa be an laga biar izan eban.
Ez dirua, baitta bizixa be an laga biar izan eban.
No el dinero, sino que también la vida hubo de dejar allí.

EZI. ver. tran. Domar.
Basotik jatxittako mutiko motz arek, ezi bako biorra zirudixan.
Aquel muchachote bajado del caserío, parecía un potro sin domar.

EZIA. adj. Verde, inmaduro.
Egur eziak, ke aundixa atarako detsu.
Aren Gabonetarako amaittu biarreko etxia, ezia dago ondiokan.
Ezia dago sagar ori.
La leña verde te sacará mucho humo.
Su casa, que debía terminarse para Navidad, está fresca todavía.
Esa manzana está verde.

EZILLBIARREKUA. adj. Inmortal.
Korputza illbiarrekua dan bezela, arimia ezillbiarrekua.
Así como el cuerpo es mortal, el alma es inmortal.

EZILLBIARTASUNA. Inmortalidad.
Gure lenengo gurasuak, Jakintasuneko zugatzetik jan eben bezela, jan balebe Bizitzako arbolatik, izango genduan ezillbiartasuna, onan eta txarran ezaukerian tokixan.

Si nuestros primeros padres, así como probaron del árbol de la ciencia, hubiesen comido del de la vida, hubiéramos tenido la inmortalidad en lugar del conocimiento del bien y del mal.

EZIÑ. ver. tran. No poder.
Leku batzuetan eziñ esan egixa.
En algunos lados no se puede decir la verdad.

EZIÑA. Imposibilidad.
Eziñak dakar beregan parkatzia.
La imposibilidad lleva consigo el perdón.

EZIÑAGORTUA. adj. Inagotable.
Aren jakintza da eziñagortua.
Su ciencia es inagotable.

EZINDAKUA. adj. Imposible.
Guri aitzen emon zeskun asmua zan ezindakua.
El proyecto que nos comunicó era imposible.

EZIÑ ESANA. Tartamudeo.
Eziñ esana eukan eskolara aurretik.
Era tartamudo antes de ir a la escuela.

EZIÑ ESANDAKUA. ad. Inefable.
Juangoikua da eziñesandakua, eta orregaittik antxiñakuak ez eben esaten bete izena, eta gitxiago eñ bere irudixa.
Dios es inefable, y por eso los antiguos no pronunciaban su nombre y menos hacían su imagen.

EZIÑ IZANA. Imposibilidad de ser.
Bere asarre guztia zan, aberatsa eziñ izana.
Toda su protesta era, el no poder ser rico.

EZIÑIZANDAKUA. adj. Absurdo, imposible.
Oiñ papeletan dabizen Marte'tarren ipoñak, eziñizandakuak.
Las fábulas que ahora se traen los periódicos sobre los marcianos, son absurdas.

EZIÑOBIA. adj. Inmejorable, lo mejor. sinón. onena.
Azi dau semia, eziñobia.
Ha criado un hijo que no puede ser mejor.

EZIÑSOSEGAUTAKUA. adj. Inquieto.
Gaztedixa eziñsosegautakua alde guztietan.
La juventud es inquieta en todos los lados.

EZITZIA. forma nominal del verbo *ezi*.
Zaldixak ezitzia zan bere zeregiña.
Su labor era amansar caballos.

EZJAKIÑA. adj. Ignorado.
Zer izango dan aurreran, gauza ezjakiña.
Qué ocurrirá en el porvenir, cosa ignorada.

EZJAKIÑIAN. modo adv. En la ignorancia, inconscientemente.
Ezjakiñian eiñdako okerrak, ez dau pekaturik.
La falta en que se incurre por ignorancia, no lleva culpa.

EZJAKINTZA. Ignorancia, necedad.
Errixetan, ezjakintza da oker askon itturrixa.
En los pueblos, la ignorancia es fuente de muchos males.

EZKATU. ver. tran. Desatar.
Ezkatu guran korapillua, aundixagua laga eban.
Queriendo desatar el nudo, lo dejó peor.

EZKATUTZIA. forma nominal del verbo *ezkatu*.
Ez da izango erreza korapillo a ezkatutzia.
No será cosa fácil el desatar aquel nudo.

EZKATZALLIA. Libertador.
Simon Bolivar, Gollibar'ko jatorrikua, izan zan erri onen ezkatzallia.

EZKATZIA. *ezkatutzia*.
Lotutzia baño ezkatzia gatxagua.
El desatar es mas difícil que el atar.

EZKERIK. Modo adv. Desde que.
Zu izan ziñan ezkerik, asko azi da zuen mutikua.
Desde que estuviste, mucho ha crecido vuestro muchacho.

EZKERKADIA. Un golpe con la izquierda.
Ezkerkada bat emon eta bialdik baldar ori.
Dale una con la izquierda y mandale a ese desaliñado.

EZKERO. Lo mismo que *ezkerik*.
Ogei urtera ezkerero, andra-geixan billa ekiñ zaikazu.
Una vez los veinte años, puedes empezar a buscar novia.

EZKERRA. Mano izquierda.
Ezkerra eta eskumia, bardiñak zittuan pelotari arek.
Aquel pelotari daba lo mismo con la izquierda que con la derecha.

EZKERREKO BEGIKUA. Adj. Menospreciado.
Uezabak beti izan eban zure semia ezkerreko begikua.
Siempre el patrono tuvo menospreciado a tu hijo.

EZKERRERAKUA. Adj. Izquierdista.
Bere bizi guztian izan zan ezkererakua.
Toda su vida fue izquierdista.

EZKERTIXA. Adj. Zurdo.
Gure etxian bat dogu ezkertixa.
En nuestra casa tenemos a uno zurdo.

EZKON-BARRIXA. Recién casado.
Ondiok ezkon-barri zala ill zan goizetik gabera.
Siendo aún recién casado, murió de la noche a la mañana.

EZKONDU. Ver. pron. Casarse. U.t.c. tran.
Ezkondu nintzan zorionian mutill-zartu baño len.
Ezkondu dogu alabia, eta ondo.
Por suerte me casé antes de ser un solterón.
Hemos casado a la hija, y bien.

EZKONDUA. Adj. Casado.
Igestik, Mayetza ezkerero, ezkondua da, eta bere emaztia dau lagunik onena.
Está casado (es casado) desde mayo del año pasado, y tiene a la esposa por su mejor amigo.

EZKONGEI. Adj. Soltero.
Aiñ politta eritxi badetsazu, ezkon-gei dago eta errekaui eiñ zaizkixozu.
Si te ha parecido tan bonita, está soltera (en expectación) y le puedes hacer tu declaración.

EZKONTZA. Casamiento, boda.
Ezkontza ona eiñ ei eban, esaten dabe.
Dicen que hizo buen casamiento.

EZKONTZIA. Forma nominal del verbo *ezkondu*.
Ezkontzia obe, erretzia baño, diño San Pablo'k. 1 Cor. 7, 9.
Mejor casarse que abrasarse, dice San Pablo.

EZKURDUNA. Bot. adj. Balanoforo, que produce bayas.
Zugatz ezkurdunak, aritza eta artia.
Arboles balanoforos, el roble y la encina.

EZKURRA. Glande de algunas especies arbóreas. Específicamente: *arixalia*.
Txarrixak azteko, ezkurra franko ba da, kontua daukan zeregiña ori.
Si abunda la bellota, el criar cerdos labor remuneradora.

EZKUTALEKUA. Escondrijo.
Ori da ezkutaleku bat geixago, ezkutau biarra dabenandako.
Ese es un escondrijo más para los que tienen por qué esconderse.

EZKUTATZEN. Juego al escondite.
Ezkutatzen eñ deigun afaittarako ordura arte.
Juguemos al escondite hasta la hora de cenar.

EZKUTATZIA. Forma nominal del verbo *ezkutau*.
Okerrak ezkutatzia baño obe zuzentzia.
Mejor que ocultar los errores es el enderezarlos.

EZKUTAU. Ver. pron. Escondirse. U.t.c. tran.
Aberastu danetik, ezkutau da gure artetik.
Ganbaran ezkutau genduan iru astian.
Desde que se ha enriquecido se ha escondido de nosotros.
Le escondimos tres semanas en el desván.

EZKUTUA. Adi. Escondido.
Toki ezkutua eta bakartasunez betia, baña ala ta guzti, ez tentaziñorik bakua.
Lugar oculto y lleno de soledad, pero así y todo no exento de tentaciones.

EZKUTUKUA. Adj. Secreto, esotérico.
Gauza ezkutukua korputzan zeregiñak eittia.
Gauza ezkutukuak badira aren artian.
Cosa reservada el hacer las necesidades del cuerpo.
Hay secretos entre aquellos.

EZKUTUTIK EZKUTURA. Modo adv. A hurtadillas.
Ezkututik ezkutura dabill, iñok ikusi ez deixan.
Anda de un escondrijo a otro, para que nadie le vea.

EZLAKUA. adj. Inigual, como no lo hay.
Ibargaiñ, probalari ezlakua.
Ibargaiñ, sin igual en pruebas de bueyes.

EZLEIXALA. adj. Desleal.
Gizon ezleixala agertu zan, probatzeko orduan.
Resultó desleal a la hora de la prueba.

EZMENA. Negativa. sinón. ezetza.
Leengo emon zetsan baimena, eta gero ezmena.
Primero le dio el sí y luego el no.

¡EZ ORIXE! loc. adv. enfática de negación. ¡Eso sí que no!

¡Ez orixe, ez gara juango ezertara be!
¡Eso sí que no, no iremos de ninguna manera!

EZPATA – DANTZARIXA. Danzarín del grupo de baile de las espadas.
Ezpata-dantzarixa dozu semia, besterik ez lakua.

EZPATA-DANTZIA. Danza folklórica del país.
Ezpata-dantzia ikasten dabiz Sanjuanetarako.
Están ensayando la ezpata-dantza para las fiestas de San Juan.

EZPATADUNAK. Los militares.
Ezpatadunak jarri ziran aintzen, bildurturik enparaukuak.
Se pusieron a mandar los de la espada, aterrorizando al resto.

EZPATA-JOKUA. Duelo a espada.
Gazte askorik, ezpata jokuan ill eban lagun batek, andrakume bat zala eta ez zala.
Bien joven le mató en duelo un amigo, por cuestión de una mujer.

EZPATIA. Espada.
Aspaldi onetan ezpatia dabill nausi munduan.
Esta temporada, la espada está señoreando en el mundo.

EZTA. modo adv. Tampoco. Variante de *ezda*.
Ezta belauniko eskatuko baleste b'ez.
Ni que me lo pidiera de rodillas.

EZTEGUAK. Bodas, mieles.
Andra geixan etxian dira ezteguak.
Ondiok ezteguetan bizi dira urte asko izan arren ezkondu zirala.
Irapillan, eztebuetan dabiz ume guztiak jolasian.
Las bodas son en casa de la novia.
Con ser muchos años que se casaron, aún viven en luna de miel.
Los niños andan en su gloria, jugando sobre el helecho.

EZTIBITSA. Néctar, gozo. fig. gloria.
Ango ardaua zan eztibitsa, Jainkuendako eiña balitz bezela.
¡A zan estibitsa alkartu giñanian!
Ainbeste txalo eta jasotzekin, eztibitsian dabill.
El vino de allí era néctar, como preparado para los dioses.
¡Qué gozo cuando nos encontramos!
Con tanto aplauso y tanta alabanza, anda en la gloria.

EZTIBITSETAN BIZI, IBILLI. loc. verbal significando vivir en la gloria.
Eztibitsetan dabill zuek amendik zaran artian.
Anda en la gloria mientras vosotros estéis por aquí.

EZTITSUA. adj. Dulce, melodioso.
Esan zetsazen berba eztitsuegaz jarri eban berangana.
Le convenció con las dulces palabras que le dijo.

EZTIXA. Miel.
Ikusi ditturaz iñoiz pago buruak erliak artuta eztxa dario dabela.
He visto hayas en que se asentaron las abejas, desbordando la miel.

F

- FABONUA.** Armería. Pavón.
Fabonua eta nikela zituan Ibarbeyan.
Tenía un taller de pavón y niquelado en Ibarbeyan.
- FAFUA.** vernacular. Banquete, comilona.
Gaur gabian, fafua dogu Badet'enian, ogei lagunek.
Hoy a la noche tenemos comilona donde Badet veinte amigos.
- FAI'KUA.** Anarquista (de la Federación Ibérica Anarquista).
Erebixan itxura motelagaz, Fai'kua zan.
Con el aspecto humilde que tenía, era de la FAI.
- FALTIA.** Euskerizado con sus derivados para matizar el sinón. *utsa, utseña.*
Bere faltia izan zan erritik kanpora juan biarra.
Fue su falta el tener que salir del pueblo.
- FALTA EIÑ** En el juego de la pelota, el salir de las rayas.
Azkenengo tantuan, igualez zirala, utsa gaitik, falta eiñ eban.
En el último tanto, estando a iguales, por una nada hizo falta.
- FALTAU.** ver. tran. Faltar.
Ezkondu nintzan ezkondu, bai neri ondo damutu, praka baltzetan ari zuria ezjat neri iñoiz faltatu.
- FALTATZIA.** forma nominal del verbo *faltau.*
Ez larregixa eta ez faltatzia, da onena.
Ni lo demasiado ni lo escaso, es lo mejor.
- FALTIA.**
Larregixa obe faltia baño.
Mejor sobrar que faltar.
- FALTSUA.** adj. Falso, perjurio.
Izan danik gizon fiñenan inguruan be, amabi lagunetik bat faltsua.
Kuletru faltsuagaz uts eiñ ezkeru, ez dago biaramonik.
Alrededor del hombre más integro, de doce personas, uno resultó falso.
Si te equivocas con un falso culetro (variedad de una especie de setas) no hay día de mañana.
- FALTSUKERIXIA.** Falsedad, felonía, traición.
Oker guztietatik, faltsukerixia geixen asarratzen dabena.
De todas las bellaquerías, la traición lo que más indigna.
- FAMAU.** ver. tran. Ensalzar, acreditar, prestigiar.
Ardau zuri au, famatzen dabe aittuak.
Los entendidos ensalzan este vino blanco.
- FAMAUA.** adj. Famoso, sinón. *entzuna, entzutze aundikua.*
Gayarre, kantari famaia zan. Gayarre, fue famoso cantor.
- FAMATZIA.** forma nominal del verbo *famau.*
Axe jokua irabazia izan zan aren famatzia.
El ganar aquel juego fue su hacerse famoso.
- FAMELIXADUNA.** adj. Que tiene familia.

Gaur ill dan gizona, famelixaduna; iru ume zurtz lagatzen dittu.

El muerto de hoy tenía familia; deja tres huérfanos.

FAMELIXAKUA. adj. Pertenciente a la familia.
Famelixakotzat beti izan genduan.
Siempre le consideramos como de la familia.

FAMELIXIA. Familia.
Gure famelixan, gure aittaittak eta aurretikuak izan ziran kañoigiñak.
En nuestra familia, los abuelos y antepasados fueron obradores de cañones.

FANFARRERIXIA. Alarde, ostentación.
Fanfarrerixia ugari erabiltzen dau beintzat tabernan.
En la taberna hace no poco alarde.

FARDELA. adj. Descuidado en el vestir. sinón. *arlotia.*
Fardell aundi bat eiñda agertu da gurasuetara.
Ha vuelto a los padres, hecho un ex-hombre.

FARRA FARRA. modo adv. Abundante, copiosamente.
Farra farra darabill dirua, ez dakigu noiz arte.

FARRASTADIA. En el agua, na dando, una brazada.
Igarixan, farrastada luzia eban.
Nadando, tenía larga brazada.

FARRIA. Rama con muchas ramitas, cortada del árbol y que se fija en hileras en la huerta para apoyo de las plantas trepadoras, como el guisante y la judía.
Farria biar da abar askokua.

FEDE-BAKUA. adj. Sin fe, incrédulo.
Naiz da pekatari aundixa izan, ez zan fede-bakua.
Aunque era gran pecador, no era hombre sin fe.

FEDEDUNA. adj. Creyente.
Oso fededuna zala, bere obrak esaten detsue.
Sus obras te dicen que era hombre de fe.

FEDE EMON. ver. tran. Dar fe.
Fede emoten detsat aren esanari.
Doy fe a lo que aquel dice.

FEDE-GABIA. adj. Incrédulo, igual que *fede-bakua.*
Fede-gabia esaten doguna, askotan fedetsua beste siñispera batzuetan.
De quien decimos incrédulo, muchas veces ferviente de otras creencias.

FEDE-GITXIKUA. adj. De poca fe, excéptico.
Naiz da egunero elizara juan, fede-gitxikua obrak agertzen daben letz.
Aunque vaya todos los días a la iglesia, hombre de poca fe, como lo atestiguan sus obras.

FEDETSUA. adj. Creyente fervoroso.
Mahoma'n aldekuentzat, eurak fedetsuak, kristauak fede-gabiak.
Para los sectarios de Mahoma, ellos son los fieles, los cristianos los infieles.

FEDIA. Euskerizado sin duda por necesidad de la catequesis. Fe sinon. *Sinismena.*
Fedia da, ikusi ez doguna sinistia.

La fe es creer lo que no hemos visto.

FELI. nombre propio. Félix, Felicitas.
Gure Feli da asmotsua.
Nuestra Feli es ingeniosa.

FERIXIA. Feria, mercado.
Elgoibar'ko ferixia, illan azkenengo sapatuan.
La feria de Elgoibar, el último sábado de cada mes.

FERRAN. onomast. Fernando.
Uriko Ferran ¿bizi ete da?

FIESTAKUA. adj. simulado, de broma, cosa de comedia, convencional.
Erebixen asarre guztia, uste alkar jan biar ebela, eta fiestakua.
La disputa que se traían, como si fueran a comerse el uno al otro, todo era comedia.

FIESTAN. modo adv. De broma, en burlas. Se usa como lo contrario de *benetan*. sinón.
txantxetan.

FILA EIÑ. ver. intran. Escabullirse. Desaparecer a hurtadillas.
Iñor kontuan jausi baño len, fila eiñ eban.
Antes de que nadie se diera cuenta, se escabullió.

FINDU. ver. tran. Afinar. U.t.c pronom.
Ezkondu danetik oso findu da zan etxekalte a.
Pieza orrek, ertzak findu biarrian dittu.
Desde que se ha cansado, se ha vuelto enteramente económico el que era un manirroto. Esa pieza necesita rematar las aristas.

FINDUTZIA. forma nominal del verbo *findu*.
Serbitzalle egon zan aundiki batzuen etxian, findutzia gurarik.
Estuvo de sirviente en casa de unos grandes, queriendo aprender urbanidad.

FINTZIA. *findutzia*.
Basoko arek biar eban apur bat fintzia.
Aquel rústico ya necesitaba afinarse un poco.

FIÑA. adj. Económico, de buena calidad. sinón. de lo primero: *zintzua*.
Berakatz atala baño fiñagua dogu a neskia.
Urre fiña bezin guragarrixa.
Aquella muchacha es fina como un diente de ajo. Deseable como el oro fino.

FIRI-FARAN IBILLI. ver. intran. Andar atrás y adelante sin sentido ni objeto.
Firi-faran dabill gauza onik eiñ barik.
Anda de un lado para otro, sin hacer cosa útil.

FIRI-FARIA. Armería. Artefacto casero para taladrar, presionando con el pecho. También decíamos lo mismo de un pito fabricado con palo de fresno.
Baskulian aguja zulu, firi-fariakin eiñ biarrekua.
Lixarragaz eitten genduan txistua, firi-faria.
En la báscula, el alojamiento de la aguja, hay que hacerlo con el firi-fara.

FIXAU. ver. intran. Confiar.
Alperrik berba onak, eziñ fixau aregaz.
A pesar de sus buenas palabras, no se podía fiarse de aquel.

FIXAUTZIA. forma nominal del verbo *fixau*.

Larregi fixautziak galdu eban gizajua.
El confiar demasiado le perdió al pobre.

FLOTA. Cañuto de sauco que fabricábamos los muchachos para comprimir el aire y hacer saltar el tapón con la fuerza de un proyectil. La voz parece onomatopeya del sonido que produce el disparo.
Eskolako gaiztuak, flotakin jaurtzen zetsan maixuari kokotera.

FORALA. Foral del Cuerpo de la Diputación de Vizcaya.
Foralak Bizkaixan eta mikeletiak gure Probinzian.

FORJATZIA. forma nominal del verbo *forjau*.
Forjatzia, diru asko emon izan dabon ofizua.
El forjar, oficio que ha solido dar mucho dinero.

FORJAU. Armería. Forjar. estampar las piezas.
Forjau matxiñuan, trokelan araura.
Estampar en el martillo (mecánico) según el troquel.

FORJAU. Pieza estampada. Su antónimo en sentido industrial: *fundidua*.
Zatar batzuk, baskulia be, forjauan lekuan, fundidua.
Algunos desaprensivos, incluso en la báscula, en vez del forjado usan el fundido.

FORJIA. Armería. Taller de estampación.
Txomo'neko forjia, lenenguetarikua.

FORJARIXA. Armería. Forjador, maestro de estampación.
Serafin forjarixa, gure suteixan lan eiñdakua.

FORTIZA. adj. Fuerte, de muchos grados.
Patxar au fortiza da.
Este aguardiente es de muchos grados.

FOTA. Bollo de pan especial para el desayuno.
Fotak ziran txakur-txikikuak eta txakur-aundikuak.

FOTERUA. Panadero que hiciera este pan.
Rikardo Foterua, Ertzill'enekeuegaz, erbilari amorratua.

FRAISKO. nombre propio Francisco. También *Patxiko*.
Azola'ko Fraisko, ustarrixak aizkoriakin eitten amorratua.

FRAKAK. Pantalones. En Eibar, *galtzak* son las medias.
Frakak janzteko astirik barik urten biar izan eban lo eguan lekutik suari igesika.
Sin tiempo para ponerse los pantalones, hubo de salir de donde estaba durmiendo, escapando al fuego.

FRAKETAN. modo adv. en bragas. Una de las edades del niño.
Gure umia atzo arte gonetan; gaurtik aurrera fraketan.
Nuestro crío hasta ayer en faldas; a partir de hoy en bragas.

FRAILLEGEIXA. Novicio.
Kempen'go Tomas (Kempis latineratuta) amaika urterako fraille-geixa zan bere anai nausixagaz.
Tomas de Kempis para los once años era novicio con su hermano mayor.

FRAILLE - KATILLUA. Taza mayor que la de tamaño común.

Fraille katilluan kafia eta esnia sopekin, aren barau austia.

Su desayuno consistía en café y leche con sopas, en una taza de fraile.

FRAILLIA. Fraile.

Munduz aspertuta fraille sartu ei da.

Hastiado del mundo, dicen que ha entrado fraile.

FRAILLIA. En el frontón, sección redonda insertada en el ángulo de las dos paredes, para ardidés del juego.

Fraillian jotako pelotia, eziñ izan eban errestau.

FRANKO. adv. de cantidad. En medida liberal, liberalmente.

Franko ibilli da dirua gaurko iriproban.

El dinero ha estado abundante en la prueba de bueyes de hoy.

FRANKUA. adj. Generoso, liberal.

Suiña ei dau gizon frankua.

Dicen que el yerno es hombre generoso.

FRANTXULETA. Especie de pito o flauta (Flageolet).

Frantxuletakin joten zittuan soñu edergarrixak.

FRANTZEZ - EUSKALDUNA. Vasco-francés. *Zuberoa'ko frantzez-euskalduna.*

FRANTZIA. Francia.

Frantzia aldera urten genduan nora ezjakiñian.

Salimos hacia Francia, sin saber adonde.

FRESKUA. adj. Fresco.

Arrate aldetik etortzen dan aizia beti freskua.

Sardiña fresku freskua saltzen etortzen zan Ondarrua'tik.

El viento que suele soplar de la parte de Arrate siempre es fresco.

Solía venir de Ondárroa vendiendo sardinas frescas.

FRIZKUA. Albérchigo. El árbol y la fruta.

Gure ortuko frizkuak, loran dagoz.

Frizkua frutu gozo osasungarrixa.

Los albérchigos de nuestra huerta están en flor. El albérchigo es fruta sabrosa y saludable.

FRIZTIXIA. Fiera, animal salvaje, alimaña.

Dícese de todo animal que se supone dañino.

Fritzixarik bildurgarrixena dala, esaten dabe, gizona gosiak.

Dicen que la fiera más temible es el hombre hambriento.

FRUTO - BATZALLIA. Especie ornitológica del país.

Fruto-batzallia gure aldietan, paseko txorixa.

FRUTUA. Fruto.

Eman da zabalzazu munduan frutua.

FUERAKA. Una manera de jugar a la pelota en grupo, eliminando sucesivamente a los que pierden el tanto.

Fueraka Konsejupian, Juakin Aguazilla jatxi arte.

FUERUAK. Fueros. Se dijo siempre así de los privilegios reconocidos al País por los Señores.

Euskal-erriko fueruak, Aragon eta beste alde askotan baño geixago iraun eben.

Los fueros vascongados duraron más que en Aragón y otros lados.

FURIXADIA. Moda, brote, actualidad.

Aspaldi, jokuak furixada aundixa dauka erri onetan.

Elgorrixan furixadiakin dago gorri gorri.

Gauziari etorri jakon furixadiakin, txapel guztiak saldu dittu.

Hace tiempo que el juego está de moda en este pueblo.

Está hecho una ascua con el brote del sarampión. Con la afición que ha sobrevenido, ha vendido todas las boinas.

FURRUZTADIA. Acritud, displicencia del gesto. Refunfuño.

Eiñ zestan furuztadiakin zurkaxtu eban bere biziko onduen.

Con el bufido que le hizo le atemorizó para toda la vida.

FURRUZTATZIA. forma nominal del verbo *furruztatu*.

Itxulitzerakuan aritxandik, furruztatzian bildur zan, baña ondo artu eban aittak.

Al volver de su escapada, temía ser rechazado pero le acogió bien su padre.

FURRUZTAU. ver. tran. Acoger, responder con enojo, con displicencia.

Alabian eske juan zanian, furruztatu eban lelengo berbia amaittu baño len.

Cuando fue a pedir la mano de la hija, le rechazó (violentamente) antes de terminar la primera palabra.

G

GABA. Noche. Variante de *gaua*.
Gaba, zerua izarratuta eta giro ederrakin, bezelako pozgarrixa.
La noche, con el cielo estrellado y un tibio ambiente, es agradable como el día.

GABAZ. Modo adv. De noche.
Zeu gizon bat, gabaz bizi zana.
Era un hombre que vivía de noche.

GABE. Adv. de negación o de sentido privativo.
Sinón. *Bage*. En Eibar alternan ambos, pero más frecuente es la forma: *barik*.
Mundu guztiari jira osua emon dirurik barik.
Irakorten jartzen da aspertu gabe.
Ez da iñor nekatu bage Urko'ra eltzen.
Dar la vuelta al mundo sin dinero.
Se suele poner a leer sin cansarse.
Nadie llega al Urko sin fatiga.

GABERDIKO AUNTZAN ESTULA. Loc. popular para significar que una cosa no es tan nimia como eso.
iGaberdiko auntzan estula al da orretara lagatzeko gauzia, alegiña eui barik!
¿Es acaso una nimiedad para dejar así la cosa sin más procura?

GABERDIKO MEZIA. Misa del gallo.
Gabon gabaz eta gabon-zar egunian, gaberdiko mezia izaten da.
Los días de Navidad y Año Viejo, suele haber misa de medianoche.

GABERDIKO MOSOLUA. Lechuza.
Gaberdiko mosoluak, illunetan diran gauzak ikusten dittualako, jakintza billatzalliak lagun eñ eben.
La lechuza, porque ve las cosas que están en la oscuridad, los filósofos la hicieron su compañera.

GABERDIXA. La media noche. Alterna con *gau erdixa*.
Gabeko amabixak eitten dabe gaberdixa, eta arterañok gau-lena gaberdixa ezker, andik aurrerakua goiz-aldia.
Las doce horas hacen la medianoche; antes es la prima noche y luego la madrugada.

GABIA. Noche. Lo mismo que *gaba* y *gaua*.
Neguan, gabia luzia izaten da.
En el invierno, la noche es larga.

GABILLARIA. Gavilán. Sinón. *Txitxa-lapurra*.
Gabillariak, esaten dabe, abixa inguruan ez dabela txitxarik ostutzen.
Dicen que el gavilán no roba en las inmediaciones de su nido.

GABON. Nochebuena.
Gure txikitxako Gabon, alperrik ezer ez orduan, beste gauzarik zan.
Nuestra Navidad de chicos, aunque sin regalos, era otra cosa.

iGABON! Salutación que se usa después del anochecer.
iGabon danori, Jaungoikuak emon deizula!
¡Buenas noches a todos os dé Dios!

GABONAK. Las Navidades.

Gabonak, etxe-zuluan, famelixa guztia batuta, subilla garretan eta jan da erana nai beste, benetako zerua.
Las Navidades, en el hogar, reunida toda la familia, ardiendo la leña y la comida y la bebida a discreción, verdadero cielo.

GABON-EGUNA. Día de la Nochebuena.
Gabon-eguna, plazan gauza onak erosteko, preziuari begiratu ezik.
El día de Nochebuena, como ningún otro para comprar cosas buenas en el mercado, con tal de no reparar en el precio.

GABONETAN KEIXAK. Promesa con que los mayores agradecían a los menores algún servicio.
¿Eldu aiz? iGabonetan keixak!
¿Has llegado? ¡Cerezas (darte he) por Navidad!

GABON-GABA. Noche de Navidad.
Gabon-gaba, jan-eranian eta ipoñetan senittarte guztia batzeko.
La Nochebuena, para reunirse toda la parentela a comer y a beber y estar de cuentos.

GABON-GAUA. Lo mismo que *gabon-gaba*.
Gabon-gaua urtien luziena.
La noche de Navidad es la más larga del año.

GABON-KANTUAK. Villancicos.
Gabon kantuak, Erregenetara arte irauntzen dabe.
Los villancicos duran hasta el día de Reyes.

GABON-SARI BATZIA. Cuestación por Navidad.
Agillando, agillando, bizkaitarrak Durango, zazpi kastaña, zortzi intxaur, Aingeruak gera Zerutik gatoz, gauzia badegu baña eskian gatoz.

GABON-SARIXA. Aguinaldo.
Morroindako gabon-sarixa, bakillaua lepora.
Aguinaldo para el criado, un bacalao, que lo cargue al hombro.

GABON-ZAR. Noche Vieja.
Elgoibar'en, Gabon-zarreko ferixan erositako trepetxuak dira onek.
Estas son cosas que compré en la feria de Noche Vieja de Elgoibar.

GAIÑ. Adv de lugar. Encima, sobre.
Ibargaiñ, Pitxargaiñ, Eibar'en.
Gure gaiñ dago legia.
Ez dago norberan gaiñ gura eta ez gura izatia.
Por encima de nosotros está la ley.
No está en nosotros el querer o dejar de querer.

GAITTIK. Desidencia de ablativo contestando al interrogativo ¿por qué?, o denotando causa.
¿Zergaittik guzurre esan destazu?
Obeto ataratzia gaittik, lan geixago eñ dot.
¿Por qué me has mentado?
Por sacarlo mejor, he trabajado más.

GAITXA. Enfermedad, peste, sinón. *gaixua*.
Fluctúa con *gaitza* y *gatxa*.
Gaitxa agertu jako gastañari, eta gastañadi osuak galdu dira gure aldietan.
Una enfermedad ha venido al castaño, y castaños enteros se han perdido en nuestros términos.

GAITX-EIÑ. Ver. tran. Hacer daño, no sentar bien un alimento.
Jatekuak gaur gaitx-eiñ desta.

Hoy la comida me ha sentado mal.

GAITXIZENA. Apodo, sobre nombre, alias. Fluctúa con *gatxizena*. *Eibar'en beste gaitxizen, ez da erreza beste erri baten*.
Tantos apodos como en Eibar, es difícil en otro pueblo.

GAITZA. Enfermedad. Variante de *gaixa*. *Gaitzak ez eban parkatu, ez aberats eta ez pobrerik*.
La peste no perdonó a ricos ni a pobres.

GAITX-ONDORIA. Convalecencia. *Luzia izan eban gaitx-ondoria baña gogortu da*.
Tuvo larga convalecencia pero ya está fuerte.

GAIXONDUA. Convalecencia. *Gaixondua luzetzeraz ezkeror, kalte aundirakua*.
El prolongarse la convalecencia es peligroso.

GAIXORIK EGON, IBILLI. Ver. intran. Estar enfermo, andar enfermo. *Menditik jatxi zanetik, gaixorik dabill*.
Desde que bajó del monte, anda enfermo.

GAIXOTIXA. Adj. Enfermizo. *Gaztetan gaixotixa izan zan, baña gero gogorra izan da*.
De joven era enfermizo, pero luego ha sido fuerte.

GAIXOTSUA. Adj. Enfermizo, propenso a enfermedades. *Olluak dira egazti gaixotsuak*.
Las gallinas son aves propensas a enfermedades.

GAIXOTU. Ver. pronom. Enfermarse. *Neguko otzekin gaixotu zan eta geixago ez zan jaiki*.
Con los fríos del invierno se enfermó y no se levantó más.

GAIXOTUTZIA. Forma nominal del verbo *gaixotu*. *Gosia, nekia eta makillia, ez zan millagru gaixitutzia*.
Hambre, fatigas y palo, no era milagro el enfermarse.

GAIXOTZIA. *Gaixotutzia*. *Ofizio orren azkena, gaixotzia*.
La consecuencia de ese oficio, el enfermarse.

GAIXUA. Enfermedad. sinón. *gaitza, gaitxa, gatxa*. *Aurten sagarrak gaixua dakar*.
Este año las manzanas traen enfermedad.

GAIXUA. Adj. Enfermo. *Gizon gaixuak egoteko lekua eñ eben euzkibegittan*.
Hicieron un lugar para los enfermos en la solana.

GAIZKI. Modo adv. Mal, malamente. *Gaizki dogu amatxo, gibleko gaitzakin*. *Gaizki eña umiak jotia*.
Le tenemos mal a la madrecita, con una afección al hígado.
Mal hecho el pegar a los niños.

GAIZKI ARTU. Ver. tran. Tomar a mal, entender una cosa en sentido peyorativo.

Naiz da intenziño txarrrik barik esan, gaizki artu zestan nik esana.
Aunque sin mala intención, me tomó a mal lo dicho por mí.

GAIZKI AZI. Ver. tran. Malcriar. *Gaizki azitako umiak ditu, eta ez dakit zer burubide atarako daben*.
Tiene los hijos malcriados, y no sé en qué van a parar.

GAIZKI BE GAIZKI. Modo adv. Pésimamente. *Gaizki be gaizki eritxi detsat eñ dozun gauziari*.
Me ha parecido muy mal lo que has hecho.

GAIZKI EIÑ. Ver. tran. Hacer daño; hacer una cosa malamente. *Zori Diabruana, gaizki eñ gurarik, onerako jarduntzia*.
El destino del diablo, queriendo hacer mal contribuye al bien. *Gaizki eñ gauzak, ondo eittia bardiñ kostatzen darian, zorakerixia*.
Hacer mal las cosas cuando cuesta lo mismo el hacerlas bien, es locura.

GAIZKI ESAN. Ver. tran. Reprender, murmurar; decir mal (una palabra). *Gaizki esan detsa eñ daben okerra gaittik*. *Atzetik gaizki esaten bizi da mundu guztiagaikk*. *Gaizki esan dau itz ori*.
Le ha reprendido por el mal que ha hecho. Vive hablando mal de todo el mundo. Ha pronunciado mal esa palabra.

GAIZKI-GURAK. Deseos de mal ajeno, falta de buena voluntad. *Alkarri dittugun gaizki-gurak, sortzen dittue munduko okerrrik geixenak*.
Las envidias que nos tenemos, engendran los más de los males del mundo.

GAIZKIÑAK-EUKI. Loc. ver. Estar de mal humor, darlo todo a mal. *Gaizkiñak jaukaz gaur gure mutill zarrak, eta eziñ lajeikek urreratu beragana*.
Hoy nuestro solterón está de malas y no se le puede abordar.

GAIZTOKERIXIA. Maldad. *Gaiztokerixia zan, gizajo areri baketan ez lagatzia*.
Era una maldad el no dejar en paz a aquellos pobres.

GAIZTOTASUNA. Maldad. *Diabruan gaiztotasuna, beti txarra gura izatia; eta bere kastigua, txarra guran onerako jarduntzia*.
La maldad del diablo es el querer siempre el mal, y su castigo el contribuir al bien.

GAIZTOTU. Ver. pron. Volverse malo. *Zartzara, oso gaiztotu zan bere buruan zoritxarrerako*.
A la vejez, para su desgracia se volvió malo.

GAIZTOTUTZIA. Forma nominal del verbo *gaiztotu*. *Diru gosiak dakar gaiztotutzia gizona*.
El dinero trae el malearse al hombre.

GAIZTOTZIA. *Gaiztotutzia*. *Aren gaiztotzia izan zan, lagun txarregaz ibiltzian ondorena*.

El malearse de aquel, fue consecuencia de andar con malas compañías.

GAIZTO USAIÑAK. Maldades, travesuras.
Eskolan eta eskolatik kanpora, gaizto usaiñetan dabill beti.
En la escuela y fuera de ella, siempre anda en travesuras.

GAIZTUA. El malo, el tentador.
Gaiztua dogu beti gañian, gu galdu gurarik. Gaiztua, bere zoritxarrerako.
Al malo le tenemos siempre encima queriéndonos perder.
El malo, lo es para su desgracia.

GAIZTUA. Adj. Malo. difícil.
Umetatik zan gaiztua, gaizto a. Txarto azitakua, beñ sasoi orretara ezker gaiztua zuzentzia.
Aquel malo, era malo desde la niñez.
El mal criado, una vez a su edad, difícil de corregir.

GALANTA. Adj. Grande, en sentido de cosa que logró su plenitud específica.
Mutill planta eñ jatzu seme ori.
Muchacho grande le tienes a ese hijo.

GALBAIA. Cedazo.
Galbai zeyagaz iralgittu biarra izaten dau arturunak, taluak eitteko.
Para hacer talos, la harina de maíz hay que cernerla en un apretado cedazo.

GALBAIA. Adj. fig. Perezoso.
Mutill ori galbai osua dozu.
Galbaia baño be alperrua zan.

GALBAIAGAZ BE URA, BARRITAN. Refrán.
Barrittan, galbaiazagaz be ura.
De nuevo, se es capaz de traer agua en un cedazo.

GALBURUA. Espiga. *Gariburua.*
Leku batzuetan, galburuak batzen dittue artaxiekin.
En algunos lados recogen las espigas con las tijeras.

GALDA. Sobrenombre en Eibar.
Galda zarran erremedixuegaz osatu eban lauremiña.
Con el remedio de Galda, el viejo curó la ictericia.

GALDARAMIÑO. Top. Monte en nuestra jurisdicción.
Galdaramiñon tontorrek, titi baten itxuria agertzen dau.
Galdaramiño presenta la apariencia del seno de una mujer.

GALDARIA. Caldera.
Galdera aundi bat morokilla ta esnia eizu, gatozen guztientako.
Prepara una caldera grande de leche y morokil para todos los que venimos.

GALDATZIA. forma nominal del verbo *galdu*.
Ausi jaku trepetxu auxe, eta ez dakitt al izango ete dan zati bixak galdatzia.
Se nos ha quebrado este trebejo, y no sé si será posible caldear las dos piezas.

GALDAU. ver. tran. Unir dos hierros por el fuego.
Errementarixari eruan biarko detsazuz zati bixak galdatzeko.
Tendrás que llevar al herrero para caldear los dos pedazos.

GALDERA. Pregunta.
Eiñ destazun galdera orrek, ez dau merezi erantzunik.
Esa pregunta que me has hecho, no merece contestación.

GALDETU. ver. tran. Preguntar. En Eibar es conocida la voz por la literatura, pero comunmente no se usa por haberla sustituido un erderismo.
Galdez nintzan norutz artu biar dogun Elorrixo'ra eltzeko.
Estaba preguntando hacia dónde debemos tomar para llegar a Elorrio.

GALDIA. adj. Candente, ardiente.
Eguardiko euzki galdia artu genduan Elosu'ra eldu baño len.
El tocar algunas cosas que entonces se daban, era atraerse la desgracia.

IKUTZIA. *Ikututzia*.

Itsuen ikustia da, ikutzia.

El ver de los ciegos es el tocar.

ILBANDU. Ver. tran. Hilvanar.

Ilbanduta dauka jostunak zure soñekua.

La costurera tiene hilvanado tu vestido.

ILDAKUA. El muerto, cadáver. Sinónimo *illa*.

Lenago, ildakuak berriz agertzen ziran euren ezagunengana.

Ildakoz beteta geldittu zan gerria izan zan tokixa.

Antes, los muertos aparecían a los suyos.

El campo de batalla quedó lleno de muertos.

ILL. Ver. pron. Morirse. Como tran. Matar.

Ill zan luak artu baleu letz, bake baketan.

Ill eben basoko friztixa bat izan balitza leztxe.

Murió en paz, como si se hubiera dormido.

Le mataron como si hubiera sido una alimaña del monte.

ILLA. Forma sustantivada del part. pasivo del verbo *ill*.

Illa (ildakua) zulora; eta bestiok al dan artian bizi izatera.

El muerto al hoyo, y los demás a vivir mientras se pueda.

ILLA. Mes.

Oingo illak ogeta zortzi egun dittu.

El presente mes tiene veintiocho días.

ILLARGI BETIA. Luna llena. También decimos *iratargi osua*.

Datorren martitzenian izango da illargi betia.

El martes que viene será la luna llena.

ILLARIA. Fila. Sinón. *Errezkadia*.

Solo barrenian arbola illaria jarri dogu.

Al borde de la era hemos plantado una fila de árboles.

ILLBARRI. Luna nueva. Estar en.

Atzotik ill barri.

Desde ayer luna nueva.

ILLBERIA. Luna menguante.

Illberia sartu jaku.

Hemos entrado en luna menguante.

ILLGORIA. Cuarto creciente.

Gaurtik aurrera, illgoria beste zortzi egunian.

De hoy en adelante, cuarto creciente durante otros ocho días.

ILLEKUAK. Menstruación. (*Andra-makalaldixa*.)

Eta andriari esan zetsan: sarrittuko dittu raz zure makalaldixak. (multiplicabo erumnas tuas) Gen. 3, 16.

Y dijo a la mujer: multiplicaré tus trabajos.

ILLEKUA. Mesada, lo de un mes.

Orduan, lau aste genduzen illekuan zaiñ diru apur bat eukitzeko.

Entonces habíamos de esperar cuatro semanas la mesada para tener un poco de dinero.

ILLERO. Modo adv. Mensualmente.

Illero agertzen da, bere zorrari erantzutzero.

Aparece mensualmente a responder de su deuda.

ILLETATSUA. Adj. Quejoso, quejumbroso.

Aspaldi onetan, illetatsua dabil gure zarra.

Esta temporada anda quejoso nuestro viejo.

ILLETIA. Queja, lamentación.

Errezoi bako illetia, pekatua da.

Quejarse sin motivo es pecado.

ILLETIA ERABILLI. Ver. tran. Quejarse.

Illetia ugari darabill, baña ez deixuen igarri zer ganga etorri jakon bere ofizio barrixan.

Se trae abundante queja, pero para que no se den cuenta de la fortuna que le ha caído en su nueva ocupación.

ILLETIA JO. Ver tran. Quejarse.

Illetia. joten bizi zan zergaittik barik, eskar txarrekua zalako Jaungoikuan aurrian.

Vivía quejándose sin motivo, porque era un desagradecido ante Dios.

ILLINTXIXA. Variante de *irintzixa*. Tizón.

Illintzixa kate lapikuan sartzia oitutzen zan...

Se acostumbraba meter el tizón en el perol del café.

ILL KANPAIA. Campana que toca a muerto.

¿Norgaittik ete da ill kanpaia?

¿Por quién dobla la campana a muerto?

ILLOBIA. Nieto.

Tubal, Aitta Noe'n illobia, gure aldiatar lenen agertu zana.

Túbal, nieto del patriarca Noé, fue el primero que abordó nuestras tierras.

ILLORDO. Topón. Lugar en inmediaciones de Eibar.

Illordo'ra juan giñan perretxikutara.

ILLTZIA. Forma nominal del verbo *ill*.

Illtzia danona, lenago edo geruago, bat utseñ barik.

Gizonak gizona iltzia, izan laikian pekaturik aundiña.

El morir es de todos, antes o después, sin faltar uno.

El matar un hombre a otro hombre, el mayor de los pecados.

ILLUNA. Noche.

Negu neguan garanetik illuna ariñ etorri da.

Como estamos en el corazón del invierno, la noche se ha echado encima en seguida.

ILLUNA. Adj. Oscuro.

Bizkai aldia illuna dago, eta laster dogu eurixa.

Soñeku illuna jantzizu elizarako.

Oscura está la parte de Vizcaya y pronto tendremos agua.

Vístete el vestido oscuro para la iglesia.

ILLUNABARRA. Crepúsculo vespertino.

Illunabarran, sutan egoten da sartaldia.

Sagu-zarrak, illunabarran jaurtitzen dira egara.

Al atardecer, el Occidente se pone de fuego.

Los murciélagos se tiran a volar al anochecer.

ILLUNDU. Ver. impers. Anochecer. Como tran. oscurecer.

Illunduaz badoya, euzkixa sartu danetik.

Illundu dittu soñekuak, ama ill jakonetik.

Ya va anocheciendo desde que se ha puesto el sol.

Ha oscurecido los vestidos, habiéndosele muerto la madre.

ILLUNDUTZIA. Forma nominal del verbo *illundu*.

Naixago izan neban illundutzia, soñekuak illun barrixak eitia baño.

Preferí teñir de negro los vestidos que hacerme otros nuevos de ese color.

ILLUNPIA. Lobreguez, oscuridad. Fig. cárcel.

Satorrak, illunpian eitten dittu bere bidia.

Saso artan mundua zan illunpian.

Berba eiñ ebalako, illunpian jarri eben.

El topo abre sus caminos en la oscuridad.

En aquella época, el mundo estaba a oscuras.

Por haber hablado, le pusieron a la sombra.

ILLUNTASUNA. Oscuridad.

Eriotzia da, gauza guztiak utseratzen dittuan illuntasun aundi bat.

La muerte es una gran oscuridad que todo lo reduce a nada.

ILLUNTZIA. Lo mismo que el sustantivo *illuna*. Noche.

Neguan goixago izaten da illuntzia.

En invierno anochece más temprano.

ILLUNTZIA. *Illundutzia*.

Eta seigarren ordua inguruan, egunan erdixan etorri zan illuntzia lur-gaiñ guztia, bedratzi garrena arte. Luc. 23, 44.

Y hacia la hora sexta, en medio del día, vino el oscurecimiento de todo el haz de la tierra, hasta la hora nona.

IMAJIÑIA. Imagen (de santos) icono.

Bartolo'n imajiñia, Eibar'tik atara ei eben Elgoibar'tarrak urdai truke.

Dicen que la imagen de San Bartolomé, los de Elgoibar la sacaron de Eibar a cambio de tocino.

IMILLAUNA. Medida de capacidad para áridos.

Imillaunka jaten zittuen babak aren etxian.

En aquella casa se comían las habas por fanegas.

IMIÑIA. Medida también de capacidad para áridos.

Imiña bat gaztaña ipiñi eben afaittarako.

IMUTZIA. Chinche, *cimex lectularia*.

Geittu ziran imutxak bezela eta berriz bete eben lur gaña.

Otra vez se multiplicaron como chinches, y llenaron la superficie de la tierra.

INBRIZKIA. Temporal de aguas.

... aize, txingor eta inbrizka artera, betiko zuregaz bizi izatera.

(Creo recordar estos versos de nuestro tío cura, en que figura esa palabra.)

INDARRA. Fuerza, energía.

Osasunak emoten dau indarra eta alaitasuna.

La salud da fuerza y alegría.

INDARRA. Industria. Flúido eléctrico, energía.

Indarra juan da iruretan. Indarra etorri da bostetan.

El flúido se ha ido a las tres. El flúido ha venido a las cinco.

INDARRAK EIÑ. Ver. intran. Hacer fuerzas, hacer violencia.

Indarrak eiñ zittuan gure aurka, baño ez eban ezer atara.

Hizo violencia contra nosotros, pero no sacó nada.

INDARTIXA. Adj. Lo mismo que *indartsua*.

Forzudo.

Indartixa zanetik, karga-jasotzallien artian ibiltzen zan.

Siendo forzudo, solía alternar con los levantadores de pesos.

INDARTU. Ver. pron. Restablecerse de una enfermedad o accidente.

-Indartu zara atzera be.

-Bai, Jaungoikuari eskerrak.

-Ya te fas fortalecido nuevamente.

-Si, gracias a Dios.

INDARTUTZIA. Forma nominal del verbo *indartu*.

Kosta jako oiñguan indartutzia izan daben gaitzetik.

Ya le ha costado esta vez reponerse de la enfermedad que ha padecido.

INDARTZIA. *Indartutzia*.

Indartzia biar dogu atzera lanian ekin baño len.

Necesitas restablecerte antes de empezar a trabajar.

INDARTSUA. Adj. Fuerte, forzudo.

Sanson bezin indartsua Itziar'ko arri jasotzallia.

Forzudo como Sansón, el levantador de pesos de Iciar.

INDIANUA. Indiano.

Indianukua zan Eibar'en Jauregi eder bat, lengo beste gauza asko letz betiko juan dana.

INFARNUA. Infierno, del léxico de la catequesis.

Lurran azpirengo diran suen tokixa, Infarnua.

El lugar donde arde el fuego inferior, el infierno.

INFARNU BIZIXA. Se dice de situaciones extremas o desesperadas.

Etxekalte arek, infarnu bizixa bere emazte koittauari.

Aquel manirroto le dio una vida de infierno a su pobre esposa.

INGIRAU. Ver. pron. Arreglárselas.
iOr konpon! Oiñ eu ingirau ari al duan bezela.
¡Ahi te las compongas! Arréglatelas tú ahora como puedas.

INGIRATZIA. Forma nominal del verbo *ingirau*.
Txikiñari gertau jakon gatxenian ingiratzia.
Al menor le tocó arreglárselas en lo peor.

INGURU. Modo adv. Casi, cerca de, poco más o menos.
Irurogetamar urte inguru oiñ arek.
Ahora aquel tendrá unos setenta años. (poco más o menos).

INGURUA. Proximidad, aledaño.
Eibar eta inguruak armerixatik bizi izan dira.
Eibar y sus proximidades han vivido de la armería.

INGURUKUA. Prójimo. Sinón. *Auzua, auzokua.*
Norbera bezin ondo gura biar kenduke ingurukua.
Debiéramos amar al prójimo como a nosotros mismos.

INGURURATU. Ver. tran. Aproximar. U.t.c. pron.
Nekez baten ingururatu genduan probarrixa lelengo ultzera.
Illabeteko itxas-ibilixen ondoren, ingururatu giñan islanda baten muturrera.

INGURURATUTZIA. Forma nominal del verbo *ingururatu*.
Lurra Euzkixagana ingururutzia balitz, garretan ixotuko litzateke.
Si ocurriera la aproximación de la Tierra al Sol, ardería en llamas.

INGURURATZIA. *Ingururutzia.*
Ingururatzia gura neban, baña ígesik zan beti.
Quería acercarme, pero siempre estaba huyendo.

INTENZIÑUA. Intención. Sinón. aprox. *Guria, nai izatia.*
Ondo-eiñ guria, ondo-nai izatia eta intenziño onagaz obratzia, or dira bat gitxi gora bera.

INTERESDUNA. adj. Rico, hacendado.
Diabruak eraman deixala interesduna...

INTXAUR ARBOLIA. Nogal.
Makiñatxo bat intxaur arbola bazan gure aldietan, baña armerixiak eruan dittu.
Había bien de nogales en nuestros términos, pero la armería los ha llevado todos.

INTXAUR BATZIA. Recogida de la nuez, vareando los nogales.
Intxaur batzia, uda-azkenian.
La recogida de las nueces, en el otoño.

INTXAUR EGURRA. Madera de nogal.
Kaxagintzarako, intxaur egurra ondo igartutakua.

INTXAUR JOTEN. Juego infantil con nueces.
Baabill intxaur joten neregaz eskolia asi arte?
¿Juegas conmigo a las nueces hasta que empiece la escuela?

INTXAUR MOSKORONAK. Teñido de las manos con la nogalina de las nueces verdes.
Intxaur moskoronak esaten eben, intxaur lapurretan ibiltzen giñana.

INTXAUR MOTXALLA KASTIA. Variedad de cáscara muy recia.
Bota-kontra'rako intxaur motxalla kastak izaten ziran, eta onenak, Txarako sakonekuak.

INTXAUR OSKOLA. Cáscara de la nuez.
Intxaur-oskol baten eldu dira Ameriketara.
Han llegado a América en una cáscara de nuez.

INTXAURRA. Fruto del nogal y el árbol mismo. Nuez de la garganta. Detonador del cohete.
Intxaurra, indar aundiko jatekua.
Intxaurra, arbola kerizatsua.
Okotz'peko intxaurra, gora ta bera zerebixan.
Txapliuan intxaurrak eskuetan errementau zetsan.
La nuez es comida de mucha fuerza.
El nogal es árbol frondoso.
La nuez del gaznate se le movía arriba y abajo.
El petardo del cohete le reventó en las manos.

INTXAUR-SALTSIA. Postre preparado con nueces y azúcar. Plato rural navideño.
Ez da intxaur-saltsa bako Gabonik aren etxian.

INTXAURTIXA. Nozaleda, variante *intxaustixa*.
Karakaten ziran intxaurti asko.
En Karakate había muchas nozaledas.

INTXAUR ZUGATZA. Nogal.
Intxaur zugatz aundi bat zan ataixan, udan kerizia eiñ zeixan ifar-aiziak joten daben lekuan.
En la puerta había un gran nogal, para que en el verano hiciera sombra donde dan las brisas del mar.

INTXAUSTIXA. Nozaleda. Patronímico en Eibar.
Eibar'en baziran Intxausti'tarrak.

INTZA. Rocío.
Goizeko intza, urrezko tantuak balitzaz letz agertzen da loretan.
El rocío de la mañana aparece en las flores como si fueran gotas de oro.

INTZA EIÑ. ver. impersonal. Producirse el rocío.
Bart gau idorra; ez dau intzik eiñ.
Anoche, noche bochornosa; no ha habido rocío.

INTZETAN. modo adv. En el rocío.
Ortozik intzetan, ona dala esaten dabe osasunerako.
Dicen que es bueno para la salud el andar descalzo en el rocío.

IÑA. forma del diminutivo en ciertas voces.
Tanboliña, txikirriña, pitxiña, tartakariña, luzekiña, Iturriño.

IÑARRE. topon. Caserío en el valle de Arrate.
Iñarre eta Agarre, Arrate ballian.

IÑAUSI. ver. tran. Podar los árboles.
Pagadi au iñausi dabe eta galdu dira, aldi baterako amengo perretxikuak.
Han podado este hayedo y ya se han perdido para algún tiempo las setas en este lugar.

IÑAUSITAKUA. adj. Desmochado; árbol del que se ha hecho leña. Antón. *tantaixa*, árbol bravo.
Pago bata zan iñausittakua, bestia tantaixa.
Una haya era desmochada; la otra brava.

IÑAUSITZIA. forma nominal del verbo *iñausi*.

Zugaztixak iñausitzia, kaltegarrixa perretxikuendako.

El podar las arboledas es perjudicial para las setas.

IÑAUSIXA. adj. Podado. Lo mismo que *inausittakua*.

Zugazti iñausixetan ez da ernetzen perretxikurik.
En las arboledas podadas, no salen setas.

IÑAUSTIA. *iñausitzia*.

Gure basuetako arbola iñautsia, inguruetan egur eta ikatz asko biar zalako.

El desmochar los árboles en nuestros montes, porque en las inmediaciones hacía falta mucha leña y carbón.

IÑAZIO. Nombre propio. Ignacio.

Iñazio, gure patroï aundixa...

IÑES. nombre propio. Inés.

Santa Iñes'ko ermitian arri bat be ez da geldittu.

No ha quedado ni una piedra de la ermita de Santa Inés.

IÑO. terminación toponímica en:

Galdaramiño, Lomiño, Ariño, Kamiño...

IÑOBEZ. variante de *iñorbez*. pron. indef.

Nadie.

Iñobez da etorri batzarrera.

Nadie ha venido a la reunión.

IÑOIZ. adv. de tiempo. Nunca. En oraciones condicionales, alguna vez.

Geixago iñoiz ni agertuko etxe onetara.

Iñoiz biar baldin badozu nere laguntasuna, berba bat dozu naikua.

Nunca más aparecerá por esta casa.

Si alguna vez necesitaras mi ayuda, te basta una palabra.

IÑOIZKO DENBORAN. loc. adv. de sentido condicional.

Iñoizko denboran, ni biarran baziñaz...

Si alguna vez necesitaras de mí...

IÑOLA. modo adv. De ninguna manera.

Iñola ez dau etorri gura, zu amen zaran artian.

De ninguna manera quiere venir, mientras tú estés aquí.

IÑOLABE. modo adv. De ninguna manera, en absoluto.

Iñolabe ez dau gura izan ogitzerik.

De ninguna manera ha querido obedecer.

IÑONA. adj. Ajeno.

Iñona, norberana beziñ ondo edo obeto gorde biar da.

Lo ajeno, se debe guardar tan bien o mejor que lo propio.

IÑON BEGIXAN LASTUA IKUSI ETA ABIA EZ NORDERANIAN. Refrán que procede del Evangelio.
Oiñ dala bi milla urte bezela, iñon begixan lastua ikusi eta abia ez norberanian.

Como hace dos mil años, se ve la paja en el ojo ajeno y no la viga en el propio.

IÑON BIZKARREKO LASTUA IKUSI ETA NORBERANIK EZ. variante del mismo refrán.

IÑON PEKORA IBILLI. loc. verbal que significa gorronear, vivir a cuenta ajena.

Bere bizi guztian, iñon pekora ibilla zan, beste zintzo asko baño obetuago.

Toda su vida anduvo a cuenta de otros, mejor que cualquier otro honrado.

IÑON PLANTAK EIÑ. Loc. verbal que significa hacer la contrafigura de otra persona.

Kaitano eta Boni Txanboliñ, iñoñ plantak eiten, gizon barregarriak.

IÑOR. Pron. indefinido. Nadie.

Gaurko erromerixan, ez da iñor izan.

¿Ni ez naiz iñor etxe onetan?

En la romería de hoy no ha habido nadie.

¿No soy yo nadie en esta casa?

IÑOR. Pron. indefinido. Otro, alguien.

Zartutzian gauzarik tristiena, iñor biar izatia.

Lo más triste de la vejez es el necesitar de otro.

IÑORA. Modo adv. A ninguna parte.

Ez dau urtentzen iñora, alargundu zanetik.

No sale a ninguna parte desde que enviudó.

IÑOR BALITZ. Loc. adv. Si fuera lo que debe ser.

Iñor balitz, ointxe dauka aukeria bere burua aurrera ataratzeko.

Si fuera alguien (persona) ahora tiene ocasión de rehabilitarse.

IÑORBEZ. Pron. indef. Nadie. Variante, *iñobez*.

—iZu, zeure arrokerixa guztiegaz zara... iñorbez!

—iTu, con todo tu orgullo eres... inadie!

IÑOR ONDO IKUSI EZIÑ. Ver. perifrástico para significar envidia, envidiar.

Begi ederrak eta iñor ondo ikusi eziñ, gauza tristia.

Triste cosa el tener buenos ojos y no poder ver bien a nadie.

IÑOR ONDO IKUSI EZIÑA. Envidia.

Bere bizi guztian izan dau iñor ondo ikusi eziña.

Toda la vida ha vivido no pudiendo ver bien a nadie.

IÑUN. Adv. de lugar. En ningún lado.

Iñun ikusi ez dan gauzia, zuk diñozuna.

Es cosa que no se ha visto en ninguna parte lo que tú refieres.

IÑUN BEZ. Modo adv. de lugar. En ningún lado.

Egun guztian billa ibilli gara eta iñun bez dogu agertu.

Todo el día hemos estado buscándole, pero no le hemos hallado en ninguna parte.

IÑUNDIK IÑORA. Modo adv. De ninguna manera.

Iñundi iñora izan eziñ laikian gauzia, ez batera ta ez bestera.

Cosa que no puede ser de ninguna manera, ni así ni asá.

IÑUNDO. adv. de lugar. En ningún lado.

Gaur atara dogun arraiña, iñundo ezagutu ez dana.

El pez que hemos sacado hoy es de lo que no se ha visto en ningún lado.

IÑURE JUAN. Ver. intran. Ir de nodriza (a casa grande se entiende).

Kataliñ albokua, iñure juan da Bilbo'ra.
Catalina, la vecina, ha ido de nodriza a Bilbao.

IÑURETZAKUAK. Los señores donde sirvió de nodriza.

Iñuretzakuak, soñeku asko, berandako eta etxequentzat, bialdu izan detsez.

Los señores (donde sirvió de nodriza) le han solido mandar muchos vestidos para ella y los de casa.

IÑURIA. Nodriza.

Dingili dangun eragiozu, iñure Gollibar'kua, lotxua lo egizu eta biok jango dogu ollua!

(Canción de cuna.)

IÑUZENTE EGUNA. Día de los Santos Inocentes.

Iñuzente egunian, bustaziri luze bat atzian ebala, juan zan auzokuetara iñuzente eraintzeko asmu.

IÑUZENTE ERAIN. Ver. tran. Hacer creer algún engaño, según costumbre, el día de los Inocentes.
Iñuzente erain eta bialdu dot duako ardautura.

IÑUZENTIA. Idiota. anormal. (En Venezuela suelen decir bienaventurado.)

Erri guztietan da iñuzenteren bat, danen txorimalu izateko.

En todos los pueblos hay algún idiota, para ser juguete de todos.

IÑUZENTEKERIXIA. Tontería, idiotez.
Iñuzentekerixa aundixa eiñ dozu, dirua aurreratiakin guzurti ardura-bako bati.

Has hecho una gran tontería prestando dinero a un sinvergüenza despreocupado.

IÑUZENZIA. Nombre propio. Inocencia.
Iñuzenzia Sakonesa'nekua.

IPARRA. Lo mismo que *ifarra*. Viento fresco.
Gure ataixan, iparrak joten dau bazkalostietan.
Por las tardes, la brisa del mar da en nuestro portal.

IPARRAGIRRE. Topón. Caserío en Eibar. El representante más popular de los bardas vascos.
Ume eder bat, Iparragirre'n kantua.

IPIAPA. Modo adv. De a pe a pe.
Ipiapa, ekixan guztia esan zetsan.
Pe a pe, le dijo todo lo que sabía.

IPIÑI. Ver tran. Poner.
Ipiñirazu liberlau bat koipe, onenetik.
Ponme un cuarterón de manteca de la mejor.

IPIÑIXA. Lo puesto.
Ipinixa beste barik, or juan zan mundu zabalían ziar, Jaungoikuan laguntasunagaz kontauta.
No más que con lo puesto, se fue por el ancho mundo, contando con la ayuda de Dios.

IPINITAKUA. Hablando de finanzas: lo invertido.
Ipiñitakua, ososorik galdu eben autu artan partian ziranak.
Los que eran parte en aquel negocio, perdieron enteramente lo puesto.

IPINTZALLIA. El que pone. inversionista.
¿Zeñek eiñ dau ipintzalle ondamedizko autu onetan?

¿Quién ha hecho de inversionista en este desdichado negocio?

IPINTZIA. Forma nominal del verbo *ipiñi*.
Dirua ipintzia gura eban etxian kontura.
Quería colocar dinero a cuenta de la casa.

IPOÑA. Cuento, fábula.
Ori da otsuan eta arkumian ipoña bezela.
Eso es como la fábula del lobo y el cordero.

IPOÑAK ESAN. Ver. tran. Contar cuentos.
Txikittan, Peru ta Marixan ipoñak esaten genduzen eskolako ataixan.

Zorrari erantzun biarrian, ipoiñ batzuk esanda itxuli dau.

De pequeños contábamos cuentos de P. y M. en el portal de la escuela.

En vez de pagar la deuda, le ha mandado refiriéndole algunos cuentos.

IPOIÑLARIXA. Adj. Cuentista, fantasioso, anecdótico.

Pagatzalle txarra, ipoiñlari ona.

Mal pagador, buen cuentista.

IPURDIKO EDERRA ARTU. Se dice significando haber tenido serio menoscabo o derrota.

Lege arekin, ipurdiko ederra artu eban armerixiak.
Con aquella ley recibió fuerte golpe la armería.

IPURDIKO MIÑA. Hemorroides.

—Buruko-miña daukat eta...

—Nik ipurdiko-miña...

IPURDIKO-ZULUA. Ano. Variante: *ipurzulua*. Sinón. *atzeko zulua*. (No hay eufemismo.)

Aguazillak andrakume aundiki batzueri, ondo eiñ gurarik, traban zebilzen mutiko batzuen kontura: —iAmengo umiak edukaziñua ipurdiko zulan!

IPURDIKUAK. Azotes en el trasero.
Ipurdiko batzuk emoioxozuz, ia ixiltzen dan!
Dale unos azotes en el trasero, a ver si se calla.

IPURDIXA. Culo. Por eufemismo:
Erregian arpegixa. Lapiko-ipurdixa, pago-ipurdixa, kañoi-ipurdixa.

Praken apurtutik, erregian arpegixa agiri dozu.
Por el roto del pantalón, te aparece la cara del rey.

IPURDIXAK. Nalgas.
Ipurdixak bistan zittuala agertu zan plaza erdixan, izkuak artuta.

IPUR-GARBITZALLIA. Adulador.
Leguntzallia zala esango dot, ez esatiarren ipur-garbitzallia, berba zatarra danetik.

IPUR-LOKIA. Inconstante, veleidoso.
Ipur-loka bat zan iñun iraun ezindakua.
Era un inconstante que no podía durar en ningún lado.

IPUR-MAMIÑAK. Nalgas.
Gorbeixa'n itxurako ipur-mamirak zittuan.
Tenía unas nalgas semejantes al Gorbea.

IPURUA. Topón. Caserío en Eibar.
Gure denboran, Ipurua'ko bizitzakuak Azpurua ziran.

IPUR-ZULUA. Ano. Menos rabelesiano que *ipurdiko-zulua*.

Emon zetsan ostikuakin ipur-zuluan, eta aidian juañ zan.

IPUTARGIXA. Luciérnaga.
Arbillaga'n argixak, iputargixa zidurixen.
Las luces de Arbillaga, parecían luciérnagas.

IRA ARTIA. Helechal. Sinón. *ira-salla.*
Bururañoko ira artia zan eta ezin genduan pausorik eiñ.
Había un helechal hasta la cabeza y no podíamos dar un paso.

IRABAZI. Ver. tran. Ganar.
¿Zer irabazi dabe ainbeste guzurrekin?
¿Qué han ganado con tantas mentiras?

IRABAZIXA. Ganancia.
Gaurko mundua irabazixen ondoren bakarrik dabill.
Irabazixak, nola etorri ala juañ.
El mundo de hoy sólo va tras la ganancia.
Las ganancias, como vienen así van.

IRABAZTALLIA. Ganador.
Gaurko gerretan, ez dago irabaztallerik.
En las guerras de hoy no hay gananciosos.

IRABAZTIA. Forma nominal del verbo *irabazi.*
Badira, zegozer irabaztia ez bada, pausorik ez dabenak eitten.
Hay quienes, si no hay ganancia, no dan un paso.

IRA BERDIA. Helecho verde.
Ira-berdiak jantzi dittu mendixak.
El helecho verde ha vestido los montes.

IRADIXA. Lo mismo que *ira salla.* Helechal.
Akondia gañian eben iradi bat eta Kalamua'n beste ira sail bat.

IRA-EBATIAK. La faena anual de cortar el helecho en los montes.
Ira-ebatietan, ego-aizia sarri eta ondjuak ostikopian.
En la época del corte de los helechales, reina el viento solano y abundan los hongos.

IRAEGI. Topón. Caseríos en Eibar.
Iraegi'n eukitzen ziran Sanjuanetarako izko nafarrak.

IRAETA. Patronímico frecuente en Eibar.
Iraeta'nekuak baziran Eibar'en.

IRAGOITI. Topón. Caserío en Elgoibar.
Iragoiti'nekuak, tela dendia euken Errebalian.

IRAGORRI. Topón. Caserío en Eibar.
Domeka artan, Iragorri'n izan giñan keixatan.

IRAGOTU. Ver. tran. Revenir el acero después del temple, hasta irisarlarlo.
Iragotizu apur bat geixago gubill-zabal au.
Haz revenir un poco más este cinzel.

IRAGOTUTZIA. Forma nominal del verbo *iragotu.*
Iragotutzia izan ezik, tenple biziégixagaz gelditzen da erremintxia.
De no revenirla, el temple de la herramienta queda demasiado vivo.

IRAGOTZIA. *Iragotutzia.*

Tenplautako erremintxiak iragotzia biar izaten dau ez deiñ ausi.

La herramienta templada necesita ser revenida para que no se quiebre.

IRAKIÑ; Ver. intran. Hervir. U.t.c. tran.
Irakiñ dau sutan dozun esniak.
Amengo ura irakiñ biarko dozu eran baño len.
Ha hervido la leche que tienes al fuego.
Aquí el agua habrás de hervirla antes de beberla.

IRAKIÑ ERAIN. Ver. tran. Hacer hervir. Fig. Sacar de quicio a uno.
Ango erateko urak, irakin eraiñ biarra dau.
Irakin eraiñ zetsan ainbeste zorakerixagaz.
Al agua de beber de aquel lugar, hay que hacerla hervir.
Le sacó de quicio con tanta sandez.

IRAKINTZIA. Forma nominal del verbo *irakiñ.*
Erateko urak, leku batzuetan, irakintzia biar izaten dau.
El agua de beber en algunas partes necesita ser hervida.

IRAKORKIZUNA. Material de lectura.
Irakorkizuna ez jakon falta iñoiz mendirakuan.
Al salir para el monte, nunca le faltaba qué leer.

IRAKORLARIXA. Lector, amigo de lecturas.
Txiki txikittatik, irakorlarixa etorri zan.
Desde pequeño vino amante de lecturas.

IRAKOR-LEKUA. Lugar de lectura, biblioteca.
Nere irakor-lekua, geixenetan mendixan.
Mi lugar de lecturas, las más de las veces está en el monte.

IRAKORRI. Ver. tran. Leer.
¿Irakorri al dozu agertu dan liburu barrixa autu orren gañian?
¿Has leído el nuevo libro que ha aparecido sobre ese tema?

IRAKORTZIA. Forma nominal del verbo *irakorri.*
Irakortzia ez da naikua; aittu eiñ biar da irakortan dana.
No basta leer, hay que entender lo que se lee.

IRAKORZALIA. Adj. Amante de lecturas.
Irakorzalia izan naiz gazte gaztetatik.
Desde joven he sido amante de la lectura.

IRALA. Apellido en Eibar.
Irala'k baziran gure eskolara etortzen ziranen artian.

IRALGI. Ver. tran. Cerner en el cedazo.
Iralgi biar izaten da galbaixan arto-uruna, taluak eitteko.
Para hacer talos, hay que cerner la harina de maíz en un cedazo.

IRALGITZIA. Forma nominal del verbo *iralgi.*
Perder'enekuak. txakurreri eraintzen zetsen uruna iralgitzia. tanbor baten giltzpian sartuta.
Los de Perder hacían cerner la harina a los perros, encerrándolos en un tambor.

IRALTSUA. Yeso.
Etxe nausi orretan, arri landuak dirudixan aurria, iraltsua; eta barrutik aundixagua engañua.

En ese gran edificio, lo que parecen mármoles es yeso, y por dentro es mayor el engaño.

IRALTSUZKUA. Adj. De yeso.
Iraltsuzko Sokrates'en irudixa aurrian zala, papelera aldatu biar izaten genduan dibujan.
En el dibujo, solíamos tener que trasladar al papel un Sócrates de yeso.

IRALTZERUA. Arbañil.
Iraltzerua nai aldezu zeuretako senarra? Ez aita, ez ama...

IRAOLA. Apellido frecuentísimo en Eibar.
Iraola eta Iraolagoitia'k Eibar'ko auzuan asko ziran.

IRAPILLIA. Montones de helecho en forma de cono.
Iru irapilla eñ genduzen atai aurrian.
Hicimos tres montones de helecho delante del portal.

IRARGIXA. Variante de *illargixa*. Sinón.
iratargixa.
Irargixa genduan gau artan, eta egunaz lextxe genbizen.
Teníamos luna aquella noche y andábamos como de día.

IRA SAILLA. Helechal.
Ira-saill aundixa ebagi doguna gaur.
Gran helechal el que hoy hemos cortado.

IRA-SUSTARRA. Rastrojo del helecho.
Basuan gelditzen dan ira-sustarra, miñ emoteko bestekua oñetako gogorak erabilli ezik.
El rastrojo del helecho en el monte es como para herir si no se lleva buen calzado.

IRATAIXA. Hoz.
Aritxulueta'nian saltzen ziran irataixak, beñ garixak burutu ezker.
Una vez los trigos en espiga, se vendían hoces donde Artxulueta.

IRATARGI-BARRIXA. Luna nueva. Variante: *ill-barrixa*.
¿Noiztik dogu iratargi-barrixa?
¿Desde cuándo tenemos luna nueva?

IRATARGI-OSUA. Luna llena. Variante: *illargi-betia*.
Aprilleko iratargi osuagaz Aste Santua eta Paskuak.
Con la luna llena de abril, la Semana Santa y las Pascuas.

IRATARGIXA. Luna, forma la más común en Eibar.
Gaur gabian iratargixa dago, zortziretatik aurrera.
Esta noche hay luna desde las ocho en adelante.

IRATZIA. Helechal. Sinón. *ira sailla*.
Kalamua'n bai iratzia ederra, uste itxasua dala.
¡Qué hermoso helechal en Kalamúa, que parece un mar!

IRAUN. Ver. intran. Durar.
Zazpi urtian iraun eban ugari aldixak.
Siete años duró la abundancia.

IRAUN ERAIN. Ver tran. Hacer durar.

Zenbat iraun eraintzen zetsen arek oñetakueri ez dago konturik.
No hay cuenta de lo que aquel hacia durar al calzado.

IRAUNKORRA. Adj. Duradero, durable.
Aratostietako kantuak, iraunkorak.
Las canciones del Carnaval, son duraderas.

IRAUNTZIA. Forma nominal del verbo *iraun*.
Gauziak biar dau irauntzia.
La cosa necesita durar.

IRIA. Helecho. Sinón. *garua*. Común en Eibar la primera forma.
Iriari, beste alde bazuetan garua esaten detse.

IRIA. Pron. pos. Tuyo, hablando de tú.
¿Iria dok mutill aundi ori?
¿Es tuyo ese mocetón?

IRIMO. Topon. Lugar en nuestras inmediaciones.
Irimo edo Idimo, Eibar inguruan, Irure gañetik ziar dalakuan nago.

IRINTZIXA. Tizón. Variante: *illintzixa*.
Umetan, nausixak esaten zeskuen, irintzixagaz fiestan ibilli ezker, oyan txixa eitten zala.
De niños, nos decían los mayores, que los que jugaban con tizones, se orinaban en la cama.

IRIONDO. Apellido frecuentísimo en Eibar.
Gure Afraiz osabia zan Iriondo.

IRI-PROBALARIXA. Actor en pruebas de bueyes. Por elipsis: *probalarixa* y, más común, *probarixa*.
Ibargain, Alkate izandakua luzero, iriprobalarixa zan (Probalarixa, probarixa).

IRI-PROBIA. Prueba de bueyes.
Iri-probia dago berbatuta datorren domekarako.
Está apalabrada una prueba de bueyes para el domingo que viene.

IRI PROBIA JOKATU. Ver. tran. Efectuar la prueba de bueyes.
Iri-probia jokatu detsa Ibargaiñ-ek, Azkoiti'ko onenari.
Ibargaiñ ha competido en una prueba de bueyes, con el mejor de Azkoitia.

IRITXI. Ver. tran. Opinar, dar parecer.
Gaztia iritxi detsat andra geixari.
Nik ez detsat irizten juan biar dogunik.
La novia me ha parecido joven.
No me parece que debamos ir.

IRITXIXA. Opinión, parecer, dictamen.
Nere iritxixa jakiña da eta esango dot berriz be.
Mi parecer es sabido y lo repetiré nuevamente.

IRIZILLA. látigo. Vergajo usado para castigar. (Miembro viril del toro.)
Asko dira esaten dabenak, irizilla biar daxala... bestientzat.
Son muchos los que dicen que hace falta el látigo... para los demás.

IRIZTALLIA. Opinante.
Nere aurretiko iriztalliak diñuana, ondo dagola pentsatzen dot nik.

Lo que manifiesta mi preopinante, creo que está bien.

IRIZTIA. Forma nominal del verbo *iritxi*.
Ez jata mira eitten zuk orretara iriztia.
No me extraña el que usted opine así.

IRIXA. Buey.
Ibargaiñ Alkatian irixak lakorik, ez ziran inguruan.
No había en los términos bueyes como los de Ibargaiñ, el alcalde.

IRO. Terminación adverbial de ciertos nombres, verbos y adverbios, equivalente al castellano mente.
Astiro, berriro, geldiro, garbiro, etc.

IRRARIA. Se dice para significar los arpegios de los pájaros cantores.
Gure txorixak joten dittuan irrarak goizaldian entzutekuak dira.
Son de oír los arpegios de nuestro pájaro a la mañana.

IRRIBARRE EIÑ. Ver. intran. Sonreír.
Zorionezko euzki eder batek irribar eñ zeskun sortaldetik.
Un venturoso sol nos sonrió desde el Oriente.

IRRIBARRIA. Sonrisa.
Iribarre lagunkixagaz artu ninduan.
Me recibió con una sonrisa amiga.

IRINTZIXA. Relincho del caballo. Voz aguda y sostenida para comunicarse lejos en el monte, y que en señal de alegría se repite en las romerías. Sinón. *santzuak, aujixak.*
¿Entzutzen al dittuzu bestekaldetik joten deskuezen irrintzixak?

IRINTZIXA JO. Ver. tran. Dar el grito montañero.
Irrintzi luze bat joixozue on doyazen neska-mutilleri.

IRRIZTADIA. Resbalón. Sinón. *labankadia.*
Eñ eban irriztadiakin, ez zan gelditu aurreko ormia jo arte.
Con el resbalón que dió, no paró hasta dar con la pared de enfrente.

IRRIZT EIÑ. Ver. intran. Resbalar. Sinón. *Labandu.*
Tellatu guenian itxogñak artzen ebillela, ankiak irrizt eñ eta jausi zan atai aurrera.
Estando tomando las goteras en el borde del tejado, le resbaló el pie y cayó frente al portal.

IRU. Número cardinal. tres.
Iru anaia ziran, bata baño bestia okerraguak.
Eran tres hermanos a cual peores.

IRUA. El tres.
Ataraizu irua, bestela gorde biarran gordez, galduko dozu.
Saca el tres, que de otra manera, con tanto guardarlo, lo vas a perder.

IRU-ANKAKUA. Trípode, trebede. Sinón. *trepetxua.*
Iru ankako maixari ikara eraintzen ei zetsan begirakuna batekin.
Dicen que movía el trípode con una mirada.

IRUDI. Ver. simple irregular, defectivo. Parecer.
Egualdixak jasotzera dojala dirudi.
Parece que va a levantar el tiempo.

IRUDIXA. Imagen, semejanza.
Atxetan agertzen zan, islia ziar, andrakume baten irudixa.
Aparecía en los acantilados, perfilándose en el cielo, la figura de una mujer.

IRUEIÑ. Hilar.
Aztu ziran irueñ eta irueñak gu gaztiak giñanerako.

IRUGARRENA. Adj. Tercero.
Irugarrena, jai-egunak gordetzia.
El tercero: guardar las fiestas.

IRUIÑA. Cordelero.
Iruñ erdeldun bat, Txantxa zelaixan sokagiñtzan eitten ebana.
Un cordelero castellano, que hacía sogas en Txantxa-zelai.

IRUKANTOIKUA. Adj. Triangular.
Irukantoiko intxaurra aldian eruan ezker, ez ei da agiñeko miñik izaten.
Dicen que llevando una nuez de tres aristas consigo, no duelen las muelas.

IRUKANTOIA. Triángulo.
Iru alde, alkar bat eitten dabela, irukantoia.
Tres lados que se unen entre sí, el triángulo.

IRUKOSKORREKUA. Adj. Se decía del pan fabricado en forma de triángulo, con tres prominencias.
Ermuarretako irukoskorrekua, ogirik onena.

IRUKUARTOKUA. En nuestros tiempos mozos, los viejos llamaban así a la moneda de cobre de diez céntimos, aunque no debía ser exacta la equivalencia, por quince céntimos hacían *bost kuarto*.
Eutsi irukuartokua ogixa ekarri deirazun.
Toma uno de tres cuartos para que me traigas pan.

IRULEIÑ. Ver. tran. Trenzar.
Iruleñ uliegaz, kopetia ataratzeko.
Trenzar los pelos para sacar trenzas.

IRUNTSI. Ver. tran. Tragar sin tiempo a mascar.
Ez jan, iruntsi eitten dau gosezto orrek, aurrian jartzen detsen guztia.
No come sino que traga ese hambrón, cuanto se le pone delante.

IRUNTSITZIA. Forma nominal del verbo *iruntsi*.
Ez da ori jatia; ori da iruntsitzia.
Eso no es comer, eso es tragar.

IRURE. Topon. Caserío en las inmediaciones de Eibar.
Irure, Plazenzia'ko partian dagola uste dot.

IRUREGUN. Núm. cardinal. Trescientos.
Iruregun urte, Jesukristo baño lenago, Grezia zan gora...
Trescientos años antes de Jesucristo, Grecia prosperaba...

IRURIXA. Carbonilla, cisco.
Irurixa jirau biarra dogu, pabonua eitteko.

IRUROGEI. Núm. cardinal. Sesenta.
Irurogei errialian erosi neban, oiñ dala ogei urte liburu au.
Hace veinte años compré este libro en sesenta reales.

IRUROGETAMAR. Núm. card. Setenta.
Irurogetamar jakintsu jarri ziran batera, Hebreuen Eskriturak griegera biurtzen.
Setenta sabios se pusieron a traducir al mismo tiempo las Escrituras hebreas al griego.

IRUSTA. Trébol. Sinón. *sekula bedarra.*
Irusta, gure amandriagandiko abizena gure aittak.

IRUTIXA. Tríplice.
Gerra aundixan aurretik, Alemania'k, Austria'k eta Italia'k eitten eben irutixa.
Irutixak ziran eta irurak oso antzerakuak.
Antes de la Gran Guerra, Alemania, Austria e Italia, formaban la tríplice.
Eran tríplices y se parecían enteramente.

IRUTXIKI. Quince céntimos. Sinónimo, *bost kuarto.*
Gure eskola sasoián, iru-txiki ulia ebatia.
En nuestra edad escolar, cinco cuartos el cortar el pelo.

IRUTXUR EIÑ. Ver. tran. Traicionar.
Bide ardixan, illunak eta bakardadiak lagunduta, irutxur eiñ zestan.
A mitad de camino. ayudado por la soledad y la noche, me traicionó.

IRUTXUR JOKATU. Ver. tran. Traicionar.
Lenengo egunetik, irutxur jokatu eben urdiñak.
Desde el primer día, traicionaron los azules.

IRUTXURLARIXA. Traidor, tonguista.
Zarata geixen erebixana aurretik, gero irutxurlari agertu zan.
Olako eta olako pelotari, bixak onak, baña irutxurlarixak.
El que más gritaba antes, después resultó traidor.
Tal y tal pelotaris, los dos buenos, pero tonguistas.

IRUTXURRA. Tongo, traición.
Gaurko jokuan, irutxurra bis-bistan egon da.
Ezpatadunak eiñ zeskuen irutxurak, Jaungoikuan parkarik ez dauka.

IRUTXURRA. Angulo entrante constituido por tres planos.
Irutxur baten ezkutau zan, etsaieri igesik.
Se escondió en un rincón. escapando de los enemigos.

ISASI. Topon. Lugar en Eibar.
Isasi gañian, markeskuak eben euren jauregixa.

ISLIA. Lo claro del horizonte hasta el cénit. Voz corriente en nuestros padres, que ha ido enrareciéndose.
Islían agirixan biarra eittia, ez zala ona esaten eben zarrak.
Los viejos decían que no es bueno trabajar frente al claror del cielo.

iISO! Interj. con que se manda parar al asno.
iIso, astua, eldu gara errotara eta!

ISPIXIA. Espía.
Lagun letz agertu eta ispixia zan.
Apareció como un amigo, y resultó un espía.

ISTAR-BAKARRA. Manco de una pierna.
Bizkai aldetik agertzen ziran istar-bakarrak ango meatzetan lagarik bizi erdixa.
Los tullidos de una pierna llegaban de la parte de Vizcaya, después de haber dejado media vida en las minas.

ISTAR-LENGUSUA. Primo hermano, primo carnal.
Bixen aittak anayak ziranetik eurak istar-lengusuak.
Siendo hermanos sus padres, ellos eran primos carnales.

ISTARRA. Pierna.
Aren istarrak, zugatz tantai bi bezela.
Sus piernas como dos árboles bravos.

ISTARRA AUSI. ver. pron. Quebrarse una pierna.
Jausi keixa arbolatik eta istarra ausi dau.
Cayendo de un cerezo, se ha quebrado la pierna.

ISTARRIKO ZULUA. Gaznate.
Istarriko zuluán juan ezindako zatixak bialtzen zittuan barrurutz.
Metía trozos que no le podían caber por el gaznate.

ISTARRIKO-MIÑA. Anginas.
Istarriko-mina eukitzen zalia; eta azkenerako be, andittik galdu zan.
Era propenso a las anginas, y por fin de ello se perdió.

ISTARRIXA. Garganta.
Ainbeste orrua eiñ biarragaz, isturrixa urratuta daukat.
Teniendo que gritar tanto, tengo irritada la garganta.

ISTARRIXA ZERRAU. ver. pron. Volverse afónico.
Ainbeste orruagaz, istarrixa zerrau jata.
Con tanto gritar, me he vuelto afónico.

ISTAR MAKILLA. lectura que se hizo proverbial de Mister Mac Kinley, por *Bittor Aundixa*, cuando la guerra de Cuba.
—¿Zer jiñok gaur Istar-Makillak?

ITA. terminación de toponímicos en la localidad.
Arikita, Zengotita, Artaita.

ITANDU. ver. tran. Preguntar. sinón. *galdetu.*
Pregntau ha eliminado la voz propia, al punto que solo recordamos vagamente que los viejos utilizaban esta voz.
Juan da itandu zetsan nola deritzen zan.
Fue y le preguntó cómo se llamaba.

ITURRI. radical de muchos derivados en sobrenombres y apellidos.
Iturritxo, Iturri-Kastillo, Iturrua, Iturriño.

ITURRI-BIDIA. topon. Lugar en Eibar.
Iturri-bidia zan, Mutiola eta Portalia'n bittartian.

ITURRIXA. Fuente, manantial, origen.
Ibar-kurutzeko iturrixa.
Ibaixan goi iturri bat da amentxe.
Orren aberatskerixen iturrixa badakigu nun dan.
 La fuente de Ibarrecruz.
 Una de las fuentes del río está aquí.
 Ya sabemos en qué consiste la fuente de su orgullo.

ITURRIXA. fig. Facundia, verbosidad.
Iturrixa berbetan asi ezkeru.
 Es una fuente cuando empieza a hablar.

ITURRITSUA. adj. Abundante en fuentes o manantiales.
Oiz mendixa, iturritsua, dana are-arrixa dalako.
 El monte Oiz abunda en fuentes, porque todo él es de piedra arenisca.

ITXAIN. ver. tran. Aguardar, esperar.
Itxairazu lagunegaz Txaltxa'nian.
 Espérame con los amigos donde Txaltxa.

ITXAINTZIA. forma Dominal del verbo *itxain*.
Gosiak bazan, jateko itxaintziak biurtzen eban friztixa bildurgarri baten.
 Si tenía bambre, el esperar a la comida le convertía en una fiera temible.

ITXAINTZEN EGON. ver. tran. Estar esperando.
 sinón. *zaiñ egon.*
Itxaintzen egon giñan ordubete baño geixaguan, Beizuko zabalían.
 Estuvimos esprando más de una hora en B.

ITXANO EIÑ. ver. tran. Tratar de tú. sinón.
iketan eiñ.
Itxano eiten eban daneri, naiz gazte ta naiz zar.
 Hablaba de tú a todos, lo mismo a jóvenes que a viejos.

ITXARI. Cazador. Variante de *eitzari*.
 Sobrenombre de una familia de Eibar.
Itxari'nekuak baziran Eibar'en.

ITXAROPENA. Esperaaza. No se usa comunmente esta voz, pero suena a todos.
Obian itxaropenian daroyaguz bada-ez-bada guztiak.
 En la esperanza de algo mejor llevamos todas las contingencias.

ITXASAIZIA. Brisas del mar.
Arrasalderutz joten dau itxasaiziak.
 Hacia la tarde llegan las brisas del mar.

ITXASALDIA. Litoral, costa.
Udan, itxasaldiak izaten dau tiria.
 El verano atrae la costa.

ITXASARRAIÑA. Pescado de mar.
Itxasarraíña, gozuagua, esaten dabe, errekaquia baño.
 Dicen que el pescado de mar es más sabroso que el de río.

ITXASASARRIA. Tempestad, mar alborotado.
Ifar-aldietako aiziak jarri dabe itxas-asarria.
Itxarasarria dago gaur.
 Los vientos del Norte han embravecido el mar.
 Hoy está la mar picada.

ITXAS-BAZTARRA. Orilla del mar.

Itxas zabalían galdutako gauzak, agertzen dira itxas-baztarrian.
 Las cosas perdidas en el ancho mar, aparecen en la costa.

ITXASBISTIA. Paisaje marino, perspectiva abierta al mar.
Mendi aren gañetik, itxas bistia Frantsia'rañok.
 Desde lo alto de aquel monte se ve el mar hasta Francia.

ITXAS-KABRIA. Pescado de freir. Dorada.
Itxas-kabria priji-arraíñ gosua.

ITXAS-ONDARRA. Arena.
Itxas-ondarra, Portland'a eta burdiña, gaurko elemento nausixak etxegintzarako.
 Arena de mar, cemento e hierro, los elementos principales de la moderna construcción.

ITXAS - ONDARTZIA. Playa. sinón. *Ariatzia.*
Itxas-ondartza garbi ederrak dira gure aldietan.
 Hay playas limpias y hermosas en nuestro país.

ITXAS-ORRUAK. Estruendo del mar. En la metereología aldeana de ciertos lados, juega gran papel la fuerza con que se deja oír ese estruendo.
Itxas-orruak gogor entzutzen dira gaur.
 Hoy se deja sentir fuerte el mar.

ITXAS-TXORIXAK. Aves marinas.
Gure ontzixak, ogeta egunetan, itxas-txorixak izan zittuan ondorian.
 Nuestro barco fue seguido por las aves marinas en veintitantos días.

ITXASUA. El mar.
iAu itxasua, bildurgarria, amaika gison galdu ta ondik asarria.

ITXI. ver. tran. Cerrar.
Itxisu atia, aise zorrotza dabil eta.
 Cierra la puerta, porque corre un viento frío.

ITXI. variante de *utxi*, dejar. sinón. *laga, larga.*
Itxi (utzi, laga) dot Elgoibar'ko bidian.
 Le he dejado en el camino de Elgoibar.

ITXITZIA. forma nominal del verbo *itxi*.
Atia itxitzia ez da ezer kostatzen sartzerakuan.
Jokuari itxitzia gura neuke.
 No cuesta nada cerrar la puerta al entrar.
 Quisiera dejar el fuego.

ITXO. ver. pron. Ahogarse. U.t.c. tran.
Ez ekixan igarixan et itxo zan ur aundixera juan zanian.
iArrapatzen bazaitut, itxo eiñgo zaitut.
 No sabía nadar y se ahogó yendo a aguas grandes.
 ¡Si te cojo, te voy a ahogar!

ITXO BIARRIAN. modo adv. A punto de ahogarse.
Barrez itxo biarrian ziran ni ikusirik.
 Se morían de risa viéndome.

ITXOGIÑA. Gotera.
Neguan agertzen dira itxoginak, eta zartzara atxekixak.
 En invierno aparecen las goteras, y a la vejez los achaques

ITXOGIÑAK ARTU. ver. tran. Tomar las goteras.
Itxogiñ batzuk artu, barrixak eiñaz ostikopian.
Tomar algunas goteras, haciendo nuevas con los pies.

ITXOMENA. Se dice significando ser la risa (una persona o una cosa).
Lagun artian, itxomena da a gizona.
Aquel hombre, entre amigos, es el morirse de risa.

ITXOTAKUA. adj. Ahogado.
Gizon itxotakua atara dabe ibaittik.
Han sacado del río a un hombre ahogado.

ITXOTZEKUAK. forma elíptica de la loc. *itxotzeko barriak.*
Itxotzekuak darabixez alboko tabernan, iru edo lau erantzallek.
En la taberna de al lado, tres o cuatro bebedores, se traen risas de morirse.

ITXOTZIA. forma nominal del verbo *itxo.*
Itxotzia, eriotza izugarrixa.
El ahogarse, muerte espantosa.

ITXUA. El ciego.
¿Zeiñena izan zan amen pekatua: beronena edo bere gurasuena, gizon au itxua jaixo zeññ aman sabeletik? Juan 9, 2.
¿De quién fue aquí el pecado: suyo o de sus padres, para que este hombre naciera ciego del vientre de su madre?

ITXUAN. modo adv. A ciegas.
Itxuan dabill nora ez da, txingor eta inbrizka artian.
Anda a ciegas sin saber adónde, bajo el temporal y las lluvias.

ITXU ITXUAN. modo adv. Ciegamente.
Asarratu eta itxu itxuan juan zan etsaiagana.
Encolerizado, ciegamente se fue al enemigo.

ITXU-LAGUNTZALLIA. Lazarillo.
Zortzi urtekin, itxu-laguntzalle juan zan erririk erri.
Con ocho años, fue de lazarillo de pueblo en pueblo.

ITXULAN EIÑ. ver. tran. Guiar en sus labores el ganado con que se trabaja la tierra.
Mutikua, naikua dogu itxularako.

ITXU-LAPIKUA. Alcancía.
Itxu-lapikua bete arte ez da apurtu biar.
La alcancía no se debe romper hasta llenarla.

ITXULI. ver. pron. Volverse.
Bide erdittik itxuli naiz, dirua artzia aztu doralako.
Me he vuelto de la mitad del camino, porque se me ha olvidado tomar dinero.

ITXULI. ver. tran. Volcar, volver del revés.
Ardauz betetako pitxarra itxuli dau, eta angó danen iene ba!
Jakia itxuli eta itxulitaratik jantzi dau.
Ha volcado una jarra llena de vino, y iqué de lamentos todos!
Ha vuelto la chaqueta y la ha puesto del revés.

ITXULITTARA. modo adv. Del revés.
Itxulittara jantzi dittu galtzak.
Se ha puesto las medias del revés.

ITXULITTARIA. El envés.
Itxulittaria ez da errez igartzen tela onetan.
No se distingue fácilmente el envés en este tejido.

ITXULITTARATU. ver. tran. Poner del envés una cosa.
Aratostietan naikua dozu itxulittaratu soñekua koko jantzitta agertzeko.
Por Carnaval, basta que te pongas el vestido del revés para que estes disfrazado.

ITXULITTARATUTZIA. forma nominal del verbo *itxulittaratu.*
Soñekua itxulitaratutzia, barrixa eittia beste kostatzen da gaur.
Volver del revés un traje, cuesta hoy tanto como hacer uno nuevo.

ITXULITTARATZIA. *itxulittaratutzia.*
Ez dau merezi gaur ezer itxulittaratzia.
Nada merece hoy volver del revés.

ITXULITTIK. modo adv. Del revés.
Itxulittik begiratu ezker, gauzak beste arpegi bat eukitzen dabe.
Mirando las cosas del revés, presentan otra cara.

ITXULITTU. ver. tran. Volver las cosas del revés.
Ipurdiaz gora itxulittu dau etxe guztia.
Ha revuelto toda la casa patas arriba.

ITXULITTUTZIA. forma nominal del verbo *itxulittu.*
Dana itxulittutzia errezena, dana biar dan bezela tolostutzia baño.
Revolver todo es más fácil que poner todo en orden.

ITXULITZIA. forma nominal del verbo *itxuli.*
Ainbeste bide eiñda gero itxulitzia, biar zan lekura eldu baño len...
Lapikua itxulitzia sutara, etxeko andria auzuan ipoñetan dan artian, sarrittako kontua.
Volver habiendo hecho tanto camino, antes de llegar a destino...
Volcarse el puchero al fuego, mientras el ama está en la vecindad de cuentos, cosa frecuente.

ITXURA BAKUA. adj. Indecente, incorrecto.
Gauza itxura bakua zuk oiñ eiñ dozuna.
Cosa indecente lo que tú has hecho ahora.

ITXURAGARRIXA. adj. Decente, adecentador.
Lorak sapailluan, itxuragarririk dira.
Las flores en el balcón, dicen bien (son adecentadoras).

ITXURATU. ver. tran. Adecantar una cosa.
Itxuratu dittue inguruak, Erregia datorrenerako.
Han adecantado los alrededores para cuando venga el rey.

ITXURATUTZIA. forma nominal del verbo *itxuratu.*
Itxuratutzia gura genduke etxia, alabia ezkontzen danerako.
Quisieramos adecantar la casa para cuando se case la hija.

ITXURATZIA. *itxuratutzia.*
Bai kristau eta bai gauzak, itxuratzia biar dabe.
Tanto las personas como las cosas necesitan adecentarse.

ITXURIA. Parecido, semejanza sinón. *antza*. En Eibar, más común la primera forma. También se usa el erdérico *trazia*.

On itxuria dauka alkate barrixak.

Esan orrek, egi itxuria dau.

Itxurako gauzia.

Semiak aittan itxuria atara dau.

El nuevo alcalde parece bueno.

Esa referencia tiene trazas de ser verdad.

Cosa razonable.

El hijo ha sacado parecido del padre.

ITXURIA. ver. defectivo. Parece, tercera persona del singular, presente indicativo.

Itxuria, ez dator oiñ ezkerik.

Parece que ya no viene.

ITXURIA DAN LETZ. loc. adv. Según parece.

Itxuria dan letz, ez da ondiokan ill.

Según parece, todavía no ha muerto.

ITXURIA EMON. Dar forma, adecentar. Lo mismo que *itxuratu*.

Ez dau guztiz ondo atara, baña itxuria emon detsa.

Itxuria emon detsa etxiari, andra-geixa datorrenerako.

No lo ha sacado del todo bien, pero ya le ha dado trazas a la cosa.

Ha adecentado la casa para cuando venga la novia.

ITXUROSUA. adj. Decente, de buen parecer. antón. *itxura bakua*.

Etxia da itxurosua, baña etxeak itxura bako zoro batzuk.

La casa parece bien, pero los de la casa son unos locos indecentes.

ITXUSIA. adj. Fea. No se usa en el léxico común en Eibar pero se conoce la voz por la literatura. Se suple con el genérico *zatarra*.

Itxusia obeto dan lekuan be, zatarra esaten dogu, leku larregi emonda berba oni.

ITXUTASUNA. Ceguedad.

Eskolarik-eza da, itxutasuna bezela.

La carencia de escuela, es como una ceguedad.

ITXUTU. ver. pron. Cegarse, volverse ciego; apasionarse. Como tran. Cegar, quitarle a uno los ojos o la vista.

Ainbeste irakortekin ixa itxutu zan.

Berotasanian itxutu nintzan eta eiñ neban biar-ez-dana.

Eitsaiak itxutu eben errota arrixan lan eraintzeko.

De tanto leer casi se volvió ciego.

Me cegué y en la furia hice lo que no se debe.

Los enemigos le cegaron para hacerle trabajar en una rueda de molino.

ITXUTUTZIA. forma nominal del verbo *itxutu*.

Itxututzia izan laikianik oker aundiña.

Volverse ciego la mayor de las desgracias.

ITXUTZIA. *itxututzia*.

Bendian artutakuak itxutzia oittutzen zan gizon oletan lan eraintzeko.

A los vencidos se les sacaban los ojos para hacerles trabajar en artefactos movidos por el hombre.

ITXUZKIXA. Escoba de fabricación doméstica. sinón. *erratza*. En Eibar es común la primera forma, y *eskobia* para la comercial.

Itxuzkiza, kiñarra abarrekin eiñdako erratza.

ITUN. modo adv. Tristemente.

Alai jua da baña itun dator erromerixatik.

Ha ido alegre, pero vuelve triste de la romería.

ITUNA. adj. triste.

Mundu ituna agiri da neretzat amendik aurrera.

Mundo triste el que se me presenta de aquí en adelante.

ITUNTASUNA. Tristeza. sinón. *Tristuria*.

Ituntasun aundi bat jausi da nere gaiñ.

Una gran tristeza ha caído sobre mí.

ITZA. Palabra. sinón. *berbia*. Dominantemente se usa en Eibar el sinón., si bien derivadas como *izketan*, *izketia* y otros son comunes.

Asieran zan itza; ontara ekitzen detsa laugarren Ebangelixuak.

ITZAIÑA. Boyero.

Domekako iri-proban ¿zein da itzaiñ?

En la prueba del domingo, ¿quién es el boyero?

ITZALA. adj. Oscuro, negro. En Eibar se usa en la acepción de lo que mete miedo, temeroso.

Itzala dator Bizkai aldia, eta eurixa izango dogu beriala.

Infarnuan b'ez a zan lako gauza itzala.

Viene oscura la parte de Vizcaya y pronto tendremos agua.

Ni en el infierno cosa tan espantosa como aquella.

ITZALPENA. Melancolía.

Sartu jako barru barrura itzalpen aundi bat eta ez da barre erañgo detsanik.

Le ha entrado dentro una gran melancolía, y no hay quien le haga reír.

ITZALPIA. Sombra. sinón. *kerizpia*.

Pago aundi baten itzalpian emon dot goiza, Biblia irakorten.

He dado de la mañana a la sombra de una gran haya leyendo la Biblia.

ITZARIXA. Cazador. Variantes: *Itxari*, *eitzari*.

Kazarixa esatia itzarixa, itzarixa edo eitzarixan orde, ointsukua izan biar dau.

ITZ-AZTARRENA. Etimología.

Artua, maiz; gura neuke jakiñ itz onen aztarrena.

¡Ah, nere seme lastana!

¡Ah, mi hijo amado!

LASTANDU. ver. tran. Besar.

Eta lastandu zetsazen oñak.

Y le besó los pies.

LASTANDUTZIA. forma nominal del verbo lastandu.

Ez eban besterik gura, ainbeste urtian ikusi ezdako semia besakartu eta lastandutzia baño.

No quería otra cosa sino abrazar y besar al hijo que no había visto en tantos años.

LASTAN EIÑ. ver. tran. Besar.

Berbetan zala ondiok, or nun saskar mordua zetorzen, eta Judas izena ebana, amabixetatiko bat, aurren zala, eldu zan Jesus'engana lastan eitteko. Luc. 22, 44.

Hablaba todavía cuando he ahí que venía una turba de sicarios, y el llamado Judas, uno de los doce, se adelantó a Jesús para besarle.

LASTAN EMON. ver. tran. Besar.

Igesiko baten lastan emon zetsan; arrezkero franko erabilli dittue lastanok.

En uno de los juegos le dio un beso; después de aquello se los dieron en abundancia.

LASTANKETAN. modo adv. Entre besos, besándose.

Lastanketan egon ziran danen aurrian.

Estuvieron besándose ante todos.

LASTANTZIA. lastandutzia.
Al izan eban semia lastantzia ill aurretik.
Pudo antes de morir besar a su hijo.

LASTAZAUA. Haz de paja, que se usa para alumbrar el camino, cuando se sale de noche al monte.
Artizuz iru lastazau biderako, gaur ez dago ba iratargirik.
Toma tres haces de paja para el camino, pues hoy no hay luna.

LASTER. adv. de tiempo. Pronto, en breve. sinón. bizkor, azkar, arñ.
Begiratu ezakin, laster amaittu jakozen diruok.
Con no mirar, pronto se le acabaron los dineros.

LASTER ASKO. modo adv. Bien pronto.
Gorra izan arren, laster asko entzutzen dau berari komeni jakona.
Aunque sordo, bien pronto entiende lo que le conviene.

LASTERKI. modo adv. Prontamente.
Lasterki juan zan ordu betiori; latterregi gure ustez.
Prontamente se fue la hora; a nuestro entender demasiado pronto.

LASTERTASUNA. Velocidad. sinón. bizkortasuna.
Argixan lastertasuna ezagutzen dan bizkortasunik aundiña.
La velocidad de la luz es la mayor velocidad que se conoce.

LASTIMIA IZAN. ver. impers.
iLastimia izan da gaurko egualdixa!
¡Ha sido una lástima el tiempo de hoy!

LASTO UTSA. adj. Pura paja, sin contenido sustancial.
Frai Gerundio'n gaurko jarduna, lasto utsa.
El sermón de hoy de Fray Gerundio, pura paja.

LASTUA. Paja.
Iñonian lastua bat ikusi, baña ez abia norberanian.
Ver la paja en el ajeno y no la viga en el propio.

LASTURKO IZKUA. Toro de Lastur para aficionados.
Gaurkuak, Lastur'ko izkuak ziran eta ez nafarrak.
Los de hoy eran toros de Lastur y no navarros.

LATRUA. Herramienta de carpintero para taladrar madera.
Latruakin eiñ biarko destazu zulo ori.

LATZA. adj. Aspero. sinón. larrixa.
Arri lando au, latza laga dau argiñak.
Esta piedra la ha dejado áspera el cantero.

LATZTASUNA. Aspreza.
Laztasun aundixa astelenetan lanian jartzia.

Gran aspereza el ponerse a trabajar los lunes.

LATZUNIA. Parte áspera de una cosa.
Esaixok akabatzalliar, latzune au legundu deixolaa biar dan moduan pieza oni.

LAU. núm. card. Cuatro.
Zeru-azpiko lau kantoiyak.
Los cuatro puntos cardinales del horizonte.

LAU. modo adv. Llanamente, sin cuesta.
Beizuko zaletik aurrera, lau dozu bidia.
De Beizuko en adelante, tienes llano el camino.

LAUA. De los naipes, el cuatro.
Lauakin, iruan kiñua.

LAUA. adj. Llano.
Araba, laua garixa artzeko.
Alava, llana para cosechar trigo.

LAUDAK. Laudes, alabanzas.
Txorixak zugaztietan, kantuan dira Jaungoikuan laudak.
Los pájaros en las arboledas están cantando las alabanzas del Señor.

LAUGARRENA. Num. ordinal. Cuarto.
Laugarrena da Nafarrua.

LAUKANTOIKUA. Adj. De cuatro aristas. Se dice de una variedad de manzanas.
Laukantoiko sagarrak ekarri detsuraz, eiñ zestasun mesedian orde.

LAUKIXA. Cuádruple.
Gure txakurrak laukixak izan dittu.
Nuestra perra ha tenido cuádruples.

LAUKUA. Pan de cuatro libras. Por antonomasia el pan de cada día.
Makiñatxo bat izardi, gizajuak laukua irabazteko.
No pocos sudores, el pobre, para ganar el pan de todos los días.

LAUKO OGIXA. Ogaza de cuatro libras.
Lauko ogixa ekiñaldi baten sabeleratu ebalako, Lauko esaten zetsen bati Eibar'en.
Porque de una tirada se zampó una ogaza de cuatro libras, le llamaban Lauko a uno en Eibr.

LAU-LAU. Modo adv. Llano, llanamente.
Beiñ Urkiola'ra ezkerik, lau-lau dozu Otxandixo'ra.
Una vez en Urkiola, es llano para Otxandiano.

LAU OÑLAN. Modo adv. A cuatro patas.
Ondiok lau oñian dabiz an aurrenenguak.
Todavía andan allí a cuatro patas los más adelantados.

LAU-ORTZEKUA. Tenedor.
Lau-ortzeuakin nai izaten eban baraua austia.
Solía querer desayunar con tenedor.

LAUREGUNEKUA. Billeto de Banco de cien pesetas.

Lauregunekua galdu eban iri-proban.

Perdió un billete de cuatrocientos (reales) en la prueba de bueyes.

LAREMIÑA. Ictericia.

Lauremiñak artu eban, eta ori-ori egon zan luzero.
Le vino la ictericia y estuvo amarillo largo tiempo.

LAUSAGARRETA. Apellido en Eibar.

Lausagarreta'k, antxiñako famelixia Eibar'en.

LAUSI. Moneda que no existía y que debía ser de ínfimo valor. (¿Cuatro suses?)

Lausi b'ez dauka arek, arrokerixia erabilli arren franko.

No tiene un cuarto, por más que exhiba vanidades.

LAUSIKUA. Parece que se refiere a alguna moneda de cuatro suses.

Lausin legatza, baña lausikua gatxa.

La merluza a cuarto, pero el cuarto dificultoso.

LAUSKITTU. ver. tran. Se dice del afectuoso estrechar en los brazos y besuquear a las personas queridas y por antonomasia a las criaturas.

Bere ama balitz bezela lauskittu eban neska txikixori.

Estrechó a la muchachita como si fuera su propia madre.

LAUSKITTUAK. Derivado del verbal lauskittu. Abrazos.

Aiñ saskarrak aren lauskittuak, umiak bildur zetsan.

Eran tan fuertes sus caricias, que el niño le tenía miedo.

LAUSKITTUTZIA. Forma nominal del verbo lauskittu.

Gura eban bakarrian aukera guztian lauskitzia.

Quería acariciarla a solas y a sus anchas.

LAUSKITZIA. Lauskittutzia.

Amena da euren umiak lauskitzia.

Es de las madres el besuquear a sus hijos.

LAUSOTU. ver. pronom. Enturbiársele la vista.

Lausotu jataz begixak ainbeste begiratzekin, eta ez dot ezer ondo ikusten.

Se me han enturbiado los ojos con tanto mirar y nada veo limpio.

LAUSOTUTZIA. Forma nominal del verbo lausotu.

Lausotutzia etortzen da, begixak larregi nekatziagaz.

El enturbiarse la vista viene de fatigar los ojos demasiado.

LAUSOTZIA. Lausotutzia.

Argi biziagaz lausotzia ekarten dau.

La demasiada luz hace enturbiarse la vista.

LAUSUA. Nube, copo, mancha que proyectan los ojos y enturbian la visión.

Lausua eñ jata begixetan, euzkixari begiratziaz.

Se me ha hecho una nube en los ojos mirando al sol.

LAUTASUNA. Llanura, llaneza.

Ango inguru guztia, lautusun aundi bat da.

Gizonantzat onena, lautasuna.

Todo aquel término es una gran llanura.

Lo mejor para el hombre es la llaneza.

LAUTU. ver. tran. Allanar.

Bizkaixan, mendi osuak lautu dittue burdiña geixa atariaz.

En Vizcaya han allanado montañas extrayendo el mineral de hierro.

LAUTUTZIA. Forma nominal del verbo lausotu.

Mendi gaña laututzia eben asmua.

Tenían el proyecto de allanar la cima del monte.

LAUTZIA. Laututzia.

Sozialisten bardintasuna ez da mundu guztia lautzia, baña bai gizon guztieri aukera bardiña gertatzia.

La igualdad de los socialistas no consiste en allanar a todo el mundo, sino en proporcionar iguales posibilidades a todos.

LAUTZALLIA. fig. La muerte.

Iñor parkatzen ez daben lautzallia eldu da arengana be.

El igualador que no perdona a nadie ha llegado también donde aquel.

LAUUNIA. Llanada.

Durango'n lauunia danetik, antxe jatxi zan abioi galdua.

Como en Durango hay una llanada, allí bajó el avión perdido.

LAZTIA. Laztutzia.

Kaleko losak laztia komeni da, iñor ez deiñ labandu eurixa danian.

Conviene picar el empedrado de la calle, para que nadie resbale cuando llueve.

LAZTU. ver. tran. Poner áspera una cosa.

Errotarixa laztu gurarik zan errotarixa.

El molinero estaba queriendo asperar la piedra de molino.

LAZTUNTZIA. Forma nominal del verbo laztu.

Naitta da soldauari bizi-modua laztutzia, gogortu deiñ gerrian gora-beretarako.

Es de propósito hacer áspera la vida del soldado a fin de que se endurezca para las vicisitudes de la guerra.

LEGARRA. Grava, aluvión.

Legarra errekiak batzen daben tokixa, Legarre.

Donde el río forma aluvión, se llama Legarre.

LEGARRE. topon. Lugar en Eibar.

Agarre, Iñarre eta Izarre letz, Legarre.

LEGATZA. Merluza.

Irukuartokuan legatza, baña irukuartokua gatxa.

Amoko legatzak geixago balio izaten dau.

La merluza a tres cuartos, pero los tres cuartos difíciles.

La merluza pescada en anzuelo, suele valer más.

LEGATZ-BURUA. Cabeza de merluza.

Paris baten, España'ko gerra ondorengok, duan ziran legatz burueri, prezia jarri gentsen.

En París, los emigrados de España hicimos que alcanzaran precio las cabezas de merluza, que antes se tiraban de balde.

LEGATZ-BUSTANA. Cola de merluza, propia para asar.

Egatzitan ondoren, leatz-bustana erreta atara zeskuen.

Después de ave nos sacaron cola de merluza asada.

LEGATZ-KUMIA. Pescadilla.

Legatz-kumiak, auan bustana katiauta prijitzen dira.

La pescadilla se fríe con la cola mordida por la boca.

LEGE-AITUA. Jurisperito. sinón. lege-gizona.

Lege-aittuak auzixetan jarri zittuen auzoko bixak.

Los letrados les pusieron a pleitear a los dos vecinos.

LEGE-EIÑ. ver. pron. Hacerse ley, volverse ley.

Oitturak, denboriagaz lege eitten dira.

Las costumbres con el tiempo se hacen ley.

LEGEINTZIA. Legislación.

Legegintzia da, geixenen borondatia lege eittia.

Legislar es convertir en ley la voluntad de los más.

LEGE-GIZONA. Letrado.

Lege-gizonak, ez bakarrik erakusten detsue nola legia bete, baitta zelan uts eiñ okerrik barik.

Los abogados no sólo enseñan cómo cumplir la ley, sino también cómo faltar a ella sin perjuicio.

LEGENA. Mancha cutánea, que sin duda lo produce algún hongo.

Legena, berakatzakin kentzen dala esaten dabe.

LEGEZALIA. adj. Cumplidor de las leyes, legalista.

Langilliak, errezoiz beteta egon arren, legezaliak agertzen dira.

Aunque los trabajadores estén llenos de razones, se muestran respetuosos de la ley.

LEGE-ZARRA. Antiguo Testamento.

Lege-zarra, Jesukristo'rañok; aregandik aurrera, Graziatzko Lege-barrixa.

Hasta Jesucristo la vieja ley; de El en adelante la nueva ley de Gracia.

LEGE-ZARRAK. Se dice de los Fueros.

Baziran amen lege-zarrak, geure Errege Jauneri, juramenduagaz gordetzia aindu eraintzen gentsezenak. Teníamos aquí Fueros, que hacíamos jurar que guardarían, a nuestros Señores.

LEGEZKUA. adj. Legal.

Legezkoa zan semerik nausiña baserrixagaz gelditzia.

Era de ley que el hijo mayor quedara con el caserío.

LEGIA. Ley.

Legia da, edo izan biar da, danontaako bardiña.

La ley es o debe ser igual para todos.

LEGIA AUSI. ver. tran. Quebrantar la ley.

Legia austen bizi dira, gordetzeko aintzen jarri ziranak.

Viven quebrantando la ley los que fueron instituidos para guardarla.

LEGIAN BEYAN. modo adv. Según la ley.

Legian beyan guk genduan errezoya.

Con arreglo a la ley, teníamos razón.

LEGIA EIÑ. ver. tran. Satisfacer las cosas de carácter ritual, como las comidas, ir a misa, comulgar por Pascua florida, etc.

Bazkari legia eiñ dogu.

Gaurkuagaittik, legia eiñ dogu beintzat.

LEGIA IZAN, EUKI. vers. tran. Querencia, predilección.

Maixuak legia zetsan ikaslari aritxi.

Bizi guztian legia euki detsa bere baserrixari.

El maestro tenía predilección por aquel discípulo.

Toda la vida ha tenido querencia a su caserío.

LEGORRA. Lo árido, lo seco, en oposición a las aguas (el mar, los ríos, los lagos). Variante: Liorra. *Jaungoikuak irugarren egunian batu zittuan urak alde batera, agertu zein bestian legorra: eta legorrari esan zetsan lurra, eta uren bateñari, itxasua.*

Dios el tercer día reunió las aguas a una parte para que en la otra apareciera lo árido; y a lo árido llamó tierra, y a la reunión de las aguas mar.

LEGORTU. ver. pronom. Desecarse.

Eremuak, geixenetan, itxas legortuak.

Los desiertos, las más de las veces, mares desecados.

LEGORTUTZIA. Forma nominal del verbo legortu.

Holanda'n zeregiñ nausiña, itxas adarrak legortutzia.

La tarea principal de Holanda es desecar trozos de mar.

LEGORTZIA. Legortutzia.

España diran lurak legortziak, milla gizaldi asko iraun eban.

El emerger las tierras que son España, duró muchos siglos.

LEGUNA. adj. Suave, meloso.

Aren azal leguna, uste aingeru batena.

Berbetan leguna, baña biotz gogorrekoa.

Su piel, suave como la de un ángel.

Muy suave hablando, pero de corazón duro.

LEGUNDU. ver. tran. Suavizar.
Saskar arek, ez dau ezer eñ gauzak leguntzeko.
Orixuagaz legundu biarra dauka giltz orrek.
Aquel torpe nada ha hecho por suavizar las cosas.
Esa llave necesita ser suavizada con aceite.

LEGUNGARRIXA. Grasa industrial.
Legungarri apur bat eñ biarko detsazu burdixari, ainbeste orrua ez deixan eñ.
Tendrás que poner un poco de grasa a la carreta para que no chille tanto.

LEGUNDUTZIA. Forma nominal del verbo legundu.
Legundutzia eskatzen dabe makiña orrek darabixezen zaratak.
Los ruidos que se traen esas máquinas piden que sean engrasadas.

LEGUNKERIXIA. Adulación.
Arrua zanetik legunkerixia izan ezik, ez eban ezer ondo entzutzen.
Siendo vanidoso, no quería oír nada que no fuera una adulación.

LEGUNTZALLIA. adj. Adulador.
Uezaban leguntzalle ebillen, ipurdigarbitzalle ez esatiarren.

LEGUNTZALLIA. Alisador, engrasador.
Armerixan, leguntzallieri esaten jakue, akabatzallia eta dultzitzallia.

LEGUNTZIA. legundutzia.
Gizon arteko gorrotuak leguntzia ez bada, berriz be izango dogu gerria.
Si no se da la suavización de los odios que se traen los hombres, otra vez tendremos guerra.

LEIUA. Ventana. En Eibar, comunmente se dice la voz romance, con olvido de la propia.
Txaboletan bizi ziranen leiu, eta katedraletako bentanadi ikusgarrixak, espiritu baten obría.

LEIXALA. adj. Leal.
Aitta ondruan seme leixala.
Hijo leal de padre honrado.

LEIXALTASUNA. Lealtad.
Aingeruetatiko batzuk, arrotuta, zor eben leixaltasuna azturik, Betikuan aurka jaso ziran.
Algunos de entre los ángeles, olvidando la lealtad que debían, se alzaron contra el Eterno.

LEIZA. Lo mismo que leza, que se dice más en Eibar. Cueva.
Batetik besterañok ibilli eban leiza zulo a.
Anduvo de un extremo al otro aquella cueva.

LEKA-ARITSUA. Vainitas con fibra leñosa.
Gaur ekarri dozuna, leka-aritsua.

LEKA-SALDIA. Caldo de esta hortaliza.
Asierarako, leka-saldia.

LEKIA. Vainita. Cápsula de las papilionáceas.
Lekak, patategaz eta orixo naikuagaz, afari lege ederra.
Zugatz onek lekia emoten dau.
Vainitas con papas y aceite en suficiencia, hermosa cena.
Este árbol fructifica en vaina.

LEKUA. Lugar. sinón. tokixa.
Pelota-lekua eta bola-tokixa, alkarren onduan ziran Eibar'en.

LEKU-EMON. ver. tran. Dar lugar, consentir.
Zeuk leku emon detsazu, lotsagabe bat izan deiñ.
Tú le has dado lugar a que sea un sinvergüenza.

LEKUTAKUA. adj. Enfático denotando lejanía.
Lekutakua ekarri dozu emaztia!
¡De que lejos has traído esposa!

LEKUTAN! modo adv. en frases como ésta:
¡Lekutan zabiz aren billa!
¡En buen sitio le buscas!

LEKUTARA! modo adv. equivalente a frases como ¡a qué extremo...!
¡Lekutara jo dau atzoka arro putz onek!
¡A qué extremo ha venido a parar este vanidoso de ayer!

LEKUTATIK! modo adv. siempre enfático.
¡Lekutatik dator zoro aundi ori!
¡De que lejos viene ese gran loco!

LELEN! adv. de tiempo. Primeramente. Lo mismo que lenen, el primero. En Eibar, en cambio, construimos el superlativo por la repetición del adverbio, como en infinidad de casos.
Neu naiz lenen.
Lenen izan zan Berbia, eta aren bittartez beste gauza guztiak.
Yo soy el primero.
Primero fue la palabra, y por su mediación todas las demás cosas.

LELENA. El primero. Variante: lenena.
Lelenak izango dira azkenak.
Los primeros serán los últimos.

LELIA. adj. Boba. Lelia califica a la hembra, lelua al varón, y así todos los derivados.
Zegozer zalakuan zan a lelia.
Se creía algo aquella boba.

LELOKERIXIA. Tontería, bobería.
Zuk oiñ esan dozun gauzia, lelokerixia.
Lo que acabas de decir es una tontería.

LELOTASUNA. Tontez.
Gurasuengandik dakar bere lelotasuna.
De los padres trae su bobería.

LELO USAIÑA. Lo mismo que lelokerixia.
Bobería.
Lelo usaiña badarabizu beintztat!

iAl menos ya te traes tontería!

LELUA. adj. Bobo, soso, insípido, calificando a varón.

Zegozer zalakuan eguan a lelua!

¡Estaba creyendo ser algo aquel bobo!

LEN. adv. de tiempo. Antes.
Lanian ekin bño len esan biar zenduan ori.
Eso lo debías de haber dicho antes de empezar a trabajar.

LENA. dj. Anterior, pasado.
Alperrik Ameriketean ziar izan, lena etorri da zure anaya.
Zarrentzat, lena beti obia.
En vano ha andado por las Américas, tu hermano ha vuelto el mismo de antes.
Para los viejos lo pasado es siempre mejor.

LENAGO. adv. de tiempo. Antes, en otro tiempo.
Lenago Aratostiak urtian beñ; oiñ urte guztian.
Antes el Carnaval solía ser una vez al año; ahora duran todo el año.

LENBAITLEN. modo adv. Cuanto antes. Más común en Eibar ainbatlen.
Lenbaittlen etorri deilla, bere zain gaoz ba luzero.
Que venga cuanto antes, pues le estamos esperando largo tiempo.

LENDIK. modo adv. De antes.
Lendik etorren oittura ori gure artian.
Esa costumbre venía de antes entre nosotros.

LENEN. modo adv. Primeramente. Lo mismo que lelen.
Lenen izatiarren aren krimen guztiak.
Todos sus crímenes por ser el primero.

LENENA. adj. Primero. Lo mismo que lлена.
Gurako detsazu Jaunari zeure biotz guztittik, arima guztiagaz eta zure izate danekin; au da mandamendu lenena. Mat. 22. 37, 38.
Amarás a Dios con todo tu corazón, con toda tu alma, con todas tus fuerzas y con todo tu ser; este es el primer mandamiento.

LENGO BATEN. modo adv. Días atrás, el otro día.
Lengo baten kalia topau neban osatuta.
El otro día le hallé en la calle restablecido.

LENGO SAMATIK BURUA. Se dice para dar a entender que aquel de quien se habla sigue siendo el mismo.
Alperrik ogei urte igaro, lengo samatik arek burua.
En vano han pasado veinte años; aquel sigue siendo el mismo.

LENGUA. adj. El de antes, el anterior. sinón. lena.
Esaixozue ba ni languakin konforme naizela.
Decidle que yo estoy conforme con el de antes.

LENGUAN. adv. de tiempo. El otro día.
Lenguan topau neban gizajua dana jausitta.
El otro día le encontré al pobre completamente caído.

LENGUSIÑIA. Prima.
Lengusiñiak, legian beyan, ezkondu laikez lengusuegaz.
Las primas, según la ley, pueden casarse con los primos.

LENGUSUA. Primo.
Lengusuak dira, gure osaben eta izekuen semeak.
Son primos los hijos de nuestros tíos y tías.

LENGUSU-TXIKIXA. Primos en segundo y tercer grado.
Istar lengusuak eta lengusu-txikixak dittugu erri artan.
Tenemos primos carnales y primos en menor grado en aquel pueblo.

LENIAN. modo adv. En lo de antes.
Nai dana gertauta be, gu lenian.
Suceda lo que suceda, nosotros en lo de antes.

LENIAN EGON. ver. intran. Estar en lo de antes.
Alperrik esango dabe nai dana, ni beti lenian nago.
Digan lo que quieran, yo siempre estoy en lo de antes.

LEPAKA. modo adv. A hombros.
Lepaka betik gora, mardotu dittue goiko lurrak.
Cargando a hombros de abajo arriba, han engrosado las tierras de arriba.

LEPATSUA. Adj. Corcobado.
Jayotzatik zan lepatsua.
Era jorobado de nacimiento.

LEPORA JASO. ver. tran. Levantar al hombro.
Ez dakit zenbat arruako arrixa, ogei bidar lepora jaso dau.
Una piedra de no sé cuántas arrobas, la ha levantado al hombro veinte veces.

LEPUA. Propiamente: cuello, pero se entiende comunmente por hombro.
Orduko gora-beran, lepua jokatu eban, naiz bildurtixa izan.
En las circunstancias de entonces, se jugó el cuello aunque era miedoso.

LEPUA. Orografía. Collado.
Lepo baten gañian zan aren Jauregixa.
Aizgorri'tik begiratu eta jira guztian lepo utsa.
Su palacio estaba sobre un collado.
Mirando desde Aizgorri, es todo cimias en derredor.

LEPUAN ARTU. ver. tran. Tomarle a hombros (al niño). sinón. altzora jaso.
Gaixua, lepuan artuta eruan eban ostatura.
Tomándole en hombros al enfermo, le llevó a la posada.

LEPUA BEROTU. ver. tran fig. Tundir a palos,

calentarle las espaldas.

Bere biziko onduen lepua berotu zetsen.

Como nunca le calentaron las espaldas.

LEPUA JASO. Se dice por desdén o menosprecio, como gesto con el que se desentendiende uno de alguna cosa.

Artzekoduneri, lepua jaso eta kitto.

Lepua jaso eta bertan bera laga eban.

A los acreedores se les levanta los hombm y en paz.

Se levantó de hombros y lo dejó todo.

LETAÑAKUA. Se dice de la fiesta que en Arrate se celebra el primer domingo de mayo.

Letañakuan etorriko zara Arratera'ko.

LETAÑIA. Letanía, por antonomasia la que tenía lugar a través de los montes, le víspera de la Ascensión.

Azenio bezperan, mendirik mendiko letaña.

LETE. Apellido en Eibar.

Arantz'a'n, Elosu esaten zetsen bat, zan Lete.

LETOIA. Latón.

Letoia da burdiñ gorrixa eta estaña naste.

LETRIA. Letra del alfabeto, letra de cambio.

Jaungoikuan izena iru letrako itz eziñ esandakua zan.

Gaur tokatzen da Bankuan zor doten letria.

El nombre de Dios era uno de tres letras que no se podía pronunciar.

Hoy vence la letra que debo en el Banco.

LETXARRERIXIA. Golosina.

Ez eban goserik, letxarrerixen guria baño.

No tenía hambre sino deseo de golosinas.

LETXARRERUA. adj. Goloso.

Letxarrerua danetik, ez dauka jateko ordurik.

Siendo un goloso, no tiene horas de comer.

LETZ. modo adv. Como, según, conforme a. Sinón. bezela.

Mundu guzurtixan aurrian, aundixa; baño gizon letz, utsuna bat baño geixagoko umia.

Guri erakutsi deskuen letz, mundua biribilla.

Grande ante el mundo mentiroso, pero como hombre, era criatura con más de un defecto.

Según nos han enseñado a nosotros, el mundo es redondo.

LEZETA. topon. Caserío en Goi-mendi.

Lezeta'kua zan Sumendixa'n emazia.

LEZIA. Cueva. Variante: leizia. Con referencia a las de Urko y Galdaramiño, se decía kuebía.

Urko'n da leza bat; beste txatxar bat Galdaramiño aldian.

LEZKO. adv. que sirve de comparativos de igualdad.

Donostia'n lezko ariatzia Ondarrabixa'n.

La playa de Fuenterrabía tan buena como la de San

Sebastián.

LEZKOTXE. Lo mismo que lezko, con el locativo txe.

Zuk lezkotxe liburua daukat nik.

Tengo un libro igual al tuyo.

LEZKOTXIA. adj. Igual, semejante, parecido.

Donostia'n dendak, Paris'en lezkotxiak.

En San Sebastián las tiendas son como en París. (Iguales a las de París.)

LEZKUA. adj. Semejante.

Zurian lezkua da neria be.

Semejante al tuyo es el mío.

LEZTXE. modo adv. Lo mismo que letz con el locativo txe.

Etorri nintzan leztxe, utsik juango naiz mundu onetatik.

Igual que vine, desnudo iré de este mundo.

LIBERDI. Media libra.

Libraka eta liberdika saltzen da okelia.

Por libras y medias libras se vende la carne.

LIBERLAUNA. Cuarto de libra.

Liberlaunka kafia.

El café por cuartos de libra.

LIBERALA. política. Liberal, demócrata.

Gerra bittan parte artutako liberala zan.

Era un liberal aue tomó parte en dos guerras.

LIBERTADIA. Libertad. Voz naturalizada en su acepción política, por influencia del movimiento liberal del siglo XIX. Sinón. eskatutasuna.

Libertadia gizonan ondasunik nausiña.

Kate guztietatik eskatuta agertzia da libertadia.

La libertad es el bien más apreciable del hombre.

Encontrarse libre de toda cadena es la libertad.

LIBRAU. ver. tran. Librar, liberar, librar por giro.

Kurutzian ill ondoren, jatxi zan Infarnuetara, Abraham'en altzuan ziranak libratzera.

Salamanka'n estudixuetan daukan semiari, milla errial librau detsaz Bankuan bittartez.

Después que murió en la cruz, descendió a los infiernos para liberar a los que estaban en el seno de Abraham.

Por mediación del Banco, le ha librado mil reales al hijo que tiene estudiando en Salamanca.

LIBRAU. ver. tran. Parir. Sinón. erditu, que se conoce pro no se usa en Eibar.

Gurasuetara bialdu dau emazia libratzera, egunetan sartu danetik.

Habiendo entrado en días, ha mandado a su esposa a casa de sus padres a dar a luz.

LIBRATZALLIA. Un oficio de la armería. Librador de un giro.

Libratzalle eitten eban Armaitta'nian.

¿Zeiñ da letra onen libratzallia?

LIBRATZIA. forma nominal del verbo librau en sus diversas acepciones.

Presuak libratzia, Don Quijote'k eñ eban bezela.
¿Zelan izan dau libratzia emaztiak?

-Ederki, Jaungoikuari eskerrak.

Libertar presos, como lo hizo Don Quijote.

¿Cómo ha tenido el parto su esposa? Muy bien, gracias a Dios.

LIBRE. modo adv. En libertad, libremente.

Jakiñeko lapur aundixa izan arren, libre dabill.

Itturri onetatik libre da nai beste ur artzia.

Aunque es un sabido gran ladrón, anda suelto.

De esta fuente es libre tomar el agua que se quiera.

LIBRIA. Libra, medio kilo.

Plazako saldu-erotixetan libria izaten zan neurri.

En las operaciones del mercado la libra solía ser la unidad de medida.

LIBRIA. adj. Libre.

Gizon libria, katiu ziran askon erdixan.

Hombre libre en medio de muchos esclavizados.

LIBURUA. Libro.

Liburu bat da, asko diralako baten, grieguen erdaletik esaten jakona: Biblia.

Hay un libro, que porque contiene muchos, se llama Biblia, conforme al plural neutro griego.

LIBURUETAN EGON. Estar en letras de imprenta, con la autoridad que esto tiene para muchos.

Liburuetan dagozen gauzak baño asko geixago dira munduan.

En el mundo hay más cosas que las que están escritas en los libros.

LIBURUTEIXA. Librería, biblioteca.

Konseju zarrían zan liburuteiko libururik geixenak, gazterik irakorri nittuan.

La mayor parte de los libros que había en la Biblioteca del Concejo Viejo los había leído de joven.

LIBURUZALIA. adj. Aficionado a libros. Bibliófilo.
Gaztetatik ixan zan liburuzalia, bai erosteko eta bai irakortzeko.

Desde joven fue aficionado a libros, tanto para comprarlos como para leerlos.

LIGARRA. Cuajo (del cordero).

Ardi-esnia eta ligarrakin eitten da gatzatua.

LIGORRA. Tierra, lo árido. Variante de legorra y liorra.

Ligorra artu ebenian jarri eben kurutzia.

Cuando tomaron tierra plantaron una cruz.

LIKIA. Liga (goma del muérdago).

Likiagaz juan dira txoritxara, gaur eskolarik ez danetik.

Han ido con liga a por pájaros, no habiendo hoy clase.

LIKIÑA. adj. Viscoso. U.t.c. sustantivo.

Gaur morokillak likiña urten dau.

Sapuan bizkar gañeko likiña baño igoñgarrixagua.

LIMA - ARRAZPIA. Armería. Lima escofina.

Lima-arrazpia, kaxagiñak erebiltzen dabena.

Escofina, la que usan los labradores de cajas.

LIMA AUTSA. Limaduras.

Dibujokuen lima autsa gorde eitten zan, iman bategaz jaso burdiñ autsa eta urre zidarrak garbi atartzeko.

Se guardaban las limaduras de los del dibujo, para separar el hierro con un imán y aislar el oro y la plata.

LIMA-ESPIGIA. Extremo de la lima en que se inserta el mango.

Kertenetik atara eta lima-espigiakin jarraitu zetsan illtzeko asmuán.

Sacando la lima de su mango, le persiguió con propósito de matarle.

LIMA-KERTENA. Mango de la lima.

Artian egurrakin lima-kertenak eitten zittuan torniuan.

Con maderas de encina hacía mangos de lima en un torno.

LIMAKUA. Armería. Maestro de la lima.

El Marqués de Isasi, en cierta ocasión, abordó a uno de sus colonos, que estaba ocupado en su huerta, diciéndole:

—¿Hay muchos limacos?

—Si, José Valentín de Isasi, también.

LIMA-LATZA. Lima áspera.

Lima-latzakin gogor jan biarra dauka forjau orrek.

Esa pieza estampada tiene mucho que desbastar con la lima áspera.

LIMA-LEGUNA. Lima fina, dulce.

Lima-legunagaz ertzak illda lagaioxozuz.

Mátale las aristas con la lima dulce.

LIMAN. modo adv. En la lima.

¿Zure semiak liman ala makiñetan diardu?

¿Vuestro hijo trabaja en la lima o en las máquinas?

LIMA PIKARIXA. Picador de limas. Repicador.

Gure anai bata lima pikarixa zan.

Uno de nuestros hermanos era picador de limas.

LIMAPIKATZALLIA. Lo mismo que lima pikarixa.

Limapikatze asko ziran sasoi baten Txirixokalian.

LIMARIXA. Armería. Limador, ajustador.

Beste anai bat limari onenetarikua zan.

Otro hermano era de los mejores ajustadores.

LIMIA. Lima.

iMakiñatxo bat lima saltzen zittuan Arikita'k sasoi baten Ibarcurutzian!

En un tiempo buena cantidad de limas vendía Arikuita, en Ibarrecruz.

LIMOIA. Limón.

Limoia, janari asko apaintzeko gauzona.

El limón, cosa que sirve para mejorar muchas comidas.

LIMOSNIA. Limosna.

Limosnia da artzen dabenantzat eta emoten dabenandako, lagungarria.

La limosna es ayuda para el que la da y para el que la recibe.

LIÑA. terminación de algunos diminutivos.

Tanboliña, krabeliña, pitxiliña, etc.

LIÑUA. Lino.

Liñuzko ume izara zuri ederretan azitako ume kutuna eben.

Era el bien amado niño criado en ricos pañales.

LIORRA. Tierra firme. Lo mismo que liorra y legorra.

Liorreko mariñela, ondo irabazteko.

Para ganar bien, hay que ser marino de tierra.

LIORTU. ver. tran. Agotar. U.t.c. pronom.

Ibar aura, itxasora baño len liortutzen dabe egarrixak diran lurak.

Aquel río, aates de llegar al mar, lo agotan las tierras sedientas.

LIORTUTZIA. forma nominal del verbo liortu.

Itxas-adar bat liortutzia pentsau dabe.

Han proyectado desecar un brazo de mar.

LIORTZIA. liortutzia.

Ez da erreza izango itxas-adar ori liortzia.

No será fácil desecar ese brazo de mar.

LIOYA. León.

Lioya be, zartu ezkerik, astuen barregarri.

Incluso el león, en haciéndose viejo, es la risa de los asnos.

LIRAINDU. ver. pronom. Ponerse en línea, en forma. U.t.c. tran.

Umia eukitta gero liraindu da berriz eta len baño obeto dago.

Askia jasotziakin, liraindu eban bere biziko onduen. Después de haber tenido al niño otra vez está esbelta y mejor que antes. Con levantarle el pesebre, le puso en línea como nunca.

LIRAINDUTZIA. forma nominal del verbo liraindu.

Liraindutzia guran izenbat gose eta zenbat neke batzuk euren buruari!

Queriendo ponerse en línea, icuántas hambres y cuántas molestias no soportan algunos!

LIRAINTRASUNA. Esbeltez.

Andrakumian liraintasuna da geixen be, arteko gizonak iduri gura izan dabena, bai bersuetan, bai soñuz eta koloriegaz.

La esbeltez femenina es lo que los artistas más han

querido representar, tanto en versos, en sonidos como en colores.

LIRAINTRAZIA. liraindutzia.

Jostunak artu dau bere kontu, Maria potolia liraintzia.

La modista ha tomado por su cuenta el poner esbelta a María la gorda.

LIRIÑA. adj. Gentil, apuesto, esbelto.

... Korputza zuen liriña eta oñak zebiltzen aidian...

LIRIXUA. Lirio.

Basoko lirixuak Salomon'ek baño soñeku obia.

Los lirios del campo tienen mejor vestido que el de Salomón.

LITXARRERIXIA. Lo mismo letsarrerixia. Antojo en el comer.

Ez eukan jateko gogorik litxarrerixak baño.

No tenía ganas de comer sino antojos.

LITXIA. Pelusa, tamo.

Litxaz beteta daroyazu soñekua.

Llevas el vestido lleno de pelusas.

LIXARRA. Fresno.

Lixar makilliagaz eiten genduan frantxuleta.

Con palo de fresno fabricábamos el pito.

LIXARDI. Fresnedo. patron. Lejardi, y Lizardi.

Beko errekatxuko lixardixan dauka txabolía.

Tiene su borda en el fresnedo del regato de abajo.

LIXIBERIA. Mujer que se dedicaba a hacer coladas.

Besterik ezian, lixibera eitten eban, naiz da goizian bostetarako errekarra jatxi zapixak joteko.

En último término hacía de lavandera, aunque tenía que bajar al río a las cinco para aclarar la ropa.

LIXIBIA. Colada.

Aste onetan lixibia dogu.

Esta semana tenemos colada.

LIXIBIA EGOSI. ver. tran. Cocer la colada.

Lixibia egosten zan su-autsakin eta erremuagaz.

Se cocía la colada con cenizas y laurel.

LIXIBIA EIÑ. ver. tran. Hacer colada.

Lixibia eitten zan illero gitxienez.

Se hacía colada una vez por mes cuando menos.

LIXIBIA JO. ver. tran. Aclarar las ropas de la colada en la corriente del río.

LIXOTASUNA. Tersura.

Aren azalan lixotasuna zan aingeruena lakua.

La tersura de su piel era como la de los ángeles.

LIXOTU. ver. tran. Alisar, suavizar.

Azala lixotutzeko milla botika dittuzu gaur.

Para suavizar la piel hoy hay mil cosméticos.

LIXOTUTZIA. forma nominal del verbo lixotu.

Dultzitzalliak kañoia arira lixotutzia dau bere

zeregiña.

LIXOTZIA. lixotutzia.
Galipotagaz bidiak lixotzia asmau eben gero.
Después inventaron el alisar los caminos con breá.

LIXUA. adj. liso, sencillo, llano.
Soñeku lixo erabiltzen dau beti.
Viste siempre un vestido sencillo.

LIZUNA. Moho.
Euzkixa urrindik dabillen lekuan, lizuna urretik.
Donde el sol anda lejos, el moho cerca.

LIZUNDIA. topon. Caserío en Eibar.
Lizundia'tarrak badira gure artian.

LIZUNDU. ver. pronom. Enmohecerse.
Egualdi busti zatar onegaz lizundu eñ jakuz urdaixak.
Con este mal tiempo húmedo se nos han echado a perder los tocinos.

LIZUNDUTZIA. forma nominal del verbo lizundu.
Bustitasunak dakar gauzak lizundutzia.
La humedad trae el enmohecimiento de las cosas.

LIZUNKERIXIA. Se dice por las obscenidades.
Makiña bat lizunkerixa ikusten da gaur zinian.
No pocas obscenidades se ven hoy en el cine.

LIZUNTZIA. lizundutzia.
Noizian beñ urteizu euzkixa artzera, ez badozu gura etxe zuluán lizuntzia.
Sal de vez en cuando a tomar el sol, si no quieres enmohecerte en casa.

LIZUNUNIA. Parte mohosa.
Artuopill orrek lizununia dauka danian.
Esa torta de maíz tiene partes enmohecidas por todo.

LO. ver. intran. Dormir.
Jan da lo, askon bizi izate guztia.
Comer y dormir, la vida que hacen muchos.

LODIXA. adj. Gordo, espeso. Variante: lorixa.
Morokil orrek lodixa urten dau.

LO EIÑ. ver. intran. Dormir.
Zazpi ordu lo eittia naikua dala esaten dabe.
Dicen que es bastante dormir siete horas.

LO ERAIÑ. ver. tran. Hacer dormir.
Amatxon kantu gozuak lo eraitzen detse umiari igarri barik.
Los dulces cantos de la madre hacen dormir al niño sin sentir.

LO ERRIA. Se dice principalmente de los niños cuando les fatiga el sueño. sinón. loguria.
Ume ori, lo erriak dago eta eruaizu ogera.
Ese niño está de sueño y llévale a la cama.

LOGURIA. Tener sueño, ganas de dormir.

Loguriak erretzen nago, bart ordu asko galdu ditturanetik.

Estoy muerto de sueño, porque anoche he perdido muchas horas.

LOIBIA. Sobrino. En Eibar lo decimos del sobrino y de la sobrina.
Nere anai eta arreben umiak, loibak.
Los hijos de mis hermanos y hermanas, sobrinos.

LOIDI. Muladar.
Eibar'en bazan toki bat Loidi esaten jakona.

LOIGABIA. adj. Sin mancha, inmaculada.
Bere jatorrixa zan loigabia.
Su linaje era sin mancha.

LOIKERIXIA. Porquería, obscenidad.
Batzuen auan dana da loikerixia.
En boca de algunos todo es obscenidad.

LOITASUNA. Suciedad, mancha.
Gure loitasunak garbitzeko izan zan a odola.
Para lavar nuestra impuridad fue aquella sangre.

LOITTU. ver. tran. Manchar.
Txarrikerixa arekin loittu eban bere izena bizi guztirako.
Con aquella cochinado manchó su nombre para toda la vida.

LOITTUNIA. Mancha.
Loittunaz beteta dozu soñekua.
Llevas el vestido lleno de manchas.

LOITTUTZIA. forma nominal del verbo loittu.
Ibaiko urak loittutziak ekarri dau arraña ondatzia.
El contaminar las aguas del río ha traído la desaparición de la pesca.

LOITZIA. loittutzia.
Negarguria emoten dau orrelako soñeku politta eguardixa baño len loitziak.
Dan ganas de llorar ensuciando un vestido tan lindo antes del mediodía.

LOIXA. Mancha.
Bere izenari ezarri detsa loixa.
Ha puesto una mancha en su nombre.

LO JAIKI. ver intran. Andar adormilado.
Gaur, orraittiok, lo jaiki zara.
Hor, por lo visto, te has levantado dormido.

LO-JARUA. El dormir ligero de un rato, dormir.
Kerizara etorri eta lo-jaruan dago.
Habiendo venido a la sombra está dormitando.

LO-JARUA EIÑ. ver. intran. Dormitar.
Bazkalostian lo-jaru txiki bat eñ dot.
Después de comer he hecho una pequeña siesta.

LOKARIK. modo adv. flojamente.
Lokarik laga destazu agiña.
Me has dejado flojo el diente.

LOKATU. ver. tran. Aflojar una cosa.
Zirri eta zirri, lokatu dot albagiña.
Orixotan beratu eta lokatu dau torlojua.
Dale que dale he aflojado el colmillo.
Remojándolo un poco en aceite, he aflojado el tornillo.

LOKATU. ver. pronom. Ponerse clueca la gallina.
Ollua lokatu da eta amazortzi arrautza bota detsaguz.
La gallina se ha puesto clueca y le hemos puesto dieciocho huevos.

LOKATUTZIA. forma nominal del verbo lokatu, en sus dos acepciones.
Txitxak ataratzeko biar izaten da ollua lokatutzia.
Ez zan erreza izan torlojua lokatutzia.
Para sacar pollos es necesario que la gallina se ponga clueca.
No fue fácil aflojar aquel tornillo.

LOKATZIA. lokatutzia.
Kostako da berau lokatzia, sustrai gogorrek dittu ba lurrian barrura.
Bien que costará aflojarlo, pues tiene raíces fuertes tierra adentro.

LOKATZIA. Lodazal. Sinón. kakatzia, basatzia.
Bazan aren ataixan basia eta lokatzia.
No faltaba ante su puerta lodo y barrizal.

LOKIA. Desajuste. Como adj. Suelto, no fijo.
Mai onek lokia dauka amentxe.
Polia jarrizu lokara.
Esta mesa tiene aquí un desajuste.
Pon loca la puela.

LOKOTZA. Cápsula que envuelve el fruto del castaño. Variante: lakatza.
Gastaña lokotza lezkotxe oratu ezindako gauzia.

LOLO. En lenguaje infantil, dormir.
iLolo eizu maittiorrek!
iDuerme, queridito!

LOÑA-ERREKIA. Río que abunda en loinas.
Gatzaga'tiko ibaixa, loña-errekia.

LOIÑA - JANA. Celebración comiendo este pescado.
Maltza'n loña-jana eiñ dogu ogei lagunek.

LOÑASTIA. Larva de la loina.
Loñastia ugari agiri zan erreka baztarrian.

LOÑIA. Pez de nuestros ríos.
Loña ugari artu dabe Andikao'n.

LORA-LEKUA. Lugar en que abundan las flores.
Basua izan arren zan lora-lekua.
Aunque monte, lugar en que abundaban las flores.

LORAN. modo adv. en flor.
Sagarra loran; keixia loran, etc.

Ointxe dago neskatilla aura loran.
Manzano en flor, cerezo en flor, etc.
Ahon está en flor aquella muchacha.

LORATEIXA. Jardín, invernadero.
Lorateixa biarreko bada ez badako lora bat.
Una débil flor que necesita del invernadero.

LORATIXA. adj. Que da mucha flor.
Baitta keixia be, sasoian, loratixa.
También el cerezo, en su época, es florido.

LORA-TOKIXA. Jardín.
Bizitza guztiak biar leukie lur atal bat, lora-toki biurtzeko.
Todas las viviendas debieran tener un lote de tierra para dedicarlo a jardín.

LORATSUA. adj. Que abunda en flores.
Aren aldia loratsua, guria baño geixago.
Su pertenencia, abundante en flores más que la nuestra.

LORATU. ver. intran. florear, estar en flor.
Sagarrak loratzen diranian, ikustekuak dira.
Son de admirar los manzanos cuando están en flor.

LORATUTZIA. forma nominal del verbo loratu.
Udabarrixan, zelaixak loratutzia.
En primavera, florecen los prados.

LORATZIA. loratutzia.
Keixen loratzia izaten da udabarrixan.
El florecimiento de los cerezos suele ser en primavera.

LORATZIA. Montón, copia de flores.
iA zan batu jakon loratzia bere egunian!
iQué montón de flores se le reunieron el día de su cumpleaños!

LORA-TXORTIA. Ramillete.
Basuan batutako lora-txortiagaz juan zan maittiagana.
Con un ramillete de flores hecho en el monte, se presentó a su amada.

LOREN. Nombre propio. Lorenzo.
Loren ez datorrela aitzen emon dau.

LORIA. Flor.
Arrate balleko loria izan zan bere gazte denboran.
En su juventud fue flor del valle de Arrate.

LORIKOTIA. adj. Gordinflón.
Gazte lorikotia dago, alperrik izardixak atara.
Está un joven gordinflón, a pesar de los sudores que provoca.

LORI-MEYA. Espesor.
Onen besteko lori-meya emon biar detsazu txapiari.
Le tienes que dar un espesor de tanto a la chapa.

LORITASUNA. Gordura.
Aren loritasuna zan gaitz bat.

Su gordura era una enfermedad.

LORITU. ver. intrans. Engordar. T.c. tran.
Etxeko jatekuak loritu eñ nau, soldautzia ezkeru.
Ferixarako, txarrixa loritu gura neuke.
Después del servicio militar, la comida de casa me ha engordado.
Querría engordar el cerdo para la feria.

LORITUA. Loro. Se usa como adjetivo para calificar de bobo, de despistado.
Ezeren kontuan jausten es dan lorittua dozu semiori.
Un despistado que no se da cuenta de nada es ese hijo tuyo.

LORITTUTZIA. forma nominal del verbo loritu.
Larregi lorittutzia ez da ona.
No es bueno engordar demasiado.

LORITZIA. lorittutzia.
Komeni jako ari zerbait loritzia.
Ya le conviene engordar un poco.

LORIXA. adj. Gordo. sinón. sendua, potolua.
A gizon lorixa da zuen senidia.
Aquel hombre gordo es vuestro pariente.

LORIXA. adj. Espeso. Antón. ziriña.
Loriegixa eñ dozu morokilla.

LOSADURIA. Terraza pavimentada de losas.
Txirixo-kaleko losaduria, makiñatxo bat kontu esandako lekua.

LOSIA. Lajas de piedra pizarrosa de gran superficie que se sacan en las canteras de Eibar.
Artaitta'ri losia enkargau detsat txarri tokixa eitteko.
He encargado losas a Artaitta para hacer una coshiguera.

LOTAN. modo adv. Durmiendo.
Egun guztian ibiltzen da lotan.
Suele estar todo el día durmiendo. (Dormido.)

LOTARAKO-ORDUA. Hora de acostarse.
Txiliñ ori, barrukuendako lotarako-ordua.
Esa campanilla es para los presos la hora de acostarse.

LOTARA JUAN. ver. pronom. Acostarse.
Ez dira zortzirak, kedia ez da izan ondiok eta lotara juan da gure mutill zarra.
No son las ocho todavía, no ha sonado aún la queda y ya se ha acostado nuestro solterón.

LOTARATU. ver. pronom. Acostarse.
Amarrak inguruan lotaratzen naiz egunero.
Hacia las diez me acuesto todos los días.

LOTARATUTZIA. Forma nominal del verbo lotaratu.
Illun abarrian, olluak leztxe, aren lotaratutzia.
Al anochecer, como las gallinas se acuesta aquel.

LOTARATZIA. Lotaratutzia.
iNoiz ete da aren lotaratzia, baserriko zeregiñak ez dauke ba akaburik!
¿Cuándo será su hora de acostarse, pues los quehaceres del caserío no tienen fin!

LOTEIXA. Dormitorio. sinón. ganbaria, gela.
Edero apaindu dabe loteixa, ezkon barrixentzat.
Han arreglado muy bien el dormitorio para los recién casados.

LOTIXA. adj. Dormilón.
Gure katua baño animalixa lotixagorik es dot ezagutu.
No he conocido animal más dormilón que nuestro gato.

LOTSAGABETASUNA. Descaro, sinvergonzonería.
Neurri bako lotsagabetasuna, a gurera agertzia.
Sinvergonzura sin medida el que viniera a nuestra casa.

LOTSAGABIA. adj. Sinvergüenza. Alter. Lotsababia.
Dotore jantzia arren, lotsagabia beste ez lakua.
Aunque vestido elegante. sinvergüenza como ningún otro.

LOTSAGARRIXA. adj. Vergonzoso, sonrojante.
Gure artian gaur pasau dana, lotsagarrixa.
Es vergonzoso lo que hoy ha pasado entre nosotros.

LOTSAGITXIKUA. adj. De poca vergüenza.
Lotsagitxiko laguna izan dozu a mutilla.
Aquel muchacho, amigo de poca vergüenza te ha salido.

LOTSAKIZUNA. Motivo de sonrojo.
Pobria izatia ez da lotsakizuna.
Ser pobre no es motivo de sonrojo.

LOTSARIK-BAKUA. adj. Sinvergüenza.
Lotsarik-bakua agertu zan zuen laguna.
Vuestro amigo resultó un sinvergüenza.

LOTSARIK EZ EUKI. ver. tran. No tener vergüenza.
Ori da, esate baterako, lotsarik ez euki.
Eso es, por ejemplo, no tener vergüenza.

LOTSARIXA. Sonrojo, vergüenza.
iMakiña bat lotsari emondakua gurasueri!
¡Hijo que diera bien de sonrojos a sus padres!

LOTSARIXA ARTU. ver. pronom. Sonrojarse.
Arrote aren itxuriakin, lotsarixa artu neban.
Con la facha de aquel desastrado, me sonrojé.

LOTSATIXA. adj. Tímido, vergonzoso.
Etzetik kanpora oso lotsatixa dozu.
Fuera de casa es muy tímido.

LOTSATU. ver. pronom. Avergonzarse. como tran. Avergonzar.

Lotsatu nintzan betiko egun artan.
 Lotsatu neban betiko egun artan.
 Aquel día me avergoncé para siempre.
 Para siempre le avergoncé aquel día.

LOTSATUTZIA. Forma nominal del verbo lotsatu.
iEz lotsatutzia gizona orrenbestegaz!
 ¡No avergonzarse el hombre con tanto!

LOTSATZIA. Lotsatutzia.
Ezerkin ez lotsatziari emonda dago.
 Está dado a no avergonzarse de nada.

LOTSIA. Con acento prosódico en la i, vergüenza.
Lotsia, Kaitanok esaten eban letz, gitxien deixanak, geixen eta aundiñak emoten dittuana bestieri.
 La vergüenza, según decía Cayetano, el que la tenga menos es el que más y mayores suele dar a los demás.

LOTSIA EUKI. ver. intrans. Tener vergüenza.
Ori da lotsia euki.
 Eso es tener vergüenza.

LOTU. ver. tran. Atar. sinón. katiau.
Ondo lotzen ez badozu burdixori, bidian geldittuko jatzuz irarik geixenok.
 Si no atas bien la carreta, en el camino te ha de quedar la mayor parte del helecho.

LOTUA. adj. Desmañado.
Ikaslari lotua izan dogu oiñguan.
 Esta vez nos ha tocado un aprendiz desmañado.

LOTUERIA. Atadura.
Uztarrixan lotueriak jakin biarra dauka.
 La atadura del yugo tiene su técnica.

LOTUTZIA. Forma nominal del verbo lotu.
Lotutzia errezagua eskatutzia baño.
 El atar es más fácil que el desatar.

LOTXIA, por lotsia. Alteración fonética para imitar a los de Soraluece.
Esan najotxan ez ebala lotxarik.

LOTXUA-LO. Canción de cuna.
Umetako aman lotxualo kantuak lako kanturik.
 No hay cantos como los de cuna de cuando niño.

LOTZIA, con acento prosódico en la o: lotutzia.
Errixak lotzia, legian gañetiko jabe bati...
 El atar los pueblos a un amo por encima de la ley..

LO-ZORRUAK. Ronquidos.
Kaletik entzutzen ziran aren lo-zorruak.
 Desde la calle se oían sus ronquidos.

LO ZURRUZTADAK. Lo mismo: Ronquidos.
Bere lo-zurruzadak entzutzen ziran urriñetik.
 Sus ronquidos se oían desde lejos.

LUA. El sueño.
Lua da txantxetako iltze labur bat; eriotzia

benetako azkenik ez daben lo eder bat.
 El sueño es una corta muerte convencional; la muerte un sueño hermoso sin fin.

LUAK ARTU. ver. pronom. Dormirse, vencer el sueño.
Arduratan bizi dana, ez dau errez luak artzen.
 No se duerme fácilmente quien vive en cuidados.

LUAK EIÑ. ver. tran. Dormir mucho y profundamente.
Luak eiñda gero esnatu nintzan zarata bategaz.
 Después de un largo sueño me desperté con un ruido.

LUKAINKIA. Longaniza.
Garixa kutxan eta lukainkak agan, ez da urte txarra.
 El trigo en el arca y las longanizas colgando de la vara, no es mal año.

LUMATSUA. adj. Abundante en plumas.
Gaberdiko mosolua, egazti lumatsua.
 El búho es ave de abundantes plumas.

LUMATU. ver. pronom. Vestirse de plumas la nidada. Como ver. tran. Desplumar.
 Sosuanak ixa lumatu dira eta laster ega eiño dabe.
 Zortzi egun aurretik diardue egazti lumatzen.
 La nidada del tordo está haciendo pluma y pronto echarán a volar.
 Desde ocho días antes están desplumando aves.

LUMATUTZIA. Forma nominal del verbo lumatu.
 Euri-lanbruak txorikumak lumatutzia aurreratzen dabela esaten dabe.
 Dicen que la llovizna adelanta el plumaje de las nidadas.

LUMATZIA. Lumatutzia.
 Egaztixak lumatzia, zeregiñ kakia.
 Quehacer fastidioso el desplumar aves.

LUMERUA. Número. Cambio fonético vernacular frecuente.
 Laranja esaten dan bezela, lumerua.

LUMIA. Pluma de ave.
 Luma bigun arruakin betetako belarondokua.
 Almohada llena de plumas suaves.

LUMUTSA. adj. Que no tiene sino plumas.
 Egazti aura, agiri aundikua baña lumutsa.
 Aquella ave es de gran apariencia, pero sólo tiene pluma.

LUPUA. Sabandija venenoga de muy mala leyenda en el caserío.
 Lupua baño gaiztuagua zan a gizona.
 Lupua baño gazixagua dago bakillau ori.

LURALDATU. ver. tran. Transplantar.
 Luraldatutako landarak, obeto etorzen dira.
 Los plantones trasplantados vienen mejor.

LUR-ALDATZIA. Trasplantación.

Luraldatxia eñ biar da, iratargixa kontuan eukitta.
El trasplante debe hacerse teniendo en cuenta la luna.

LUR - BALTZA. Tierra vegetal, humus mantilus.
Lorendako, kiñarra azpiko lur-baltza onena.

LUR-IKARIA. Temblor de tierra.
Bart lur-ikaria izan da.
Anoche ha temblado la tierra.

LUR-MENDIXA. Monte cubierto de tierra y vegetación en oposición a Aizgorri, roca pelada.
Azkonabitza, lur-mendi ederra, Elgeta'ra bidian.

LUR-ONA. La buena tierra.
Antxiñakuak esaten zetsan gurasuetako lurrari,
Lur-Ona.
Los antiguos llamaban a la tierra de los padres, la Buena Tierra.

LURRA. Planeta Tierra.
Lurra, Euzkixan jiran dabillen, aren antxiñako zati bat.
La Tierra, un antiguo trozo del sol que gira en su derredor.

LURRA. Suelo donde pisamos.
Lurran gañian bizi gara ill arte.
Arro ebillen danon gañetik. baña lurrera etorri da.
Vivimos sobre la tierra hasta morir.
Andaba orgulloso por encima de todos pero ha venido al suelo.

LURRA. Mineralogía Producto de la descomposición de las rocas.
Ango baserriko lurrak, aberatsak dira.
Las tierras de aquel caserío son ricas.

LURRA ARTU. Arraigar las plantas.
Juan zan astian sartu genduzen landarak lurra artu dabe.
Las plantas que plantamos la semana pasada ya han tomado tierra.

LURRA EMON. Enterrar. Más comun el erderismo enterrau. Eortu, sólo se conoce por la literatura.
Atzo emon detse lurra bere jaixo errixan.
Ayer le han enterrado en su pueblo natal.

LURRAK. Geografía. Tierras, países.
Munduan badira ondiok ezagutzen ez diran lurrak.
Hay todavía en el mundo tierras desconocidas.

LURRAK. Pertenencias del caserío.
Baserri artako lurrak dira aberatsak.
Las tierras de aquel caserío son ricas.

LURRA JO. ver. intran. Caer, pronom. arruinarse.
Gure Jaunak, kurutzia lepuan ebalá, iru bidar jo eban lurra.
Ainbeste urtian arro izandako etxia, gaur lurra jota.
Nuestro Señor, con la cruz a cuestras, tres veces

cayó en tierra.

La casa que tantos años se irguió orgullosa, hoy abatida en tierra.

LURRIAN SARTU. ver. tran. Enterrar.
Jo ta lurrian sartuta laga eban gizajua.
Le dio y le dejó al pobre metido en tierra

LURRUNA. Vapor, vaho.
Asi da lapikua lurruna darixola.
Gaur goizian arnasia lurrun biurtzen zan.
Ya está el puchero echando vapor.
Hoy a la mañana el aliento se volvía vapor.

LURRUNDU. ver. pronom. Evaporarse.
Beruakin ura lurrundu eitten da.
Con el calor el agua se vuelve vapor.

LURRUNDUTZIA. Forma nominal del verbo lurrundu.
Ur gazixan lurrundutzian ondoren agertzen da gatza.
Tras la evaporación del agua de mar, aparece la sal.

LURRUNTZIA. Lurrundutzia.
Lurruntzia da lurrun biurtzia bustixa.

LURRUNTZIA. Atmósfera de vapores.
Lantegi artan dana da lurruntzia.
En aquel taller todo son vapores.

LUTUA. Luto.
Baserriko mutill asko ofiziokuak eitten dira Eibar'en.
Muchos jóvenes del caserío se hacen de oficio en Eibar.

OFIZIUA. Oficio, artesanía.
Kalian dogu bigarrena ofizua ikasten armerixan kontratuan beyan.
Tenemos al segundo en la calle, aprendiendo un oficio bajo contrato.

OGEI. núm. card. Veinte.
Ogei urte ederrak.
Los veinte años, hermosos.

OGEI-ERRIALEKUA. Duro. Variante: *ogorlokua*.
Ogei-errialekua galdu jako etxetik onaxe bitartian.
Entre la casa y este lugar se le ha perdido un duro.

OGEKO - ERROPIA. Lienzos de la cama.
Zortzixan beñ aldatzen dittue ogeko-erropak.
Cada ocho días mudan la ropa de la cama.

OGE-LAGUNA. Camarada, el o la que comparte la cama.
Oge-lagun zatarra euki dot bart, ostikoka jira bakotxian.

Anoche he tenido mal compañero de cama, soltándome patadas a cada vuelta.

OGELEKUA. Dormitorio. Muy común: *kuartua*. El sinónimo *gela* se conoce por la literatura.
Ogeleku zabalak eta argixak dittu etxe arek.
Cuartos grandes y claros tiene aquella casa.

OGERATUTZIA. forma nominal del verbo *ogeratu*.
Ez dakitt noiz izango dan aren ogeratutzia giltza aldian dabela.
No sé cuando se acostará, teniendo la llave consigo.

OGERATZIA. *ogeratutzia*.
Ondo ez bazagoz, onena dozu ogeratzia.
Si no te sientes bien, lo mejor es acostarte.

OGETAMAR. núm. cardinal. Treinta.
Illak ogetamar egun bat az bestea.
El mes, uno con otro, tiene treinta días.

OGI-APURRAK. Migajas de pan.
Aberatsan maiko ogi-apurren billa izaten zan Lazaro eskeku, baña ill zanian, aingeruak eruan eben Abraham'en altzora.
Lázaro, el mendigo, acudía a por las migajas de pan del rico, pero cuando murió los ángeles le llevaron al seno de Abraham.

OGI-AZALA. Corteza de pan.
Berakatz sopenako, ogi-azalak.
Cortezas de pan para las sopas de ajo.

OGI-BALTZA. Pan negro.
Ogi-baltza oiñtsukua; len zan tremesa.
El pan integral es reciente; antes era el pan moreno.

OGI-BEDINKATUA. Pan bendito.
Ogi guztiak dira bedinkatuak, norberan izardixagaz irabazixak izan ezker.
Todo pan es bendito, si es que se ganó con el sudor de la frente.

OGI-BERUA. Pan caliente. También se dice *gaurko-ogixa*.
Ogi-beruakin konturik etxeko andriak.
La patrona no tiene cuenta con el pan fresco.

OGIGIÑA. Panadero. Común, *labarixa*, hornero.
Labarixa, ogigiña.

OGI GOGORRARI AGIÑ ZORROTZA. A pan duro, diente agudo.
Esakeria dan letz, ogi gogorrari, agiñ zorrotza.

OGI-KOSKORRA. La primera rebana del pan.
Danok giñan ogi-koskorran guran, eta matasa aundi bat ataratzan genduan, ogixa astia zan guztian.

OGI-MAMIÑA. Miga de pan.
Azala jan eta mamiña ollueri bota.
Comer la corteza y echar la miga a las gallinas.

OGIORIA. Masa de pan.
Argisaixan orde, ogioria erabiltzen genduan gauzen idurixak ataratzeko.
En vez de cera, usábamos masa de pan para sacar figuras.

OGI-SIKUA. Pan seco.
Eskekuendako gordetzen zan ogi-sikua.
El pan seco se guardaba para los mendigos.

OGI-TAKUA. Pedazo grande de pan.
Arratsaldeko eskolian ondoren, ogi-tako bat.
Después de la clase de la tarde, un pedazo de pan.

OGIXA. Pan. El pan familiar solía ser de cuatro libras (*laukua*). Lo cortaba el mayor de la familia haciendo sobre él el signo de la cruz y besándolo con unción. Cuando un pedazo caía al suelo, era obligado el levantarlo y besarlo con reverencia.
Ermua'rraneko iru koskorrekua lakorik, ez zan Eibar'en beste ogirik.
Ningún pan en Eibar como el de tres senos de los ermuaras.

OGI-ZATIXA. Rebanada de pan.
Lurrera jausten ba'jakun ogi-zatixa, jaso eta mun eiñ biar izaten gentsan.
Si se nos caía un pedazo de pan al suelo, había que levantarlo y besarlo.

OGORLOKUA. El duro de veinte reales. Variante de *ogeierrialekua*.
Amasei ogorlokokaz erosten zan ontzako urria.
Con dieciséis duros se compraba la onza de oro.

OIÑ. adv. de tiempo. Ahora. Forma sincopada de *oraiñ*, al que comunmente sustituye en Eibar.
Oiñ, tellatu gallurrian adarra jarri dogunetik, guazen jan-eranera.
Ahora, habiendo puesto el ramo en la cimera del tejado, vámonos a comer y beber.

OIÑ ARTE. modo adv. Hasta ahora.
Oiñ arte ikuswi iñoiz olakorik.
Hasta ahora no se ha visto cosa semejante.

OIÑ AURRETIK. modo adv. Antes de ahora.
Oiñ aurretik be baziran orretariko matasak.
Antes de ahora también había cuestiones semejantes.

OIÑ DALA. modo adv. Ahora hace...
Oiñ dala iru urte, gaur bezelako egun baten, olako lekutan izan nintzan.
Ahora hace tres años, un día como hoy, estuve en tal sitio.

OIÑDIOK. adv. de tiempo. Todavía. Comunmente, *ondiok*.
Oiñdiok ez ditturaz zorrak ordaindu.
Todavía no he pagado mis deudas.

OIÑDIOKAN. Lo mismo que *oiñdiok*.
Oiñdiokan bertan irauntzen dot.
Todavía permanezco en el mismo lugar.

OIÑDIOKUAN. modo adv. En lo que va hasta ahora.
Oiñdiokuan beñ be galdu arek iri-probarik.
En lo que va hasta ahora, ni una vez ha perdido aquél ninguna prueba de bueyes.

OIÑDITTIK. modo adv. Desde ahora.
Oiñdittik esaten detsut, ez naizela juango a badoya.
Desde ahora te digo que no iré si va aquél.

OIÑDU. ver. tran. Transitar a pie.
Munduko bide guztiak oiñduta zittuan.
Tenía andados todos los caminos del mundo.

OIÑDUTZIA. forma nominal del verbo *oiñdu*.
Gurako neuke berriz be a bidia oiñdutzia.
Me gustaría andar de nuevo aquel camino.

OIÑ EZKERIK. modo adv. Ya, para ahora...
Oiñ ezkerik, egositta egongo da okelia.
Para ahora estará cocida la carne.

IOÑ EZKERIKAN. Lo mismo que *oiñ ezkerik*.
Oiñ ezkerikan aberastuko zan.
Ya para ahora se habrá enriquecido.

OIÑ EZKERO. Lo mismo que *oiñ ezkerik*.
Oiñ ezkeri mutill aundi eiñda eukiko dozu semia.
Ya para ahora le tendrás crecido a tu chico.

OIÑGOTXE. adj. actual, del presente.
Zuk diñozun gauzia, oiñgotxe oiñgotzia.
Lo que tú cuentas es actual, actualísimo.

OIÑGUAN. modo adv. Esta vez...
Oiñguan ez detsa parkatuko!
Esta vez no le va a perdonar.

OIÑPIA. La planta del pie. sinón. *oiñazpixa*.
Oiñpia, abarka narrua lexxotxe zaila eukan, beti ortosik ibiltziakin.
Tenía la planta del pie resistente como un cuero de abarca, de andar siempre descalzo.

OIÑTSUAN. adv. de tiempo. Recientemente.
Oiñtsuan artu dot bere kartia, etxeko barri askokin.
Recientemente he tenido carta suya, con muchas nuevas de casa.

OIÑTXE. adv. de tiempo, con el locativo *xe*.
Oiñtxe ikusiko da aren ezeri bildurrik eza norañok eltzen dan.
Ahora se verá hasta dónde llega su valor.

OIÑ URRENGO. modo adv. La última vez, últimamente.
Oiñ urrengo Donostia'n izan giñanian, ederto ibilli giñan.
La última vez que estuvimos en San Sebastián anduvimos muy bien.

OIÑTZIA. *oiñdutzia*.
Mundua, guen batetik bestera, dirurik barik oiñtzia pentsatzen eban.
Se propuso recorrer a pie el mundo de un extremo a otro sin dinero.

OIÑUTSIK. modo adv. Descalzo, con los pies desnudos. sinón. *ortosik*.

Promesa zor ebanetik, oiñutsik juan zan Urkiolara.
Debiendo una promesa, fue descalzo a Urquiola.

OITU. ver. pronom. Acostumbrarse. También como tran.
Oittu zara amengo oituretara?
Amen oittutzen da San Juanetan soñeku barrixa ataratzia.
Makilliakin oittu dau lanera.
¿Te has acostumbrado a las costumbres de acá?
Aquí se acostumbra estrenar un vestido por San Juan.
Con el palo le acostumbró al trabajo.

OITUA. adj. Acostumbrado.
Lanian oittua zan eta ezerk atzera eraitzen ari.
Estaba acostumbrado al trabajo y nada le hacía retroceder.

OITTURIA. Costumbre.
Antxiñako oitturia genduan, Gabonetan senide guztiok batzia.
Era vieja costumbre nuestra el reunirnos los parientes por Navidad.

OITTURAK. Derecho consuetudinario.
Euskal erriko oitturak ziran maittagarrixak.
Las costumbres del País Vasco eran venerables.

OITTUTAKUA. adj. Acostumbrado, avezado.
Onera eta txarrera oittutakua.
Acostumbrado a lo bueno y a lo malo.

OITTUTZIA. forma nominal del verbo *oittu*.
Izan laike an orretara oittutzia.
Otzera oittutzia ona dala esaten dabe.
Puede ser que allí se acostumbre así.
Dicen que es bueno acostumbrarse al frío.

OITTUTZEN DANA. Lo acostumbrado.
—¿Zer emongo detsagu?
—Oittutzen dana.
—¿Oué le daremos?
—Lo acostumbrado.

OIUAK. Exclamaciones de júbilo.
Agertu zanian, an baziran oiuk, pozak zoratu biarrian danak.
Cuando apareció hubo gritos de alegría hasta el punto de volverse locos todos.

OIXAK. Encías.
Oixak miñduta darabiraz aspaldixan.
Esta temporada traigo doloridas las encías.

OIZ. topon. Montaña, pura arenisca, en Bériz.
Oizete izenak àba ete dau zer ikusirik Oiz mendixagaz?

OJALATERUA. Hojalatero.
Txantxiku ojalaterua, aurrezkurako beti prest.

OJALIA. Pañal.
Datorkixon umiandako ojaliak apaintzen diardu.
Está festoneando los pañales para el niño que le ha de venir.

OJALIETAKO UMIA. Niño en pañales.
Ojalietako umia dirudi, ez dauka ba txori batek beste buru.
Parece una criatura en pañales, pues no tiene tanto seso como un pájaro.

OJALIETAN. Modo adv. En pañales.
Txikiña ojalietan dauka ondiok.
Gure asmuak ojalietan dagoz ondiokan.
Al menor lo tiene todavía en pañales.
Nuestros proyectos están aún en pañales.

OJIA JIRURIK. Idiotismo que se emplea cuando una cosa se emplea en lugar de otra en virtud de una semejanza que establece la imaginación.
Olabe'k esaten eban moduan, ojia jirurik.

OJO EUKIXOX ORRI! Frase festiva con que se recomienda a un pícaro.
iOjo eukixok orri, Anton!

OKARANA. Ciruelo y el fruto del mismo.
Bizkaitiko okaranak dozenaka saltzen ziran plazan.
Las ciruelas de Vircaya se vendían por docenas en la plaza.

OKASIÑUA. Ocasión, accidente, contratiempo.
Okasiñua daukagu etxian: ama zarra gaixotu jaku.
Moskortu, eta okasiñua euki dau tabernan.
Tenemos en casa un contratiempo: se nos ha enfermado la vieja.
Se emborrachó y ha tenido un compromiso en la taberna.

OKELIA. Carne (vianda). sinón. *aragixa*, carne, enemigo del alma.
Zortzixan beñ, okelia jaten genduan.
Cada ocho días comíamos carne.

OKER. modo adv. Torcidamente, equivocadamente.
Oker ainduta, biar ez neban lekura eldu nintzan.
Dirigido equivocadamente, llegué a donde no debía.

OKER AITU. Ver. tran. Entender mal.
Asieran oker aittu gendualako esana, luzerorako okerrak izan genduzen.
Porque al comienzo entendimos mal lo dicho, tuvimos inconvenientes largo tiempo.

OKER EIÑ. ver. tran. Errar, hacerlo mal.
Oker eiñ dot kontua, eta galtzen urten dogu.
He equivocado la cuenta y hemos salido perdiendo.

OKERKERIXIA. Travesura.
Negargarrizko okerkerixia eiñ deskue umiak.
Los niños nos han hecho una travesura grande.

OKERRA. Accidente, desgracia.
Okerrik ez badau bidian, agertuko da bere orduan.
Si no le ocurre algún percance en el camino, llegará a su hora.

OKERRA. adj. Torcido, travieso.
Zugatz ori okerra dago.
Okerra daukagu gure txikiña.
Ese árbol está torcido.
Le tenemos travieso a nuestro menor.

OKERTASUNA. Malicia.
Odolian ekarri eban okertasuna.
Trajo en la sangre la malicia.

OKERTU. ver. pronom. Torcerse. También como tran.
Lagun txarrekin okertu zan betiko.
Lagun txarrak okertu eben betiko.
Con las malas compañías se torció para siempre.
Los malos amigos le torcieron para siempre.

OKERTUTZIA. forma nominal del verbo *okertu*.
Makilla burua okertutzia gura eban, eskuleku eitteko.
Quería retorcer el cabo del palo, para adecuarlo a la mano.

OKERTZIA. *okertutzia*.
Gizonak berezkua dau okertzia.
El hombre por naturaleza tiende al mal.

OKERUNIA. Torcedura.
Amentxe dauka okerunia kañoi onek.
Este cañón tiene aquí una torcedura.

OKILLA. Pájaro carpintero.
Okillak arbola gerri barruan atarutzen ditu umiak.
El pájaro carpintero cría en el hueco de los árboles.

OKILLANAK. Nidada del pájaro carpintero.
Pagu onetantxe igez okillanak.
En esta haya crió el año pasado el pájaro carpintero.

OKOTZA. Barbilla.
Okotzian bera adurra darixola zeguan bere seme opillari begira.
Mirando a su hijo pánfilo, se le caía la baba por la barbilla.

OKOTZBIKUA. Papada.
Okotzbiko guri gurixa eban.

OKOTZPEKO INTXAURRA. Nuez de la garganta.
Berbetan zanian, gora ta bera ibiltzen jakon okotzpeko intxaurrea.
Cuando hablaba le andaba arriba y abajo la nuez de la garganta.

OKOTZPEKUA. Golpe bajo la mandíbula.
Okotzpeko batekin eratzi eban kontrarixua.
Con un golpe bajo la quijada derribó a su contrario.

OKOTZPIA. Parte inferior de la barbilla.
Okotzpian eukan, auntzen antzera, bizar luzia.
A la manera de las cabras, tenía bajo la barbilla, largas barbas.

OLA. En palabras compuestas denota unas veces el lugar en que se trabaja el material a que se refiere el miembro antecedente, y otras, artefacto de la clase que asimismo determina el antecedente.

Egurrola, Arriola, Burdiñola.
Aixola, Urola, Mandiola, Mutiola, Gisasola.

OLA. Tabla.
Olekin eñ eban etxetxo bat, eta antxe eukan bere gordelekua.
Con tablas hizo una casita y allí tenía su refugio.

OLA. síncopa de *onla*, y ésta de *onela*. Modo adv. De esta manera. Variante: *olan*.
Ola aittu detsat nik beintzat esan dabena.
Así le he entendido yo al menos lo que ha dicho.

OLAGARRUA. Zool. Pulpo.
Olagarrua erreta jaten dabe sardaunteixetan.
El pulpo se come asado en las sidrerías.

OLAKUA. adj. Semejante. síncopa de *orlakua* y ésta de *orrelakua*.
Neria ez da olakua; zerbaitt aldia dauka.
El mío no es así; es algo distinto.

OLAN. variante de *ola*. modo adv. De esta manera.
Olan eta alan, alperrik galdu dabe gauzia.
Así y asá, han echado a perder la cosa.

OLATIA. Variante de *oblatia*. Tona de pan para ofrendar en la iglesia a la intención de los muertos.
—¿Ogirik eta andrarik bage izan laikiala deitzozu gizona, Joxe Manuel; zuk ainbeste ume izan dittuzun orrek?
—Bai, Abade Jauna; olatiakin eta loibatzakuagaz.
(*Agiña'ko San Migeletan pasautako ipoña.*)

OLATUA. Ola.
Aiziak eitten daben bultziagaz itxas gañian, sortutzen dira olatuak.
Con el empuje de los vientos sobre el mar se forman las olas.

OLATU BIZIXAK. Mar picada.
Olatu bizixak dagoz gaur igarirako.
Hoy está la mar picada para nadar.

OLERRIA. topon. Lugar próximo a Eibar. A veces se oye decir también *Elorria*, que significaría bien distinto.
Olerrian dogu gaur afarixa ogei lagunek.

OLGETAN. modo adv. De broma. sinón.
Txantxetan, jolasetan.
Olgetan ebizela, benetara jo eben eta asarratu ziran betiko.
Estando bromeando, comenzaron de veras y se enfadaron para siempre.

OLIA. Obrador y también artefacto o aprovechamiento de agua.
Au oiñ erreta agertzen dan etxia, olía zan.

Esta casa que ahora aparece incendiada, era un taller o fábrica.

OLIXONTZIXA. Aceitera.
Ekarrirazu ona olixontzixa.
Traeme acá la aceitera.

OLIXUA. Aceite.
Amaika bidar, olixua karu eguala ta, nere perretxikuak juan ziran oster.
No pocas veces, a pretexto de que el aceite estaba caro, mis setas fueron al corral.

OLLAGORRA. Becada, ave de paso en el país.
Ollagorlarixak, neguko edur eta izotzegaz izaten dittue ibillirik onenak.
Los cazadores de becadas en las nieves y los hielos del invierno hacen sus mejores correrías.

OLLALOKIA. Gallina clueca.
iZenbat bidar gura izan dot batzia zure semiak, ollalokiak txitxak bezela bere eguan azpitan, eta ez zenduan nai izan.
Mat. 23. 37.
¡Cuántas veces he querido reunir tus hijos, como la gallina sus polluelos bajo el ala y no quisiste!

OLLANDIA. Polla. fig. Moza apuesta.
Ollandia, erretzeko; ollua, saldia eitteko.
Ollanda politta daukazu alabia.
La polla para asar; la gallina para hacer caldo.
Bonita polla está tu hija.

OLLAR BASERRITARRA. Gallo de raza indígena, que no sirve para las peleas.
Ollar baserritarrak ez dabe gauza jokorako.

OLLAR INGLESA. Gallo de pelea.
Ollar-ingles fiñ-fina dauka kastatarako.
Tiene un gallo de pelea finísimo para casta.

OLLAR-JOKUA. Pelea de gallos.
Ollar-jokuan diru asko jokatzen zan sasoi baten.
En un tiempo se jugaba mucho dinero en las peleas de gallos.

OLLARRA. Gallo.
Ollarrak kukurrukua jo baño len, iru bidar ukatu eban.
Le negó antes de que el gallo cantara tres veces.

OLLARTOKIXA. Gallera.
Sumendixa'k Txirixo-kalian eukan ollartokittik, irabaztalle askok urtentze eben.
De la gallera que Sumendixa tenía en Chiriocalle, salían muchos campeones.

OLLARTU. ver. pronom. Engallarse.
Irabazi dittuan jokuekin, ollartuta dabil.
Anda engallado con los juegos que ha ganado.

OLLASKUA. Pollo. fig. Mozo emprendedor.
Pare bat ollasko eruaioxuz don Toribio medikuari.
iOllasko makala dator zure mutikua!
Lleva un par de pollos a don Toribio el médico.
¡Menudo pollo viene tu muchacho!

OLLO - ARRIXA. Detritus calcáreo natural que en campo libre aprovechan las gallinas.
Ollo-arrixa dan baserrixetan, olluak gitxiago biar izaten dabe jaten.

OLLO - BARRUAK. Menudos de la gallina.
Ollo-barruegaz janari ederrak ipintzen zituan.
Con los menudos de gallina preparaba buenos platos.

OLLO-GANTZAK. Grasa de gallina a la que se hace durar en una olla de barro.
Ollo zar aundi onek, urtebeterako gantzak eukazen.
Esta gallina vieja y grande tenía grasas para todo un año.

OLLO-LAPIKUA. Cocido de gallina.
Ollo-lapikua etxe guztietan, orrañok eldu gura eban Frantzia'ko Errege Nafarruarak.
Enrique, el navarro, Rey de Francia, quería llegar a que en todas las casas hubiera cocido de gallina.

OLLO-LUMIA. Plumón de gallina.
Ollo-lumia bigunagaz neban arrotuta buru-azpikua.
Tenía henchida la almohada con plumas de gallina.

OLLO-SALDIA. Caldo de gallina.
Oll-saldia amarretan arrautza gorringuakin eta txiki bat zuri.
Caldo de gallina a las diez con una yema de huevo y un txikito de blanco.

OLLO-TOKIXA. Gallinero.
Inguru guztiak olluo-tokiz bete ziran.
Todo el rededor se pobló de gallineros.

OLLO-ZORRIXA. Piojo de la gallina.
Ollo-zorrixak jan biarran dauke gure lokia.
Nuestra clueca está que le comen los piojos.

OLLUA. Gallina.
Ollua berez da izukia.
La gallina es tímida por naturaleza.

OLUA. Avena, pero como ordinariamente no se cultiva en nuestros términos, he oído usar esta voz genéricamente por las gramíneas del monte.
Ota artian ermetzen zan olua.

OMILLA. adj. Humilde.
Asis'ko Gizajua bezin omilla agertu zan.
Se manifestó tan humilde como el Pobrecito de Asís.

OMILLTASUNA. Humildad.
Jaungoikuan aurrian gizajuen omilltasunak geixago diño aundixen jasotasun guztiak baño.
Ante Dios dice más la humildad de los pobres que toda la altivez de los grandes.

ONA. adj. Bueno.
Ona, bat bakarrik dala erantzun zetsan Jesus'ek gazte bati: Zeruko Aitta.

Gure etxeko jabia ona da.
Bueno, contestó Jesús a un joven, uno sólo: el Padre del Cielo.
Nuestro dueño de casa es bueno.

ONA. adv. de lugar, en sentido de dirección.
Síncopa de *onera*, que es raro en Eibar.
Etorri zaittez ona, gauza bat esan biarra detsut.
Ven acá, que te tengo que decir una cosa.

ONA EIÑ. ver. tran. Hacer el bien.
Ona eiñak ez dauka damurik.
El bien hecho no da lugar a arrepentimiento.

ONANTXE. modo adv. Aquí, determinantemente aquí. Variante: *onaxe*.
Onantxe ekarri biar destazu, nere etxera, letriak aintzen daben dirua.
Aquí mismo, a mi casa, me tienes que traer el dinero que señala la letra.

ONAÑOK. modo adv. Hasta aquí.
Lurrak onañok, orregaittik amen Finisterrae.
Legia eta Profetak onañok; Juan ezkerro grazia.
Las tierras hasta aquí; por eso aquí es Finisterrae. La ley y los Profetas hasta aquí; después de Juan la ley de gracia.

ONAXE. Variante de *onantxe*.
Onaxe etorri biar litzateke, ikustera nolan diran gauzak.
Aquí debiera de venir a ver cómo son las cosas.

ON BE. Loc. adverbial que se usa en positivo y negativo, para encarecer la suerte de que haya sido o no haya sido la cosa de referencia.
Gertau nintzan sasoiz, eta ibai on be!
Ez zan agertu bestia aurrian zan artian, eta ez on be!
Me preparé a tiempo, y imejor ha sido!
No apareció mientras el otro estaba presente, y imejor ha sido que no!

ON BIARRIAN. modo adv. Por su bien, por mejor. Lo mismo que *ondo biarrian*.
On biarrian esan netsan esan netsana zorigaiztuan, txarrera ba artu zestan.
Por mejor le dije lo que le dije en mala hora, pues me lo tomó a mal.

ON BILLA, ON BILLA, BONBILLA. Se dice de la posibilidad de perder en busca de lo mejor.
On billa, on billa, bonbilla, esaten dan moduan, eta or, mutill zar geldittu da.

ONDAKIÑA. Variante de *ondokiña*, que es lo común en Eibar.
Ondakiña laga desta neri.
A mí me ha dejado los restos.

ONDAMENDIXA. Desastre.
Atzoko ufalak ondamedi aundixa eiñ dau.
La crecida de ayer ha causado gran desastre.

ONDARRA. Arena, restos, heces. Sinón. *Aria*.
Ibaittik ondarra ataratzen bizi zan.

Maiko ondarren billa izaten zan Lazaro eskekua. Pitxarkadia, ondarretarañok eran eban.

Vive de sacar arena del río.

Lázaro, el mendigo, solía buscar los restos de la mesa.

Se bebió un jarro hasta las heces.

ONDARRUA. Geog. Ondárroa.
Ondarrua'ra goyaz Andra-Marixetan.

ONDARTZIA. Arenal, playa. sinón. *Ariatzia. Ondarrua'ko ondartzan, egonaldi ederrak eiñdakua naiz neu be.*

Yo también soy de los que hicieron buenas estadas en la playa de Ondárroa.

ONDASUNA. Riqueza.
Osasuna bai ondasuna eta ez dirua.
La salud es riqueza que no el dinero.

ONDASUNAK. Los bienes, la hacienda, las riquezas.

Ondasunen ondoren, gizonak mundu guztia aztartu dau.

¿Norendako ete dira aren ondasunak?

El hombre ha urgado todos los rincones de la tierra en busca de las riquezas.

¿Para quien serán sus bienes?

ONDATU. ver. pronom. y también tran.
Arruinarse, echar a perder.

Oiñguan, ondatu naiz betiko.

Ondatu dozu soñeku barrixa.

Esta vez, me he perdido para siempre.

Has echado a perder el vestido nuevo.

ONDATUTZIA. forma nominal del verbo *ondatu.*

Ortik etorri zan gu ondatutzia.

De ahí vino nuestra ruina.

ONDATZIA. *ondatutzia.*
Ez zan gatxa gu ondatzia, narrugorrixan lagata gero.

No era difícil hundirnos, después de habernos dejado sin nada.

ONDIOK. adv. de tiempo. Todavía, aún.
Ondiok estudixuetan dabill.
Todavía sigue en los estudios.

ONDIOKAN. adv. de tiempo. Todavía, aún.
Milla urte batzuen gero, badira ondiokan gure artian esanak, oitturak eta trepetxuak beti lenak diranak.

Después de algunos miles de años, hay todavía entre nosotros dichos, costumbres y útiles que siempre son los mismos.

ONDIOKUAN. modo adv. En lo que va hasta ahora. Todavía.

Ondiokuan ez da agertu beste bat a lakua.

Todavía no ha aparecido otro igual que aquél.

ONDJO-BURUBALTZA. Variedad de los boletus comestibles.

Ondjo-burubaltzak txapela lako aundixak eiten dira sarri.

ONDJUAK. Hongos del género boletus.

Uda azkenian, iria ebaterakuan, ondjuak ugari.

En el otoño, al cortar los helechos, abundan los hongos.

ONDU. ver. tran. En las competencias, cubrir una marca. Hacer buena una cosa.

Goizekuen markia, arrasaldekuak errez ondu dabe.

Ondu destaz aindutako gauza guztiak.

Los de la tarde han cubierto con facilidad la marca de los de la mañana.

Me ha hecho buenas todas las promesas.

ONDO. adv. de modo. Bien. *Ongi* en Eibar sólo se usa en algunas pocas frases.

Beti-ondo da Ermu'ko baserri baten izena.

ONDO ARTU. ver. tran. Acoger bien.

Ainbeste urtiango seme aritzalarixa gurasuak ondo artu eben itxuli zanian.

Al hijo pródigo de tantos años los padres le acogieron bien a su vuelta.

ONDO-AZIXA. adj. Bien criado.

Ume ondo-azixa, bizi guztirako irabazixa.

Hijo bien criado, beneficio para toda la vida.

ONDO EGON EZ. loc. verbal. No sentirse bien, no estar en lo cierto.

Ondo ez bazagoz, juan zaittez etxera.

Zuk esan dozun gauzan, ez zagoz ondo; egixa da beste modu batera.

Si no te sientes bien, vete a casa.

En lo que has dicho, no estás en lo cierto; la verdad es de otro modo.

ONDO EIÑAN PAGUA, ATE OSTIAN PALUA.

Refrán.

Esaten dan bezela: ondo eiñan pagua, ate ostian palua.

ONDOEZA. Malestar, indisposición, desvanecimiento.

Jaiki naizenetik, ondoezik sentitzen naiz.

Lanian diarduala, ondoeza eiñ eta lurrera jausi zan.

Desde que me he levantado, me siento mal.

Estando trabajando, le ha dado un desmayo y se ha caído a tierra.

ONDOEZIK IBILLI. ver. intran. Andar indispuesto.

Aspaldixan ondoezik dabill, ezer onik eitten ez debala.

Hace tiempo que anda indispuesto, sin que nada le siente bien.

ONDOKIÑA. Residuo, resto, sobra. Variante: *ondakiña.*

-Ezda ondo umien ogixa artu eta txakurreri emotia.

—*Bai Jauna, baña txakurtxuak be, Nausixen maiko ondokiñen billa agertzen dira.* Mat. 15. 26, 27.
No está bien tomar el pan de los hijos y darlo a los perros.
-Sí Señor, pero también los perros suelen llegar a buscar los restos de la mesa de los señores.

ONDO JAUSI. ver. tran. Caer bien, agradar, sentarle bien la ropa.
Ondo jausi jako esan detsazuna.
Jakia ondo jausten jatzu; ez alabe frakak.
Le ha caído bien lo que le he dicho.
La chaqueta te cae bien, pero no así los pantalones.

ONDORATU. ver. pronom. Irse al fondo, ir a pique. U. t. c. tran.
Orduan izan zan galerniagaz, itxas-ontzi asko ondoratu ziran.
Submarino aleman batek ondoratu eban.
Con la galerna que se produjo entonces, se hundieron muchos barcos.
Le hundió un submarino alemán.

ONDORATUTZIA. forma nominal del verbo *ondoratu*.
Titanic, zan itxas-ontzirik aundiña izan arren, utsa denboran ondoratutzia gertau jakon.
Con ser el Titanic el mayor buque del mundo, le ocurrió que se hundió en nada de tiempo.

ONDORATZIA. *ondoratutzia*.
Amen, itxaso zabalian. ontzixa ondoratzia balitz, alperrik igarixan jakitzia.
Aquí, en el ancho mar si fuera a hundirse el barco, no valdría el saber nadar.

ONDOREN. modo adv. Tras. a continuación, después.
Ondoren zer etorriko dan, orixe iñok ez dakixana.
Lo que ocurrirá después, eso es lo que no sabe nadie.

ONDOREN-BAKUA. adj. Estéril, sin resultado.
Tratándose de seres vivos, se dice *antzua*, estéril.
Ondoren-bako lanetan bizi guztian jardutzian lako kastigurik, ez dago.
No hay mator castigo que el trabajar toda la vida en trabajos sin consecuencia.

ONDORENEKUAK. Descendientes.
Ondorenekuak auzixetan ibilli ziran, gurasuen apurra partitzeko.
Los sucesores anduvieron en pleitos para repartirse lo poco de sus padres.

ONDORENGUAK. Lo mismo que *ondorenekuak*.
Gauzarik tristiena, gurasuen pekatuak ondorenguak erantzun biarra.
Lo más triste es que los hijos respondan de las culpas de los padres.

ONDOREN IBILLI. ver. tran. Seguir, andar tras de...
Ondoren ebillen, baña alperrik.
Andaba tras la cosa, pero en vano.

ONDORIA. La descendencia, la consecuencia.
Adam eta Eva'n ondoria gara danok.
Matasa orren ondoria izan zan, beste aundixago bat.
Todos somos descendientes de Adán y Eva.
La consecuencia de aquel embrollo fue otro mayor.

ONDORIAN. modo adv. Lo mismo que *ondoren*.
Gerriak ondorian dakarzen gatxak, esan be eziñ.
Ni se pueden referir los males que tras de sí trae la guerra.

ONDORIK. modo adv. Tras de sí.
Ondorik zer dakarren baneki...
Si supiera lo que trae tras de sí...

ONDOTXO. modo adv. Bastante bien, regularmente.
—*Zerla urten dau gauziak?*
Ondotxo; konforme gara.
—¿Como ha resultado la cosa?
—Bastante bien. Estamos conformes.

ONDO ZAINDU. ver. tran. Administrar.
Ondo zaindutako irabazi laburra obe da, zaindu bako irabazi aundixa baño.
Vale más una modesta ganancia administrada, que no una mayor de la que no se cuide.

ONDRA-JANA. Banquete funeral, que seguía a las honras fúnebres en la iglesia.
Mari-Martin'guan izan dabe ondra-jana Arrate ballekuok.

ONDRAK. Honras fúnebres.
Gaur izan dira Eibar'ko elizan, Tangillango gizonan ondarak.

ONDRAUA. adj. Honrado.
Alde guztietara, gizon ondraua.
(O candela de cera ofrenda muy ondrada. Berceo. Del sacrificio de la Misa. 67.)

ONDU. verbo pronom. Volverse bueno.
Mutill au ondu eiñ da, Jaungoikuari eskerrak.
Este muchacho, con los años, se ha vuelto bueno, gracias a Dios.

ONDU. ver. tran. En las pruebas de bueyes y otras competencias cubrir o superar la marca del contrario.
Goizekuen markia arrasaldekuak errez ondu dabe.
La marca de los de la mañana la han cubierto con facilidad los de la tarde.

ONDUA. El fondo.
Itxasuan badira ondua jo ezindako sakonunak.
Hay en el mar profundidades donde no se ha podido tocar fondo.

ONDUTZIA. forma nominal del verbo *ondu*, en sus dos acepciones.
Ez da erreza izango arrasaldekuak goizekuen markia ondutzia.

Ondo litzake aindiak ondutzia.

Eskoliak ekarri detsa ondutzia.

No les será fácil a los de la tarde cubrir la marca de los de la mañana.

Estaría bien el que hiciera buenas sus promesas.

La escuela le ha hecho bueno.

ON - EIÑ. ver. tran. Sentarle bien (una cosa).

¿Zenbat gauza dira botikan on-eitten dabenak?

Ardau apur onek on-eiñ desta.

¿Cuántas cosas hay en la farmacia que hagan bien?

Este poco de vino me ha sentado bien.

ON-EIÑ DEIZULA! Se dice en presencia de los que comen, a manera de cortesía.

¡On eiñ deizuela danori!

¡Bai zeuri be!

¡Que aproveche a todos!

¡Asimismo a usted!

ONEK. Con acento prosódico en la o, pron. demost. Estos.

Onek aberatsok eiñ biar littukiezen gauzak dira orrek.

Esas son cosas que debieran hacer estos ricos.

ONEK. pronon. demostrativo. Nominativo de la tercera persona agente del singular de los verbos transitivos.

Onek esan desta ez juateko arengana.

Este me ha dicho que no vaya donde aquél.

ONELA. Más común en Eibar, *onetara*. Modo adv. De esta manera.

Esan netsun onela eiñ biar zenduala.

Onela, asmu baten gara danok.

Ya te dije que debías hacerlo de esta manera.

De esta manera, todos estamos unánimes.

ONEN. adv. de cantidad. Tan. Equivale a *aiñ* en locuciones de primera persona.

¿Zergaitik naiz ni onen estuan?

¿Por que estoy yo tan (así de) apurado?

ONEN. adj. y pron. posesivos.

Onen txakurra, erbilarixa.

Txakur ori da, eitzari onena.

El perro de éste, es lebrele.

Ese perro es de este cazador.

ONENA. adj. superlativo de *ona*. El mejor.

Aren dendan saltzen dan gauzia, ona, obia eta onena.

Lo que se vende en su tienda es bueno, mejor y lo mejor de lo mejor.

ONENBESTEKIN (ONENBESTEGAZ). Conj. Con tanto.

Onenbestegaz amaitzen dot nere gaurko jarduna.

Con tanto termino mi intervención de hoy.

ONENBESTEKO BAT. modo adv. Un tanto así.

Dirua aurreratu zetsan onenbesteko bat, sari letz, beste onenbesteko bat aurrez kenduta.

Le prestó un tanto de dinero, habiéndolo deducido por anticipado tanto a título de intereses.

ONENIAN. modo adv. Acaso, a lo mejor.

Baserriko burubidia, sei illabeteko lanak, onenian, ordubetian galdu txingorrada bategaz.

Onenian egixa izango da esan dabena, guzurra esatia aztu jakolako.

El destino del labrador es perder a lo mejor las labores de seis meses en una una hora, por culpa de una granizada.

Acaso sea verdad lo que ha dicho, por haberse olvidado de mentir.

ONENIAN. modo adv. En el mejor caso.

Erremedixo orren ona, onenian, kalterik ez eittia

Lo bueno de esa droga, en el mejor de los casos, que no haga daño.

ONENENTZAKUA. adj. Considerado el mejor.

Azpiri izan zan pelotari onenentzakua.

Azpiri era juzgado como el mejor de los pelotaris.

ONENETAKUA. Partitivo de los adjetivos superlativos.

Pelotari onenetakua.

Un pelotari de los mejores.

ONENETARIKUA. adj. que incluye entre los mejores al sustantivo a que califica.

Txorroxa, pelotari onenetarikua.

Txorroxa, pelotari de entre los mejores.

ONERAKUA. adj. de bien, para bien.

Gizon onerakua jatzu uezaba.

Tu patrono es hombre de bien.

ONERATU. ver. tran. Traer a bien, enderezar.

Zan ardi galdua, munduan irutxurak oneratu eben.

La oveja perdida que era, las traiciones del mundo le enderezaron.

ONERATUTZIA. forma nominal del verbo *oneratu*.

Al-ez zalako oneratutzia, zerutiko suak ondatu zittuan.

Porque no era posible enderezarlos, el fuego del cielo los destruyó.

ONERATZIA. *oneratutzia*.

Gura ebana zan, gaixuak osatzia eta gaiztuak oneratzia.

Lo que quería era curar los enfermos y traer a bien a a los malos.

ONETARA. adv. de modo. Así, de esta manera.

Onetara erakutsi deskue guri gurasuak.

Así nos han enseñado nuestros padres.

ONETXEK. Con acento prosódico en la segunda e, pron. demostrativo, éste, determinadamente éste.

Onetxeek eiñ dau oker ori.

Este ha hecho ese daño.

ONETXEK. Con acento prosódico en la *o*. Estos, determinadamente éstos.

iOnetxek, eta ez besterik, dira ondamendi ori eiñ dabenak!

¡Estos, y no otros, son los que han hecho ese desastre!

ONGARRIXA. Abono. sinón. *zimaurrea*.
Ardi-korotza, lorendako ongarririk onena.

El estiércol de las ovejas es el mejor abono para las flores.

ONGI. adv. de modo. Bien. En nuestra manera sólo entra en algunas expresiones como ésta:

Ongi-etorrixa emon deixogun Ameriketako osabiari.

ONGILLIA. adj. Bienhechor.

Arri-pilla gañian zutiñik ikusten dozun gizon ori, erri onetako ongillia.

Ese que ves sobre un cúmulo de piedras, de pie, es el benefactor de este pueblo.

ONI. Dativo del demostrativo éste. Contracción de *oneri*.

Parkatixozu eiñ daben okerra mutiko oni.

Perdona a este muchacho lo malo que ha hecho.

ONIAN. modo adv. A buenas, buenamente.
Onian dana ataratzen jakon; txarrera ezer b'ez.

A buenas se le sacaba todo; nada a malas.

ONIAN EDO TXARRIAN. loc. adv. A buenas o a malas.

Onian edo txarrian ekarrizu nere aurea.

A buenas o a malas, traéle ante mí.

ONIK EIÑ EZ. ver. tran. Sentar mal una cosa.
-¿Zer dozu?

—Jan dogun arrañak onik eiñ ez.

Ikustiak be, ez desta onik eitten.

¿Qué te pasa?

Que no me ha hecho bien el pescado que hemos comido.

No me hace bien ni el verlo.

ONLA. síncopa de *onela*, modo adv. Así, de esta manera.

Onla esan desta neri, jakiñian egoteko errezoyak dittuan batek.

Así me lo ha dicho, quien tiene razones para estar enterado.

ON-ONA. adj. Bueno con aumento o reiteración mayorativa. Muy bueno.

Txarra ez baña on-ona b'ez.

Malo no, pero tampoco muy bueno.

ONTARA. adv. de modo. Así, de esta manera. Síncopa de *onetara*.

Ontara, alde bittara irabazten dabe ardurabakuak.

De esta manera, ganan a los dos lados los sinvergüenzas.

ONTZAKO-URRIA. Onza de oro (moneda).

Ez zan indianorik erlojo katian ontzako-urria ez ebanik.

No había indiano que no llevara una onza de oro en la cadena del reloj.

ONTZAKO MALLUBIXAK. Fresas de cultivo.
Komentuko baratzatik ontzako mallubixak ekarri deskuez.

Nos han traído fresas de cultivo de la huerta del convento.

ONTZI. Elemento que se une a los adjetivos para acentuar un sentido peyorativo.

Alperontzi aundi bat zara zu!

Zatarontzi aundi bat eiñda dago.

ONTZIA. Una onza.

Urretan batu eban, damaskiñoko biarleketako zakarretan, ontzia.

En las barreduras de los obradores del damasquinado, reunió una onza de oro.

ONTZIA. Con acento prosódico en la *o*, forma nominal del verbo *ondu*.

Gaiztuak ontzia zan aren amesa.

Su sueño era hacer buenos a los malos.

ONTZITADIXA. Batería de peroles. Por antonomasia, los de la cocina.

Aren arrioko ontzidadixa, dana burdingorritzkoa.

Toda la batería de cocina de su arreo era de cobre.

ONTZIXA. Util de cocina.

Atzeratizu sutatik ontzixa.

Atrasa del fuego el perol.

ONTZIXA. Sobreentendiéndose *itxas-ontzixa*, embarcación.

Badira gaur irurogei milla tonelada eta geixagoko ontzixak.

Hay hoy en día buques de más de sesenta mil toneladas.

ONTZIXAK. Plural colectivo de los útiles de cocina.

Lenago burdingorritzko ontzixak.

Antes los útiles de cocina eran de cobre.

ONUTZ. modo adv. Hacia aquí.

Egun guztian beiñ, agertu zaittez onutz.

En un momento cualquiera del día, haz una vuelta hacia aquí.

ONYUAK. Hongos. Variante de *ondjuak*.

Onyuak, uda azkenian ernetzen dira ugari.

En el otoño los hongos brotan en abundancia.

OÑA. Pie. sinón. *ankia*.

Lurrian oña ipiñi baño len esan zetzan...

Antes de poner pie en tierra, le dijo...

OÑA. Medida longitudinal. Un pie.

Berrogei t'amar oñeko gerrixa neurtu zetsen tantai ari.

Un tronco de cincuenta pies le midieron a aquel árbol gigante.

OÑ - ARRIXA. Fundamento, cimiento, piedra de apoyo.

Pedro jarri eban bere Elizian oñarrizat.

Puso a Pedro por fundamento de su Iglesia.

OÑASTARRIXA. Meteorito.

Oñastarrixa jausi zan Eguarbitzan.

OÑASTUA. Relámpago. sinón. *txinbistia*, *tximistia*.

Eten bako oñastuegaz, zeruak zidurixan sutan.

Con relámpagos que se sucedían sin parar el cielo aparecía en llamas.

OÑASTUAK EIN. ver. impers. Relampaguear.

Oñastua eiñ dabela beittandu jata.

Se me ha figurado que ha sido un relámpago.

OÑASTUAK IZAN. ver. impers. Relampaguear.

Oñastuak izan ziran gau illunian, eta ondoren gortutzeko trunboiak.

Relampagueaba en la noche oscura y seguían truenos ensordecedores.

OÑATI. Geografía. Oñate.

Oñati'ko kastaña eziagaz eiñdako saria.

Una cesta fabricada con castaño verde de Oñate.

OÑAZPIXA. Planta del pie.

Oñ-azpixon kili-kili aundixa eukan.

Tenía una gran rasquera en la planta del pie.

OÑETAKUAK. Calzado.

Oñetakuak biar zittuen etxeko ume guztiak.

Necesitaban calzado todos los niños de casa.

OÑEZ. modo adv. A pie.

Oñez eta dirurik barik munduan ziar...

A pie y sin dinero por el mundo...

OÑEZKORIK NAI EZ ETA ZALDUNIK AGIRI EZ.

Se dice de las que se quedan para vestir santos, por pretender más de lo conveniente.

Oñezkorik nai ez eta zaldunik agiri ez, neska zar geldittu zan, ainbeste aukera izan zittuan bat.

No queriendo a los de a pie y no presentándosele caballero alguno, quedó soltera una que tuvo

tantos pretendientes.

OÑEZKUA. Peón, es oposición a *zalduna*.

Zaldunak esan zetsan oñezkuari: nik zaldi ederra

baña zuk buru obia.

Eta zoyan oñezko bat bidian...

Dijo el caballero al peatón: yo buen caballo pero vos mejor cabeza.

E iba un peatón por el camino...

OOH! Voz con que se manda parar el ganado.

iAida eta ooh, tabernako atian gara!

OPA. Regalo, donación.

Osasuna, zeruan opa bedinkatua!

¡La salud, bendito regalo del cielo!

OPA EZ. ver. tran. No tener voluntad de...

Ez detsa opa tximinixako kedarría.

No le tiene voluntad ni del negro de la chimenea.

OPA IZAN. ver. tran. Dar o desear las cosas a uno con alegría, con buena voluntad.

Zeruak opa deigula izan osasuna eta eguneroko ogixa.

Emoten dana, opa izan biar da alaitasunakin, San Paulo'k erakusten deskun bezela.

Que el cielo nos propicie el pan de cada día.

Lo que se da, debe ser con voluntad y alegría,

según nos enseña San Pablo.

OPAKIZUNA. Regalo.

Erastun au, nere maittian opakizuna.

Esta sortija es regalo de mi amado.

OPARIXA. Ofrenda.

Loi bako bildots guri guri bat eruan eban oparizat,

Jaungoikuan etxera.

Un cordero craso y sin mancha llevó como ofrenda

a la Casa de Dios.

OPARO. modo adv. Liberalmente.

Oparo eskiñi zeskun etxian eban guztia.

Nos ofreció liberalmente todo lo que tenía en casa.

OPATSUA. adj. Generoso, desinteresado.

Zan gizon bat opatsua, bererik ezer ez eukana.

Era un hombre dadivoso, que no tenía nada

propio.

OPATU. ver. tran. Ofrendar, regalar.

Jaungoikuan aldarán opatu eban arkumerik

gurixena.

En el altar de Dios ofrendó el mejor de sus

corderos.

OPATUTZIA. forma nominal del verbo *opatu*.

Kain eta Abel'ek, bixak eitten eben opatutzia

bakotzak bere ondasunetatik.

Cain y Abel, ambos sacrificaban cada uno de sus

bienes.

OPERAZIÑUA. Armería. Cada una de las

operaciones en que se divide el trabajo.

Antxiñako ofizio nausi guztiak, operaziñuetan

zatittu ziran, fabrikia etorri zanian.

Los antiguos oficios principales se dividieron en

operaciones, cuando vino la fábrica.

OPILLA. Torta de pan.

Elgeta-kaleko Andres labarixan opillak eta

tremesak, gozuak jateko.

OR. dv. de lugar. Ahí.

Or dator errenka zuen ardi galdua.

Ahí viene cojeando vuestra oveja prdida.

¡OR! modo adv. Ahí, enfático.

Or zure ibilleren ondoria!

¡Ahí tienes las consecuenecias de tus andanzas.

ORAIÑ. adv. de tiempo. Ahora. En Eibar domina la variante *oiñ*.
Beste sasoi batzuetan genduzen amesak giñanian amesetan, oraiñ gauza eiñak.

ORAIÑA. Lunar.
Bere arpegi ederrian oraiñ bat eban aiñ egoki jarritta eze, bere edertasunari grazia bat geitsen zetsan.
En su hermoso rostro tenía un lunar, tan bien situado, que añadía una gracia más a su hermosura.

ORAIÑDIK. modo adv. Desde ahora. Variante: *oiñdik*.
Oraindik aurrera ez naiz zure laguna.
De ahora en adelante no soy tu amigo.

ORAINTE. modo adv. Ahora mismo. Más común en Eibar su forma sincopada *oiñte*.
Orainte etorri da; ez dau eldutzia baño.
Ahora ha venido; no ha hecho sino llegar.

ORAÑELA. Orinal.
Orañeletik kanpora diarduzu...

ORATU. ver. tran. Agarrar, detener.
Oratixozu gerri gerrittik...
Mutiko batek, eskutik oratuta erabiltzen dau danera.
Oratu dabe lapurra.
Agárrale de la cintura...
Un muchacho, agarrado de la mano, le lleva a todas partes.
Detuvieron al ladrón.

ORATU. ver. tran. En materia de juegos y competencias, aceptar una apuesta o un reto.
Itziar'kuan kukurrukuari Elgeta'kuak oratu ei detsa.
Dicen que el de Elgueta ha aceptado el reto del de Iciar.

ORATUGARRIXA. Agarradero.
Lapiku orrek oratugarrixa biar kuke obia.
Ese puchero necesitaría mejor asa.

ORATUTZIA. forma nominal del verbo *oratu*.
Burdiña gorixari eskuakin oratutzia balitz...
Si fuera el agarrar con la mano un hierro candente...

ORATZIA. *oratutzia*.
Naixago eban subian oratzia, ari eskua emotia baño.
Oratzia dauka, nai deixanian, eiñ detsaran errekauari.
Lapurra oratzia zan kontua, bana eziñ izan eben.
Prefería agarrar una culebra que darle la mano.
No tiene sino aceptar cuando quiera el recado que le he mandado.
La cuestión era detener al ladrón, pero no lo pudieron.

ORAZIÑUA. Oración, plegaria. Sinón. *Otoiza*, que en Eibar se conoce por la literatura.

Aitta-guria da Nazaret'kuak erregu danen ordezko laga zeskun oraziñua.

El Padre Nuestro es la oración que el de Nazareth nos dejó como sustituto de todas las demás.

ORBANA. Mancha, melladura. Vocablo muy usado en la armería. fig. Pecado.
Orbandu dozu akabautako kaxia.
Gure orbanak ¿zeñek garbittu?
Ya has mellado la culata que está terminada.
¿Quién habrá de lavar nuestras culpas?

ORBANDU. ver. tran. Manchar, mellar, hollar.
Orbandu dabenak ate au, berak zurittu deixala.
Quien haya manchado esta puerta, que la lave él mismo.

ORBANDUTZIA. forma nominal del verbo *orbandu*.
Orbandutzia eiñ dozu beintzat.
Estropear ya lo has hecho al menos.

ORBANTZIA. *orbandutzia*.
Konturik ez eukitziana da orretara orbanzia gauzia.
El estropear así la cosa es por no tener cuidado.

ORBE. topon. Caserío en Eibar.
Orbe'ko Gergorio, bersolari amorratua ei dago.

ORBEA. patron. Apellido antiguo en Eibar.
Orbea'tarren etxia, antxiñakua Eibar'ko armerixan.

ORBELA. Hoja caída, que el viento acumula en las hoyadas del monte.
Amar burdikada orbel saldu zetsazen Irai'kuak Bolingo'kuari, berak jasotzekotan.
El de Iraegui vendió diez carretas de la hojarasca al de Bolingua, a condición de que la recogiera él.

ORBELTZIA. Montón de hojarasca acumulada por el viento.
Sakon artan, bazan orbeltzia aiziak batuta.
Qué cúmulo de hojas en aquella hondonada, reunidas por el viento.

¡ORDAGO! Seguramente: *iOr dago!*, "ahí está".
Ordago, museko esakeria.

ORDAINDU. ver. tran. Pagar. En Eibar prevalece el erderismo *pagau*.
Pagau esan biarran, badogu euskeraz berba zuzena au aitzen emoteko: ordaindu.

ORDAINDUTZIA. forma nominal del verbo *ordaindu*.
Obeto eiño zenduke zorrak ordaindutzia.
Haría mejor el pagar las deudas.

ORDAINTZIA. *ordaindutzia*.
Ez da erreza gure zor guztiak ordaintzia.
No es fácil pagar todas nuestras deudas.

ORDEZ. modo adv. En lugar de, a cambio de.
Aitta zarran orde, semiak eitten dau aren lana.
Diruan orde, nai dan guztia dago mundu onetan.

En sustitución del viejo padre, el hijo hace su labor.
A cambio de dinero hay todo lo que se quiera en este mundo.

ORDEZKUA. Sustituto.
Aitta ordezkuan beyan gizon eiñ da.
Bajo su padre putativo se ha hecho hombre.

ORDIA. Compensación, el equivalente, otro igual.
Galdu netsun liburuan ordia emongo detsut.
Te dará otro igual por el libro que te perdí.

ORDIAK EIÑ. ver. tran. Hacer las veces, sustituir.
Juan jatzun mutillan ordiak eiñgo detsuraz, a kanpotik dan artian.
Te haré las veces del criado que se te ha marchado, en tanto él esté fuera.

ORDIAZ. modo adv. A título de devolución, a cambio.
Ordiaz emon desta liburu au irakorri deiran.
Me ha dado este libro a título de devolución, para que lo lea.

ORDIAZKUA. adj. de prestado, prestado.
Gaur zure anaya, Alkate ordiazko dago.
Arek daroyan soñekua, ordiazkua dau.
Hoy tu hermano está en funciones de alcalde.
El vestido que lleva es de prestado.

ORDITU. ver. pronom. Emborracharse, degradarse.
Neurrixan eran, ordittu ez, au da gizonak eiñ biar dabena.
Beber en una medida, no emborracharse, es lo que debe hacer el hombre.

ORDITUTZIA. forma nominal del verbo *ordittu*.
Jai egun guztietan eukan arek ordittutzia.
Todos los días de fiesta se emborrachaba.

ORDITZIA. *orditutzia*.
Neurrixan eratia ona ei da; orditzia, animalixen azpittik jartzia.
Se dice que es bueno beber moderadamente; el embriagarse es ponerse por debajo de los animales.

ORDIXA. adj. Borracho habitual, con nota de repugnante. sinón. menos peyorativo: *mozkorra*.
A gizon ordixa, kalerik kale famelixian lotsagarri.
Aquel borracho iba de calle en calle siendo la vergüenza de la familia.

ORDUA. Hora.
Ordua da egunan ogetalau partetiko denbora zati bat.
Eldu jatzu, ume, lotarako ordua.
La hora es una de las veinticuatro parte en que se divide el día.
Te ha llegado, niño, la hora de acostarte.

ORDUAK JUAN ETA ORDUAK ETORRI. Loc. adv. Pasando las horas...
Orduak jua eta orduak etorri, amen nozu zeure zaiñ egun erdixan.
Hora va y hora viene, aquí me tienes esperándote durante medio día.

ORDUAN. adv. de tiempo. Entonces.
iOrduan bai izango da gure poza!
¡Entonces si que será nuestra alegría!

ORDUAN. modo adv. Exacto, a la hora.
Orduan eldu naiz.
He llegado exacto.

ORDUANDIK. modo adv. Desde entonces.
Orduandik ez dot ikusi geixago zuen aitta.
Desde entonces no le he vuelto a ver a vuestro padre.

ORDUANTXE. adv. de tiempo. Entonces mismo.
Orduantxe galdu zan betiko.
Entonces se perdió para siempre.

ORDUBETE. Espacio de una hora.
Ordubeteko arrantzak eiñ dittu zure umiak.
Tu niño ha hecho lloros de una hora entera.

ORDUKO. modo adv. Para entonces. síncopa de *ordurako*.
Orduko eiñda eukan dirua.
Para entonces ya tenía hecho el dinero.

ORDURAKO. modo adv. Para entonces.
Ordurako benderatuta eukan izan eban gaitza.
Para entonces había vencido la enfermedad que sufrió.

ORDURIK ORDU. modo adv. De hora en hora.
Antxiñako gau-zaintzalliak ordurik ordu kantau biar izaten eban zer egualdi zan kanpotik.
Los serenos de antaño solían tener que cantar de hora en hora el tiempo que hacía fuera.

ORDUTIK ORDURA. modo adv. Lo mismo que *ordurik ordu*.
Ordutik ordura doya, geruago ta gaizkixago.
De hora en hora va empeorando.

OR-EZPENGO. (*Or ez baengo.*) Nombre que le quedara en Eibar a una propiedad poco afortunadamente situada.
Bolingua'n eta Sansaburu'n bittartian zan Orezpengo.

ORI. Elemento enfático en los vocativos.
iEz zaittez urreratu ona, lotsagarrixori!
¡No te aproximes acá, sinvergüenza!

ORI. pron. demost. Ese.
Ori da ni galdu guran ibilli zana.
Ese es el que anduvo queriendo perderme.

ORIA. Masa pastosa.
Ogi-oria, labara aurretik...

ORIA. Nube. Vacila con *odia*.
Nere poztasunan zeru urdiñian oria agertu da.
En el cielo azul de mi dicha ha aparecido una nube.

ORIATU. ver. impers. Nublar.
Goi-garbi atara dau goizian, baña eguardixa baño len, oriatu dau, oda illun illunekin.
Ha amanecido azul, pero antes del mediodía ha nublado con nubes oscuras.

ORIATU. adj. Nublado.
Oriatu dago gaur goizetik.
Hoy está nublado desde la mañana.

ORIATUA. adj. Nublado (participio).
Egualdi oriatua daukagu gaur.
Hoy tenemos tiempo nublado.

ORIATU EGON. Estar nublado.
Oriatu dago gaur egun guztian.
Hoy está nublado durante todo el día.

ORIATUTZIA. forma nominal del verbo *oriatu*.
Obe oriatutzia baleu gaur, euzki galdatan ez ibilli biar izateko Elgeta'rako bidian.
Mejor si nublara hoy, para que no tengamos que andar bajo un sol de justicia el camino a Elgueta.

iORI DOK ORI! interj. con que se aplaude alguna cosa.
iOri dok ori! iBeste arraratxo bat eta onduta daukak goizekua!

ORIORIA. Variante de *ogioria*. Masa de pan.
Oriora apur baten eske, juan zaittez Ermua'rretara.
Vete a por un poco de masa de pan donde los E.

ORIXA. Color amarillo.

Sagar-umau ori orixak, Gabonetan maira ataratzeko.

Manzanas sahumadas, amarillas de oro, para sacarlas a la mesa por Navidad.

ORIXE. pron. demost. con el determinante *xe*. Ese mismo.
Orixer berberori da ondamedi au ekarr dabena.
Ese mismo, el mismo, es el que ha traído toda esta ruina.

ORIXUA. Aceite. Vacila con *olixua*.
Orixua, koipia baño merkiago erosten da.
El aceite se compra más barato que la manteca.

ORITU. ver. pronom. Palidecer. U. t. c. tran.
Gizajua argaldu eta orittu da, etorri jakon lauremiñakin.
Urrez orittu dau ao guztia.

El pobre se ha vuelto flaco y amarillo, con la ictericia que le ha sobrevenido.
Ha amarilleado toda la boca con oro.

ORITUTZIA. forma nominal del verbo *orittu*.
Garixak sailletan orittutzia, garillian.
En julio se doran los trigos en las heredades.

ORITZIA. *Orittutzia*.
Begixen zurixa oritzia, lauremiña datorren siñalia.
El ponerse amarillo lo blanco de los ojos es señal de ictericia.

ORIZKIA. adj. Amarillento.
